

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte

Bertso hautaketa: Felix Irazustabarrena Arsuaga

Bertso transkribaketa: Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez, Arnaitz Lasarte Santa Kruz, Rosita Anakabe Solabarrieta, Maria Izaga Agirre

Kronikak: Felix Irazustabarrena Arsuaga

Iritzi artikuluak: Mintzola Fundazioaren bidez, Xabier Sukia Etxeberria, Gorka Azkarate Torner, Joxerra Garzia Garmendia, Arkaitz Goikoetxea Arriola, Jone Miren Hernandez Garcia, Xabier Paia Ruiz, EHUKO IXA Taldea, Teresa Del Valle Murga, Andoni Egaña Makazaga, Jexux Larrañaga Arriola, Anaís Falcó Ibañez eta Christian Simelio Sola, Pere Bescós Prat, Olatz Mitxelena Garmendia

Audioen bilketa eta prestaketa: Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez, Oihana Aranburu Balerdi, Eneritz Urkola Agirrezabala

Doinuen azterketa: Min**Doinuen azterketa:** Mintzola Fundazioaren bidez, Joanito Dorronsoro Goikoetxea, Martin Aramendi Arana

Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez, Alberto Elozegi Erdozia, Gari Garaialde Etxaburu

Azaleko irudia, diseinua eta maketazioa: Lanku Kultur Zerbitzuak

Koordinazioa eta zuzenketak: Martin Aramendi Arana, Jexux Murua Gorostidi, Karlos Aizpurua Etxarte, Gontzal Agote Los Santos, Jon Agirresarobe Lopetegi

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

© LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.

.....

Argitaratzailea:

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Kale Nagusia 70

20150 Amasa-Villabona

e-maila: bertsozale@bertsozale.com

<http://www.bertsozale.com>

LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.

Martin Ugalde Kultur Parkea z/g

20140 Andoain

e-maila: lanku@lanku.com

<http://www.lanku.com>

.....

I.S.B.N.: 978-84-941261-8-5

L.G.:

.....

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetzea intelektuaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa, jabetza intelektuaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

....

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

....

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatua



Aurkibidea

KRONIKAK ETA BERTSO HAUTATUAK

Argibideak 7

Atarikoak 9

Kanporaketak

Amasa-Villabona 12
Markina-Xemein 24
Hendaia 42
Altsasu 56
Legazpi 72
Oion 88

Finalaurrekoak

Gernika-Lumo 114
Tolosa 128
Oiartzun 144
Murgia 160

Elizondo 176
Donostia 196
Maule-Lexarre 216

Finala

Barakaldo 240

IRITZIAK 351

ERSNAKINAK

Bertso doinu berriak Txapelketan 406
Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia 418
Txapelketaren antolaketa eta egitura 420
Bertsolari partehartzaileak 424
Sailkapena 431

ARGIBIDEAK

Liburu honetako bertsoak Bertsozale Elkartek kaleratutako *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* izeneko irizpideetan oinarrituta transkribatu dira.

Bi zutabetan daude bertso lanak idatzita. Lehenik, ezkerreko zutabea irakurtzen da goitik behera, eta ondoren, eskuinekoa.

Erantsita doan CDan bertsoaldi guztien audioak aurkituko dituzu.

ELKARLANA

Lanak aurreratuta gentozen. Sustapen taldeak deituta 2012. urteko ekainean bildu ginen 43 lagun Amasa-Villabonan. Bertsolariak, gai-jartzaileak eta epaileak, elkarteko kideak denak elkarrekin Txapelketak bertsolaritzari nola eragin behar dion gogoetan. Hiru helburu nagusi izan ditu bertsoaren olinpiadak: bertsogintza erdigunean jarri eta txapelketaren jantzia doitzea, bertsolaritzan lanean ari diren eragileen arteko elkarlana bultzatzea eta bertsolaritzan nahiz euskal kulturgintzan zazpi herrialdetan egiten den lana erakustea.


Irudi soilarekin, publizitate partida txikiagoarekin baina kohesio handiz hasi genuen txapelketa. Soil baino sendo. Ez baliabide gutxiago izan dugulako, hala erabaki genuelako baizik. Engranajeak uztartzea izan da inbertsio handiena. Ez da kasualitatea izan Txapelketa Nagusia Amasa-Villabonan hastea, Mintzola Fundazioaren eta Bertsozale Elkartearen egoitzatik metro gutxira. Bigarren geldialdia Markina-Xemeinen egin zuen Txapelketak, Bertso Eskolen urteko festan. Euskalduntze mugimenduari elkarlanean ia 80 saio didaktiko egin dira Euskal Herri osoan zehar. Genero ikuspegia txertatu da aurkezpenetan, euskarrietan eta muntaia lanetan. Mintzola Fundazioak txapelketa ikertzen ere lagundu du, eta Barakaldoko terraza zientifikoan bildu ditu ikerlariak eta atzerriko aditu nahiz arituak esperientziak kontrastatu eta etorkizuneko proiektuei bide egiteko. Elkarren osagarri izan dira www.bertsozale.com eta www.bertsoa.com eta Hitzetik Hortzerak zuzenean eskaini ditu finalaurreko guztiak.

Ondoan izan ditugu bertso eskolak, zazpi herrialdetan laguntza handia izan dugu. Herriz herri taldeekin bildu, herriko bertsozaletasunaren egoera ezagutu, Txapelketa Nagusia aurkeztu eta helburu bateratuak jarri dira. Elkarlana ez baita oholtza muntatzeko laguntza eskatzea bakarrik. Eskerrik asko guztiei emandako laguntzagatik. Bestalde, Bertsozale Elkarreak eskerrak eman nahi dizkie Txapelketaren babesleei eta urtero-urtero proiektuak laguntzen dituzten erakundeei. Horrez gain, eskuzabalik hartu gaituzten herriei ere asko daukagu eskertzeko. Elkarlanean sinesten dugu eta elkarlanean egiten dugu lan.


Bertsogintza erdigunean jarri asmo zuen Txapelketak. Oholtzako jarduera ahalik eta biluzien bistaratzea izan da lehen pausoa. Etorkizunean bertsolari, gai-jartzaile eta epaileen elkarlana izango da giltzarri. Bertsolaritzan lortu den kohesio maila bertsogintzan ere lortzea.

Eskerrik asko guztioi!

BERTSOZALE ELKARTEA
ZUZENDARITZA BATZORDEA



KANPORAKETAK



Odei Barroso Gomila



Iker Zubeldia Katarain



Alaia Martin Etxebeste



Jon Martin Etxebeste



Nerea Elustondo Plazaola



Fredi Paia Ruiz

AMASA-VILLABONA

2013-09-29, IGANDEA, 17:30

OLAEDERRA KIROLDEGIA

KANPORAKETAK: LEHEN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Odei Barroso Gomila

Iker Zubeldia Katarain

Alaia Martin Etxebeste

Jon Martin Etxebeste

Nerea Elustondo Plazaola

Fredi Paia Ruiz

GAI-EMAILEA: Jon Zaldua Brit

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Udazkenean izaten da Txapelketa Nagusia. Villabonako saioan uda betean gaudela dirudi. Bero dago Olaederra kiroldegia. Saioa alboan dagoen Behar-Zana pilotalekuan iragarrita bazegoen ere, jendearen eskaera ikusita lekuz aldatu behar izan da. Bien alboan dago baita ere, Subijana etxea, Mintzola Fundazioaren eta Bertsozale Elkartearen egoitza. Xenpelar Dokumentazio Zentroaren kokaleku ere bada. Txapelketako liburuxka baliatu dute bertsozaleei hor gordeta dugun altxorraren berri emateko, eta berau nola erabil daitekeen azaltzeko. Bide motza egingo dute gaurko bertsoek bertan gordetzeko. Bide motza bide luzea izan dezaten.

Saioa hasi aurretik bota ditu euri tanta batzuk. Beharbada horregatik jendea azkar sartu da kiroldegira. Sarrerak egun pare bat lehenago salduta, antolatzaileek aurrez bazekiten beteko zela. Mila bertsozale inguru (970) pasa dira ateetatik. *Harituz* (eskualdeko bertsozaleen bilgunea) aritu da sarrera kontrolatzen, eta gero denek abaniko moduan erabili duten Txapelketako liburuxka banatzen. Kazetari, epaile, kamera... dena prest barruan, eta ordua baino lau minutu geroago igo dira sei bertsolariak, Jon Zaldua gai-emailea gidari dutela.

Mila lagun Olaederran, eta beste hainbat sarean, *www.bertsoa.comen* bidez zuzeneko jarraipena egiten. Hasierako agurrean 221 ikus-entzule eta saioa aurrera joan ahala 336ra iritsiko da.

Agurretan ia denek aipatu dute beroa. Bukaerako agurrean Iker Zubeldiak oilaskoa *mikroondas* barruan bezala sentitu dela aitortu du. Bera izan da, Iker, saioan puntu gutxien lortu dituen, baina beharbada publikoarekin gehien konektatu duena. Irabazle, berriz, Jon Martin, bere arreba Alaia Martinen aurretik. Biak nahi zituen aurrena haien amonak eta ia-ia. Aurrera, finalaurrekoetara joateko moduan izango dira. Eta biek batera egin dute saioko bertsoaldi umoretsuenetakoa.

Kartzelako gaia irekia izan da, istorioa asmatu beharrekoa (aurrerantzean izango denaren bide erakusle). Gaurkoan gertakizun baten lekuko izatean osatu beharra zuten eta bik trafiko istripu bat kontatu digute, beste bi bortxaketa baten lekuko izan dira eta beste bik tratu txarrak izan dituzte kantagai. Saioko bi neskek bortxaketa hautatu dute, eta beharbada bertsoaldi ederrenetakoak osatu dituzte. Odei Barrosok doinu berria ekarri du, eta kartzelakoan erabili du.

Lehenengo epaiak eta lehen puntuak eman dira gaurkoan. Itxura batean lehen hirurak, Jon Martinek, Alaia Martinek eta Nerea Elustondok aurrerako pausua eman dute. Ez dirudi Iker Zubeldiak sartzeko aukerarik izango duenik eta beste biak, Odei Barroso eta Fredi Paia, dira batez ere beste saioetako emaitzei begira egon beharko dutenak. Hor nonbait izango da sailkapen marra.

Hasi da 2013ko Txapelketa Nagusia, eta Villabonak erakutsi duen bidea jarraitzen badu, saio beroak, jendetsuak... eta onak izango ditugu.

HASIERAKO AGURRA

O. Barroso

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator iparraldetik*

Jo zenbat jende ta abaniko!
Atsalde on Villabona
zaudeteneri eta etorri
ezin duteneri hona.
Azken asteetan entzule nuen
bertso eskolako horma
ea gaur behintzat har dezakeen
edukiak bere forma.
Zerbaki batek ez du erranen
zer den txarra zer den ona
batzuendako sei bertsolari
neretzako sei pertsona.
Jolas honetan denok dakigu
zer den jokoan dagona
egin dezagun gurea baina
izan dadila denona.



ZORTZIKO HANDIA

F. Paia – I. Zubeldia

Gaia: Euskal Herrira uda pasatzera etorritako Saharako bi haur zarete. Itzulerako hegazkinaren zain zaudete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

F. Paia:

Herri honetan ikasi dut nik
bizitza ona maitatzen.
Gure ama dabil basamortuan
landare sustraia batzen.
Aizu Abdula zer dala eta
ez gara hemen geratzen?
Hemengo haurrek guztia dute
baina ez dute baloratzen. (bis)

I. Zubeldia:

Joanez gero egongo gera
askatasun egarri
ta geldituta ezin da jakin
gure herriaren berri.
Aerportuan Mohamed ta ni
biok gaude nahiko larri
hemendik inor ezin eraman
ta handik ezin ekarri. (bis)

F. Paia:

Eta Tindufen gosetea ere
biderkatu zaigu aurten
amak ez daki hamabirentzat
aina bildu ote dezakeen.
Geratu eta euskara ikasi
behar dugu guk hainbaten
jada ikasi dut “Eskerrik asko”
ta “Eman gehiago” esaten. (bis)

I. Zubeldia:

Eskatuta´re ez hartzea´re
gerta liteke ordea.
Begira zazu lurralde honek
hartu duen kolorea:
Jainkoak dira *play stationa*
eta ordenadorea.
Uste al dezu leku hau dala
gurea baino hobea? (bis)

F. Paia:

Play stationan truke prest nago
Ala haundia saltzeko.
Ahots bat dabil airoportuan
guk biok enbarkatzeko
monitorea agertu zaigu
hortik kopeta beltzeko.
Amets egiten jarrai dezagun
egun batez bueltatzeko. (bis)

I. Zubeldia:

Begietara atera dira
malkoaren zipriztinak
maitatzen ditut Euskal Herriko
mendiak eta jardinak
maitatzen ditut adiskideak
ta famili atseginak.
Mohamed hemen gelditzen naiz ni
amonari eskuminak. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

J. Martin - A. Martin

Gaia: Zuen alabaren futbol-partida ikustera etorri zarete. Zu, Jon, lotsatuta zaude,
Alaia oihuka ari baita partida hasi denetik.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Martin:

Alaba hortxe dabil
bere hanka trebez
ikusteko genuen
hamaika interes.
Animatzea oso
normala da berez
zu oso harro zaude
baina alaba ez. (bis)

A. Martin:

Bere pasioa da
aspaldi futbola
neuronekin egiten
duzu zuk kirola.
Esaten duzu lotsa
handiaz dagola
egoera txarretara
ohituko da hola. (bis)

J. Martin:

Nere emazteakin
hementxe lotsati.
Zer esan behar zaio
horrelako bati?
Aulkiaren gainetik
“Arbitro penalti!”
Eta baloi bat zer den
ia-ia ez daki. (bis)

A. Martin:

Ez dakidala ezer
dago agerian
baina ze ilusio
dudan aurpegian.
Benga, jarri gaitezen
zelaian erdian
gola sartu du eta
bere porterian. (bis)

J. Martin:

Bere porteriana
noski ez da burla
holako lotsaik ez dut
pasatu sekula.
Kamuflajezko niki
hori disimula
uste nun ezkutuan
pasa nahi zendula. (bis)

A. Martin:

Kamuflajeko traje
ta holako zapatak
dauzkat apurtu nahian
alabaren markak.
Kezkatzen nau hark duen
punteria faltak
nere indarra dauka
eta zure hankak. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Martin

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Sukaldaritza dugu aspaldian modan

baina nik ez dut jartzen
askotan aproban
tortilla irteten zait
saltxitxaren forman.
Saio on bat sukaldatu
nahi dut Villabonan.

Elikadurarekin zaindu osasuna.

Zuretzat har ezazu
esan didazuna
aholku emateko
a ze gaitasuna!
Denetik jatea da
nere erantzuna.

Ekologikoa da oso garestia

baina goxo, sano ta
benetan ezia.
Transgenikoak sortu
ohi dit angustia
hala ere jaten dut
dagoen guztia.

N. Elustondo

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Nola prestatu duzu aurten txapelketa?

Ez det asko prestatu
alperra naiz eta.
Hala ta guztiz nator
indarrez beteta
nere mamu guztiak
etxean gordeta.

Lagun asko biltzen da bertso eskoletan.

Nahiz ta kale egiten
dedan batzuetan
giro oso ederra
dagoenez bertan
joaten segi nahi nuke
hogei bat urtetan.

Bertso eskolen eguna Markinan da aurten.

Nik ezin dedala joan
burutik ezin ken
bainan animo pila
ari naiz ematen
joaten direnek ondo
pasatu dezaten.

HAMARREKO TXIKIA

O. Barroso – N. Elustondo

Gaia Herentzian, zuen amonaren bitxiak jaso dituzue. Zuk, Odei, saldu egin nahi dituzu denak. Nereak ez.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

O. Barroso:

Nahi honek handitzen dit
bihotzan taupada
nik baditut bi seme
bakarra alaba.
Aspaldian etxean
miserian gara
saldu nahiko nituzke
bitxi hoiek hara:
urrea alperrik da
ogirik ez bada.

N. Elustondo:

Krisiak familiei
eman dion *kaña*
nik'e sentitu det bai
ez zaitez engaina.
Hala're zertan egin
holako *hazaña*?
Bitxiak bertan utzi
Odei alajaina
ta nik emango dizut
ogitako aina.

O. Barroso:

Hori egoki denik
aizu ez dut uste
okerrera baikoaz
urterikan urte
ez ezberdintzeraino
zeru eta lurpe.
Bitxiak ez saltzea
nahiago zenuke
baina lasai amonak
ulertuko luke.

N. Elustondo:

Bitxi-dendara joan
nahi zenduke aurrez
beste buelta bat eman
zaiozu mesedez.
Erabakia ez zazu
hartu horren errez
amonak ulertuko
luke hori berez
baina ez luke nahiko
eta nik ere ez.

O. Barroso:

Urrezkoa bitxia
urrezkoa luma
hoiei begira pasa
izan dut eguna.
Ez dakigunez zer den
bihar datorkiguna
bitan bana dezagun
Nerea laguna
ta zure parteakin
egin nahi duzuna.

N. Elustondo:

Hortan ez det ikusten
hainbeste problema
neronek erostea
agian onena
dirua're eskeini
dezaket hurrena
bestela izango degu
munduan barrena
hileko jana eta
bizitzako pena.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

KARTZELAKO LANA

J. Martin

Gaia: Lekuko izan zara nahi gabe. Ez dakizu zer egin.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Abokatuak deitu berri dit*

Goiko pisuan eztabaida bat
oihuz, karrasiz, intziriz.

Entzun nahi ez ta entzun beharra
tokatu nire belarriz.

Eskilaratan gora joan naiz
iristeko presa biziz
ta emaztea han atera da
lurra odol ttantaz bustiz.

Bizilagunak jo egiten du
gaurkoan behin eta berriz.
Inork ikusi nahi ez lukeena
ikusi dut nire begiz. (bis)

Egia berez gauza ona da
ta nik ez dut ukatuko

baina batzutan egia batzuk
ez dira gure gustuko.

Apenas diren haiek ezagun
nahiz ta izan hain gertuko
nahi ez dudala bilakatu naiz
indarkerian lekuko.

Hiru-lau aldiz pentsatu arren
deitu egin dut ta punto
putakume horrek ez du berriro
beste inor ikutuko. (bis)

Dirudienez gizarte hontan
zerbait egin dugu oker
basakeria zabaldu baita
munduan bazterrik bazter.
Ta pentsatu dut ertzainei deitu
behar niekeela laster
baina buruak hala esaten dit
“Ez, ez da gertatu ezer”
ta bapatean nere barruan
beldurak egin al dit leher?
Deitu dezaket ta nere bila
etortzen bada gero zer? (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Onintza Enbeita Maguregi




Jone Uria Albizuri



Eneko Fernandez Maritxalar



Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"



Beñat Ugartetxea Ostolaza



Agin Laburu Rezola

MARKINA-XEMEIN

2013-10-05, LARUNBATA, 17:30

UDAL PILOTALEKUA

KANPORAKETAK: BIGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Onintza Enbeita Maguregi

Jone Uria Albizuri

Eneko Fernandez Maritxalar

Eneko Abasolo Txabarri “Abarkas”

Beñat Ugartetxea Ostolaza

Agin Laburu Rezola

GAI-EMAILEA: Idoia Beitia Izurrategi

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Txapelketako bigarren saioa Markina-Xemeinen. Eta hau baldintzatu duten bi ekimen behintzat izan dira. Bertso Eskolen Eguna hasita zegoen goizetik eta elkarrekin bazkaldu duten ehun lagunetik gora bertsolariak animatzera agertu dira pilotalekura. Bilbon *Herriraren*¹ aldeko manifestazioa zegoen. Aurkezleak egin du horren aipamena, jaso du bertaratutakoen txalo zaparrada eta ia bertsolari guztiek aipatu dute agurretan.

Jendea jakinaren gainean dago Bizkaiko txapelduna, Arkaitz Estiballes, ez dela kantuan izango eta Eneko Abasolo “Abarkas” izango dela ordezkoa. Zale, lagun, batzuk atera dute nonbaitetik denbora, eta gutxienez bi pankarta badira iurretarra animatzeko. Guztien beharra izango duela dirudi, baina ondo baino hobeto aterako da atakatik.

Badago saioa hasi aurretik zalantza hori. Seikotetik lau dira lehenengo Txapelketa Nagusia dutenak. Baina bertsolariek saioa egingo dute. Bertso hobeak, ez hain onak... entzungo ditugu, baina maila emango dute eta saioak erritmoan eta espektatibetan ondo eutsiko dio.

1. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsan ari den herritar taldea da. Zuzendaritza taldeko kideak atxilotu zituzten astean zehar.

Saioak bi izar izango ditu, bertsotan gehien egin dutenak: Agin Laburu eta Jone Uria. Biek ere, batez ere ofiziotan, oso maila altua ekarriko dute. Astigarragakoa bere estiloa markatzen hasi da Txapelketan eta algortarrak seguru eta fresko egingo du bertsotan.

Besteek ere freskotasuna ekarriko dute. Hala ere hauek, seitik lauk, ez dirudi aurrera segitzeko aukerarik izango dutenik.



Argazkilaria: Alberto Elosegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HASIERAKO AGURRA

J. Uria

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Bertso eskolen eguna
eta Txapelketa ze *guay!*
Denak izan behar zuen
gaur festa, ospakizun, jai
baina batzuk ez direnez
gu bakean uzteko gai
astea ez dugu pasa
umoretsu eta lasai.
Nahiz zaila den mantentzea
esperantzaz eta alai
hemen herri bat badago
ez dutena ikusi nahi
gaur Bilbon ikusiko da
eta Markinan ere bai.(bis)

ZORTZIKO TXIKIA

B. Ugartetxea – E. Abasolo

Gaia: Koadrila bereko bi lagun zarete. Herriko jaietan, tiralekuan edo tiropitxoian zaudete. Enekok hiru pelutxe lortu ditu dagoeneko, eta zuk, Beñat, ez duzu zotz bakar bat ere jo.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

B. Ugartetxea:

Jaietan ari gara
jira eta bira
tiropitxoia ere
hau da hau *mobida!*
Berrogei zotz aurrean
tarte hontan dira
ta azken baten ez dakit
ze zotzeri tira. (bis)

E. Abasolo:

Alkoholak okertzen du
nahi gabe zuzena
eta zotzez aurrean
bete zaigu dena.
Pixka bat arintzeko
zuk daukazun pena
zuretzat izango da
nire laugarrena. (bis)

E. Abasolo:

Zotz bateri jotzea
ez da izaten errez
nahiz eta nola egin
adierazi aurrez.
Hurrengoan joko duzu
kasu egin mesedez
ondo daukazun hankan
apoiatu zaitez. (bis)

B. Ugartetxea:

Baina ez zait gustatzen
orain zure plana
merituz lortu nahi dut
nik herrian fama
jakizu balintxo hau
azkenengoa dana
ea behintzat jotzen dudan
aurreko jitana. (bis)

B. Ugartetxea:

Horretan saiatzen naiz
ezin dizut uka
baina zotzekin daukat
kristoren burruka
gainera kanoia ere
ezin dut izkuta
nere hanka bezala
dago okertuta. (bis)

E. Abasolo:

Zure pentsamentua
ez dugu normala
jakin ondoko hori
gizontzat daukala
ta jitanari sartzen
badiozu bala
harek jarriko zaitu
pelutxe bezala. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

J. Uria – A. Laburu

Gaia: Elkarrekin lan egiten duzuen sukaldari bi zarete. Zuk, Jone, 10 kilo hartu dituzu azken urtebetean. Aginek, berriz, 10 kilo galdu ditu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Uria:

Tomatea, letxuga
a ze entsalada!
Ta gero indabekin
kriston platerkada.
Hamar kilo hartu ditut
normala da hara
dena probatu behar
baita badaezpada. (bis)

A. Laburu:

Baina gero baskulan
hori da trantzea
orratza baitaukazu
goraino altxea
hazi zaizu aurrea
ta hazi atzea
lau kilo almondiga
ez da probatzea. (bis)

J. Uria:

Lau kilo almondiga
jaten ditut bale.
Eta zer baldin banaiz
albondiga zale?
Zuk ez duzu probatzen
ez plater, ez ale
zurea horren ona
ez dugun seinale. (bis)

A. Laburu:

Jone, biyok ez degu
kontu hontan antzik
nik ez det faltan bota
piper eta gatzik
eta ez naute kezkatzen
holako hainbat auzik
ni ez bainaiz gizentzen
bezeruak baizik. (bis)

J. Uria:

Baina duzu itxura
hain penagarria
nik bete-bete sano
daukat ai gerria.
Hark argaltzeko hartu
duenez neurria
laster ni izango naiz
Robinfood berria. (bis)

A. Laburu:

Denok *Robinfood* hori
bezela bagendu...
Askoz hobia dezu
idea hori kendu
razioa txikia
behar da mantendu
Arzak zerbaitegatik
ez baita gizendu. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Laburu

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Ezagutzen al duzu
San Mames barria?**
Bilbotarrentzat degu
ikaragarria
dirua Gobernuak
propio jarria
ez dakit nun daukagun
batzutan neurria.

**Polita bada baina
garesti xamarra.**
Horregatik zegoen
lagundu beharra
nunbait mugitzen baita
Bizkaian zakarra
baina eskertzen dute
denek barra-barra.

**Bertso finala bertan
ospatu ezkerok?**
Ni juango naizenik
ez zazu espero
Estiballesek gaur hau¹
egin eta gero
gauza normaltzat joko
degu honezkero.

1. Arkaitz Estiballesek uko egin zion Bertsolari Txapelketa Nagusian kantatzeari.

HAMARREKO TXIKIA

A. Laburu – E. Fernandez

Gaia: Anaiak zarete. Oraintxe jakin duzue zendu berri den zuen amak beste seme bat ere bazuela. Zuk, Agin, ezagutu gura zenuke; Enekok, oster, ez.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

A. Laburu:

Amaz gogoratzen naiz
gaur artean gauka
bere presentzi horrek
bizirik dirau ta.
Hirugarren anaia
nahiz ta ez guk hauta
zilbor-hesteek tira
ta bihotzek taupa
bera ezagutzeak
txarrik ba al dauka?

E. Fernandez:

Hura ezagutzea da
gaur zure desira
ta ez zaitea jarri
haserre begira.
Nik dudan haserrea
nolatan deskriba?
Anai berria dugu
ze einen zaio tira!
Ez badigu kontatu
zerbaitengatik da.

A. Laburu:

Begiratu ezker
gaur egun hemendik
inbiriya sortzen dit
makina bat sendik.
Ezagutzeko inoiz
ez genun baimenik
zerbaitengatik ez zun
esango izenik
baino zergati hori
jakin nahi nuke nik.

E. Fernandez:

Hil zen ta ja ez gara
erantzunan jabe
beraz idea horrek
burutikan alde.
Paradisu genuna
agian urkabe.
Nik jarraitu nahi nuke
bertze anairik gabe
nire konpainiak
ongi ez al zaude?

A. Laburu:

Batak bestea ez du
kentzen eta aitu
bidea begi bistan
ez zaigu amaitu.
Nahiz eta egoerak
Eneko, gogaitu
hasitako bidea
nahi nuke jarraitu
berak ere igual gu
ezautu nahi gaitu.

E. Fernandez:

Baina ez zaite mintzatu
bere izenean.
Ze atsekabe dudan
bihotz barreanean!
Bera ezautzeko nahian
ta itxaropenean
Nik ez dut izautu nahi
gaur den egunean
igual aldatuko naiz
etorkizunean.

E. Abasolo – J. Uria

Gaia: Oraintxe amaitu duzue ume bat adoptatzeko prozesua, eta iritsi da umea hartzeko garaia. Umeak bi neba-arreba dituela jakin duzue. Zuk, Eneko, hirurak adoptatu nahi dituzu; Jonek bakarra.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

E. Abasolo:

Nola ez den iritsi
umerik mundura
adoptatzea biok
hori gendun gura.
Bat edo eta hiru
daukagun ardura
nik denak nahi nituzke
ekarri ingurura
gure poza ez dadin
bihurtu tristura. (bis)

J. Uria:

Umeentzat ez genuen
behar aina sormen
adopzioa bide
onena nabarmen
baina baten lekuan
orain hiru omen
ta zuk hirurak hartu
nahi dituzu hemen
badakigu gero nork
zainduko dituen. (bis)

E. Abasolo:

Korrika ariko naiz
eskuin eta ezker
pardelak aldatuaz
hor bazterrik bazter
baina imajinatu
ai zein une eder!
Plazer bat izango da
ta umeei esker
beti poztuko gara
biok hiru bider. (bis)

J. Uria:

Hiru bider pozteak
badu nahiko pisu
ta beraz ez daukazu
ez beldur ez izu.
Aita gisaz nahiz izan
zintezkeen maisu
gastuak ere bider
hiru dira aizu!
Zure langabezia
ahaztu al zaizu? (bis)

E. Abasolo:

Beti zabilta kexu
“Eske, eske, eske...”
badakit ez da izango
guzti haxe merke.
Lotsak ahaz ditzagun
joan gaitezen eske
zuen etxean bada
mila kaja bete
zure aitan fabrikan
bada horrenbeste. (bis)

J. Uria:

Ta aitaren fabrika
aipatuta *en fin*
hortik atera gura
hainbeste etekin
baina eztabaidatzea
nik ez dut atsegin.
Bale, abenturari
diezaiozun ekin
bostok biziko gara
gutxiagorekin. (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Laburu

Gaia: Orain arte maiz ikusten zenuten elkar. Aste bi dira zu ikustera etorri ez dela.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz


Doinua: *Txikitatikan edukia dut*

Nola kartzelan ordu libreak
nahi baino gehio dauzkagun
bisita denak izaten dira
itxaropenaren lagun.
Baino zein ez da zein etorri dan
ta zein ez kontatzen jardun?
Nahiz pasa zenbait ezagun
egiya aitor dezagun:
“Atta bi astez ez dek etorri”
nerekiko maiz esan nun
baino ez dakit ez zun nahi edo
oraindik ezin izan dun. (bis)

Harreman bat guk berreskuratu
eta denboran atzera
ez ote degun egin zalantzan
nago lehenago antzera.
Eztabaidak maiz izan genitun
politikan arabera
Urkullu zalia bera
ni berriz beste aldera
baino haserre hau pasa eta
lasaitzen bada norbera
abertzaliak izan baino lehen
atta ta semia gera. (bis)



Hamabost egun pasako zitun
bere etxian egoskor
baino semiak daukan lotura
ta barne senen zorrak zor
berriro ere etorriko da
bisita eginez emankor
berrogei minutu altxor
ni hemen eta bera hor
kristal lodi bat tartian jarritz
ta jakitun nor degun nor
matte nauenik ez dit esango
baino horregatik dator. (bis)



O. Enbeita

Gaia: Orain arte maiz ikusten zenuten elkar. Aste bi dira zu ikustera etorri ez dela.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Ama izatea baino
desiorik ez gehiago
amama egin ninduten
urteetan aurrerago.
Iloba ikusten nuen
denak baino ederrago
ikustera joaten nintzen
ia egunero, *klaro*.
Gaur egun residentzian
nago ez da hain arraro
ilobaren falta hartuta
hementxe nago luzaro
mundua aurrera doa
ta ni hemen geldik nago. (bis)

Hemen zer dago ba: hiru
saloi triste ta zazpi mahai
egun guztiak berdinak
ez astegun eta ez jai.
Nahiz ilobaren bisitak
jarriko nindukeen alai
saiatu nahi dut egoten
bere esperoan lasai.
Hau hain da leku tristea
hau oso tristea da, bai
hemen dagoenez hainbat
heriotz eta hil usai
ni ezin naiz joan eta
berak ez du etorri nahi. (bis)

Hemen egunik gehienak
joan egiten dira joan
guztiok itxaropentsu
datozenen arrastoan.
Bisitarik gabe nago
berriro ere gaurkoan
nire minak, nire penak
denak hartuta kolkoan.
Ilobari ezin esan
“Etorri hona atoan”
baina barre bat jantziko
dut gaur be lotarakoan
ta bihar esnatuko naiz
etorriko delakoan. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

B. Ugartetxea

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Hiltzerikan ez nuen*

Nahiz eta egin dudan
neure ahalegina
auzora juango da
gaurko etekina.
Pena da saia arren
eskeini ezina
hurrengo baten izan
beharko du Markina.
Mila esker, mila esker
ea elkartzen garen laster. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elosegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Iban Urdangarin Lardizabal



Felix Zubia Olaskoaga



Julio Soto Ezkurdia



Iñaki Apalategi Astigarraga



Amaia Agirre Arrastoa



Iñaki Zelaia Irazusta

HENDAIA

2013-10-12, LARUNBATA, 17:30

BELTZENIA EZKER PARETA

KANPORAKETAK: HIRUGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Iban Urdangarin Lardizabal

Felix Zubia Olaskoaga

Julio Soto Ezkurdia

Iñaki Apalategi Astigarraga

Amaia Agirre Arrastoa

Iñaki Zelaia Irazusta

GAI-EMAILEA: Alaitz Rekondo Ferrero

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Hendaia eguzkitsu agurtu du Txapelketa Nagusiko hirugarren saioa. Jendea goiz iritsi da Beltzenia ingurura. Sarreran zain zeuden petodun boluntarioak, Hendaia Bertsozale Taldea, eta salmentako zenbait mahai: saioz saio mugitzen den *Lankuren* produktuak eskaintzen dituen, Gipuzkoako eskola txikien kamisetak eta Baionako Kolegioko bidaiarako mahaitxoak. Guztiek agurtu dituzte inguratu diren ia mila bertsozaleak.

Barruan bitartean lanean da jendea. Etorri ez direnak ase nahian dabiltzan bi hedabide adibidez. *Info7* ordu erdi lehenago kontu-kontari hasi da. Gaurkoan hendaia bat, Maddalen Arzallus, laguntzaile dutela. Eta *www.bertsoa.com*. Lau konexio saiakera egin arren ordubete lehenago konektatu ezinik aritu da. Biek zuzenean eskaini nahi zuten Beltzenian gertatuko zena. Interneteko telebistak azken momentuan lortu du seinalea bidaltzea. Kalitate gutxiagorekin, baina moztu gabe. Bat egin duten 300 internautek eskertuko zuten.

Iragarritako ordutik bi minutu bakarrik pasa direnean hasi da sintonia abisua

ematen. Alaitz Rekondok bertsolariak agurtu, eta segidan bertsolariek agurtu dituzte entzuleak. Beltzenia ezker paretak berotzeko gogo handia zuela ikusi da hasieratik, baina akaso kosta egin da lortzea. Zortziko handiak dramatiko samarrak izan dira, eta arrazoi potolo batzuetatik harago ez da saiorik biribildu.

Zortziko txikian gora egin du saioak eta hortik aurrera gorabeherak izan badira ere, eutsi dio giroari eta mailari. Egia da akats tekniko batzuk, dexente beharbada, egon direla. Baina horrek ez du erritmoan eta giroan asko eragin. Bukaeran, eta akatsak akats, saria jaso dutenak Julio Soto, saioko irabazlea, eta Amaia Agirre izan dira. Besteek zain egon behar badute ere, badirudi beraien Txapelketa hemen bukatuko dela. Batzuk zapore onez, besteak tristeago.

Gehien aipatu diren lanak hauek: Amaia Agirrek eta Felix Zubiak hamarreko txikian egin dutena eta seguruenik aurrera egingo duten bien bakarkako lanak. Amaia Agirrek oso gertuko gaia hautatu du; Julio Sotok erritmo geldoan kantatu ditu hiru *Habanera*, ia-ia komunikazioa eteteko puntuan.

ZORTZIKO TXIKIA

I. Zelaia-I. Urdangarin

Gaia: Bikotea dira. Iñakik autokarabana bat erostea izan du amets. Azkenean, erosi dute, baina oporretara doazen aldiro, Ibanek nahiago du hotelera joan.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

I. Zelaia:

Nik Iban konbentzitzen
zer-nolako lana!
Mendira egin nahi nuen
asteburuz plana
hoteletan gastatuz
gure diru dana
adornotako al degu
autokarabana? (bis)

I. Urdangarin:

Ni're garai batean
hain gaztea nintzen
poxpolo kaja baten
mundua korritzen
baina zu ezagututa
ia ez naiz harritzen
nazka-nazka egin naiz
platerak garbitzen. (bis)

I. Zelaia:

Beraz platerarekin
eskutako mina
beraz horrek izan du
kriston eragina
praktika gehio izango
zenuke jakina
etxian gehiagotan
ariko bazina. (bis)

I. Urdangarin:

Parking xelege baten
kanpora begira
kantantzilo zikinak
polsan sartuz tira.
Tortilla xelege baten
gosean neurrira
horrelako oporrak
oporrak al dira? (bis)

I. Zelaia:

Alper hutsa zera ta
ez egin negarrik!
Saiatu ezker egin
leike plan earrrik.
Zerbeza hartu eta
zu sofán bakarrik
hortako ez dago etxetik
atera beharrik. (bis)

I. Urdangarin:

Autokarabana hau
Iñakiren kalten.
Ia aspertuta nago
zopa zaharrak jaten.
Gaur lo egin behar det
tres estrellas baten
ta zuk aparka zazu
hotelaren aten. (bis)

A. Agirre- I. Apalategi

Gaia: Iñakik orain dela 10 minutu bukatu du egongela garbitzen. Amaia bikotekidea etorri, eta Iñakik pasatu duen leku beretik pasatu du zapia berriro.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

I. Apalategi:

Hartu zapi zuria
ta jarri trabeska.
Sala danan pasaran
egin det erreska.
Ta zu atzetik zatoz
luparekin kezka
astean behin pasata
nahikoa da neska! (bis)

A. Agirre:

Zukin astean lautan
zenbat konpromezu!
Ez zera ondo ari
ta ni beti kexu.
Suabe pasatzen duzu
baina aizu, aizu!
Mina hartzen duela
pentsatzen al dezu? (bis)

I. Apalategi:

Nik suabe pasatzen det
behin mopa pasata
ta gero sofán jarri
ertzean botata.
Zu terremoto gisan
hortxe riki-raka.
Amaia ondo zaindu
betirako da ta. (bis)

A. Agirre:

Zurekin behar badet
hasi eta buka
etxeko egoera
hobe aldatuta
Ai! Begira ze galtzak
mekauen la fruta!
Ta uste du ditula
ondo plantxatuta! (bis)

I. Apalategi:

Nere galtzak egiten
dute enbarazu
Horren ximurak ere
ez daude ba aizu!
Zure estilo hori
nahiago baduzu
hurrengoan zerorrek
plantxatu itzazu. (bis)

A. Agirre:

Maite det bera baina
hain nago etsita!
Trapo zuriz horrela
eiten dit bisita.
Galtzak nola txukundu?
Nago sinetsita
ondo gerauko dira
ni gainen jarrita. (bis)



LEHEN PUNTUA EMANDA

F. Zubia

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Une oro gabiltza
mugikorrarekin
mensajeak jasoaz
ekin eta ekin
ezer ez esateko
azkenean *en fin*
konpainiek jai pixka't
badute nerekin.

Entzuten duzunean
telefono hotsa?
Dardarka ipintzen zait
kolpetik bihotza
maite bat badet eta
ez det horren lotsa
eguneko poza det
Susanan ahotsa.

Ta iristen denean
hileko faktura?
Poltsikotan zuloa
eskuak burura
Susanai esateko
garaia heldu da:
"Ahoz aho hobe da
gure abentura".

J. Soto

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Elizak omen daude
gero ta hutsago
ta hala daudelako
ni kontentu nago.
Nahiz eta apeza den
fedearen mago
bere jerarkia behingoz
kendu beharra dago.

Aita Santu berria
ta Eliza zaharra
lehenago Benedikto
ta karka xamarra
ta berri honek dauka
betiko iparra
norabide hori dago
aldatu beharra.

Azkenekoz noiz joan
zinen elizara?
Ba komunioa zen
diot beharbada
ostia hartu nuna
bertatik bertara
ta orain joan gabe
hobe bizi gara.

HAMARREKO TXIKIA

F. Zubia- A. Agirre

Gaia: Lagunak dira. Urte anitz daramate herriko gaztetxean lanean. Amaiak Felixi erran dio zahartzen ari direla eta gaztetxea alde batera uzteko garaia dutela. Felixi ez zaio hala iruditzen.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

F. Zubia:

Ez zait asko gustatu
zure albistea
kolpetikan zahartzea
ez al da tristea?
Nahiago det herria
ametsez jostea
lehen lortuei berriz
gogorki eustea.
Amets egiten duna
ez al da gaztea? (bis)

F. Zubia:

Nahiz ta kendu zidaten
bai gazte-txartela
oraindikan Amaia
ez jarri eskela
zurrutean, parrandan
badegu nibela,
txarangakin saltoka
bertsotan bestela
guregandikan zerbait
ikas dezatela! (bis)

A. Agirre:

Zure zimurrek nahiz ta
maiz eman atsegin
berrogei urterekin
ezer ez da berdin.
Nahiz mantentzeko egin
nahi aina ahalegin
erritmo eta festan
ez degu zer egin
gure koadrilakoen
seme-alabekin! (bis)

A. Agirre:

Felixek hausten dizkit
hamaika eskema
baina sinisten du ta
nun dago problema?
Esate'ute "Attona
hara datorrena".
Guk tragoak ordaintzen
ta hustu barrena
gure kontu edaten
da ikasi dutena! (bis)

F. Zubia:

Aitona Felix naiz bai
modu goxonian
Zarauzko gaztetxian
deitzen nautenian
ta traguak atera
modu zuzenian.
Erretiratu zaite
zure izenian
nik deskantsatuko det
hiltzen naizenian. (bis)

A. Agirre:

Nik ere nahiko nuke
zuk aina aguantan
baina adin honetan
indar pixka't falta.
Atera zerbeza ta
pintatu pankarta
zure omenez eginez
gaur festa galanta
gora gaztetxea ta
gora patriarka! (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Agirre

Gaia: Lor zenezakeen guztia lortu duzu, baina jendeak ez dizu begirune handiegirik.

Neurria: Hamabikoa, handiaren mnoldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Txikitatikan edukia dut*

Gure kaxa ezin haurrik ekarri	Ardo txarretik eman ondoren
bi emakume izaki	ozpin diren mila trago
ta intseminatze prozesua da	badet koadrilan babeseta eta
gure ezinen estalki.	bikotea det abaro.
Ta haurdunaldi multiple batek	Baina aita-amak gertu banitu
digu pakea ebaki	hori nukeen nahiago
bost fetu, bost bizi zati	lur jota ez nago zeharo
bihurtu nahian gizaki.	amagai naiz ta akabo!
Bostekin ezin ta hiru kentzea	Begirunerik ez daukat baina
nahiz ta biok erabaki	borrokatzeko prest nago
hemendik inoiz pasa ez danak	gugan bi bihotz ikus ditzaten
ze gogorra dan ez daki! (bis)	bi alu baino lehenago. (bis)

Batzuk esango dute “Amaia
nolako neska ausarta!”.
Ama izan nahi det baina ondoan
gizonezkoak lagata.
Bai haurdun gaude hau egia da
zeinen amets on, aparta!
Lasai atera pankarta
jaso eskuak goraka
baina etxean arazo bat det
eta ezin det aguinta
ametsa bete baina aita ta
aman oniritzia falta. (*) (bis)

I. Zelaia

Gaia: Lor zenezakeen guztia lortu duzu, baina jendeak ez dizu begirune handiegirik.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Empresariales karrera
nuen nere gustokoa.
Nota onez atera nun
ez zen izan oztopoa.
Gero lan bat aurkitu nahi
eta gero gerokoa
herriko aurrezki kutxan
egin zidaten txokoa.
Bentanillan izan nuen
nere lehenengo puestoa
eskalatzeko izan det
abilidade nahikoa
bankuaren goi kargura
iristeko ainakoa. (bis)

Beraz aurkeztu nahi nuke
nere dimisio karta:
“Agur banoa” esanez
sinadura eta data.
Hasi nahi nuke nik beste
gurdi batetik tiraka
lan apalago batean
nere hurrengo etapa.
Agur nere traje beltzak
ta agur nere gorbata
ta are okerragua
adio nere soldata
lagunak edukitzeak
preziorik ez dauka ta! (bis)

Peoi, igeltsero edo
irakasle zein mediku
batere neurririk gabe
eman degu hainbat kreditu.
Orain garai txarrak datoz
eta ezin errenditu
ta epaile baten aurrean
gurea ez da delitu.
Kalean kaso egin gabe
bakarrikan naiz gelditu
jende honentzako ezin det
irtenbiderik aurkitu:
krisi honek trapu zikin
gehiegi atera ditu. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

J. Soto

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz


Doinua: *ETAren su-etenetik*

Gaurko helburu hutsa ez zen
puntuz jostea saskia
aldarrikapen bat ere
bazen gaurko arrastia
Hendaiatik Mauleraino
herri baten argazkia
hotz dago Larrun antena
bero Izpegi azpia
Seaskari muxu handi bat
itxaropenez bustia
segi euskara zabaltzen
irtengo da eguzkia
hizkuntza galtzen bazaigu
galduta dago guztia. (bis)

Argazkilaria:


Gari Garaialde /

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)




tsolani
ka pelike
gasi





Oihane Perea Perez de Mendiola



Xabier Silveira Etxeberria



Erika Lagoma Pombar



Jexux Mari Irazu Muñoz



Beñat Gaztelumendi Arandia



Unai Agirre Muñoz

ALTSASU

2013-10-13, IGANDEA, 17:30

BURUNDA PILOTALEKUA

KANPORAKETAK: LAUGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Oihane Perea Perez de Mendiola

Xabier Silveira Etxeberria

Erika Lagoma Pombar

Jexux Mari Irazu Muñoa

Beñat Gaztelumendi Arandia

Unai Agirre Goia

GAI-EMAILEA: Iker Iriarte Iribar

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Altsasun bildu da gaur bertsozale tropela. Berriro ere aretoa, pilotalekua, gainezka. Ostegunerako Interneten bidez sarrerak agortuta zeuden. Igandea delako agian. Saio erakargarria delako ere izan liteke. Berotzen doa Txapelketa. Erantzungo al zaio espektatibari?

Galdera asko zituzten inguratutako 800 lagunek, eta erantzunak bertsolariek. Ederra izan da. Saio betea entzun ahal izan dugu Burunda pilotalekuan. Seiak maila ederrean aritu dira, batzuek oso goian jarri dute listoia eta epaileek ere, emandako puntuen arabera, lau bertsolari jarri dituzte aurrera pasatzeko bidean.

Saioak hasiera beroa izan du zaleei esker. Eta kasu honetan zaleak, jarraitzaile sutsuak. Denak berea animatzera etorriak direla dirudi. Hasiera horretan ez dira txaloak, oihuak, eta bonbo astinduak falta, baina gero, eta bertso maila ia saio osoan oso goian ibili bada ere, ez da entzuleen aldetik lehertu, kartzelakoetan izan ez bada.

Batez ere bakarkako lanak gaurkoan aipatzekoak, denek asmatu baitute horretan. Hala ere, Jexux Mari Irazurena eta batez ere Beñat Gaztelumendirena dira azpimarratzekoak. Unai Agirre ere dotore aritu da honetan ere Txapelketarako propio prestatutako doinuarekin. *Bizkorra ez naiz baina badaukat izena jarriko diote beharbada, horrela hasi baitu bere lehen bertsoa.*

Saio ona atera da eta puntuazioek ere hori adierazi dute. Hemengo lau pasatuko dira finalaurrekoetara, eta ziur asko zer esana emango duten bertsolariak izango dira.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZORTZIKO HANDIA

B. Gaztelumendi-U. Agirre

Gaia: Bikotea zarete. Kreditu txartela lapurtu dizuete. Salaketa jarri, eta gaur jakin duzue zuen alabak erabili duela.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

B. Gaztelumendi:

Gure etxean ez degu izan
ez goserik ta ez hotzik.
Pentsatzen nuen etxean denok
ibiltzen ginela pozik.
Alabak bere txanponen faltaz
inoiz ez du egin hitzik
ni lapurtzeak ez nau kezkatzen
eskatu ez izanak baizik.

U. Agirre:

Etxe guztitan da miseriya
berdin hemengo ta hango.
Langabezian ondo gaudenik
orain ez dizut esango.
Lapurtu digu txartela eta
etxetikan urrun dago
bai baitzekien eskatu ezker
ez geniyola emango.

B. Gaztelumendi:

Urrun joana izan liteke
guretzat kate astuna.
Sortu genuen familia ta
hatzean det eraztuna.
Berak hautatu duen bidea
degu bidetan estuna
amodioak ematen baitu
diruak lortzen ez duna.

U. Agirre:

Ondo pentsatu beharra degu
esaten ni naiz hasiko
gure alabari zernahi egiten
ere ez diyogu utziko.
Salaketakin segi ezker
ni ez nintzake biziko
ta salaketa kendu ezker
ez du inoiz ikasiko.

B. Gaztelumendi:

Azkenekoa zen koadrilan ta
azkenekoa klasean
ez nuen uste zebilenikan
ordea galdu antzean.
Hamasei urte ta familia
ezin da utzi atzean.
Lasai, berriro bueltatuko da
kreditua bukatzean.

U. Agirre:

Ez dezu bota aizu maitia
hain arrazoi borobila:
bi mila euro bakarrik daude
ta gastatu ditu mila.
Neronek ere desiatzen det
lehenbailehen etor dadila.
Bere guraso biok gera ta
Beñat goazen bere bila.

ZORTZIKO TXIKIA

E. Lagoma- X. Silveira

Gaia: Zuk, Xabier, Erikari eskatu zenion zure ezkontzako bideoa egiteko. Gaur, bideoa entregatu dizunean, ikusi duzu kasik ez zarela bideoan agertzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

X. Silveira:

Aurretik imajina
nezake haxe bai
maiz erran baitidazu
konfiantzan lasai
ez naizela senar on
bat izateko gai
ta arrastorik ez al
zenuen utzi nahi? (bis)

E. Lagoma:

Zortea dut Xabierrek
gaur ez banau hiltzen
hasi naiz amorrua
ta oihuak biltzen.
Ikasi beharko zenu
lasaio bizitzen
objetiboan ez zinen
osorik kabitzen. (bis)

X. Silveira:

Hautsi ditut hainbeste
lege eta arau
joan ez naizen lekuak
ere mila ta lau.
Jendeak esango du
inoiz bistan banau:
“Bere ezkontzara’re
ez zen azaldu hau”. (bis)

E. Lagoma:

Hori autokritika
a ze izpiritu!
Umore onak beti
alde onak ditu.
Bere ezkontza’re ez zen joan
joder ze delitu!
Lasai jendeak ongi
ezagutzen zaitu. (bis)

X. Silveira:

Ezagutzen nau baino
kanpotik bakarrik
barrutik ez baitaukat
hain joera txarrik.
Ezkontzaz inoiz banaiz
aspertu samarrik
hontan ez dut izango
dibortzio beharrik. (bis)

E. Lagoma:

Hortan jarraitu zazu
zuk burua altu
eta txikikeri hau
egin zazu ahaztu
baina zuk ere egin
duzu gaur pekatu
oraindik ez didazu
soldata pagatu. (bis)

J.M. Irazu-B. Gaztelumendi

Gaia: Zuek negozioa zenuten elkarrekin. Beñat duela gutxi jubilatuta bazen ere, egunero agertzen zaizu lantokian.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J.M. Irazu:

Biyok tailer bat eta
adina amaitu
baina deskantsuakin
al zera etsaitu?
Etorri gabe ezin
al zara lasaitu?
Edo eta andreak
baltzen al zaitu? (bis)

B. Gaztelumendi:

Keba andrearekin
ez nago aldrebes
baina tailerra aspaldi
ez doa hain errez
ta hona etortzen naiz
kezkutzen naizenez
jubilatuta naiz baina
erretiratu ez. (bis)

J.M. Irazu:

Erretiratu ez ta
bota du jo ta su.
Hori hola ote dan
ez dakit ba aizu.
Lehengoko serbizio
berbera daukazu:
lehen lana nahiko gutxi
orain enbarazu. (bis)

B. Gaztelumendi:

Garai batean nintzen
hemengo izarra
ta orain ni langile
ta hala're ni txarra.
Kotxe konpontzeko zen
tailer on samarra
ta orain berak dauka
konpondu beharra. (bis)

J.M. Irazu:

Kotxe tailerrarena
hain da lan lizuna
bakarrik beteko det
nik eginkizuna
zuk etxean daukazu
emazte kuttuna
zuri ITVa
pasako dizuna. (bis)

B. Gaztelumendi:

Horko *Renaulta* dago
ai olio premiz
besteak berriz ura
baju dauka neurriz.
Segi zazu lanera
intentzio haundiz
bihar goizean hemen
izango naiz berriz. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

B. Gaztelumendi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Umoretik aspaldi
nahiko pobre gaude.
Beltzez jantzi zera ta
ez da nobedade
txapelketan gabiltza
irri egin gabe
gaur zerbait lortu nahiko
genuke hala're.

Osasungarria da
barre egitea
posible dunarentzat
nolako suertea!
Nik behintzat daukat nahiko
bizitza betea
ta parrez uxatzen det
barruko nekea.

Barre faltsua ere
badago ugari
begiraiozu nere
eskubikoari.
Nahiz saioa gelditu
zaidan nahiko haundi
ondo banebil gisa
parrez zera ari.

U. Agirre

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Etxean zenbat traste daukagun alperrik!

Gure amaren iritziz
ez du ezer txarrik.
Horrekin Unai dago
aspertu xamarrik.
Trasteak izateko
ez degu beharrik.

Zu dena gordetzeko zalea al zara?

Nik bota egiten det
eiten badu traba
geroni ere sarri
traban egon gara
botako ote gaituzten
badaukat ikara.

Birziklatzen al duzu sobran daukazuna?

Horretan egiten det
ahal dedan jarduna.
Baina berez ni ez naiz
pertsona txukuna
ta sobran gauza gutxi
daukat nik laguna.

HAMARREKO TXIKIA

O. Perea- J.M. Irazu

Gaia: Zuk autokarabana bat duzu aparkalekuan. Gaur bertara joan zarenean, zaratak entzun dituzu. Begiratu, eta Jexux Mari aurkitu duzu barruan.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

O. Perea:

Goizean goiz joan naiz
ni karabanara
mutilakin joateko
Pirineotara.
Barruan hotsa entzun dut
barre ta algara
atea zabaldu dut
eta hara! Hara!
Zertan zabiltza hemen
galdu ote zara?

J.M. Irazu:

Bai bai galduta nabil
modu nekosoan
etxerikan ez eta
pausoan-pausoan
pentsatu det aterpe
hartzea auzoan.
Desberdin behar degu
ez modu gozoan
zuk Pirineotarako
nik urte osoan.

O. Perea:

Arrazoi galanta da
hori la ospera!
Zerk eraman ote nau
burges bihurtzera?
Gaua gogorra izan da
egia horixe da
hotza ere egiten du
izotza sobera
nahi al duzu joatea
kafe bat hartzera?

J.M. Irazu:

Jatorra dirudizu
baino ez du inporta
euskalduna, normala
maite du borroka
kafesnea eskeini
ta beroa opa
baino ez naiz joango
hobe bertan koka
gero agian ez naiz
berriz sartuko ta.

O. Perea:

Kafearen eskeintza
ez zen despedida
pizza mahaian utzita
gaur zure segida
kafea hartzera ez duzu nahi
ta ez urrutira
gure karabana hontan
baduzu kabida
nahi baduzu etorri
gurekin mendira.

J.M. Irazu:

Atsegina litzake
mendiko pakea
polita Pirineo
mendiko partea.
Zuekin joatea
litzake suertea
baino aukeran nahiago
nik ba ez joatea
estimatuko nuke
giltzak ematea.

E. Lagoma-U. Agirre

Gaia: Maitaleak zarete. Erika, Unaik esan dizu hau izango dela elkar ikusiko duzuen azken eguna.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

E. Lagoma:

Konpromisurik eza
hori da problema
nahiz ta maiteminduta
daukazun barrena
ihesari begira
jarri duzu sena.
Azken gaua omen da
ta hartu dut pena
azkena bada izan
dadila onena. (bis)

U. Agirre:

Neri pasa zitzaidan
burua galtzea
eta ibilia naiz
txoroen antzea.
Erika gauzak ondo
hoi da kontatzea
gaur egin behar deguna
uxatu trantzea
ondo hasitakoa
ondo bukatzea. (bis)

E. Lagoma:

Bide goxoa genun
aukeratuta guk
norantza aldatzea
hautatu duzu zuk?
Baina pasa ditugu
une eder batzuk
emaidazu muxu bat
nere muxuen truk
ta irripar batekin
oroituko zaitut. (bis)

U. Agirre:

Holakotan jartzen naiz
belaka xamarra
ulertzen zaila da ta
ez zaite hasarra.
Itzaltzen badijoa
nere barru harra
nahiz ta amodioak
ez galdu indarra
aspaldi sentitzen det
aldatu beharra. (bis)

E. Lagoma:

Ba bilatu ezazu
barruko pakea
erdi gris badaukazu
zure aldartea.
Nik gaur ez dizut joko
hemen jo ta kea
gerora bueltatzea
ez denez kaltea
ederki dakizu non
dagoen atea. (bis)

U. Agirre:

Guk ezagutzen degun
modu zaharrenean
igual bueltatuko naiz
hamargarrenean
bainan ezin da segi
modu herrenean.
Nahiz ta orain nagoen
nere txarrenean
beti toki bat dezu
nere barrenean. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

KARTZELAKO LANA

B. Gaztelumendi

Gaia: Gaia ateratzen duzun bakoitzean, gaiz aldatzen du.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Mahaiko entsalada degu
ordu erdiz ahoratu
egunean zehar pasa
zaigun dena gogoratu
lagunen mila istori
ta laneko mila datu
bi urteko harremanak
hori izaten baitu tratu. (bis)
Bere begi itzalitan
begiak ditut iltzatu
eta hala galdetu diot:
“Zer pasatzen da? Kontatu!”
Ezer pasa ez balitz gisa
halaxe du gaiz aldatu.
Baina zergatik ezin dit
begitara begiratu? (bis)

Ezagutu ginenean
zenbat mimo zenbat kasu!
Goizero jeikitzen ginen
elkarrekin irrifartsu.
Egunak enpalagoso
“Maite zaitut” “Maite nauzu?”
baina urruntzen hasiak
ote gera pausuz pausu? (bis)
Gaur dena azaleko gai
ta elkarrizketa antzu
bai badakit zeozerek
egin dizu enbarazu.
“Zer duzu?” galdetu eta
mutu geratu zera zu
ez didazu ezer esan
ta dena esan didazu. (bis)

Begi parean malkotan
dauka puztuta, betea
ta kolpera lehertu zaio
esanezinen nekea.
Masailan bera doazen
malko latzen atakea
“Ez nago ondo” esan dit
ta baretu aldartea (bis)
“Zalantzak dauzkat laztana
ze nahi dezu esatea?”.
Nik hala erantzun diot:
“Zabalik dago atea.
Behar den denbora dena
lasai har zazu maitea
zor didazun bakarra da
zoriontsu izatea”. (bis)


BUKAERAKO AGURRA

U. Agirre

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hirurogeita hamasei urte*

Nahiz ta etxetik etorri naizen
danak hausteko ideian
txapelketa da hondar ale bat
bertsolaritzaren deian.
Antolatzaile ta Elkartia
animo ta segi lehian
gu beti hemen egongo gera
oholtza goian edo behian.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Oihana Bartra Arenas




Igor Elortza Aranoa



Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"



Beñat Lizaso Alberdi



Jokin Uranga Isuskitza



Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo

LEGAZPI

2013-10-19, LARUNBATA, 17:30

URBELTZ PILOTALEKUA

KANPORAKETAK: BOSGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Oihana Bartra Arenas

Igor Elortza Aranoa

Iñigo Mantzizidor Larrañaga “Mantxi”

Beñat Lizaso Alberdi

Jokin Uranga Isuskitzea

Ainhua Agirreazaldegi Rekondo

GAI-EMAILEA: Unai Elizasu Lertxundi

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Urbeltz pilotalekuan dugu gaurko zita. Hego-haizeak ekarri du bertsozale sutsua Legazpira eta saioan zehar izan da txalo zaparrada eta burrunba.

Entzuleak bertso-egarri eta bestelakoen premiaz egongo dira. Unai Elizasu aurkezleak betiko hiru oharrei (mobilak itzali, ez erre, eta lekuetatik ez mugitu) beste bat erantsi baitie: “Ez sartu edariak aretora”.

Unai Elizasu da lantaldean jartzen dituzten gaien aurkezle, eta gaurkoak kontrola pasatuta daude. Astean gertatutako anekdota da Iker Iriarte taldeko gai-jartzaileari guardia zibilek miatu baitzioten karpeta eta ia kartzelako gai bihurtu alegiarra. Txapelketaren nondik norakoak esplikatu ondoren, konbentzituko zituen nonbait, eta ez zen kontua gehiagora joan. Gaiak errebisatuta beraz, dena prest Legazpirako.

Agurretan Fagor, Madrilgo epaiketak eta bakoitzaren aldartea izan dituzte kantagai. Ondoren, aipatutako gaiei erantzun diete. Goi-goia jo gabe ibili da saioa, baina orokorrean ona. Zortziko txikian egin dituzte saio gustagarrienak; Mantxiren puntu

erantzunak eta Igor Elortzak eta Jokin Urangak kateatutako hamarreko txikia geratu dira denen gogoan.

Elortza izan da irabazle, zuzenean sailkatu da, eta jarraian Beñat Lizaso, Jokin Uranga eta Iñigo Mantzizidor “Mantxi”. Laurak aurrera egingo dutenen tropelean sartuko direla dirudi, eta beste biek, Oihana Bartrak eta Ainhoa Agirreazaldegik, berriz, agur esan beharko diote Txapelketari zapore gazi-gozoarekin, saio txukuna egin arren, ez baitute gehiago egiteko aukerarik izango.



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HASIERAKO AGURRA

A. Agirreazaldegi

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Aste hontan berri onik
entzun al da irratitik?
Madrilgo bi epaiketak
ez datoz bake bidetik
ikurrina atxilotu
Galindo libre kaletik
eta kooperatibisten
tristura Arrasatetik.
Gaur batzuetan serio
ta besteetan umoretik
geure alea jarri nahi
genuke dakigunetik
beti baitago argia
itzal guztien gainetik. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

A. Agirrezaldegi – O. Bartra

Gaia: Elkarrekin bizi zarete. Ainhoa, Oihana akupuntura ikasten ari da. Gaur, orratz pila bat esku artean duela hurbildu zaizu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Agirrezaldegi:

Zugandik gauza onik
ez nuen espero
orain akupunkturak
jarri zaitu bero.
Baina galderatxo bat
ein nahi det lehenengo:
“Zerbait gertatzen al da
gaizki eginez gero?”. (bis)

O. Bartra:

Atera nahian zabiltz
nahikoa etekin
ta bertan badaukazu
makina bat panpin
budu egiteko zure
antza dauka *en fin*
hobe probatuz gero
beste norbaitekin. (bis)

O. Bartra:

Akupuntura izan dut
nik beti gustuko
baina arriskua dauka
zertan egin uko?
Fallatu ezkerro hil
ahal zara ta punto
baina kasu horretan
ez zara ohartuko. (bis)

A. Agirrezaldegi:

Pisukide artean
alde handia bada
zuri zuku pixka bat
atera nahi jada
kursilloak egiten
hain ohitua zara
hurrena apuntatu
sukaldaritzara. (bis)

A. Agirrezaldegi:

Ja ja ze graziosa
ai gure neskatxa!
Beste zeozer nahi det nik
badet esperantza
logelan badet panpin
tropela demasa
hartako batek badu
neska, nere antza. (bis)

O. Bartra:

Oso ideia ona
eman didazu zuk
ta hurrengo baterako
apuntatuko dut
holan eingo dizkizut
errezeta batzuk
baina holan igual ere
hil egingo zaitut. (bis)

B. Lizaso – J. Uranga

Gaia: Beñat eta Jokin, autoa txandaka eramaten duzue lanera. Beñat, zuk gidatzen duzun guztietan, Jokin lokartu egiten da. Gaur ere begiak ixten ari zaizkio.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

B. Lizaso:

Kotxea hartu eta
bila joan natzaizu
oain ordea ez keinu
edota ez kasu.
Berriz ere lo hartzen
zer ari zera zu?
Nerekin konfiantza
gehiegi daukazu. (bis)

J. Uranga:

Nahiz istripua izan
lehen bat edo bik
zure ondoan nago
gustora askorik
baina ez didazu uzten
gaur egiten lorik.
Ez al zaizu gastatzen
konbertsaziorik? (bis)

B. Lizaso:

Nahiz pasatzen ditugun
guk minutu batzuk
zurrunka egiten du
honek patxadan truk
orain ere ederki
ein behar dezu zuk
ta zer pasatuko da
lo nik hartzen badut? (bis)

J. Uranga:

Lasai ez dezu hartuko
ez bazara etzaten
kotxean ordubete
etorri ta joaten
ta gero hamar ordu
tailer zulo baten
neskakin ere ez naiz
hainbeste egoten. (bis)

B. Lizaso:

Antza egiten dizut
Jokin enbarazu
baina esan dezunakin
pentsa zazu aizu
nerekin bezela lo
eoten bazera zu
neska`re alperrikan
edukiko dezu. (bis)

J. Uranga:

Lasai neskak ez baitu
gaur mimorik falta.
Irratia daukazu
benetan aparta
Sukiaren programa
aurkitu det tapa!
Ixo Jokin bertsotan
hastera doa-ta! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

Mantxi:

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Zenbat diru behar da ondo bizitzeko?

Ni ondo bizi naiz ta
det gutxi antzeko.
Nahiz ta horrek jartzen naun
askotan letxeko
aholkatzen dizuet
denoi probatzeko.

500 eurokoren bat ba al duzu soberan?

Lehen asko neuzkan baino
juan ziren hegan
ta bat patrikan euki
nahi nuke aukeran
bakarren bat badezu
gero neri eman.

Gutxirekin bizitzen ohituko bagina...

Esan bezela egin
ohi det ahalegina
nahiz eta badaukadan
askorako grina
pobreena hori da
nahi eta ezina.

J. Uranga:

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Ezin gara gaixotu
dirurik ezean.**

Horixe gertatzen da
denbora luzean
gaixoak geratzera
behartu etxean
gure bizitzarekin
dabiltz jolasean.

**Botika hartu baino
hobe da zaintzea.**

Unai Elizasuna
adarra jotzea.
Parrandan ahazten zait
nun dagon etxea.
Hori da osasuna
dohainik galtzea!

**Berriz hasi beharko
sendabelarrekin.**

Hoietatik aparte
ibiltzen da Jokin
baina tripetan edo
buruan badut min
askotan oroitzen naiz
gure amonarekin.

HAMARREKO TXIKIA

I. Elortza – J. Uranga

Gaia: Emakumeak zarete. Ama izan nahian, tratamenduan hasi zineten aspaldi. Igor

Jokinek esan dizu haurdun dagoela. Zuk, Igor, oraindik ez duzu lortu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

I. Elortza:

Ume bat ekartzea
biok akorduan
saiatu ta saiatu
erdi amorruan.
Nahiz ta egon nahi nukeen
nik zure larruan
neronek ere lortu
dezaket orduan.
Hazitxo bat isuri
didazu barruan. (bis)

I. Elortza:

Agian hitz egin dut
nik erdi trabeska
barka ulertu baduzu
lehen zela protesta.
Zurekin argituaz
doa nire kezka
lehen baneukan fedea
orain fede estra
ta lehen ez dizut esan
zorionak neska! (bis)

J. Uranga:

Larri ibilia naiz
bai ni zu bezela
baina orain jaso det
albiste itzela:
beatzi hilabetera
haur bat datorrela.
Matte jakin ezazu
beharrezko dela
norberak sinestea
gerta daitekeela. (bis)

J. Uranga:

Ama izan ezina
nolako kaltea!
Orain kolpez aldatu
zaigu aldartea.
Zuk neri zorionak
hola ematea...
Gauza bat espero det
nik ere maitea:
laister nik ere zuri
berdin esatea. (bis)

I. Elortza:

Tratamentua dugu
ondo konpletoa
eta nik beteko dut
nire egitekoa.
Baina orain zure hau
da ospatzekoa
ta ez badut zorterik
ama izatekoa
behintzat izan nahi nuke
ama-puntekoa. (bis)

J. Uranga:

Nere haurra joango da
noizbait zure bila
zoriona sentitu
dezaket gaur pila
baina barruak zaizkit
berriz korapila.
Berdin dit zer datorren
neska edo mutila
etorri behar duna ondo
etorri dadila! (bis)

Mantxi – A. Agirreazaldegi

Gaia: Adineko bikotea zarete. Medikuak zaintzen hasteko esan dizuenetik, zuk,

Mantxi, ohiturak aldatu dituzu. Ainhoak lehengo moduan jarraitzen du.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

Mantxi:

Beti txikiteoan
gainera indartsu
etxean berriz frito
janez ze enpatxu...
Barka baina maitea
zuk harritzen nauzu
komeni da egitea
kasu hontan kasu
ta neri ez bada hari
egin ezaiozu. (bis)

A. Agirreazaldegi:

Zenbat luzatu leike
bizi esperantza?
Daukagun apurrean
egin nahi det dantza
urteei hartu diet
festa baten antza.
Nahiz medikuak daukan
tertuli demasa
ez nioke kendu nahi
bizitzari gatza. (bis)

Mantxi:

Donostin izan gendun
mediku kontsulta
hura errezeta zen
ez zan noski multa.
Zaintzeko esan zigun
baina ezin uka
zuk hola jarraitu nahi
mekasuen kalkuta!
ta nei bizi gogo
kentzen didazu ta! (bis)

A. Agirreazaldegi:

Ba ni gustora nabil
hona eta hara
soziedadera edo
igual manifara
lagun artean majo
konpontzen baikara.
Botikak ere ia
hain garesti jada
Mantxi poteatzea
merkeagoa da. (bis)

Mantxi:

Beraz txikiteoa
ez zaizu amaitu
ta manifestatzen
nahi dezun jarraitu.
Ni tristetu orduko
zu alboan alaitu.
Zerbaiten ustea det
ta egingo det aipu:
zu ni izorratzeak
motibatzen zaitu. (bis)

A. Agirreazaldegia:

Ez maitea ez nago
zu noiz hil galdean
baina festa pixka bat
nahi nuke aldean.
Nahio nuke jarriko
bazina parean
jarri gaitzen biok
geure edadean
gaztetan bezelaxe
ekipo berean. (bis)

KARTZELAKO LANA

I. Elortza

Gaia: Pozik zaude horrenbeste jende zoriontsu egitea lortu duzulako.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Itsaso hori dago zatarra*

Oholtzara igo ta jendea zai
ze bertso klase, ze bertso usai.
Gaizki egiteko bildurra beti
bertsolariaren etsai. (bis)
Etxetik irten ta non-nahi
pozez kantatzeko alai
eduki dut nahiko dohai.
Badakizue bertsolariok
baina ez dugu dena jai:
hainbat jenderi poz eman diot
sufriarazi ere bai. (bis)

Lau urte dira dagoeneko
hementxe egin nuela peto
baina sasoia izango dugu
horri buelta emateko. (Bis)
Prestu nago kantatzeko
gogo aldetik perfekto
rima eta doinuz lepo
ta agintzen dut ingo dudala
sekula baino hobeto
lehengo denak ta jende gehiago
zoriontsu egiteko. (bis)

Gazte garaian dena korrika
doa indartsu ta irrintzika
aita ta ama ere askotan
irriai ezin eutsita. (bis)
Bapatekoaren kinka
lortu nahiaren irrika
ez da beti hain polita.
Aitai lehen eman gonbidapen bat
baina ez du egin bisita.
Han egongo da ezkaratzean
irratia itzalita. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi /

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Mantxi:

Gaia: Pozik zaude horrenbeste jende zoriontsu egitea lortu duzulako.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Arratsalde on ta aupa zuek*

Nahiz Erribera Erribera den	Nahiago nuke Gobernuko bat
nori ez zaio axola?	sartuko balitz klasera
Nahiz tartean den Nafar Gobernu	Erriberako ume euskaldunei
ta Gobernu Espainola (bis)	parez pare so egitera. (bis)
nik sinisten det bizi-bizirik	Urte osoko lana da noski
dala euskaldun odola	eta hortan ari gera.
ta harriz harri eraiki degu	Joaten gera Kilometroak
juan ta galdetu nola.	eta Herri Urratsera
Ez det ahaztuko inola	pixkana goaz aurrera.
zenbat umeren arkupe den gaur	Aitzakirik ez igande hontan
Tuterako ikastola. (bis)	danok Nafarroa Oinezera. (bis)

Nahiz gobernuak gurekin ez dun
sekula izan gupida
auzolanean hasi ginan ta
heldu gera urrutira. (bis)
Euskaldun kasta gogorra gera
inor ez dadila fida
joan bertara eta ikusi
esatea komeni da
entzun ta jarri begira
bat'e ez zela uste zuten ta
geroz ta gehiago dira. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

I. Elortza

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Denok dakizue ta
esango dut klaru:
hemen bereizten karu
dago oso karu!
Bertsozale finentzat
gaur zenbat mokadu...
Zoriontsuak zuek
zoriontsuak gu
bi hilabeterako
plazerra daukagu. (bis)



Eneritz Zabaleta Apaolaza



Iratxe Ibarra Foruria



Maddi Sarasua Laskarai



Etxahun Lekue Etxebarria



Miren Amuriza Plaza



Manex Agirre Arriolabengoa

OION

2013-10-19, LARUNBATA, 17:30

ARROYO I PILOTALEKUA

KANPORAKETAK SEIGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Eneritz Zabaleta Apaolaza

Iratxe Ibarra Foruria

Maddi Sarasua Laskarai

Etxahun Lekue Etxebarria

Miren Amuriza Plaza

Manex Agirre Arriolabengoa

GAI-EMAILEA: Maite Berriozabal Berrizbeitia

EPAILEAK: Eneritz Azkue Basurko, Martin Aramendi Arana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Mirari Azula Aurrekoetxea, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa

Txapelketako lehen faseko azken tragoxka Arabako Errioxan egitea pentsatu zuen Bertsozale Elkarteak. Euskal Herrian ohiko ez diren bertso plazak ere betetzen joatea zen helburu eta hori ondo bete da. Plaza ederra eta antolakuntza arrakastatsua Oionen.

Txandrio Bertso Eskola dago Oionen. Txandrio hitzak aldrebeskeria, nahasmendua, desordena esan nahi omen du. Bada, gaurkoan ez diote izenari izana eman. Arabar petoak lanean jarri eta beso-zabalik hartu gaitu Oionek. Aparkalekuak zaintzen, sarrerak, jarlekuak... dena kontrolatuta zuten Txandriokoek.

Eta barruan giro ederra. Maite Berriozabal aurkezleak bertsolarien izenak aipatu ahala txaloak eta oihiak nabarmentzen joan dira. Batez ere gazteena, Maddi Sarasua, eta arabarra, Manex Agirre, aipatutakoan.

Saioak momentu bakanetan bakarrik egin du gora. Bertso gogoangarriak entzun ditugu, baina saioa ez da piztu; eta pizten ez denak zaila du lehertzea.

Lehen faseko azken saioa genuen Oiongoa eta horrek Txapelketa kutsu gehiago ematen zion. Bukaeran jakingo genuen sailkapena eta finalaurrekoen osaketa. Horregatik edo, saioa txukuna joan den arren, intentsitatea falta izan zaio. Une bat nabarmentzekotan, gidoian ez zegoen zerbaite gertatu denekoa izan da. Maddi Sarasua eta Manex Agirre hamarreko txikian ari zirelarik, Maddi nahastu egin da ofizioz. Manexek ondo bideratu du berrir gaia eta Maddik buelta eman dio aurrekoari, entzuleen onarpena lortuz. Orduantxe lehertu da beharbada pilotalekua.

Bestela, nabarmentzekoak, Eneritz Zabaletak ofizioetan egin duen lana, eta Etxahun Lekueren ofizioa, erregulartasuna, elegantzia... Berak bakarrik egingo du aurrera saio honetatik. Osatu dira finalaurrekoak.

HASERAKO AGURRA

I. Ibarra

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Gogoratuko zara*

Nahiz ta somatzen dodan
tentsino ugari
kantau gura neuzkio
ingurukoari.
Zorionak Oiongo
bertso eskolari
ale hau jartearren
gure jardunari.
Zorionak Oiongo
bertso eskolari
bide emotearren
gure hizkuntzari.

ZORTZIKO HANDIA

E. Zabaleta-I. Ibarra

Gaia: Gaztetatik alkohola eta drogak izan dituzue lagun festetan. Uzteko garaia iritsi dela pentsatu duzue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Manuel Narruk atzo esan dit A*

E. Zabaleta:

Asteburua iritsi ahala
whiskia eta *Ricarra*
kokainaren sustarraldia
ta zerbezaren aparra.
Uste dut biok marrarik marra
pasa genuela marra
orain bizitzaz aldatzea da
nahi dudan gauza bakarra.

I. Ibarra:

Lehen oso pozik ibiltzen ginen
nahiz ta ez jardun ganoraz
baina eragina igarten nabil
adinagaz ta denporaz.
Zapatu eta domeka goizez
aje itzelak daukadaz
eta bertsotan nabilenean
azken danak ahazten jataz.

E. Zabaleta:

Sustantzietan ito al zaizu
azken ideien aztarna?
Bertsotarako ustez alkohola
lehenago zen gure arma
baina gorputzak halako baten
piztu egin digu alarma.
Narkotikoen kanpotik ere
bizitzak badauka xarma.

I. Ibarra:

Hortik kanpora gauza asko dago
hori gura neuke pentsau
baina ardautik kanpora ez dot
ondino askorik topau.
Hainbat arazo sortuak deustaz
ez bakarrik hiru edo lau.
Lehenago biztu egiten nindun
orain amatau egin nau.

E. Zabaleta:

Zorigaitzean ohitu ginen gu
drogaren itzaletara.
Norabidea aldatzeko guk
orain badugu parada
bakartasunan sustraitzen baita
Iratxe gure ikara.
Elkar lagunduz zulo hontatik
biok aterako gara.

I. Ibarra:

Nahiko iskanbila sortua dogu
egina nahiko zarata
ta azkenaldian lehenauko laua
bihurtu jaku aldapa.
Zulotik urten behar dogula
dinostasu tipi-tapa
bizitza esnifau daigun Eneritz
droga onena bera da ta!

ZORTZIKO TXIKIA

M. Agirre-E. Zabaleta

Gaia: Bikotea zarete. Atzo zuen alaba zigortu zenuten, eta ez du baimenik gaur gauean irteteko. Zuek afaria duzue lagunekin, eta zuri Manex, Eneritzek proposatu dizu zu geratzeko etxean alabarekin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

M. Agirre:

Tratu ederra bota
didazu gaur lasai
ni etxean eta zu
poteatzeko gai.
Zure trukoa Eneritz
harrapatu dut ai:
alaba zigortuta
eta ni ere bai! (bis)

E. Zabaleta:

Egia da gainean
badaukat itzala
ile xuri batzuek
tripa ez apala
baina jakizu gaua
egingo dudala
nik hemezortzi urte
banitu bezala! (bis)

E. Zabaleta:

Horrek lehen ez zintuen
askorik kezkatzen.
Afaria heldu ta
hasirik hausnartzen
hasi zaitzake orain
etxean geratzen
alaba zigortzea
zure ideia zen. (bis)

M. Agirre:

Hemezortzi urte bai
baina urteak gehi
hori pasatzen zaie
zu lakoxe aitei.
Bihar resakak egin
behar dizunez dei
gauetz hemezortzi ta
goizean berrogei! (bis)

M. Agirre:

Ta probetxu atera
ideiaren truke
zu holakotarako
nun hezi zaituzte?
Kristoren desfasea
bota nahi zenuke
baina jada ez dituzu
hemezortzi urte! (bis)

E. Zabaleta:

Gogor ezarri zinen
heziketa kari
beraz tori etxean
gau hori opari.
Ni parrandara noa
lasai ta kantari
serio aurpegia
jarri alabari! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

I. Ibarra

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Denda txikiak gero eta larriago.

Ba ni txikietara
joaten naz gehiago
nahiz ta haundiez bete
daben hau zeharo
hemen konponbidea
geure esku dago.

Supermerkatuetan

badabil jendea

dana topau leike han
jana ta lorea
baina txikiek deuke
euki kolorea
eta tratua ere
askozaz hobia.

Bisitatzen al duzu

herriko azoka?

Ez justu ordu horretan
lanean nago ta.
Nahiz ta uda partean
begirada bota
horixe indartzea
da gure erronka.



Kanporaketak: Oion

Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



HAMARREKO TXIKIA

M. Sarasua-M. Agirre

Gaia: Senideak zarete. Tradizio luzeko upategi bat duzue. Multinazional batek erosteko eskaintza egin dizue. Zuk, Maddi, saldu egin nahi duzu; Manexek ez.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

M. Sarasua:

Ardoa denek dugu
maitatzen gustuko
familian urtez urte
dugu hain gertuko
ta jada ezin diot
honi egin uko
nahiz ta nahiko zinueen
firmatu ta punto
diru truk nortasuna
ez nuke salduko. (bis)

M. Sarasua:

Txilio egingo luke
ta ez horren alai.
Hala ere egonen naiz
garraxi horren zai.
Erabaki behar dugu
ta hautatu orai
gauzak aldatzen dira
Manex garaiz garai
nortasuna ez dut saltzen
ardotegia bai. (bis)

M. Agirre:

Erratu egin zara
hala uste dut nik
lehen hitz egiten zendun
hau saltzeagatik
baina hau saldu ezker
diruarengatik
nere aitonak badaki
neuk ere badakit:
txilio egingo luke
bere hilobitik. (bis)

M. Agirre:

Hau da bide zuzena
hau hartu duzuna
ondo ulertu duzu
erantzunkizuna.
Orain aditu Maddi
nere erantzuna:
beste batek badauka
nagusitasuna
garrazten da ardoa
eta nortasuna. (bis)

M. Sarasua:

Nahastu egiten naiz
a ze iskanbila!
Bai ados garrazten da
ados naiz mutila
baina ezin naiz egon
diruakin isila.
Nahi duzuna egizu
ni ez noa bila
baina ardo onez ekar
betea botila. (bis)

M. Agirre:

Beraz botila behar dut
biontzat atera
eta ospakizun bat
gauzatu batera.
Ba ez ez dut egingo
Maddi keba-keba!
Nire ondorioa
badaukat gainera:
aurtengo uzta ez da
goxoa atera. (bis)

KARTZELAKO LANA

E. Lekue

Gaia: Ahalik eta azkarren iritsi zara, baina dagoeneko berandu da.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Munduan libre bizi izatea*

Ume-umetatik sufridu izan dot	Bihotz barri bat lortu gurean
bihotz txar baten morrontza.	zoratu nintzen zeharo.
Medikuek zera esaten eusten	Neure burua be ezezagun
hurbil zala heriotza.	pertsona petral, arraro.
Hau konpontzera bideratu dot	Baina nik bizi ein gura neban
nire ekintzetan bakotxa	ta pentsa neban “Akabo!”
nahiz dodan jarrera motza	Eztarritik hiru trago
ta sentitzen dodan lotsa	muga guztiak igaro
nahi baino arinau ez da ba joan	milioi gehiago jarriko dodaz
erlojuan tik-tak hotsa.	beste biderik ez dago
Nire aurretik iritsi danak	hemen diruak agintzen baitau
hartu dau nire bihotza. (bis)	bizitzak baino gehiago. (bis)

Kontrabandisten sare bategaz
hala neban kontaktatu
ta helbururantz Nigeria alderantz
hegazkinez bidaiatu.
Bide onena ez bide bakarra
nik nebana aukeratu.
Ein genduzan hiru tratu
ta behar nebazan hartu.
Beranduegi heldu nazela
ez daust ba aurpegiratu!
Pertsona baten bizi-guragaz
ezin da holan jokatu. (bis)

M. Amuriza

Gaia: Ahalik eta azkarren iritsi zara, baina dagoeneko berandu da.

Neurria: Hamabiko ertaina

Doinua: *Gai honek badu mamia*

Maitasunak era askotan
markatzen du kanona
eta ezagutu nuen
neuk ere zoriona.
Baina ez dakit nola heldu
ote naizen ni hona
kalean arnasestuka
aldaz goran igona
udaletxeko atean
nire samin sakona:
ezkonduta aurkitu dut
maite dudana pertsona. (bis)

Sabelean sentitu dut
gori-gori polbora
kontatzean gaur honantza
galdutako denbora.
Detaile txikiz beteta
ospatu duzu boda
baina hara lau hitzetan
dakusdan metafora:
legeak batua baino
hemen ein da aproba
oheak batzen duena
banatzen zailago da. (bis)

Ikusi dut eta ia
bertan jausi naiz, ziplo!
Oihukatu nahian “Zertan
ari zara mutiko?”.
Ez nuen uste hain errez
zenuenik ahantziko
ze maitasun ta pasio
nituen zurekiko
baina ixildu ta arnasa
hartu dut neurekiko.
Zorionean gaur egun
ezer ez da betiko. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

BUKAERAKO AGURRA

M. Agirre

Neurria: Kopla handia

Doinua: *Errioxar Baigorriko*

Saioa da igaroa
bukatu da endredoa
entrenamendu gogorrengatik
mila esker Xabi Igoa!

Bilbon ze jende mordoa!
Herri hau aurrera doa.
Bizitza horrela ospatzen da ta
edan dezagun ardoa!

Errioxar, Baigorriko
Bakio nahiz Getariko
topa dagigun eta bakean
bizi gaitezen betiko!

Kanporaketa ala sailkapena?

XABIER SUKIA ETXEBERRIA
BERTSOLARITZA KAZETARIA
 2013-11-08

Bertsolari Txapelketa guztietan gertatzen da. Lehen fase horretan bertsolari batzuk kanpora geratzen dira eta beste batzuk sailkatu egiten dira. Hori da txapelketaren legea. Eta publikoa, epaileak eta kazetariak aurrean diren heinean, bertsoa egiteko eta betetzeko moduak badu garrantzia sailkatua edo kanporatua izateko. Bai horixe! Ez ordea bertsoak egiteko eta betetzeko alderdi teknikoak soilik, haratago joanda, komunikazio ekintzak berak ere bai noski. Zorionekoak biak ondo egiten dituzten bertsolariak.

Artikulu batean¹ Arkaitz Goikotxeak aniztasunaren hari muturrak izan ditu gogoetagai. Euskadi Irratiko *Hitza Jolas* bertso irratsaioan, saiatu gara lehen fasean zehar abestu duten bertsolari denei ahotsa ematen. Batzuen iritziak entzun ditugu eta besteen bertsoak. Denek izan dute tartetxo bat. Zer gutxiago ezta? Eta beste zenbait hedabide ere sumatu ditut ahalegin hori egiten. Uste dut kantitatez bezala kalitatez izan dela anitza lehen fase hau. Felix Irazustabarrenak bere kronikan dion bezala “aberatsa”. Eta bertsolari batzuk ez ezik, bertsoak egiteko moduak eta gintzak ere badira sailkatu direnak. Edo kanpoan geratu direnak. Txapelketak ez du asko galdu Iker Zubeldia kanpoan geratu delako soilik, bertsolari eta bertsokera gehiago kanpoan geratu direlako ere bai: Erika Lagoma, Beñat Ugartetxea, Eneko Abasolo “Abarkas”, Eneko Fernandez, Onintza Enbeita, Felix Zubia, Iban Urdangarin, Iñaki Apalategi, Iñaki Zelaia, Oihane Perea, Ainhoa Agirreazaldegia, Oihana Bartra, Eneritz Zabaleta, Iratxe Ibarra, Maddi Sarasua, Manex Agirre eta Miren Amuriza. Zorionak denoi, zuena izan da kanporaketa fasea. Sailkapena suertatu zaizuenoi zer esanik ez!

Puntuak puntu berean. Bitxikeria bat. Fredi Paia izan da hurrengo fasera puntuazioz sailkatu den azken bertsolaria 631,5 punturekin. Iñaki Gurrutxagari Argian irakurri nion orain lau urte Onintza Enbeita izan zela 632,5 ekin. Puntu bat behera egin al dugu? Broma da. Baina zer pentsatua ematen du puntuazioaren langa hain egonkorra izateak ezta?

1. 359. orrialdean aurkituko duzu “Hitz egin dezagun aniztasunaren trataeraz: arimuturrak” Arkaitz Goikotxearen Arriolaren artikulua.

Fase honetan hartutako apunteak garbira pasata:

Agurrak ere puntuatzen du. Etxetik mimoz, intentzioz, tentsioz, ilusioz edo aldarrikapenez jositako pilula horrek ipurdiak aulkietatik saltaka jartzen ditu. Batzuetan publikoaren lehia grinari jaten ematen diote, nahi ala ez, txapelketak eskatzen duen testuinguru lehiakorrean kokatzen gaitu eta ditu bertsolariak. Ze arrakasta duten “hemen nago ni” edo “bagatoz” dioten hasierako agur horiek: Iban Urdangarin Hendaian: “zer irabazi asko baitauka zer galdurik ez duenak”. Iñigo Mantzisidor “Mantxi” Legazpin: “amorratzen bainator serio hasteko”. Oihane Perea Altsasun: “...guztia kentzera noa”

Potoaren mamua. Hedabideren batek “potoen arratsaldea” deitu zion Hendaiaikoari. Potoa izango da bertsogintzako “akats” internazionalena, ezagunena. Injustuena bezain justuena. Bertsolariak askotan kendu nahi izan dio garrantzia potoari plazako saioetan baina txapelketan garesti ordaintzen dira potoak. Poto batek erabaki dezake sailkapena edo kanporaketa den. Harrapatutako batzuk: Zubeldiak “nik eta nik”, Barrosok “Beldurtuko eta beldurtuko”, Zelaiak “ekin eta ekin”, Zubiak “oinarri eta oinarri”, Manex Agirrek “atera eta atera”... eta izan dira gehiago. Alperrik da gero eztabaidan aritzea, “poto egin du baina bertso ederra zen...”. Hori beste kontu bat da. Epai irizpideetan argi jartzen du. Potoa poto da. Sentsazioa dut inoiz baino poto gehiago ez ote diren izan lehen fase honetan. Sentsazio bat da. Eta Zubeldiak bi poto egin ez balitu? Banu balego eta balitz...

Abdula eta Mohamed. Zortziko handiko ariketan, Villabonan, Fredi Paia eta Iker Zubeldia. Uda Euskal Herrian pasatako Saharako bi mutiko. Polita izan zen nola jarri zizkioten izenak bata besteari. “Abdula eta Mohamed”. Bi mutikoak ikusi egin genituen aireportuan eta horrek sinesgarritasuna eman zion ofizioari.

Afizioa sortzen duten ofizioak:

Labururen almondigak eta Uriaren albondigak. Halakoak ere ikusi ditugu lehen fasean. Txapelketan oso genero estimatua izaten da goitik beherako ofizioa. Haize freskoa ekartzen diote txapelketaren larritasunari. Ofizioa biren arteko lana da kasu honetan. Zu eta ni. Biok. Elkarri entzun, erantzun eta bidea egin. Elkarri hartu eta eman.

Markina-Xemeinen Jone Uriak eta Agin Laburu, bi sukaldari. Jone hamar kilo gizendu da, Agin hamar kilo argaldu. Bertsoaldiaren lehen zatia bete-beteko ofizioa izan zen. Uriak, sukalde giroko hitzak errimatzat hartu eta bere gizentasuna justifikatzeko baliatu zuen lehen bertsoa.

“Tomatea, letxuga...
A ze entsalada!
Ta gero indabekin
kriston platerkada!
Hamar kilo hartu ditut
normala da hara:
dena probatu behar
baita badaezbada.”

Laburuk bete-beteko erantzuna eman zion Uriaren justifikazioari. Bertsoaren hasierako “baina” horrek adierazten du aurreko bukaeraren jarraipena dela:

“Baina gero baskulan
hori da trantzea!
Orratza baitaukazu
goraino altxea
Hazi zaizu aurrea
ta hazi atzea...
Lau kilo almondiga
ez da probatzea!”

Afizioa eragin zuen ofizioa Felix Zubiak eta Amaia Agirrek Hendaian egin zutena. “Beti gazte” sindromeak jota oraindik gaztetxean bueltaka dabilizan bi lagun dira. Amaiak uste du erretiroa hartzeko garaia dela, Felixek ez. Zarauztarrak lehen bertsoetik eutsi zion berrogei urteko gazte erromantikoaren paperari:

“...nahiago dut herria
ametsez jostea
Lehen lortuei berriz
gogorki eustea
amets egiten duna
ez al da gaztea?”

Amaia Agirrek haria galdu gabe seme-alabak sartzen ditu tartean ate bat irekiz:

“...erritmo eta festan
ez degu zer egin
gure koadrilakoen
seme-alabekin”.
Zubiak seme-alaben bideari heldu zion:
“...zurrutean parrandan
badegu nibela
txarangakin saltoka
bertsotan bestela
guregandikan zerbait
ikas dezatela”

Hortik aurrera ia bakarrik atera zen bertsoaldia. Entzun eta erantzun. Bizi-bizi eta itxuraz behintzat, erraz:

“...gure kontu edaten da
ikasi dutena”.

“...erretiratu zaitez
zure izenian
nik deskantsatuko det
hiltzen naizenian”.

“...atera zerbeza ta
pintatu pankarta...
gora gaztetxea ta
gora patriarka!”.

Hasierako puntu bat bi aldiz erantzun. Agin Rezolak Markina-Xemeinen hasierako puntuari emandako erantzuna, bi aldiz erantzutea bezala izan zen.

Ezagutzen al duzu

San Mames Barria?

Bilbotarrentzat degu
ikaragarria
dirua gobernuak
propio jarria.
Ez dakit nun daukagun
batzutan neurria.

“Ikaragarria” horrekin gauza asko esaten ditu batera. San Mamesen, Bilboren eta Athletic beraren handitasuna. Eta bertsoa sententzia edo gogoeta batekin amaitzen du. Zer pentsatua ematen duen hari mutur bat airean. Hori da parean jotzea hori! Askok gustatu zaidan beste erantzun bat da Xabier Silveirak Altsasun emandakoa. Ez aurrekoa bezain bizi, azkar eta indartsu, baina asko transmititzen duena. Iker Iriartek jarri zion hasierako puntua:

Inbidiak baditu

hamaika aurpegi...

Hor Iker ongi zabiltz
esaidazu neri!
Nere inbidiatan
dabiltzan hoieri
soilik esaten diet:
inbiditan segi!

Iratxe Ibarrak ere bikain erantzun zituen puntuak Oionen. Bigarren puntuan bertan ematen zion erantzuna eta amaieran arrazoitu gainera.

**Denda txikiak gero
eta larriago**

Ba ni txikietara
joaten naiz gehiago
nahiz ta handiez bete
daben hau zeharo
hemen konponbidea
geure esku dago!

Kartzelako lanek protagonismo berezia hartzen dute txapelketatan. Gehiegi ere bai askotan. Bertsolari askori prestaketa garaian denbora asko kentzen dio ariketa santu honek. Badirudi askotan ofizioen gaintik dagoen fenomeno ere badela. Berez ez da hala. Hiru bertso besterik ez dira. Ofiziotan bederatzi kantatu behar izaten dira. Baina kartzelakoak bertsolaria bakarrik eta arriskuaren aurrean jartzen du, eta protokoloak berak ere ematen dio izena. Azken ariketa da, oholtza uztea eta berriz etortzea... ordura arte bertsotan egin ez duenaren azken hiru balak dira. Eta alderantziz, bertsotan oso ondo ari denak orain ezin du hutsik egin, eutsi egin behar dio mailari. Tentsioa sortzen duen ariketa da. Denborak ere pisu handia hartzen du hemen. Isiltasun neurri luzera batera ohituak gaude baina gehitxo luzatzen hasten bada alarmak pizten dira. Kartzelako gaia entzun eta lehen bertsoa kantatzen azkarrena Jone Uria izan zen Markina-Xemeinen; 47” behar izan zituen. Bigarren eta hirugarren bertsoak pentsatzeko hartutako tarteak gehituta 1’26” guztira. Abarkasek 56” lehen bertsoa kantatzen hasteko eta guztira 1’06” aritu zen pentsatzen. Bera izan zen azkarrena. Fredi Paia ere azkar hasi zen kantari. Denborarena datu objektiboa da. Pentsatzeko tarte gehiago hartu balute zer pasako zen? Auskalo. Hori ez da objektiboa. Aipatutako hiru hauek, ez zuten lanik onena kartzelakoan egin. Akaso denboraren kudeaketan gehien asmatu duenetakoa Beñat Gaztelumendi izan da. Gai entzun zuenetik kantari hasi zenera 1’57” pasa ziren, eta bigarrena eta hirugarrena bata bestearen atzetik bota zituen. Estrategia zehatza eta ongi neurtua. Bakarkako lan bikaina egin zuen Altsasun. Gaia: “gaia ateratzen duzun bakoitzean gaiz aldatzen du”.

Lehen bertsotik pelikula bat filmatzen hasten da Gaztelumendi. **Egoeraren deskribapena; xehetasunak eta konkretzioa.** Harremana etetear dagoen bikote bat marrazten digu. Bera da protagonista bat. Zuzenean kontaktzen digu dena, oraintxe ari da gertatzen. Horrek indarra ematen dio filmari. Datu eta informazio mordo bat eskaintzen dizkigu lehen bertsoan. Mahai gaineko entsaladatik begi itzalieta. Egoera monotono triste bat deskribatzen du eta azken aurreko puntuan gaiarekin bat egiten du “halaxe du gaiz aldatu” horrekin.

Mahaiko ensalada degu
ordu erdiz ahoratu
egunean zehar pasa
zaigun dena gogoratu
lagunen mila istori
ta laneko mila datu
bi urteko harremanak
hori izaten baitu tratu.
Bere begi itzalitan
begiak ditut iltzatu
ta hala galdetu diot:
'Zer pasatzen da? Kontatu...'.
Ezer pasa ez balitz gisa
halaxe du gaiz aldatu
baina zergatik ezin dit
begitara begiratu?

Galdera batekin amaitu du lehen bertsoa eta bigarrenean galderak eginez jarraitzen du.
Bere baitako pentsamentuak bikoteari zuzenean egindako galderekin nahasten ditu
"zer duzu?" kantatzen duenean. Eta amaieran biak egiten ditu; galdetu eta erantzun.

Ezagutu ginenean
zenbat mimo? zenbat kasu?
Goizero jeikitzen ginen
elkarrekin irrifartsu
egunak enpalagoso:
'Maite zaitut, maite nauzu'.
Baina urruntzen hasiak
ote gera pausuz pausu?
Gaur dena azaleko gai
ta elkarriketa antzu
bai badakit ze o zerek
egin dizu enbarazu.
'Zer duzu?', galdetu eta
mutu geratu zera zu
ez didazu ezer esan
ta dena esan didazu.

Xehetasun, detaile txiki eta konkrezioz betetako bertsoak dira. Ikusi egiten dugu bikotea mahai horren inguruan hizketan entsalada ordu erdiz ahoratu eta gero. Dena esaten duen isiltasun luze horren ondoren elkarriketak aurrera darrai “ez nago ondo” erantzun dio bikoteak. Eta hortik aurrera elkarriketak berak amaitzen du bertsoaldia, bakoitzak barruan duena besteari esanez. Aldi berean publikoari ere barruan zutena agertuz.

Begi pareta malkotan
dauka puztuta betea
ta kolpera lehertu zaio
esan ezinen nekea.
Masailan behera doazen
malko latzen atakea.
'Ez nago ondo', esan dit
ta baretu aldartea.
'Zalantzak dauzkat, laztana;
ze nahi dezu esatea?'
Nik hala erantzun diot:
'Zabalik dago atea
behar den denbora dena
lasai hartzazu maitea;
zor didazun bakarra da
zoriontsu izatea.

Nahiko ilun hasitako bertsoaldia argitzen joan da mezu positibo batekin amaitu arte. Zoriontasuna. Hasieran irtenbiderik ez zuenak ate ireki bat aurkitzen du amaieran.

Doinu berriak airez aire. Handia da doinu berri bat bertsoaldi bikain batekin estreinatzea. Odei Barrosok Villabonan erakutsi zigun Laboaren abesti batean inspiratutako bere doinu berria. Lehendik erabilia bazuen ere berria da txapelketan. Unai Agirrek Altsasun kartzelako lan txukuna egin zuen Imanol Kamiok sortutako doinuarekin. Biek ala biek hurrengo fasean izango dute beren doinuak gogoangarri egiteko aukera paregabea.

Doinu zahar berriak. Doinu zaharrak berri izan dira beste behin lehen fase honetan.

Benetako haize freskoa ekarri zigun Etxahun Lekuek eta Miren Amurizak Oionen erabilitako zortziko txikiko doinuak. Doinu ezberdin bat. Norbaitek leihua zabaldu eta freskura datorkizunean bezala. Dena den, hau txapelketa da, eta ahal duenak ahal duena egin dezala.

Errealitatea eta fikzioa nahasteko aukera. Kartzelako lanetan bertsolariak diskurtso bat garatu behar izaten du askotan, eta zenbateraino da benetakoa? Zenbateraino fikzioa? Amaia Agirrek Hendaian biak nahastu zituen. Dena ez zen egia edo dena ez zen gezurra. Benetako istorioetan oinarritutako filmak ere errazago ez al dira iristen bihotzera? Hendaian iritsi zen eta Jone Miren Hernandezek ere aipatzen du momentu hori bere artikuluan.

Xabier Silveirak ere Altsasun Erika Lagomarekin egindako bertsoaldian, bere errealitate puska bat erantsi zion fikziozko egoera bati. Silveirak bere ezkontzako bideoa egiteko eskatu zion Lagomari eta bideoan agertu ere ez zen egiten.

Hautsi ditut hainbeste
lege eta arau
joan ez naizen lekuak
ere mila ta lau
Jendeak esango du
inoiz bistan banau:
“Bere ezkontzara ere
ez zen azaldu hau!”.


Bertso honekin Silveirak bere persona eta pertsonajea nahasten ditu oso modu arrakastatsuan gainera. Publikoak segituan ulertu zuen umore klabe hori.

Oionen amaitu zen lehen fasea eta Manex Agirrerena izan zen azken agurra. Tamalez aramaioarrarentzat kanporaketa fasea suertatu zen azkenean. Ardoaren erresuman botatako agur eder hau utzi zuen gure gogoetan:

...Bizitza horrela ospatzen da ta / edan dezagun ardoa
Errioxar Baigorriko / Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean / bizi gaitezen betiko!

Ea hurrengo fasean ze ardo probatzen ditugun. Urteko ardoek gaina hartuko ote diote kiantza edo erreserbakoei? Uzta ona udazkenekoa.

Xabier Sukia



FINALAURREKOAK



Amets Arzallus Antia



Jon Martin Etxebeste



Julio Soto Ezkurdia



Jone Uria Albizuri



Jokin Uranga Isuskitza



Nerea Elustondo Plazaola

GERNIKA-LUMO

2013-11-09, LARUNBATA, 17:30

JAI-ALAI PILOTALEKUA

FINAL AURREKOAK: LEHEN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Amets Arzallus Antia

Jon Martin Etxebeste

Julio Soto Ezkurdia

Jone Uria Albizuri

Jokin Uranga Isuskitzea

Nerea Elustondo Plazaola

GAI-EMAILEA: Bernardo Mandaluniz Plaza

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Finalaurrekoak hastera doaz. Aurreko faseko erantzuna ikusita inor ez dago gaurkoa ere itxuratuko denaren kezkatzen. Leku ederra da, zabala, oso zabala, Jai-Alai pilotalekua. Eserlekuek oholtzatik ezker-eskuinera betetzen dute ezker paretako luzea eta bertsozalez bete da. Jendea gainezka, sarrera guztiak agortuta, giro beroa jarri dute pilotalekuan eseri diren 1.500 lagunek. Jendea eta txaloz bete da aretoa. Ezin bilduago eta goxoagoa izan da gaurkoa.


Saioa zabaltzeaz arduratzen diren hedabideei zuzeneko emankizun bat gehitu zaie gaurkoan. ETB-SATen bidez eman da saioa, osorik. Aitzol Barandiaran genuen gidari, Arkaitz Goikoetxearen laguntzaz. Aurrerantzean ere zuzeneko emankizunak eskainiko ditu telebistak finalaurreko guztietan.

Eta saioa? Goi mailakoa izan da. Agian ez beti goi-goian mantendu dena, baina orokorrean bertsolari guztiek eman dute berea, edo inguratu dira bere mailara behintzat.

Saioko irabazle Amets Arzallus izan da. Besteetatik, Jokin Uranga eta Jone Uria dira borroka horretan sartuko direnak, eta pixka bat beheraxeago Jon Martin eta Julio

Soto. Nerea Elustondo izango da beharbada aurrera egingo ez duen bertsolaria. Hala ere, denek aipatu dute ofiziotarako eta dialektikarako duen erraztasuna eta zein ideia freskoekin bete duen gaur Gernika-Lumo.

Euria ari du. Bertsotan ari zirela ere nabaritu da sabaian jotzen zuelarik ateratako soinuan. Ederki baliatu du Julio Sotok bere bakarkakoan. Bederatzi puntukoan kantatu du gaurkoan. Ametsek, aldiz, doinu berria ekarri du, eta azkenaldian ohikoa ez bada ere, sei puntukoa da hau.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZORTZIKO HANDIA

J. Martin – A. Arzallus

Gaia: Gerrako kazetariak zarete. Bi urtez bahiturik egon ondoren, askatu egin zaituztete. Gaur zatozte hegazkinez etxera.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jaiki ninduzun I*

J. Martin:

Iraken giro beroa dago
beroa ta irakina
bertan bahitu egin gintuzten
eta zer-nolako mina!
Nahiz atseginez hartu dugun gaur
etxerako hegazkina
bueltan doana ez da izango
joan zen pertsona berdina.

A. Arzallus:

Bi urtetan han ibili gara
itxaropenari eusten
ta indar egin ohi denean maiz
haririk ez denez hausten
ze fanatismo zeukaten hoiek
ta zer arrazoi zituzten
zauri barruan dagonarentzat
oso zaila da ikusten.

J. Martin:

Gerra batean hamaika gorpu
mila bihotz odolustu.
Kazetariak beti behar du
objetibo eta justu.
Gure jarrera aldatu dela
egingo nuke apustu
beraien hortzak zorroztu dira
gure lapitzak kamustu.

A. Arzallus:

Nahiz zorrozteko nik etengabe
egin ditudan indarrak
zenbat sufritu duen urteetan
populu irakiarrak!
Hori kontatu asmotan joan ta
luzatu zaizkit bizarrak
objetiboak ginela uste ta
objetibo militararak.

J. Martin:

Objetiboa, subjeliboa
baita aldien erditan
gure bihotzak jada hautsita
puskatuta daude bitan.
Mindu gaituzte baina zauriak
itxiko dira egitan
“Ongi etorri” irakurtzean
nere semea begitan.

A. Arzallus:

Nola argitu nahi genituen
Irakeko alde beltzak
ta azkenean gu bahiturik
ikusi gaitu jendetzak.
Zer ari gara azaldu nahian
hango gatazkaren ertzak?
Lehendabiziko besarkada bat
zai egon zaretenentzat.

J. Uria – N. Elustondo

Gaia: Kale-garbitzaileak zarete. Gaurko greba-deialdian, gutxieneko zerbitzuetan lan egitea egokitu zaizue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

J. Uria:

Borrokatzeko nahiz sobran dugun
arrazoia eta grina
hau da patua borrakatu nahi
ta borrokatu ezina.
Guri tokatzen zaigu garbitzen
itxuraz kale ixkina
kontzientzia dut jaso behar dugun
kalea bezain zikina. (bis)

N. Elustondo:

Kontzientziak izaten dira
norberarenak, libreak
baina begira zaborrez bete
daude kontenedoreak.
Defendagarri izanagatik
guztion eskubideak
besteenak hasten diren lekuan
bukatzen dira gureak. (bis)

J. Uria:

Ta muga hoiek ez haustekotan
guretzako da zigorra
goiko batzuen agindupean
gure ekintza derrigorra.
Ustez zerbitzu minimoekin
ona egin dute obra
ohartu gabe eurak direla
gizarte honen zaborra. (bis)

N. Elustondo:

Eta kiratsik ere aterako
ez balukete sikira
alaiagoa litzake zure
ta nere arteko jira.
Ipini zara poltronetako
zabor pilari begira
guk errefustzat tratatu arren
berziklagarriak dira. (bis)

J. Uria:

Bueno Nerea Bizkaia aldean
berdina da dena hemen
guk ez ditugu hoiek bereizten
ta barka zaidazu, ejem!
Halan da ere nabari dadin
zeren alde ari garen
badaezpada jaso dezagun
ahalik eta gutxien. (bis)

N. Elustondo:

Ba bai horrekin ados nago ni
esaten dezun antzera
eskobarekin ez gera joango
zabor guztiak biltzera
ta babes gabe gera ez dadin
gure kide denen greba
egin dezagun iraultzatxoa
goazen kafe bat hartzera. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

A. Arzallus – J. Uria

Gaia: Zu, Amets, artzaina zara. Zure artaldea etxeratzen ari zarela, bidean Jone autotik klaxona jotzen hasi zaizu erotu beharrean.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Arzallus:

Artaldea gidatuz
nindoan ze mauka!
Zer da hainbeste klaxon
ta hainbeste flauta?
Turismo bide ona
ez duzu ba hauta
hemen lehentasuna
artaldeak dauka. (bis)

J. Uria:

Hara ze aurkitu dudan
ematean buelta!
“Pi-pi-pi” hor hasi naiz
gogotsu, kolpeka.
Lehentasunez ez zaitez
zu jarri erreta
ardiei koro egiten
ari nintzen eta. (bis)

A. Arzallus:

Ta gainera grazioso
eta irrifartsu
aizu zuk aurpegia
galanta daukazu!
Korua zuzentzera
bazatoz ze luxu
nahiko goiko tonoa
aukeratu duzu. (bis)

J. Uria:

Altuegia denik
ez nuke esango
baina ez dakit tonoez
ez hemen, ez hango.
Ostras! Antza baduzu
beiratuta ondo
Urepeleko artzaia
ez zara izango? (bis)

A. Arzallus:

Hura hil zela dira
berrogei bat urte
boladan zabiltzanik
aizu ez dut uste.
Tira artzai txakurrai
hasi baimen eske
buztana makurtu du
pasatu zaitezke. (bis)

J. Uria:

Beraz txakurrak badu
nahiko kalitate
buztana bajatu du
horren elegante.
Beraz joan naiteke
hemendik aparte
agur Xalbador berri
beste batera arte. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Arzallus

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Lapurtutako haurrak

gurasoen bila

gure inguruan ere

hamaika dabila.

Aurkitzea litzake

ipuin borobila

asko aurkitu gabe

gelditu da hila.

Ametsa amesgaizto

bihurtzen da sarri

Eta Ametsi hemen

puntu hori jarri!

Hitzarekin askotan

ibiltzen naiz larri

neri amesgaiztorik

ez arren ekarri.

Ama batzuen poza

besteen negarra.

Guztientzako ez da

hemen irriparra

baina batzuren pozak

bai baitu indarra

hori dago deneri

zabaldu beharra.

SEI PUNTUKO MOTZA

J. Martin – N. Elustondo

Gaia: Zu, Jon, eskolako saskibaloia taldeko entrenatzailea zara. Gaur Nerea eskolako zuzendariak esan dizu lehiakortasuna gehiegi sustatzen duzula.

Neurria: Zortzikoa, berdinarekin moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

J. Martin:

Zenbat baloi saskietan
mutil altu askietan
gehiago eskatzen diet beraiei
ahal den guztietan.
Behin aukera dagonetan
onena izan onetan
lehiakor izan beharra dago
gizarte honetan. (bis)

N. Elustondo:

Arrazoiaren jabea
sentitzen zera ordea.
Heziketa da etorkizunak
behar dun habea.
Lehian daukazu fedea
baina bakoitzai berea:
hau eskolako patioa da
ta ez NBA. (bis)

J. Martin:

Denak eskaparatean
jartzen diren bitartean
ahalmena duten hiru edo lau
badaude tartean.
Insistituta nekean
jarrita sasoi betean
NBAraino irits daitezke
egunen batean. (bis)

N. Elustondo:

Patioan zenbat neke!
Oihu egiten diezu fuerte
ta hola ezin da curriculumak
nik nahi gisan bete.
Beraiek hainbat entzute
ahaleginaren truke
ta ze esango ote diezu
lortzen ez badute? (bis)

J. Martin:

Zu zara zuzendari *guai*
horrenbeste irakasgai
baina ez zara kirol kontuan
argi ikusteko gai.
“Saiatu al zarete?” “ Bai”
hori baino ez nuen nahi
nik irabazten irakatsi dut
ta galtzen ere bai. (bis)

N. Elustondo:

Esanak eman dizu min
ez dezu hartu atsegin
ta elkarrizketa bukatu nahia
zure *speecharekin*.
Ez nago ados zurekin
behar baitzenduke jakin
mundu honetan nahiko degula
Wert bakarrarekin. (bis)

J. Uria – J. Uranga

Gaia: Duela hiru urte banandu zineten. Azkenaldian asko egoten zarete elkarrekin.

Jone, Jokinek proposatu dizu berriz elkarrekin bizitzeko saiakera egitea.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

J. Uria:

Diozu erdi sekretuan
ez oso tonu altuan
lehendik biok sobranter gabiltz
gure eskarmentuan.
Esan duzun momentuan
aitortuko dut tentuan:
ez dut sinistu inoiz bigarren
aukeren kontuan. (bis)

J. Uranga:

Kendu mamuen itzala
sinistu posible dala
hiru urtean ligoteoan
hain izan naiz bala!
Muxukatzen hasi ahala
eta laztantzen azala
beste inorekin ez naiz sentitu
zurekin bezala. (bis)

J. Uria:

Lehen batera hiru urte
genuen nahiko bertute
ez zara inoiz hala sentitu
zure hitzen truke.
Tori pare bat apunte
nahiz ta ez den geratu kutre
diozun lehen aldia balitz
sinistuko nuke. (bis)

J. Uranga:

Zure kopeta iluna
ta nere bihotz biguna
hemen bakoitzak daukagu gure
erantzunkizuna.
Utzi libre maitasuna
alde daukagu kuttuna
egin genitun akatsetatik
ikasi duguna. (bis)

J. Uria:

Sarri geunden ika-mikan
antzeko erretolikan
eta zergatik pasa berdina
ai Jokin birritan?
Egina mila alditan
lehenago egona kinkan
ikasi eta beste batzukin
jar zazu praktikan. (bis)

J. Uranga:

Besteentzako atea
ixtea ez da kaltea
zure uretik bakar-bakarrik
nahi dut edatea
maite zaitut esatea
eta muxu ematea
onartu ez arren zuk ere horixe
nahi duzu maitea. (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Arzallus

Gaia: Denbora daramazu zure eskuei begira.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Oso polita zara izatez*

Oso polita zara izatez
ni neu ez naiz itsusia
hamar urtean eskutxo honek
zer digun erakutsia!
Zure bularrak zure besoak
ta nere indar gutxia
zeu zara nere erakarmena
ta zeu nere nagusia.
Orain laztan bat orain keinu bat
eta gero igurtzia
bost behatzotan ez da kabitzen
nere maitasun guzia. (bis)

Berriro ere nahiko zintuzket
ezpainetan musukatu.
Berriro ere nahiko zintuzket
beso hauez besarkatu.
Gauza txiki bat esan nahi dizut
begitara begiratu:
nik maite zaitut barru-barrutik
nahiz izan bi esku hantu.
Hara hitztxo bat esku honetan
idatziko dut “Barkatu”.
Nahi ez baduzu utzi ezazu
eta nahi baduzu hartu. (bis)

Hatz txikitxo bat hatz luzetxo bat
ta behatz bat gizen-gizen
bakoitzak bere funtziotxo
ta bakoitza bere izen.
Eskua eman eta ez gara
promenan gutxi ibiltzen
baina gau batez hasi liteke
bizitza oso bat zailtzen
hemen ari naiz nere burua
madarikatzen, epaitzen
zaplasteko bat emateraino
nola ailegatu naizen! (bis)

J. Uria

Gaia: Denbora daramazu zure eskuei begira.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Beti izan naiz neska bat
polita eta liraina
beti hain neska koketa
beti hain neska apaina!
Bakoitzak bere gustuak
ditu beti alajaina
eta ni gogotsu nabil
beste asko dabiltzan aina.
Orbanak ikus ditzaket
ia lehertu zait zaina
alde batean zauria
eta bestean orbaina
banekien hau izango
zela lanaren ordaina
minduta dauzkat eskuak
merezi izan du baina.

Nahiz sakrifizio falta
izan litekeen problema
hori da igual daukadan
gaitasunetan onena.
Egunero- egunero
entrenatzeko ordena
lortu gura baikenuen
maila benetan gorena
ezagutu Orio, Zarautz
Portu edota Zierbena
asteburu guztietan
ibiliz kostan barrena.
Eskuei begiratuta
niri ez dit ematen pena
kirol sakrifikatua
delako arraunarena.

Estropadaz estropada
beti kolpetik kolpera
ziabogaz ziaboga
ibili gara topera.
Zumaian elkartzen ginen
ni ta hainbeste kolega
elkarri laguntza emanda
atera gara aurrera.
Gaur gogoz atera gara
guztioK Kontxa parera
genekiena egin dugu
tokatzen zen arabera.
Orain eskuei begira
bi malko zaizkit atera
Euskal Herrian geratu
delako behingoz bandera.

J. Soto

Gaia: Denbora daramazu zure eskuei begira.

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Munduko ilunabarra*

Ahazteko eginahala	Parkinson artifizea
egin nuen berehala	ta ni bere konplizea
oinazeak diosala	bizitza zer da? Leizea
egin ez balit oxala!	aldiro kontrari haizea.
Hasera baten pentsatzen nuen	Apurka-apurka gaindituz noa
“Julio hau ez dek normala”	hasierako batxea.
ohartzen nintzen eskua behera	Zer da bizitza? Nahiz ta dardarti
bezala gora doala	guztia lasai hartzea
ttirri-ttarraka ttirri-ttarraka	ta holakotan gaixotasuna
Parkinsonaren itzala	onena da onartzea
eskuek dar-dar eiten didate	ta onena dut begi pareta
tetxuak uran bezala ¹	ahantz dezadan oinazea
ta txarrena da bihotzak ere	eskuetatik altxatu eta
dar-dar egiten didala. (bis)	aurrera begiratzea. (bis)

Alzheimerrak begirada
zuzenki begietara
esku batean kikara
mugitzean ze ikara!
Bi azukreak botata sartzen
dut lehenbailehen goilara.
Haseran denak harritu xamar
“Nerbioso jarri al zara?”
eta azaltzen eta azaltzen
animoen beherakada.
Nahiz ta eskuek dardarra egin
ezker ta eskubitara
nere ingurukoaren babesa
dardarrik gabekoa da. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

J. Uranga

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aita izenak kanta beharrak*

Lujo handi bat zen guretzat gaur
kartzelara joatea
Aquarius pixkat ta *Coca-Cola*
pastak ta txokolatea.
Barrura sartu eta frontoia
jendez goraino betea.
Honen erredun nagusia da
Bertsozale Elkartea
ohore handi bat da zuetako
bat gehiago izatea. (bis)





Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"



Igor Elortza Aranoa



Etxahun Lekue Etxebarria



Jexux Mari Irazu Muñoz



Unai Iturriaga Zugaza-Artaza



Amaia Agirre Arrastoa

TOLOSA

2013-11-10, IGANDEA, 17:30

USABAL KIROLDEGIA

FINALAURREKOAK: BIGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Iñigo Mantzizidor Larrañaga “Mantxi”

Igor Elortza Aranoa

Etxahun Lekue Etxebarria

Jexux Mari Irazu Muñoa

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Amaia Agirre Arrastoa

GAI-EMAILEA: Inazio Usarralde Aranzadi

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Finalaurretako bigarren saioa zen gaurkoa. Olatuaren gainean jarri, gero eta gorago goazen sentsazioa dugu. Ez bakarrik bertsozaleen erantzunagatik (gaur ere aretoa gainezka) bertsogintzan eman denarengatik baizik. Atzokoa maila ederrekoa izan zen eta Tolosan oraindik koska bat igo den ustearekin geratu gara Usabal kiroldegira gerturatutakoak. Saio gustagarria, betea izan da gaurkoa. Memorian gordetzeko modukoa kantatu du agurrean Etxahun Lekue. Eta horrela izan da.

Agurretatik bertatik piztu dela giroa. Kiroldegia betetzen zuten entzuleak horretarako prest geunden eta bertsolariek agurretan baiezkua esan digute. “Dena ematera”. “Has dadila festa”. “Ekipo bat gara”... Animoz beteta hasiera.

Batez ere, lehen ofizioa zortziko handian goi mailakoa izan da, eta horrek jarri du langa. Haurraren lagun *imaginarioari* buruz kantatu behar izan dute, gerora lehenengo eta bigarren izango ziren Igor Elortzak eta Mantxik. Saio horren arrakastatik jarraitu dute besteek ere. Eta izan dira gerora bertsoaldi honi buruzko bizpahiru erreferentzia. Ondoren, ohiko bihurtu zaigu aurreko saioaren baten haritik

tiratzea hurrengo osatzeko. Oso bizi eta gustagarri egiten da hori entzulearentzat, konpartitzen dugun zerbaitez ari baikara, konplize eta partaide bihurtzen gaituen ezagutza batez.

Bertsolarien lanari dagokionez, Igor Elortzak izan du gaur egun ona. Hasi eta buka saio betea. Oso maila altua utzi du, eta finalerako bere kandidatura mahai gainean. Iñigo Mantzizidor “Mantxi”k ere utzi ditu ale, bertsoaldi, bikainak, eta finalerako borrokan sartzen dela dirudi. Besteak gorabeheratsuago ibili dira, baina denen artean eskaini dute saio ederra.

Bukaeran zerbait aipatu bada, Unai Iturriagaren potoak izan dira. Bat, bi, hiru... egin ote dituen. Bakarkako lanean (muxu azken bertsoan), puntu erantzunetan (hori da / hasi da) eta eztabaida ekarri duen *lagun* bi aldiz erabiltzearekin. Makina bat lagun batean, *pertsona* adiera hartzen zuela, eta hurrengoan arma horien lagun. Dena den, oso saio ona egin du, itzela, eta seigarren aldiz jarraian finalean egoteko mirari txiki bat beharko badu ere, horretarako gai da durangarra. Goatzeko moduko saioa izan da gaur Tolosakoa.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HASIERAKO AGURRA

I. Elortza:

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Biba zuek Tolosa
gaur hau baino ez da
ez laneko arazo
ez etxeko kezka
ez mus ez poker ezta
txorta ez siesta
tabladuan sei eta
Usabal gainezka.
Plazerra geurea da
has dadila festa! (bis)

ZORTZIKO HANDIA

Mantxi-I. Elortza

Gaia: Gurasoak zarete. Gaur zuen umeari askaria eman diozuenean, honek erditik banatu eta mahai gainean utzi du bere lagun imaginarioarentzat.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait A*

Mantxi:

Arratsaldero egoten gera
momentu hau aillatu zai
bokadiloak jaten batere
zalea ez da gure Unai.
Erdia utzi du mahaian gainean
ta ez nago bat'e lasai:
erdiya bere lagunarentzat
ta beste erdiya ez du nahi.

I. Elortza:

Agian geure ipuin ta kantak
izango ditu eredu.
Nik ez dot horren gaizki ikusten
ideia hoiek aldendu.
Otarteko erdi eman ein dio
ohartu, eman, ez kendu.
Hala geuk ere mundu hobe bat
imajina dezakegu.

Mantxi:

Arrazoi dezu mundu hobera
egin nahi det neuk'e txango
erdiya bere lagunarentzat
joan da erdi kontrabando.
Lagun hurkoa maite du honek
ta iruditzen zait ondo
hau gobernura iristen bada
ez da goserik izango.

I. Elortza:

Dirudienez gure umea
hezten gabiltza polito
ea haztean ere halaxe
eutsi ahal dion tinko.
Hola jarraitzen badu diozu
ez garela gosez hilko
zu lasai egon horrela ez da
gobernura iritsiko.

Mantxi:

Nik nahiago det heltzen ez bada
hobe seme naturala
baina jateai uzten badio
ze egingo degu aibala!
Nonbait plakoa izan nahi luke
plakoa txotxak bezala
horretan ere izan nahi baitu
aitaren igual-iguala.

I. Elortza:

Aitan iguala izan gura du
beti dago adi-adi
orduan beste adibide bat
emango diot opari:
guk lagunduta jan egingo du
erdi olgetan kantari
zuk emaiozu berari jaten
ta nik bere lagunari.

U. Iturriaga –A. Agirre

Gaia: Lagunak zarete. Orain arte konforme bizi izan zarete zuen itxurarekin. Adinean gora zoaztela eta, zuen gorputzekin deseroso sentitzen hasiak zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala I*

U. Iturriaga:

Aldean ditudan denak dira
amak mundura ekarriak
orain artean itxuraz behintzat
nahiko orekan jarriak
baina ispiluan aurrean jarri
ta adinaren aldarriak
pixka't mehetu naizen honetan
hazi zaizkit belarriak.

A. Agirre:

Arrazoi dezu baina parean
nola hasiko naiz parrez?
Lehen futbolearen aritzen nintzan
ta moldatzen nintzan errez
gaur mitxelinek galtzen gainetik
egiten didate ihes
ta zimurak ez dio gezurrik
ta ispiluak ere ez.

U. Iturriaga:

Erori ote gara guztiok
itxurakerian mende?
Berrogei urtera iristear
kezkatan hainbeste jende.
Zimurak ez dituzu hainbeste
mitxelin aizu mesede
oso guapa ikusten zaitut nik
benga esaidazu zeuk ere!

A. Agirre:

Ai baina nola Unai badezu
kaskoa hain zurituta
alperrik gabiltz edadeari
egin nahiean burruka.
Guapa nagola eskerrik asko
daukat gogoan hartuta
baina ni ere igualtsua naiz
makillajea kenduta.

U. Iturriaga:

Begiratuak sentitzen gara
seguru asko kalean
itxurak menpean hartu gaitu
geure izaera ahulean.
Estimatuko bagina ordea
luzean ta zabalean
hobe makillajezko pintzelak
ta ez bisturia azalean.

A. Agirre:

Nere itxura zertan aldatu
ebakuntza bat tarteko?
Zahartuz noa baina onartu
eta hartara hobeto.
Baju bazaude hartu tarte bat
amonangana juateko
errezetarik onena baita
autoestima igotzeko.

ZORTZIKO TXIKIA

I. Elortza- E. Lekue

Gaia: Katu bana duzuen bi auzokide zarete. Zu, Igor, esan eta esan ibili zatzaizkio
Etxahuni bere katua ondo kontrolatzeko. Gaur, berriro harrapatu duzu
Etxahunen katua zure katuari jarritako janaria jaten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

I. Elortza:

Lehengo astean hustu
zizkidan bi zaku
berriz ez gertatzeko
egin gendun tratu.
Hargatik bi aukera
ditut baloratu:
bata da barkatu ta
bestea akatu. (bis)

E. Lekue:

Ba ez nabil zugaz ados
egoteko asmotan
zenbat gastatu dozu
pentsu zaku hortan?
Asko jota egongo da
hamar bat eurotan
nik gehiago ordaintzen
deutsut txikitotan. (bis)

E. Lekue:

Zuen elkarriketei
egoten naz adi
lehengoan esan zeuntson
zeure semeari
“Bokadiloa emon
goseak danari”
ez kontrakorik esan
zeure katuari. (bis)

I. Elortza:

Beraz joan behar dugu
taberna ertzera
auzokideen bizitza
itxuraz haxe da:
katua bata jana
besteai kentzera
eta jabeak berriz
txakurren antzera. (bis)

I. Elortza:

Beraz ipini diot
nik jana eskura
semean ejenplua
honaino heldu da.
Batzuk gabiltza esku
zabalen modura
ta beste batzuk beti
inoren kontura. (bis)

E. Lekue:

Ez haserratu Igor
kauen la puñeta!
Sekretua euki gura
neban nik gordeta:
gure katua dago
aspaldi aseta
kortako arratoiak be
jaten deusuz eta. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

J. M. Irazu- U. Iturriaga

Gaia: Zuk, Jexux Mari, perfume-denda batean lan egiten duzu. Unai egunero-egunero
etorri, perfume bat probatu eta joan egiten da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nioa*

J. M. Irazu:

Atzo zuen *Hugo Boss*
ta lasai gelditu
gaur *Cacharel* pixka bat
ta berriz segitu
zuri egin zaizkizula
neri irudit
belarriak hazi ta
azala loditu. (bis)

U. Iturriaga:

Hara gaur *Kenzo* bila
egin dizut buelta
atera gura nuen
beti lez pertxenta
baina ez zaitez kejavu
ez jarri erreta
inoiz neuretik ere
utzi dizut eta. (bis)

J. M. Irazu:

Askotan ibiliak
zu ta biyok setan
ta utzi didazula
zuretikan bertan
arrazoia galanta
daukazu horretan
behin erori zinan bai
babarrun eltzetan. (bis)

U. Iturriaga:

Zergatik behar dituzu
zuk txispak atara?
Muestra bideratua
da propagandara
ta hala're ez duzu nahi
tantatxo bat laga
Channel ez dakit baina
kokoa zeu zara. (bis)

J. M. Irazu:

Ni kokoa naizela
horrela ohitzeko
zu txapelketarako
zenbiltzan doitzeko
Tolosara joan nahi
dotore antzeko
botaidazu bertso bat
tanta bakoitzeko. (bis)

U. Iturriaga:

Bertsoa da hain justu
lagun nire lana
joaten bada gero
bertan ondo dana
astelehenean tanta
bakoitzeko bana
eta asteartean
muxu bat laztana. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

Mantxi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Museotan badugu

aukera anitza

ba ez naiz inoiz izan
ematen det hitza
Bilbon bat ba omen da
haundia, bortitza
neu piezarik onena
sartuko banintza!

Artea ulertzea

ez da hain erraza

bertsotan gabiltza gu
plazarikan plaza
ta hau arte bat dela
diot nere kasa
eta gu ulertzeko
nor ez da kapaza?

Artista hildakoan

balioa gora

horrela izaten da
artistaren moda.
nik artea egiten dakit
bertsotik bertsora
ta orain txalo nazaten
hobe izango da.

SEI PUNTUKO MOTZA

Mantxi-J. M. Irazu

Gaia: Aitona-bilobak zarete. Zu, Mantxi, aitona, eta Jexux Mari biloba. Orain arte familiatik kanpoko zaintzaile batek zaindu izan zaitu Mantxi. Orain, Jexux Mari biloba lanik gabe geratu da, eta zu berak zaintzea proposatu dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinarekin moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

Mantxi:

Ja lana galdu dezunez
libre erantzunkizunez
ni zaintzeko prest omen zaudela
jardun naiz entzunez.
Hasi gaitezen zentzunez
ta gauza bat erantzunez
ze eingo dezu diruagatik
edo maitasunez? (bis)

J. M. Irazu:

Banekin ez zala broma
nolako ezinegon!
Kanpotik ere entzuna nuen
zuk zeneukan sona.
Nik borondate sakona
ta zaude lasai aitona
nagusi txarrak izaten baitu
herentzia ona. (bis)

J. M. Irazu:

Aitona beti alerta
bere ondoan zer gerta
esan nahi zidan “Aizu biloba
ken zazu kareta”.
Nik maitasunez arreta
zuk ere neuri fereka
eta horrela zainduko dezu
nere hipoteka. (bis)

Mantxi:

Hango arropaz jantzia
peruana bat dultzia
nahiago det nik zu baino nere
ondora etortzia.
Ta entzun azken sententzia
agortu zait pazientzia:
bizkarreko bat izango dezu
nere herentzia. (bis)

Mantxi:

Hoi mingaina zorroztea
ta nahiko dezu poztea
prest omen zaude orain zaintzeko
etxeko lastrea.
Badezu diru eskea
gustora dator gaztea
ba nik beti izan det nagusi
txarraren ospea. (bis)

J. M. Irazu:

Hasarretu zera dena
pilatu baitzaizu pena
diru trukean zaindu nahiean
nolako problema!
Bizkarreko nabarmena
laiste helduko zaitena
agian hori izan liteke
lekzio onena. (bis)

I. Elortza- U. Iturriaga

Gaia: Bikotea zarete. Zuk, Igor, bi urterako kontratu bat lortu duzu atzerrian. Unai ez joateko eskatu dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinarekin moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

I. Elortza:

Kezka eta buruhauste
pasa ditut hiru aste
beste aukerarik ez daukat Unai
ez jarri hain triste.
Zatoz ez joateko eske
ezin dut egin hainbeste
lanik ez duzu ta agian zeu
etorri zaitezke. (bis)

U. Iturriaga:

Moldatu gara urteetan
euroan eta pezetan
hau ere pasa liteke Igor
diotsut benetan.
Ni zurekin joan zertan
han egoteko penetan
afaria prest izan dezazun
beharretik bueltan? (bis)

I. Elortza:

Zu ezezkotan jo ta ke
kezka duzula bitarte
baina bizi nahi al duzu bada
nigandik aparte?
Beraz afaia bastante
kontra izan zenezake
larunbat eta igandetan neuk
prestatu nezake. (bis)

U. Iturriaga:

Hara bidai eta gastu
nahiz ta hemen bizi estu
joanda ere ezingo zara
Igor aberastu.
Maitasunak nau ni lastu
zuk gauzarik ez nahastu
zuk ere aukera bi dituzula
ez zazula ahaztu. (bis)

I. Elortza:

Arrazoia duzu lagun
inor ez gara errudun
baina bi urtean baino ez dut behar
atzerrian jardun.
Elkarrekin gau ta egun
gu kanpoan bi euskaldun
eta benetan jakingo dugu
elkar maite dugun. (bis)

U. Iturriaga:

Beraz niretzako lana
zailtzen zait hor panorama
edo geratu edo Txinara
joatea zugana.
Hara! Daukat gogor fama
hau bukatzen da lastana
ez dut nahi *Made in China* izatea
gure harremana. (bis)



KARTZELAKO LANA

Mantxi

Gaia: Pasilloko edo korridoreko argia itzalita lokartzeak beldurra ematen dizu.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Arratsalde on ta aupa zuek*

Umezurztegi batean nengon	Baina ez, ez zen tren azpi hartan
baina bost-sei urterako	zabaldtu nere odola
ihes egitea pentsatu nuen	gainean txixa egin nuela
plana pentsatu beharko. (bis)	ez det ahaztuko inola. (bis)
Leiho bakarrak ematen zuen	Baina ametsak esnatu ohi nau
herriko trenbiderako	ni gauero hara nola:
umea nintzen ta uste gabe	izerdi batez dar-dar betean
hara egin nuen salto	negarrez ezin kontsola
trenak ez zun egin alto	baina lortzen det kontrola
ta egun hartan ez nintzan zendu	ta egunero ospatu ohi det
patuak nahi ez zulako. (bis)	bizi-bizirik nagola. (bis)

Zortzi urtekin egin ninduten
famili baten bezero
mutiko traste samar izaki
pasa det mila endredo. (bis)
Amaordekoai esaten diot
“Uztazu piztuta edo
nik lokartzean joango zera
itzalduko dezu gero”.
Ia bihurtzen naiz ero
trena gainera datorkidala
amesten baitet gauero. (bis)

I. Elortza

Gaia: Pasilloko edo korridoreko argia itzalita lokartzeak beldurra ematen dizu.

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Ikastolako ipuinak beti
erakargarri niretzat.

Gaur entzun ditut otsoen kontu
eta basotako ertzak.

Orain hemen naiz neure ohean
eta akorduak datoz oldean
hartz txikitxo bat kideztat
ahizpa bat edo neba txiki bat
edukiko banu behintzat!

Baina ez dakit nola etorriko
zaizkidan gaurko ametsak.

Ate azpiai nago begira
agertuko al da argi dirdira?

Gau ilunak eta beltzak
arrisku dira haurrentzat.

Oraingoz hor da argia eta
ahaztu dut buruhaustea

ez baitut maite jeiki beharra
eta berriro neuk piztea.

Baina entzun dut gero zarata
korridorean pare bat hanka
antza hor dabil bestea.

Komunean txis egin du eta
bueltan doa desastrea

behin eta berriz ahazten duena
bere alabaren eskea.

Nahiz ta lehenago jardun kantari

berriz gertatu zaio aitari

burua joan ta ahaztea

argia martxan uztea.

Jeiki naiz eta korridorera
berriz piztera joatean
sentimentuak, nahiak ta kezakak
hazi zaizkit jo ta kean
ta horregatik esan dut “Listo!
Atzo ere egin nuen ze kristo!
berriz hemen naiz atean”.
Nire hartzatxoa hor eraman dut
pausuz pausu besapean
sartu beraien logelan eta
oraintxe nago bakean.
Gustora egingo dut hemen lo-lo
ahaztuta mamu eta mozolo
babesleku eder batean
aita ta amaren artean.



Jon Maia Soria



Beñat Lizaso Alberdi



Aitor Sarriegi Galparsoro



Alaia Martin Etxebeste



Odei Barroso Gomila



Agin Laburu Rezola

OIARTZUN

2013-11-16, LARUNBATA, 17:30

ELORSORO KIROLDEGIA

FINALAURREKOAK: HIRUGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Jon Maia Soria

Beñat Lizaso Alberdi

Aitor Sarriegi Galparsoro

Alaia Martin Etxebeste

Odei Barroso Gomila

Agin Laburu Rezola

GAI-EMAILEA: Unai Elizasu Lertxundi

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Oiartzun, Oiartzungo Elorsoro kiroldegia da gaurko zita-leku. Betiko orduan, bertsozaleek aski ezagun dute plaza eta herrira iristen joan dira 1500 lagun. Askotan etorri dira hona txapelketak eta urtero Euskal Herrian egiten den jaialdirik jendetsuena egiten da bertan, euskal presoen elkartasunean egiten dena. Izan dute hori gogoan bertsolariek beren agurretan.

Gogoa, berriz, goran zegoen. Aurreko bi finalerdietan nabaritutako koska igoeraren esperantzan inguratu da jendea Elorsorora. Bukaeran ez da jendea sentsazio horrekin atera. Txapelketakoagoa izan dela saioa esan dute gure alboan, bukatu eta berehala. Eta hitz hori erabilitakoan, tentsio handikoa, lehertu gabekoa, hotza, esan nahi izaten da. Eta bai, ez da giroa lehertu duen saiorik egon, ez nuke esango tentsio asko antzematen zenik, baina apal antzean joan da.

Hasi, epeletik hasi da, zortziko handian arrankatu ezinik bezala. Hortik aurrera, bertso maila ona eskaini digute denek, baina agian gehiago espero zuen bildutako jendetzak.

Saioetako kronikek Jon Maiaren ezustekoa aipatuko dute. Finalerako faborito zena txapelketatik kanpo geratuko da. Txapelketako txanponaren aldeak. Bestalde, Aitor Sarriegik pilatu ditu puntu gehien eta finalean egoteko hautagai garbia da. Etxean jokatzeko Alai Martin ere ondo kokatuta dago BECerako aulki batengatik borrokatzeko. Aukera hori izango du Agin Laburuk, baino atzeraxeagotik abiatuta. Besteek, oholtzatik kanpo jarraitu beharko dute lehia. Saio hotz samarra ateratzearen ondorioak.

Tenperaturari dagokionez, goxoan hasi dena hoztu egin da bukaerarako. Hotz egiten du kanpoan. Eta juxtu bukaerako agurretan ari zirelarik ur jausi bat, itogin erraldoi bat, erori da sabaitik. Bertsozale batzuk bete-betean harrapatu ditu.



Argazkilaria: Alberto Elosegi / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HASIERAKO AGURRA

J. Maia:

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Konfesatuta hau esateko*

Zu Elorsoro bertsoarentzat
ez zera edozein toki
urrun eta hotz dauden lagunen
urtean behingo beroki.
Gaur norbanako lehia honetan
nahi degu kolektiboki
sentitu, bota, sentiarazi
oihukatu, iradoki
gaur ere izan amets bihurtzen
diren hitz hauen antzoki. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

A. Sarriegi – A. Martin

Gaia: Telebistako saio baten arduradunak zarete. Zuen telebista-saioa audientzia galtzen ari dela eta, Zuzendaritzaren abisua jaso duzue.

Neurria: Zortziko Handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

A. Sarriegi:

Saio eder bat egin genezan
esan ziguten aurrena
ta hor gabilta gure ehun ta bat
gazeluetan barrena
baina audientzian eduki dugu
inoizko datu txarrena
Julian Iantzik kaltzontzilotan
aurkez dezala hurrena. (bis)

A. Martin:

Gazteluotan ezin liteke
herensugeri aurkitu
norbaitek behintzat ikusi du ta
badugu nahiko meritu.
Julianena ideia ona da
horrela zait irudit
Julian Iantzik kantzontziloak
eranzten baldin baditu. (bis)

A. Sarriegi:

Programaraino etortzen zaigu
makina bat astakirten
zerbait fuertea behar degula
badet zenbait irudipen
ta Iantzirenak ez baldin badu
audientzian eragiten
Jon Maia jarri beharko dugu
mamuarena egiten. (bis)

A. Martin:

Baina orduan egongo dira
ikusleak beldurtuta
Jon Maiak maila eta altura
nahiko handia badu ta.
Beste zeozer bila daiteke
programa hau osatuta
Gazta zati bat sar genezake
copyright-a eskatuta. (bis)

A. Sarriegi:

Ez dakit hasi behar genukeen
halakoak erakusten
brainstorming-a burutu dugu
hasirik ideiak husten
baina ez dakit gu lan honetan
zergatik jarri gaituzten
egia aitortu behar badizut
neuk ere ez dut ikusten. (bis)

A. Martin:

Nik ere ez dut ikusten baina
ez horren altu hitz egin
beste aukera bat eman digute
goiko partetik behinepin.
Gure programa ken dezatela
ez badaukate atsegin
ta beti egiten duten bezela
jar dezatela *Mister Bean*. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

Laburu - J.Maia

Gaia: Euria ari duela eta, zuri, Agin, bere aterki azpian sartzeko eskaini dizu Jonek.

Agin, sartu zara aterkipean, eta hala ere bustitzen ari zara.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Laburu:

Txinotan erosia
ttikiya, merkia
altura ustez nuen
neretzat suertia
baino haize zakarra
hotza ta fuertia
pertsona t'erdirentzat
al da aterkia? (bis)

J. Maia:

Txinotakoa da ta
ez du nahiko luxu
baina ez dut egin nahi
hainbeste abusu
bustitzen zerala ta
ze kulpa det aizu
bi pertsonaren hankak
baldin badauzkazu! (bis)

A. Laburu:

Horregatik ez nabil
pauso azkarrian
baino ez gera hasiko
biyak liskarrian
nahiko indar badezu
lagun ixtarrian
eta busti ez nadin
hartu bizkarrian. (bis)

J. Maia:

Egin behar didazu
orain kutxi-kutxi
arrimatzea zer den
nola erakutsi?
Bizkarrera saltatu
hori ez da gutxi
eta zuk aterkia
makuluez eutsi. (bis)

A. Laburu:

Arreta jarri diyot
esandako horri
mezua nahi zenidan
agudo igorri
bizkarrera saltatu
hola parregarri
eutsiko diyot baino
eskailerak jarri (bis)

J. Maia:

Leku askorik ez dago
zer egin horrela?
Beraz datorren hori
hola datorrela
jakinik txinoetan
erosia dela
arrimatu gaitezen
txinoak bezela. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Sarriegi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Prestigek belztu zuen

itsaso zabala

ta inpunitatean
geratu da hala
tratatu baikaituzte
tontoak bezala.
Erabaki zuenak
ordaindu dezala.

Kutsaduraz betea

Kantauriko ertza

arroketan delako
petrolio beltza.
Nahiz ta askorentzat den
udako ametsa
nun bainatu behar dun
ondo pentsa beza.

Zer iristen ote da

gure lapikora?

Igual ez pentsatzea
hobe izango da
nahiz eta pozik sartu
sukalde txokora
batek daki ze kristo
datorren ahora!

A. Martin

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Zenbat kafe edaten
duzu egunean?**

Kafeina pixka't dut
nere barrenean
batekin hasi eta
zortzi azkenean
baina utzi behar dut
etorkizunean.

**Kafeina gabea
kafea ote da?**

Ze metafisikoa
den zure galdera!
Kafeinaduna hobea
nere arabera
laister hartuko dugu
biok bat batera.

**Lehen lagun zituen
puru eta kopa**

trago bat hartu eta
kalada bat bota.
Debekatu badute
neri ez zait inporta
beti egon naiz eta
lege denen kontra.

SEI PUNTUKO MOTZA

B. Lizaso – O. Barroso

Gaia: Gaztetan rock-talde ezagun batean jotzen zenuten. 20 urte dira azken kontzertua eman zenutela. Gaur, Beñat, Odeik proposatu dizu berriz taldea elkartu eta bira bat egitea.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Mendian gora haritza*

B. Lizaso:

Rock-a zen gure arkupe
geneukan grinaren truke
orain berriro ere zuk Odei
hasi nahi zenuke.
Pasa dira hogeï urte
nola hartuko gaituzte?
Gure garaia pasatu zela
ez al dezu uste? (bis)

O. Barroso:

Lehen ordurikan ordu
dardarka lur eta zoru
zu lasai egon gitarraren zain
ez gara egongo gu.
Badaude hamaika modu
guk ematen badiogu
negu gorriak udaberria
ikusten ahalko du. (bis)

O. Barroso:

Nik ere ditut gurari
dexente eta ugari
lotu gaitezen berriro lehengo
gitarren gudari.
Ez al ginen ongi ari?
Hasi gaitezen kantari
doinu zaharrak jartzeko gure
garai berriari. (bis)

B. Lizaso:

Neretzat da enbarazu
zuretzat dena da luxu
bide horretan nik segitzea
gaur zaila da aizu!
Eta gogoz bazaude zu
Odei tori zuk bi muxu
ta zuen lehen kontzertu hortan
hor izango nauzu. (bis)

B. Lizaso:

Gu gure txoko maitean
genbiltzan borondatean
herritan zehar zirrara sortzen
genuen artean.
Zu zaude gogo betean
nik dena neure kaltean
nere gitarra saldu bainuen
subasta batean. (bis)

O. Barroso:

Musika denean sare
ezer ez da nobedade
nun ote daude gure lehengo
kantu apal, grabe?
Kontzertuan parez pare
ezarri zaitez hala're
nik zuretzako jo nahiko nuke
baina ez zu gabe. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Sarriegi – A. Laburu

Gaia: Bikotea zarete, eta gaztetan hasi zen zuen arteko harremana. 7 urte kartzelan egin ostean, orain hilabete gutxi askatu zuten Agin. Aitor, gaur esan dizu zuen artekoa bukatu dela.

Neurria: Zortzikoa, berdinarene moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

A. Sarriegi:

Bi txoritxoren gisara
maitasuna halakoa da
hasi ginenok pasa ditugu
makina bat traba.
Gaur bukatu dela hara
esanez zatoz bertara
barruan egon zaren garaitik
zer aldatu da ba? (bis)

A. Laburu:

Bihotza bi puska hautsi
deseberdin biyar ta etzi
ze aldatu dan galdetzen dezu
erantzuna eutsi:
espetxeak ez dit gutxi
urteotan erakutsi
sentimenduak ezin dirala
giltzapean utzi. (bis)

A. Sarriegi:

Eduki zaitut aparte
zure zerraila ta ate
ta horrek bioi sortu dizkigu
makina bat kalte.
Espetxean zazpi urte
ni joan ta etorri jo ta ke
ta hortaz ez al zera ohartu
irten zeran arte? (bis)

A. Laburu:

Zazpi urte eta piku
errepide ta istripu
gure harremanak hamaika muga
gaindituak ditu.
Zer pasa zaidan begitu
ahal badezu entenditu:
sentitu igual egingo nuen
ez naiz atrebitu (bis)

A. Sarriegi:

Horrek nola eman didan su
ene zenbat enbarazu!
Nik txintxo-txintxo egin baitizut
giltzapean kasu.
Bizitzen ikastera zu
zoaz eta badakizu
maitatzen ere ikas daiteke
hala nahi badezu. (bis)

A. Laburu:

Zazpi urte aparteko
gaur ez gaude aldarteko
baino ez uste ez zaitudanik
gehiago maiteko.
Nahiz ta mindu zeran seko
erabaki hau tarteko
gezur batean bizi ezkeru
ez gaude hobeto. (bis)

Argazkilaria: Alberto Elozegi / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



KARTZELAKO LANA

A. Sarriegi

Gaia: Oheko maindireak edo mihiseak egunero aldatu behar izaten dituzu.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Lanean hasi eta etxe bat*

Lanean hasi eta etxe bat
erosi nuen lehenbizi
bertara joan eta urteak
pasatu krisi, ez krisi.
Gazte garaian ingurukoek
“Jo Aitor hi bizi haiz hi!”
baina urteak aurrera joanda
bada zenbait analisi
egia esan mutilzahartu naiz
bada nahiko aurreiritzi.
Nere etxean nago bakarrik
eta pentsatzen naiz hasi
bikoteren bat izan nahi nuen
eta ez bakarrik bizi
bizitza osoan zain egon naiz ta
ez da sekula iritsi.

Bi gurasoak zendurik dauzkat
adin honetan normala
kontuan izan laurogeita bost
urte bete ditudala.
Eta haseran moldatzen nintzen
beti nola edo hala
baina denbora aurrera joan da
ai aurrera joan ahala
torpetu naiz ta nere gorputza
hain da ez deus ta hutsala!
Garai bateko gazte harroa
orain agure apala
maindire denak busti ohi ditut
jarri arren pixoihala
nire burua zaindu behar dut
amak umetan bezala.

Kejaka hasi ezker ere
inor ez dago atean
denbora geldi joaten da gelan
ez da joaten bapatean
ia altzari sentitzeraino
hau guztia jasatean.
Sarri askotan pentsatu izan dut
buka dadila bakean
baina pittin bat pentsatuz gero
ondoren neure artean
aukera asko ez ote daude
gaur egungo gizartean?
Neure etxea saldu dezadan
ahal dudan bitartean
ta azken arnasa eman nahi nuke
erresidentzi batean.

A. Martin

Gaia: Oheko maindireak edo mihiseak egunero aldatu behar izaten dituzu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*


Tristeziak hartu ohi nau
orain barren-barrenetik
nire semetxo maiteak
begiratuta hemendik.
Negar baten egoten da
negarra dator minetik
ta egoera erreala
onartzearen ezinetik
ezin diot ezer esan
beraren aldamenetik
pixa eiten du ohean
eta pena ematen dit
amesgaiztoak baitauzka
aita hil zitzaionetik. (bis)

Esaten diot "Aitatxo
joan da oso urrutira
bizitza osoan babestu
egin zaitzakeen tokira"
baina hark ez du onartzen
begien negar dizdira
sortzen zaio ta eragin
ohi dit halako gupida.
Ordularia joatean
hamarrak eta erdira
nahiz muxu goxo batekin
eman nere despedida
bere izara txuriak
mamu bilakatzen dira. (bis)


Ez duzu ondo ulertzen
baina uler zenezake
bide honek nahiz ta ez dun
atzera biderik bat'e
sentitu zaitez minaren
ta oroimenaren parte
nik babestuko zaitut ta
babestu beti jo ta ke.
Unaitxo zatoz hona ta
senti zaitez lasai, aske
konpondu igual ez baina
pixka't lagundu nezake
batera egingo dugu lo
hau gainditzen duzun arte. (bis)



Beñat Gaztelumendi Arandia



Xabier Silveira Etxeberria



Aitor Mendiluze Gonzalez



Unai Agirre Goia



Sustrai Colina Acordarrementeria



Fredi Paia Ruiz

MURGIA

2013-11-17, IGANDEA, 17:30

PALATU KIROLDEGIA

FINALAURREKOAK: LAUGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Beñat Gaztelumendi Arandia

Xabier Silveira Etxeberria

Aitor Mendiluze Gonzalez

Unai Agirre Goia

Sustrai Colina Acordarrementeria

Fredi Paia Ruiz

GAI-EMAILEA: Zuriñe Iarritu Azpitarte

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Murgiara iritsi da Txapelketa eta autobus geltokiko argizko letreroak zein gaztetxeko pankartak ongi etorria eman diote saioari. Jendez gainezka dagoen aretoa ere bero, garaiz martxan jarri duten berogailuarengatik eta bertsoak emandakoarengatik.

Lehen itzuliko azken saioa da gaur. Bertan jakingo da nola ostuko diren hurrengo hiru saioetako kartelak.

Saio bikaina izan da gaurkoa, behin baino gehiagotan lehertu da Palatu kiroldegia. Goi mailako aleak entzun ahal izan ditugu.

Oso ondo hasi dira zortziko handian, lehen bi ariketetan bereziki, eta oso ondo joan da ofizioetako beste eginbeharretan. Kartzelako lana izan da gaur beharbada epelena. Bertsoaldi onak izan dira orokorrean, baina zertxobait behera egin du saioak.

Hala ere, ofizioetako lanekin geratu da jendea. Denek eman dute asko horretan. Elkarriketak, arrazoiak, erantzunak, puntu joskerak, bidea irekitzeak, saioak ixteak. Bizi eta dotore joan da.

Kartzelakoak eztabaidarako tartea ere eman du. Gaiari behar bezala heldu ote dioten edo ez, polemika sortu baita. Gaiak “gonbidatuak falta dira” pluralean zioen, eta dexentek gonbidatu bakarraren zain egoteko hautua egin dute.

Puntuazioan lehena Sustrai Colina izan da, baina besteak ere ez dira atzean geratu. Saio ederra osatu dute, eta gaurko seikotetik Xabier Silveira izango da aurrera egingo ez duen bakarra. Beste bostak finalerako leku batengatik borrokatuko dira hurrengoetan. Gaur eman dute horretarako pausua (bizpahiruk pausu luzea).



HASIERAKO AGURRA

A. Mendiluze:

Neurria: Zazpiko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbait bilatzen duenak*

Palatu dela babespe
lagun, zale eta beste
gozatzera jar zaitezte
ez pentsa ez gaudenik prest`e.
Jardun gabe puntu eske
bertsotan saia gaitezke
zor dizuegu hainbeste.



ZORTZIKO HANDIA

B. Gaztelumendi- X. Silveira

Gaia: Aitak zarete. Banandu zinetenetik haurren zaintza zuen bikotekide ohiek dute.

Sinadurak biltzen ari zarete zaintza partekatuaren alde.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Usa zuri bat inguratu zait A*

B. Gaztelumendi:

Nahiz haurra ekarri amak ta biok
batera hazi genezan
zenbat bikote hautsiren berri
ekarri ohi duten prentsan!
Hemen gabiltza firma bilketan
bion zaintzaren defentsan
haurrak merezi duen maitasun
erdia jaso ez dezan.

X. Silveira:

Hemen gabiltza erran bezala
sinadurak ezin batu
zurekin ados nago erabat
ta ezin dizut gain hartu.
Emakumeen eskubidea
behar da errespetatu
baina umeen eskubiderik
ez dezatela mugatu.

B. Gaztelumendi:

Eskubideak denoi mugatu
nahi zizkiguten akaso
legeak esan behar al du ba
maitasuna nondik jaso?
Haseran amets gisa hasia
bilakatu da arazo
bikote izan ezin badegu
izan gaitezen guraso.

X. Silveira:

Baina aukera eduki behar
genuke horretarako
ta ez daukagu epaile batek
hala esan duelako.
Umeen aita izan ezina
tortura da niretzako
aita txar izan behar ote dut
senar txarra nintzelako?

B. Gaztelumendi:

Senar kaxkarra izanagatik
izan zaitezke laguna
umea ez da eta orduan
pasa zenan erruduna.
Zaintzaren alde egin dezagun
gure eskutan deguna
heldu ez dadin haurrak zein geran
jakingo ez duen eguna.

X. Silveira:

Hori horrela ez gertatzerik
nola edo hala nahi nuke
baina gizarte honetan ezer
aldatzerik ez dut uste.
Etsi dezazun benetan bada
gomendatuko nizuke
gaur egun lege egiten ume
batzuk jarri baitituzte.

A. Mediluze-U. Agirre

Gaia: Nekazaritza ekologikoa lantzen duzue. Zuen lurren ondoan fracking bidez gasa ustiatzeko asmoa dute.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Manuel Narruk atzo esan dit B*

A. Mediluze:

Gure lurpea dagoelako
gas poltsa batek jantzia
haren gainean zertan gabiltzan
zenbaitek du aiantzia
eredu berri bat lantzen edo
lantzen xoxaren antsia.
Laster ikusi behar da hemen
zeinek duen garrantzia.

U. Agirre:

Ekologiko ekoizten degu
hori berez ez da txarra
hamaika urte daramazkigu
nago nekatu xamarra.
Zuk garrantzia aipatu dezu
baina hori ez da bakarra
gutxi baino lehen ikusiko da
hemen nork duen indarra.

A. Mediluze:

Baina orduan zergatik egin
degu hainbeste ahalegin
nekez eraiki degun guztia
kolpetik eraitsi dadin?
Bi negozio dira bai baina
bi negozio desberdin:
batek biharko egin nahi du ta
besteak gaurko desegin.

U. Agirre:

Frackingarekin ezin gintezke
heldu oso urrutira.
Europak ezetz esan du eta
zeozer badegu tira!
Batzak zulatu hodi bat sartu
eta gas poltsari tira
gure osasunak zulatu eta
diru bila ari dira.

A. Mediluze:

Hori hain garbi daukagulako
ezin da etsi arraio!
Gurea dena defendatzeko
indarrak batzea nahio.
Agian bota behar gaituzte
ta gure ametei aio
baina ni bota behar naudenari
ederki kostako zaio!

U. Agirre:

Lehenago ere brabua zinan
ez zera asko moteldu.
Gure baratzan gora ta beheara
denborak gaitu zimeldu.
Hemen baratzan ari gera gu
datorrenaren ubeldu
berak ez dute ondo pasako
atxurrari gogor heldu!

ZORTZIKO TXIKIA

F. Paia-B. Gaztelumendi

Gaia: Lankideak zarete. Fredi, Beñatengana hurbiltzen zaren aldiro Beñatek ordenagailuan leiho bat ixten duela konturatu zara.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nioa*

F. Paia:

Harrituta naukazu
azken egunetan:
pantaila jeisten duzu
baldin banaiz bertan.
Zer aurkitzen duzu ba
nabil galdeketa
“Bertso-porno“ jartzen dun
pestaña horretan? (bis)

B. Gaztelumendi:

Zu agertzen zera ta
itxi ohi det di-da
baina Fredi mesedez
hortik erretira.
Bertso-pornotan nabil
begira-begira
baina zureak soilik
ateratzen dira. (bis)

F. Paia:

Ba gaztea etorri
batetik bestera
Kubara joan nintzan
ni inobatzera
bertsoan nahasten baitut
sexuaz batera
pendulo itxurarekin
daukat habanera. (bis)

B. Gaztelumendi:

Beraz zu Kuban izan
zinen oporretan
eta Kariben daude
zurekin zorretan.
Sarri nabigatzen det
horrelakoetan
horregatik naiz ona
bakarkakoetan. (bis)

F. Paia:

Hola ezinda sortu
ez plazer ez sendi
zure entrenatzaile
izango da Fredi.
Alde hortarantz makurtu
Gaztelumelendi
ta ia nire habanera
zenezakeen senti. (bis)

B. Gaztelumendi:

Nik ez det funtzionatzen
zure arabera
beraz beste batentzat
utzi habanera.
Jefea ondoan dago
ta bengalera
zu CIAkoak baino
txarragoa zera! (bis)

U. Agirre-S. Colina

Gaia: Gurasoak zarete. Zuen haurrak ikasgela berean dabiltza. Unai, lehengo astean
Sustrai larri zebilela eta, bere haurra zuk hartzeko eskatu zizun. Ordutik,
Sustrai berandu etortzen da beti haurraren bila.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

U. Agirre:

Umea hartu nizun
goxo eta bero
jeta hori zendunik
ez nuen espero.
Hemen kontuak garbi
esan Sustrai gero:
larri zer zenbiltzan behin
edo egunero? (bis)

S. Colina:

Egunero ez nabil
larri edo ziztrin
baina tikismikisa
dugu gure Jokin.
Berandu etortzen naiz
ta propio jakin
semea oso pozik
baitago zurekin. (bis)

U. Agirre:

Merienda ematen diot
berai gehienetan
ta gurekin jolasten
ez dabil penetan
Jokin pozik dabil bai
badakit benetan
aitatxo deituko dit
neri martxa honetan! (bis)

S. Colina:

Ni betitik izan naiz
juergista xeble
eta Jokin zurekin
hain dabil alegre
merienda ere gertu
duzu alafede!
Hurrengoan prestatu
neretzako ere! (bis)

U. Agirre:

Merienda bat nahi dezu
aizu tripa-zahagi!
Hori eramatia
genduke mirari.
Hau bukatzera doa
Sustrai entzun adi:
atzo kontatu nion
zure andreari. (bis)

S. Colina:

Zuk segi jolasean
merienda atondu
ez pentsa ezin garenik
horrela konpondu.
Nahiz Jokinek zurekin
pasa hainbat ordu
nere andreak ere
askoz nahiago du. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

S. Colina

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Cabacas-en hilketa

argitzeke dago

ta argitzen ez bada
kontua akabo.
Nahiz ta lau auzipetu
dituzte lehenago
neure ustez errudunak
badaude gehiago.

Gomazko pilota bat


botatzen denean

min egiteko asmoa
dago gehienez
baina hartxo bat daukat
barren-barrenean
desagertuko diren
itxaropenean.

Agintaria ez da

inoiz erruduna

erruduna izaten da
bada euskalduna.
Hori da Madriletik
ikasi duguna.
Hargatik egin beza
ahal dunak ahal duna.





Argazkilaria: Alberto Elozegi / Zenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

SEI PUNTUKO MOTZA

B. Gaztelumendi- U. Agirre

Gaia: Beñat, hilabeteak daramatzazu jantoki sozial batean afaltzen. Gaur, Unai sartu da lehendabiziko aldiz lotsa-lotsa eginda.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

B. Gaztelumendi:

Hila ez degu osatzen
eta gara hona sartzen
ni're haseran zure modura
ez nintzen ausartzen.
Nahiz ta ez dezun gozatzen
ta burumakur zoazen
hona bidali gintuzten haiek
ez dira lotsatzen. (bis)

U. Agirre:

Haiek ez daude gure zai
ez baitira sentitu gai.
Ate txikitik makur sartu naiz
ta izerditan blai
ez bainuen etorri nahi
hargatik ez nago lasai
nik lotsa badet barruan baina
gosea ere bai. (bis)

B. Gaztelumendi:

Nik hainbeste erreparo
izango zenuen *klaro*
baina krisiak marka guztiak
baititu igaro
Mikel gosetua dago
ta etxe gabe Alvaro...
Martxa honetan izango gera
gero ta gehiago. (bis)

U. Agirre:

Lana galdu eta bela
ezin zitekeen bestela.
Honuntz etorri ta begi azpia
hain daukat umela
ez dago giro epela
izan behar zen bezela.
Kezka bat daukat egoera hau
luze joango dela. (bis)

B. Gaztelumendi:

Soilik dauzkagu bi *plato*
ez degu jango galako
bai egia da akaso joango
dala luzerako.
Oraindik ez zaude plako
baina bazenu beharko
portal bat eta kartoiak dauzkat
nahi duzunerako. (bis)

U. Agirre:

Ez dut nahi hara sartzea
ta ze nahi'zu kontatzea?
Lanikan gabe estu ditugu
aurre ta atzea.
Nik hutsik daukat etxea
eta gainditu trantzea
Beñat txarrena izango degu
hontara ohitzea. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Mendiluze-F. Paia

Gaia: Moda argazkilariak zarete. Gaur, kamerino edo aldagelan, modelo bat ikusi duzue kokaina hartzen. Zu, Aitor, argazkiak ateratzen hasi zara. Fredik ez ateratzeko eskatu dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri*

A. Mendiluze:

Guri argazkien truke
asko ordaintzen digute
ta zuk bezela hori begiez
ikusi det neuk'e.
Beraz atera nahi nuke
pasatzen utzi bost urte
eta orduan diru pila bat
balioko dute. (bis)

F. Paia:

Osasuna da makaldu
ta drogak dira ugaldur
zure etika ez ote dago
karteratik salbu?
Modeloa hor daukagu
koka onenaren kargu
soilik publiko egingo dugu
banatzen ez badu. (bis)

A. Mendiluze:

Proposamena zugandik
espero nuen bai lehendik
baina nik ez det hori atera
banatzeagatik.
Neri pena ematen dit
baina halan ta ere klik!
Ez dedalako inor epaitzen
ikusleak baizik. (bis)

F. Paia:

Jarrerak ematen dit min
ta bertan ostiatu ezin
bihotz oneko izaten bainaiz
ni lankideekin.
San Mendiluze zu *en fin*...
Girotu giroarekin
negatiboa zara baina gaur
positibo egin. (bis)

A. Mendiluze:

Negatiboen itzala
kendu ezker ojala
izan nadila positiboa
eta zerbitzala.
Ba orduan egin bezala
emango dizkiot hala
beste aldetik ikusi eta
pentsatu dezala. (bis)

F. Paia:

Txibato bat dut atzean
kontzientzia errezean
Naomi Campbell hor ruloakin
mahaiaren ertzean
ez konfiatu flashean
ez *photoshop*en trantzean
argazki hori irtengo baita
zuri ta beltzean. (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Mendiluze

Gaia: Prest duzu dena. Gonbidatuak falta dira.

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Zuek horrela ikusi eta*

Hots egin nion eguna jarri
uxatu neukan ikara
eta geroztik egun honen zain
zalanza eta zirrara.
Pentsatu orduko iritsi gera
jarritako honetara.
Hozkailuan daukat cava
ardoa zabalik jada
berotzen sopa kikara.
Baina hala ere bakarrik nago
eta zer gertatzen da ba?
Afaria eta ni pronto gaude
baina anaia falta da. (bis)

Errepidean edozer gerta
edo edonork oztopa
berdin baztarra jota edota
koxka gainera igota.
Beldur guztiak dauzkat barruan
eta odola borborka
ez diot nik txarrik opa.
Hara ba tinbrea joka!
Nere bihotza saltoka.
Berriz irrifar egin dezaket
anaia hemen dago ta
zopa kikanan hoztu egin da
baina ja ez zait inporta. (bis)

Ordua pasa berri da Aitor
eta nerbioei eutsi
itxarotea arte bat dala
amak zigun erakutsi
baina hala ere eskumuturra
igurtzi eta igurtzi.
Zenbat beldur ta iritzi!
Zenbat pentsamendu bitxi!
Zergatik ez da iritsi?
Abiatu ta ez iristeko
behar baita horren gutxi.
Ez nuke hortan pentsatu behar
baina ezin diot utzi. (bis)

U. Agirre

Gaia: Prest duzu dena. Gonbidatuak falta dira

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Egun haundia egun ederra
gaur ez da egun kaxkarra.
atsalde osoa ni sukaldean
badet barruan indarra.

Patatak eta gusanitoak
bokadiloz barra-barra

mila irripar dauden tokian
ezin liteke hasarra.

Gaur ez degu egun txarra (bis)
ez nuen uste baino benetan
nago urduri xamarra.

Tarta gainean ipini diot
bere kandela bakarra. (bis)

Ordua iristen ari da Unai
mugi zaittez benga mugi!

Lehen semea dedan ezkerro
ez det hainbat jakinduri.

Izeba eta osabak datoz
asko dirala dirudi.

Gaur oparien zakua ere
egongo da guri-guri
nahiz ta malkoak ixuri (bis)
berari ez baino omenaldi bat
egiten digute guri.

Semea dago lasai arraio
ta aita dago urduri. (bis)

Lagun guztiak gonbidatuta

hau atontzera abitu

gure ttikia gure semea

nola nahi degun serbitu.

Sendia ere pixkana doa

haunditu eta haunditu

hemen denbora pasatzen zaigu

nahiz eta ez iruditu

hamabi hilabete ditu. (bis)

Festa haundi bat egin nahi degu

ta barrutikan sentitu

guztiek txalo joko diote

nahiz berak ez entenditu. (bis)


BUKAERAKO AGURRA

B. Baztelumendi

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Bertso-pornoen kontua zer den
nahiz ta zaila den jakiten
saio batean nahastu ohi dira
mila duda ta sentipen.
Soka gaineko dantza
denez bertsoa antza
nahiz beti ez ondo irten
festa hontako gonbidatuek
ez dezute huts egiten.(bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi /

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Amets Arzallus Antia



Unai Iturriaga Zugaza-Artaza



Julio Soto Ezkurdia



Beñat Gaztelumendi Arandia



Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"



Jokin Uranga Isuskitza

ELIZONDO

2013-11-23, LARUNBATA, 17:30

BAZTAN PILOTALEKUA

FINALAURREKOAK: BOSGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Ametz Arzallus Antia

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Julio Soto Ezkurdia

Beñat Gaztelumendi Arandia

Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"

Jokin Uranga Isuskiza

GAI-EMAILEA: Fernando Anbustegi Goñi

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Gaur ere hotza Baztan inguruan, baina ondo berotu da bailararen izena duen pilotalekua. Elizondo zegoen bigarren bueltako lehen saioaren zain eta saioak ez du huts egin. Ez bertso kalitatean (beharbada beste batzuetan baino gorabeheratsuago) ez jendearen erantzunean (eskuak berotzeko edo, txaloak ozen entzun dira) ezta puntuazio dantzak ekartzen duen tentsio puntuan ere (finaleko eserlekuak jokoan daude txo!).

Ariketak aldatu egin dira aurrekoetatik. Nabarmenenak, hamarreko handiak eman diola hasiera zortzikoak eman orde, eta puntuak erantzun beharrean puntutan egin behar izan dutela. Saioaren erritmoan, luzeran... ez du horrek aldaketa nabarmenik ekarri.

Agurretik ikusi da zer zuen bakoitzak jokoan. Baziren kutxiloak zorroztu eta borrokatzera zetozenak, txapelketari amaiera biribila eman nahi ziotenak, saioa bera helburu zutenak... Jokin Urangak adibidez, finalean sartzeko berak saio ona egin eta bestee txarra egin behar zutela eta hori ez ziola inori opa aipatu du.

Ona egin dute ordea. Ofizioetan beti punta-puntan ez bada ere, gustagarriak izan dira bertsoaldiak, biziak. Bakarkakoak ederrak orokorrean. Beharbada, besteetan baino antzeragoko bideak hartu dituzte. Gaia “azkeneko aldia izango zela hitza eman eta berriro gertatu da” zen, eta ia denek hartu dute drogaren bidea.

Finalerako bidea hartu dute, aldiz, gaurko bizpahiruk. Amets Arzallusek errepikatuko du BECen eta Beñat Gaztelumendi bertan aurpegi berria izango dela dirudi.

Unai Iturriaga borrokatzera etorri da, beste erremediorik ez, eta “dena eman eta ea zer geratzen den” azaldu da. Bukaeran, saioa irabazi eta aukerekin jarri da. Langa non dagoen erakutsi die ondorengoei.

Finaletik urrunduta besteak. Jokin Uranga eta Iñigo Mantzizidor “Mantxi” ondo aritu dira, gertu samar geratuko direla ematen du. Julio Sotoren kasuan, akaso duen guztia ematen ez duelako asmatu. Pixka bat beheraxeago geratuko da.

HASIERAKO AGURRA

B. Gaztelumendi

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Trumoi ortzi beltzean hoska*

Zer esan ezin det erabaki
norbait euskara-maisu izaki
susmagarrien lista beltzean
sartu nahi duen norbaiti. (bis)
Bertsoa biak baita guretzat
arrazoi eta aitzaki
goza dezagun galanki
gu ulertu nahi ez gaituenak
zer galtzen duen ez daki! (bis)

HAMARREKO HANDIA

Mantxi-J. Uranga

Gaia: Bikotea zarete, eta harreran izan duzue haur bat lau urtez. Gaur, familia biologikoarengana itzuliko da haurra.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Mantxi:

Hiru urtekin hartu genuen
geure etxean Gabriela
jatekorikan ez zuen falta
ta prestu bere logela.
Ai notizia entzun orduko
estutu egin zait sabela!
Ba omen doa bere berezko
etxera bai gure perla.
Iruditzen zait bihotz zati bat
kendu behar digutela. (bis)

J. Uranga:

Hala're beste bihotz zatiaz
Gabriela nork ez maita?
Ez nuen uste horrelakorik
inork behar zigunik aipa.
Iruditzen zait sufrimendua
dudala neri jarraika
zeure alabak hola esatea
eraman ezina baita:
"Eskerrik asko guztiagatik
muxutxo bat agur aita". (bis)

Mantxi:

Saiatu ginen haur batek behar
duen guztia ematen
eskolaratu bere garaian
jantzi eta eman jaten.
Esan bezela azken berri hau
ez da errexeta jasaten
kosta behar zait Gabrielari
betiko agur esaten
bizi osoa segi nahi nuke
bere guraso izaten. (bis)

J. Uranga:

Eta horrela izango gera
nahiz ta igual ez praktikan
gure argazkia eramango du
gure alabak patrikan.
Zatoz Gabriela eseri hemen
hain aurkitzen gara kinkan!
Zoriontasun ta poztasun bat
dakusat zure begitan
badakizu nun bizi garen ta
etorri zaitez bisitan. (bis)

Mantxi:

Ez izan arren nik sentitzen det
egiz guraso naizena.
Ai Gabriela etorriko ahal da
ahalik eta maizena!
Gure etxean utziko baitu
hutsune bat nabarmena.
Ez da errexa izango baina
kentzeko daukagun pena
ekar dezagun beste bat baina
kenduko ez digutena. (bis)

J. Uranga:

Beste batekin nola pentsatu?
Bihotza daukat lehertzeaz
bizitzak beti maiz aldaketak
ohi ditu denboran zehar.
Zu eta biok egingo degu
sofan eserita negar
baina honegatik ez dugu inoiz
ere buruik galdu behar.
Bakar-bakarrrik geratu gara
ta zaindu dezagun elkar. (bis)



ZORTZIKO TXIKIA

B. Gaztelumendi – Mantxi

Gaia: Lagunak zarete. Beñat, Mantxik autoa garbitzeko laguntza eskatu dizu. Autoa garbitzera joan, eta 30 minutu daramatzazue autotik gauzak ateratzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nioa*

B. Gaztelumendi:

Gutia da papera
ta arropa dena
platano bat aspaldi
usteldua zena...
Zure kontra barruan
amorru ozena
hau zer dezu kotxea
edo almazena? (bis)

Mantxi:

Almazen pribatua
hauxe degu *klaro*
horrexegatik dago
kontua oparo.
Ordu erdi ateratzen
marka ondo dago
sartzen kosta zitzaidan
askozaz gehiago! (bis)

B. Gaztelumendi:

Zure katxi, baso ta
beroki ta aterki
bai ikusten da kosta
zaizula ederki.
Ordu erdi ez da joan
emeki-emeki
eta maleteroa
ez degu ireki! (bis)

Mantxi:


Barkamena eskatu
nahi dizut lehenbailehen
oraintxe ohartu naiz
zenbat gauza dauden.
Alfonbraren azpian
azaldu da ejem!
Zure neskan pulserak
ze egiten du hemen? (bis)

B. Gaztelumendi:

Sorpresa bat hartu det
nahikoa itzela
hau izan dezu mila
nesken pasarela
baino ibili ezker
zabiltzan bezela
ziur nago baten bat
hemen bizi dela. (bis)

Mantxi:

Ba hori ez nun pentsatu
baina hortxe bego!
Izan dira Arantxa
Pili, Jone, Bego
neskak pasatu dira
hango ta hemengo
baina hemen badago
bizik ez da ertengo. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde /
Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HAMARREKO TXIKIA

B. Gaztelumendi – U. Iturriaga

Gaia: Aitatxi-amatxiak zarete. Zu, Beñat, amatxi, zuen biloba ahalik eta hobekien hezten saiatzen zara. Unai aitatxik, berriz, nahi duen guztia egiten uzten dio.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

B. Gaztelumendi:

Zuk daukazu merienda
ta eskupekoa
ni inoiz ez naiz izan
deus ematekoa.
Nahiz ta igual onena
izan tartekoa
eman nahi diezula
jartzen det lepoa
zure seme-alabei
eman gabekoa.

U. Iturriaga:

Noski horrela dela
tarteka-tarteka
hargatik du ilobak
saskia beteta:
orain patata batzuk
ondoren krispeta...
Normala da finean
bere heziketa
aitaren ta amaren
ardura da eta.

B. Gaztelumendi:

Sarri ardura guri
pasatzen digute
ta zu babesa salduz
hezkuntzaren truke.
Ahal dala mimopean
zaindu nahi zenuke
baina eman hamabost
edo hogeï urte
ta parean bizitza
topatuko dute.

U. Iturriaga:

Orduan baina ez naiz
ni hemen seguru
guretzat ere hau ez da
betirako mundu.
Zama zeure gain hartu
hoixe duzu helburu
bizitza izango dute
noski buruz buru
beste guztiok ere
hala izan dugu.

B. Gaztelumendi:

Dena dute jolasen
mailara jetsia
ta guraso pareia
hor dago etsia.
Behar da genioa
ta pazientzia
gure gogortasun ta
esperientzia
hori da nik utzi nahi
dedan herentzia.

U. Iturriaga:

Hargatik ez diezu
uzten hura jaten
“Hori arriskutsua”
ta hurrengo ken...
Zu zertan ari zara
zamak eramaten?
Saiatu ni bezela
nahi dutena ematen
gerora maitasunez
oroitu zaitzaten.

PUNTUKA

A. Arzallus – Mantxi

Gaia: Zuek, bingora joatea erabaki duzue, 2 kartoi jokatu eta ateratzeko asmotan.

Oraintxe erosi duzue 10. kartoia.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ortzian izar ederra / Txori txiki politak*

<i>A. Arzallus:</i>	Zorte txarrak ezin du iraun horrenbeste	<i>Mantxi:</i>	Pulsera enpeinatzen hasi behar det nik
<i>Mantxi:</i>	hemen gabiltzak biok gehiagoren eske	<i>A. Arzallus:</i>	nik ez det uste suerte onena gaur denik
<i>A. Arzallus:</i>	zenbaki bat edo bi lehen bat az beste	<i>Mantxi:</i>	lehen dirurik ez neukan ta ez dator oraindik
<i>Mantxi:</i>	pozik etorri gera baina goaz triste.	<i>A. Arzallus:</i>	ez dugulako hartzen zenbaki zuzenik.
<i>Mantxi:</i>	Dirua irabazi nahi ta ze panorama!	<i>A. Arzallus:</i>	Begira hor begira daukagu lehoia
<i>A. Arzallus:</i>	Berriz bola txiki bat hor doa ai ama!	<i>Mantxi:</i>	horrek dana hartzen du nolako tragoia!
<i>Mantxi:</i>	Hor amona bat bada suerte daukana	<i>A. Arzallus:</i>	Nik hori nahi dut edo oheko koltxoia
<i>A. Arzallus:</i>	benga kanika joan hamarrarengana.	<i>Mantxi:</i>	horrek guk baino lehen jo behar du goia.
<i>A. Arzallus:</i>	Hamarra hemen daukat ta nago begira	<i>Mantxi:</i>	Ta gu aspaldi gabiltz behera erorita
<i>Mantxi:</i>	ba nere kartoi hontan danak falta dira.	<i>A. Arzallus:</i>	alper-alperrik mila paper erosita
<i>A. Arzallus:</i>	Bada disimuloan zeuk lurrera tira	<i>Mantxi:</i>	entzun nahi nuke “ <i>Quinze la niña bonita</i> ”
<i>Mantxi:</i>	horrela ezin leike heldu urrutira.	<i>A. Arzallus:</i>	guri adarra jotzen ari da kanika.

A. Arzallus: Hurrena etorriko naiz
tiropitxoiakin
Mantxi: hurrena ze izango dan
ezin degu jakin.
A. Arzallus: Bola hori botako det
tiro bakarrakin
Mantxi: uste det gafea zeuk
dezula zeurekin.

Mantxi: Onena da kartoiak
uztea pakean
A. Arzallus: hobeto ibiliko
gara bai parkean
Mantxi: ta probatuko degu
hurrengo batean
A. Arzallus: zazpi ume zai dauzkat
etxera joatean.

U. Iturriaga – J. Soto

Gaia: Unai eta Julio, kiroldegiko dutxan topo egin duzue. Gorputz eta buru xaboiz beteta duzuela, ura kendu dute. Zortziko txikian, puntutan, zortzi bertso osatu arte, Unai hasita.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

<i>U. Iturriaga:</i>	Ura kentzeko hauxe momentu onena	<i>J. Soto:</i>	Eta a ze plazerra deus ikusi gabe!
<i>J. Soto:</i>	begi aurrean daukat nik jaboia dena	<i>U. Iturriaga:</i>	Lagunak ginen baina alde alde alde!
<i>U. Iturriaga:</i>	pentsatu dut nik ia <i>Jetia</i> zarena	<i>J. Soto:</i>	Unai hemen dago ta Felipe nun zaude?
<i>J. Soto:</i>	zer da esku artean daukadan antena?	<i>U. Iturriaga:</i>	Dutxa atera behar zait garesti hala ere.
<i>J. Soto:</i>	Jaboia zelakoan eta ze sorpresa!	<i>U. Iturriaga:</i>	Ez nuen espero hau Julio zugandik
<i>U. Iturriaga:</i>	Nire eskua dela besterik ez pentsa.	<i>J. Soto:</i>	ba ez duzu ikusi guztia oraindik
<i>J. Soto:</i>	Hau dena eskutan hartzen ez dago erreza	<i>U. Iturriaga:</i>	eta ikusteko ere gogorik ez dut nik
<i>U. Iturriaga:</i>	grabitateak bere lana egin beza.	<i>J. Soto:</i>	ba neri iruditzen zait pixka't baduzunik.
<i>U. Iturriaga:</i>	Xaboia dauka eta irristatuko da	<i>J. Soto:</i>	Ta hurbildu behar naiz pixka bat gehiago
<i>J. Soto:</i>	xaboia irteten zaio puntatikan gora.	<i>U. Iturriaga:</i>	gerra sortu behar da oraintxe akabo!
<i>U. Iturriaga:</i>	Aizu nora iritsi duzu baina nora?	<i>J. Soto:</i>	Bagara bi jaboidun bagara bi mango
<i>J. Soto:</i>	Nere toalla urdina ekarri ondora.	<i>U. Iturriaga:</i>	tori nire jelari emaiozu trago.

U. Iturriaga: Aizu ura badator
hoditeriatik
J. Soto: pixka bat etorri da
nere begitatik.
U. Iturriaga: Ai Añarbeko urak
poz ederra eman dit!
J. Soto: baina urik ederrena
zure antenatik.

J. Soto: Hemen pasatu dena
ez esan inori
U. Iturriaga: nik isildu behar dot
zuk isildu ongi.
J. Soto: Zure antena izan da
nere bizi-ogi
U. Iturriaga: jakin zazu toalla
bat baino ez zan hori.

KARTZELAKO LANA

B. Gaztelumendi

Gaia: Zure buruari hitza eman zenion azkeneko aldia zango zela. Berriro gertatu da.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Lehenengo eskuarekin
hala hartu det astiro
nere barruko ikarek
ta beldurrek ze enbido!
Ondoren eskua nire
ezpainetara det igo
gero mihiaz dastatu
zaporea maitekiro. (bis)
Urteak dira bizitzan
ez dela izaten giro
ta barruan sentitzean
mila min, mila bertigo
nola lehen egiten nuen
nekatzen nintzen aldiro
koñak edalontzi huts bat
aurrean daukat berriro. (bis)

Maitasuna omen degu
sarri bizitzaren funtsa
baina maiz hain da nekeza
maite baten aurkikuntza.
Behintzat aspaldian inor
ez zait etorri honuntza
ta ezinari alkoholak
hobeto ohi dio bultza. (bis)
Gauero hotz dut ohea
ta goizero hotz dut dutxa
ez da ez haundia izan
nere sorpresaren kutxa
botila daukat parean
ta izozturik gorputza
beti dago erdi betea
eta beti erdi hutsa. (bis)

Bi urte pasatu ditut
tabernetatik aparte
nik uste nuen bazela
sendatzeko aina tarte.
Kaleko argi piztuek
tentazioa dakarte
eta nik adikto izan
behar omen det hil arte. (bis)
Badakit ez dela ona
ta egin didala kalte
baina alkohola bihurtu
zait aska ezin den kate.
Nahiz sarri pentsatzen dedan
berriro utzi nezake
baso barruko izotzek
ezetz esaten didate (bis)

A. Arzallus

Gaia: Zure buruari hitza eman zenion azkeneko aldia zango zela. Berriro gertatu da.

Neurria: Hamaseiko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Txapelketako saiotan
ibiltzen naiz erdi tonto
teknika beti izaten da
bertsolarien oztopo
ta errima familiak
nik umetatik gorroto
ongi ikasiak neuzkan
joko, zoko ta barroko
ta gaur hona etorri naiz
ez hanka sartzeko pronto
nere curriculumean
hortxe daude zazpi poto
ta gaur berriro egin dut
hitz berdinarekin topo. (bis)

“Gaur ez diat ba egingo”
hala zen nire jarrera
“Gaur ez diat ba egingo”
ta frontoirako sarrera
“Ez, ez gaur seguru noa”
jendeak txaloz harrera
“Gaur bai gaur ni nauk nagusi”
ta erori nauk lurrera.
Ze demontre pasatzen da?
Ze kulpeta eta hau zer da?
Galduta nabil berriro
nere milaka galdera
baina poto eta guzi
pasako naiz finalera. (bis)

Buruz ikasiak neuzkan
rocka, arroka ta soka
buruz ikasiak neuzkan
erropa eta azoka.
Bat falta izanez gero
sartu Mafaldaren zopa
eta halaxe nindoan
ustez seguru pausoka.
Norbere buruan kontra
egiten dugu borroka
hamabost hitz bota ditut
ia denak ezin konta
destinuaren lurrean
nor bait dago nere kontra. (bis)



Argazkilaria:

Gari Garaialde /

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

U. Iturriaga

Gaia: Zure buruari hitza eman zenion azkeneko aldia zango zela. Berriro gertatu da.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Urte askotako ohiturak dira
jarri atzera begira.

Gaztetxo nintzen garai haietan
dena juerga, dena biba.

Batek ez daki noiz erortzen dan
harlauza baten azpira
mendekotasun baten joan ziren
hamar bat urte guztira.

Gero sendatu behar nuela
ta medikuen segida
saiatu nintzen ta lortu nuen
ta garaipen bat hori da.

Neure burua bultzatu nuen
ordea berriz harira
ta nire berbak ahotik irtenda
sudurretik sartu dira.

Ze pisu gutxi azkenerako
adiktu baten berbetan

nork ote daki noiz ari naizen
gezurretan ta benetan?

Batzuk diote halakoxea
nintzela jada umetan
beharbada aitzaki hori izan dut
beti aurrean beti bertan.

Sendatu nintzen ustez sendatu
ta berriz herrira bueltan
lehengo lagunak lehengo txokoak
denak lehengo tabernetan.

Bide zuzena hartu nuenean
marrak bakarrik ertzetan
berbak zein errez galdu ohi diren
hautsaren bihurgunetan!

Bat joaten bada bide beretik
joan daitezke hiru tiro
ba al dakizue ze ederra den
sartu igo, igo, igo?
Kokolo ezdeus bat baino ez denak
puzteko zenbat motibo!
Beti isilik egoten denak
hordago eta enbido...
Baina etxean ez naiz bakarra
pentsa dezadan astiro
eta maitea zuk niregatik
zer ote duzu egingo
edo behingoan albora utzi
edo zaindu maitekiro?
Ni jasateko gertu bazaude
saiautuko naiz berriro.



Jon Martin Etxebeste



Igor Elortza Aranoa



Aitor Sarriegi Galparsoro



Etxahun Lekue Etxebarria



Fredi Paia Ruiz



Alaia Martin Etxebeste

DONOSTIA

2013-11-24, IGANDEA, 17:30

GASKA KIROLDEGIA

FINALAURREKOAK: SEIGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Jon Martin Etxebeste

Igor Elortza Aranoa

Aitor Sarriegi Galparsoro

Etxahun Lekue Etxebarria

Fredi Paia Ruiz

Alaia Martin Etxebeste

GAI-EMAILEA: Saroi Jauregi Aiestaran

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Txapelketan eztabaida nahasia ere izan daiteke jokoarena eta jolasarena. Jokoan dabilenak jolasean asmatu behar duelako, besteak beste. Agurrean bota du Jon Martinek berak jokoan ezer ez eta jolasera zetorrela. Beste batzuk txartela jokoan irabazteko asmoa ere ekarri dute.

Jokalekua aldatuta zegoen Atano III. pilotalekutik Gaska kiroldegira. Bertan lekua eroso hartu dute ia 2.500 bertsozalek, eta bertsolarien hitzen zain egon arren, zenbakien dantza nagusitu da tertulietan.

Saioa bezperakoa baino motelago hasi da, hamarreko handietan hain gora jo gabe. Zortziko txikian gora egin du, umorean asmatu da. Ondoren gorabeheratsu ibili dira. Orokorrean, saioa gustagarria, ona, izan dela aitortu behar. Entzuleak gustura irteteko modukoa (jolasa), denek ahotan puntuazioak (jokoa) izan badituzte ere.

Azken saioaren faltan gauzak argitzen doaz, eta hemen kantatu dutenetatik Igor Elortzak bakarrik du txartela ia-ia ziurtatuta. Gaur ere berak lortu du lehen postua eta doinu berria plazaratu du bakarkako lanean. Doinu berria, eta metrika ere berezia.

Finaleko muga inguruan daude, berriz, Aitor Sarriegi eta Alaia Martin. Aitor, juxtu muga markatzen duena izango dela dirudi, eta Alaia hortik beheraxeago dago.

Denek ere saio ederra egin dute, eta baita txapelketa osoa ere. Maila eman dute. Batzuek hemen bukatuko dute ibilbidea, baina Donostian bildu den jendetzak jakin izan du egindako lana eskertzen. Bereziki beroa izan da bukaerako agurren garaia.





Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HAMARREKO HANDIA

A. Sarriegi – E. Lekue

Gaia: Zuen aita kartzelan zegoen zuek jaio zinetenerako. Hogeita bost urte espetxean eginda, gaur utziko dute libre. Kartzelaren atarian zaudete, noiz irtengo den zain.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aitra izena kanta beharrak*

A. Sarriegi:

Seme batentzat aitak sekula
ez du egin ezer txarrik.
Urte hauetan ez da falta izan
sentipen eta negarrik.
Kalera irten behar du eta
nago arraro xamarrik
kondena latza bete duela
ez dago esan beharrik
baina kondena ez du betetzen
barruan denak bakarrik. (bis)

A. Sarriegi:

Zapaldu degu mila kartzela
ta etiko ez dan hainbat zoru
presoarentzat egunak ez bait
dauzka hogeita lau ordu.
Hainbeste urtean aldatu dira
ohitura ta bizimodu.
Nun eta nola biziko da orain?
Kanpoan zer egingo du?
Orain bizitzan aterrizatzen
lagundu behar diogu. (bis)

E. Lekue:

Nik hogeitaz bete barriak
ta zu hogeta biraino
aita alboan ez dogu izan
Aitor sekula gaurdaino.
Oin hiru urte urten behar eban
baina Parot doktrina, ño!
Azkenik geure artera dator
etorri gara honaino
azken aste hau luzeau ein jat
aurreko urte danak baino. (bis)

E. Lekue:

Bis a bisetan aste birik behin
han agertzen jakun jator
esaten euskun “Jatorrak izan
behintzat Etxahun eta Aitor”
eta nik hori ikasi dot bai
bere eskutik, naz baikor.
Etorri dator etxerantz eta
jarraituko dau bai gogor
han iraun dau ta hemen iraungo
dau holan baldin badator. (bis)

A. Sarriegi:

Kosta egiten zait momenturako
lehen hitzak aukeratzen
ezinegonarekin nere barruan
pixkana doa hedatzen.
Aldi berean poz izugarri
bat zait barruan eratzeko
ta uneotan arantza latz bat
besterik ez zait geratzen:
gure ama zenak ez ikustea
kartzelatik ateratzen. (bis)

E. Lekue:

Barruan dogun arantza handia
duda barik horixe da
ama bidean istripuz hil zan
lau urte eginda atzera.
Hargaitik behar dau gure laguntza
datorrenean etxera
oin be lagundu beharko dogu
gero eingo dogun antzera:
han dator aita lau poltsa hartuta
goazen Aitor laguntzera! (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

J. Martin – A. Sarriegi

Gaia: Jon, Aitor aspaldiko lagunarekin geratu zara bazkaltzeko. Orduerdi baino ez daramazue elkarrekin, eta dagoeneko bost aldiz jo dio telefonoak Aitorri, eta oraingoan ere hartu egin du deia.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Martin:

Korrika bizi zera
korrika, presaka
gaurkoz mobilak eman
dizu nahiko lata
bateko deia eta
bestetik *whatsapa*
bazkaria badaukat
konpainia falta. (bis)

A. Sarriegi:

Nik badet konpania
mugikorrarentzat
ondo hartu ezker
zure hitzen ertzak.
Orduerdi hartu det
gaurkoan zuretzat
pixka't hartu det eta
lasai egon behintzat. (bis)

J. Martin:

Lehen elkartzen ziren
horrenbeste lagun
gehienez urrutiko
jendeai bi gutun.
Hara teknologiak
nola jarri gaitun:
urrunekotik gertu
gertukotik urrun. (bis)

A. Sarriegi:

Jon ni jadanik ez naiz
lehengo mutil hura
ta Diputazioan
daramat Kultura.
Egon behar zenuke
nerekin gustura:
hogeita lau orduan
zuen zerbitzura. (bis)

J. Martin:

Nere zerbitzutara
ipina zara zu
baina inkultura zuk
handia daukazu
ez dakit nola egin
behar didazun kasu
telefonoz deituta
hartuko al didazu? (bis)

A. Sarriegi:

Konfiantza handirik
ez izan trastean
ni nago adar jotzen
zabiltzan ustean.
Orain bilera bat dut
lauak ta bostean
geldituko al gera
datorren astean? (bis)

E. Lekue- A. Martin

Gaia: Bikotea zarete. Zuk, Etxahun, sarri leporatzen diozu Alaiari ez dela batere erromantikoa. Gaur parrandan zabiltzatela, kaleko saltzaile bat inguratu zaizue arrosa argidunak eskainiz. Alaiak sei erosi dizkizu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

E. Lekue:

Goizaldeko bostetan
hauxe dogu beraz
holakorik ikusi
gabea apenas.
Ez zara romantika
esaten dot penaz
eta hau ikusita
berrestu egiten naz. (bis)

A. Martin:

Ni naiz zure izarra
ni naiz zure dama
badaukat enkantua
romantiko xarma
sei larrosa argikin
nator zuregana
eta argiena zu
zeu zaitut laztana. (bis)

E. Lekue:

Eta gainera dator
poeta itxuran
ez dakit barre ein edo
erori tristuran
ta ondino konfidantza
apur bat dot zугan
kontuak atara zenbat
maitatzen zaitudan. (bis)

A. Martin:

Gure harremanak egin
behar du aurrera
ze biolin soinuak
bagaude batera!
Gaur libidoa goian
dakarkit gainera
bero-bero nago ta
goazen komunera! (bis)

E. Lekue:

Neska romantika bat
hori nire nahia
gura neban gozoa
jatorra, lasaia
ta orain sua pizteko
heldu al da garaia?
Akaso gurago dot
betiko Alaia. (bis)

A. Martin:

Sekula ez al zaude
konforme nerekin?
Zu gustora egoteko
hainbeste ahalegin...
Romantiko beharko
diogu ba ekin
trioa egin dezagun
txinatarrarekin! (bis)

HAMARREKO TXIKIA

F. Paia – J. Martin

Gaia: Bikotea zarete. Fredi, Jonen ama hil da, eta esan dizu aita alarguna zuen etxera
ekarri nahi lukeela bizitzera.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

F. Paia:

Jon ulertzen dut zure
pena ta trantzea
naturaren logika
ez zen bilatzea
tamala zure ama
gaur desagertzea
zaila da zure aita
oso aguantatzea
zer dela ta nahi duzu
orain ni hiltzea? (bis)

J. Martin:

Zuk utzi ezean nik
hil behar zaitut zu
aita hain triste dago
bihotzak ze pultsu...
Besarkatu nazazu
emaidazu muxu
diazun bezainbeste
maitatzen banauzu
nere aitaxo ere
maitatuko duzu. (bis)

F. Paia:

Zure aitakin ostiaka
amaitu dut usu
PPko bozkatzaile
etikan abusu
Aita Saintuai ere
eman zion musu
bera ura ni sua
horrela gaituzu
maitea erabakitzen
ikasi behar duzu. (bis)

J. Martin:

Beraz Aita Santuai
muxu emateko
zuri emango ez banizu
agian hobeto.
Gaizki moldatzen zara
batekoz besteko
bizitzak eman dizu
Fredi ulertzeko
aukera aitarekin
adiskidetzeko. (bis)

F. Paia:

Baina eske Jon ez dut nahi
jarriko naiz maltzur
dirurik ez du ematen
beti dabil hain xuhur...
Berakin bizitzeak
ematen dit beldur
zuri tokatu zaizu
ulertzen dut ziur
nik aukera nezake
banoa *mon amour!* (bis)

J. Martin:

Aukeratu zintudan
gazte abenturan
Jo gainetik ze karga
kendu berri dudan!
Aita ta biok gaude
inoizko tristuran
eta erruki apurrik
ere ez da zukan
zalantza daukat nola
maitatzen zintudan. (bis)

PUNTUKA

A. Sarriegi – F. Paia

Gaia: Aitor eta Fredi Udaleko langileak zarete. Herritarrek egindako pintura-ikastaro bateko margoen erakusketa bat muntatzen ari zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

A. Sarriegi:	Gaur egun edozein da hemen pintorea	F. Paia:	Beitu hemen beste bat: Aitor Sarriegi
F. Paia:	ba Picasso ez gendun hau baino hobea.	A. Sarriegi:	eta bere ondoan hortxe dauka Fredi.
A. Sarriegi:	Gustatzen al zaizu ba daukan kolorea?	F. Paia:	Saria eman behar zaio kuadro on honeri
F. Paia:	Abstraktismoa dauka barruan gordea.	A. Sarriegi:	ba nik ez det jarriko hortan lan gehiegi.
F. Paia:	Hemen, “Igeldo aske” jartzen du bakarrik	A. Sarriegi:	Esperantza haundirik ez zazula izan
A. Sarriegi:	zeinek pintatu duen ez da esan beharrik!	F. Paia:	deabruan koadro hau ederki elizan.
F. Paia:	Donostiko Udalean jarriko nuke nik	A. Sarriegi:	Antzematen zaitut nik zu betiko gisan
A. Sarriegi:	baino han ez da jartzen horren kuadro txarrik.	F. Paia:	espraikin nenbilen Picassoren gisan.
A. Sarriegi:	Han lehenago zeukaten erregearena	F. Paia:	Gero langile sartu eta apaldu naiz
F. Paia:	adar ta buztanakin hemen dagoena	A. Sarriegi:	holakoak pasatu izan dira lehen maiz.
A. Sarriegi:	erakusketan ondo geratuko dena	F. Paia:	Beitu kuadro hau dabil Sorollaren usaiz
F. Paia:	guk ezin dugu erre hori da problema.	A. Sarriegi:	ba nik ez det ikusten horren modu alaiz.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Sarriegi: Nahi dezun dena baina
gu biok lanean

F. Paia: azken fonema ez dut
ulertu azkenean

A. Sarriegi: zerbait egin behar dela
agintzen denean

F. Paia: nik beti egiten dut lan
hemen ta etxean.

F. Paia: Lo soilik ez dut eiten
lotan baldin banaiz

A. Sarriegi: bueno ez dizu egingo
zuri hainbeste gaitz.

F. Paia: Kuadro guzti hauek jarri
ta alda dezagun gaiz

A. Sarriegi: zurekin segi baino
hobe sartu apaiz!

E. Lekue – J. Martin

Gaia: Etxahun eta Jon, bidean saiora zentoztela autoaren gurpil bat zulatu zaizue.

Biotako inork ez daki gurpila aldatzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ortzian izar ederra / Txori txiki politak*

<i>E. Lekue:</i>	Zer egin behar dogu hemendik aurrera?	<i>J. Martin:</i>	Geratua bai baina ez ondo egona
<i>J. Martin:</i>	Ausartuko al gara <i>Mapfrera</i> deitzera?	<i>E. Lekue:</i>	tornilloak kentzera etor zaitez hona.
<i>E. Lekue:</i>	Guk alperrik ikasi genduan karrera	<i>J. Martin:</i>	Fredi ez al da horkoa hau zer degu broma?
<i>J. Martin:</i>	kazetaritza gutxi hortikan aurrera.	<i>E. Lekue:</i>	Guri <i>mon amour</i> esan ta hor dago egona.
<i>J. Martin:</i>	Hobe genun bagina biak mekaniko	<i>E. Lekue:</i>	Baina kabroia ez da baezpada geratu
<i>E. Lekue:</i>	orduan ibiliko ginake polito	<i>J. Martin:</i>	Fredi finalerako baietz gaur sailkatu!
<i>J. Martin:</i>	hara hor ez jakinak garen bi mutiko	<i>E. Lekue:</i>	Ez ete dau ba berak gurpila trukatu?
<i>E. Lekue:</i>	katuari deika gu ez al gara hasiko?	<i>J. Martin:</i>	Hemen zakurra zakur ta katua katu.
<i>E. Lekue:</i>	Siamesa etxean daukagun katua	<i>J. Martin:</i>	Gero pasa da Elortza eta hau gelditu
<i>J. Martin:</i>	nik berriz daukat persa madarikatua.	<i>E. Lekue:</i>	<i>klaro</i> guk baino puntu askoz gehiau ditu
<i>E. Lekue:</i>	Batxe txarrean zara lehenago sartua	<i>J. Martin:</i>	honek ez ditu behar hainbat zirrikitu
<i>J. Martin:</i>	<i>rueda</i> behintzat ez zaigu ondo geratua.	<i>E. Lekue:</i>	barreka joan dala jat niri iruditu.

- E. Lekue:* Antolatzaileeri
deitu behar jake
- J. Martin:* “Torrotxo”k ez du aurpegi
goxorik gaur bat’e.
- E. Lekue:* Bideokonferentziz
hartu daigun parte
- J. Martin:* hemen zegon aukerik
baldin baleukake.
- J. Martin:* Bueno taxi batean
goazen aurrera
- E. Lekue:* egin geinkean gauza
bakarra horixe da.
- J. Martin:* Taxian iritsiko
gara Gaska aldera
- E. Lekue:* baina taxian ere
gu ez finalera.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

KARTZELAKO LANA

I. Elortza

Gaia: Nekatuta zaude, baina badakizu ezin zarela gelditu.

Neurria: Hamabikoa, berdinarean moldekoa, 7 puntuz.

Doinua: *Jada bi ordu ta piko*

Jada bi ordu ta piko
baina hemen noa tinko
jada bi ordu ta piko
barkutik salto eginda
igeri noa polito.
Lurrean ere ez nintzen
inoiz egon belauniko
“Besoei gogor eragin”
pentsatu dut neurekiko
“Bi aukera daude txikito:
edo itsasertzera heldu
ta bestela bertan ito”. (bis)

Marokotik alde eginik
nik egin dut ahaleginik
Marokotik alde eginik
bizitza beti baitago
hari batetik zintzilik
inoiz ere ez dut jakin
noiz jauziko naizen hilik.
Nik aurrera jarraitzen dut
nere besoei ekinik
ta oraintxetik jakinik
lurrean ere ezingo dut
inoiz gelditu geldirik. (bis)

Nekean ta bildurrean
nabil mutur-muturrean
nekean ta bildurrean
faroak olatuetan
nola belarra larrean
jadanik sentitzen ditut
ia neure bizkarrean
baina nik hor segitzen dut
aurrera egin beharrean
amorruan, haserrean
guardia zibilak atzean
etorkizuna aurrean. (bis)

A. Sarriegi

Gaia: Nekatuta zaude, baina badakizu ezin zarela gelditu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Batzuetan kaminoa
besteetan espaloia
eguzkia ere noiznahi
sarri lokatza ta lohia
apartekoa ez da izan
nik izan dudan sasoia
ahalegintzeko aukera ere
sarri askotan doi-doia
baina gaur jo nahi nuen nik
ahal zela hemen goia
badut motiboa eta
badut nere arrazoia
betidanik nahi izan dut
izan nahi gabe heroia
egun baten bukatzea
Donostiko maratokia. (bis)

Bizitzak garai batean
indarrean hartu nau ta
izan ditut arazoak
ta ez da inongo mauka:
patuak bihotzeko bat
jarri zidan nere aurka
baina oraindik hor dabil
hor dabil taupa ta taupa.
Inguruan txakur batzuk
korrika zaunka ta zaunka
senitartekoek ere
“Benga Aitor, animo, aupa!”
Gogorra izanagatik
aukeratu nuen pauta
era hontan bukatzeak
meritu bikoitza dauka. (bis)

Guztiz nago nekatua
uzteko esan dit barrenak
hanketan sentsazioak
ere inoizko txarrenak
baina gogoan harturik
esaten zizkidatenak
berdin prestatzaile edo
berdin medikuarenak
ta ikusirik pasatu
ditudala hiru laurdenak
gerora gorde nahi ditut
hemengo oroitzapenak
zeozer handia egin
baitu hau egin duenak
ta helmugara iristean
ahaztuko zaizkit denak. (bis)

A. Martin

Gaia: Nekatuta zaude, baina badakizu ezin zarela gelditu.

Neurria: Hamalaukoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Munduko ilunabarra*

<i>Naufragoa, Habanera</i>	“Jar zazu ahots ezia
edota doinu hau bera	saldu bertso garestia
baneuzkan nahiko galdera	izan zaitez amestia
baina egin dut aurrera.	bazara buru askia”
Nire baitara bilduta nago	baina dardarka hasi ohi zaigu
sartu naiz neure barnera	zapata zolen azpia
nortasuna da inportanteena	dardarka jartzen zaigu bizitza
hontan nere arabera.	kopeta izerdiz bustia.
Puntuaketa errimak doaz	Pasa ez pasa bihar goizean
garunean gora-behera	irtengo da eguzkia
Gaskako atari honetan nago	guztia eman eta albora
atera edo ez atera	utziko dut angustia
baina ezin det beldurrez galdu	saituz gero lor bailiteke
finalerako aukera. (bis)	amesten dugun guztia. (bis)

Alaia daukat izena
eta Martin abizena
nahiko argi dut naizena
eta izan nahi nukeena
baina kartzelan kolpe batekin
galdu liteke kemena
ta tximeletez ta xaguxarrez
bete da nire barrena
baina aukera ta luxu bat da
eskuartean dagoena.
Torrotxok behintzat hola esan dit
eskainiaz babes dena:
“Atera eta egin ezazu
bakarkakorik onena!”. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

I. Elortza

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Mosu bat Senperen ta
beste bat Durangon
Ternua geugan dago
ta biba zu Long John!
Baina hau txapelketa da
eta *show must go on!*
Lehenbizi Maulen eta
gero Barakaldon
bertsoak ere ezin
du geldirik egon. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Sustrai Colina Acordarrementeria



Jone Uria Albizuri



Unai Agirre Goia



Aitor Mendiluze Gonzalez



Jexux Mari Irazu Muñoa



Agin Laburu Rezola

MAULE-LEXTARRE

2013-11-30, LARUNBATA, 17:30

ORORENA EZKER PARETA

FINALAURREKOAK: ZAZPIGARREN EKITALDIA

BERTSOLARIAK:

Sustai Colina Acordarrementeria

Jone Uria Albizuri

Unai Agirre Goia

Aitor Mendiluze Gonzalez

Jexux Mari Irazu Muñoa

Agin Laburu Rezola

GAI-EMAILEA: Joana Itzaina Malharin

EPAILEAK: Karlos Ibarguren Olalde, Martin Aramendi Arana, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Nerea Bruño Artazkoz, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte

Maulen hartu du Txapelketak azken bultzada final handira iristeko. 244 kilometro daude Mauletik Barakaldora, bertsozaleentzat gertu edo urruti, nondik abiatzen diren. Maulekoek adibidez goizeko 6:30ean hartuko dute autobusa BECera joateko. Bertsoa gertu sentitu, ordea, eta luze joateko prest.

Bertsozalez mukuru betea egon da gaur Ororena ezker pareta. Hasi aurretik, Ipar Euskal Herriarentzat lurralde elkargo propioa aldarrikatuz manifestazio batek zeharkatu ditu hiriburuko kaleak, eta horietako asko inguratu dira gero bertsoen entzutera.

Bertsolariek gertu eta zenbaitek oso-oso gertu izan du Barakaldon kantatzeko aukera. Unai Agirre geratu da finaletik kanpo, puntuz finalean kantatuko duen Aitor Sarriegirekin berdinduta. Tarterik ez eta distantzia handia.

Sustrai Colina izan da puntu gehien atera dituen bertsolaria. Beraz Barakaldoko finalean egongo da, eta berarekin batera Maulen kantatu duen Aitor Mendiluze sartu da.

Lan bikainak entzun dira, batez ere binakako lanetan. Hamarreko handikoetatik hasi eta puntutan bizi-bizi amaitu arte. Bakarkako lanetan batez ere Colinak aukeratutako bidea eta osatutako bertsoak izan dira aipagai.

Gaur kantatutako askori eta zain zeuden zenbaiti hemen bukatzen zaie txapelketa, bertsolari moduan behintzat. Batzuk finaletik oso gertu, besteak urrutixeago. Zenbait konforme, asko gehiagorako desioekin... Txapelketa da hori.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

HASIERAKO AGURRA

J. Uria

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Lehenik Markina gero Gernika
ez zen txarra hasiera
geografikoki behintzat hurbiltzen
ari nintzen finalera.
Nahiz hartu dudan desbio latza
ez nuke galdu nahi esperantza
nator barrenak huster
gaurkoa hori eta gehiago
baita nire arabera
gure etxetik hiru ordura
zenbat euskaldun batera.
Pentsaezina zen arren hau lehen
hainbeste batu izana Maulen
ardatz izanik euskera
zeozeren seinale da.

HAMARREKO HANDIA

S. Colina – J. Uria

Gaia: Emazteen kontrako indarkeria salatzeke elkarretaratzean bildu zarete. Bertan, nehoiz baino gazte gehiago ikusten duzue.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aita izena kanta beharrak*

S. Colina:

Gaurkoan ere elkartu gara
berrehun lagun alde alde
ongi dakigu zeren aurka ta
badakigu zeinen alde.
Nahiz jendartean jarrera batzuk
irteten diren debalde
gazte mordo bat dago gurekin
poztu naiz dudarik gabe
etorkizuna ta aldaketa
euren eskuetan daude. (bis)

J. Uria:

Lehendik ere kontu honekin
asko dira iskanbilak
ta guk nahiz eta egin ditugun
ja elkarretaratze pilak
hona etorri gara gaurkoan
bi andre zahar ta umilak
ni ere pozten naiz gazteak antza
ez daudelako isilak
ta bietatik dagoelako
bai neskak ta bai mutilak. (bis)

S. Colina:

Etorri orduko pentsatu arren
“Gora gazteak ta biba!”
neure kautara begira jarri
ta aldatu zait perspektiba
azkenaldian nabilelako
estadistikei begira.
Nahiz ondo egon gazte jendea
heltzea plaza erdira
gero etxera joandakoan
nolakoak ote dira? (bis)

J. Uria:

Beraz zenbaki ta estadistiken
hori ez duzu ahantzia
ta sortu dizu nahiko zalantza
ta nahiko barne antsia
baina aurrera begira jarri
horrek baitu garrantzia
gazte jendea delako gure
geroa ta esentzia.
Nik sinisten dut badaukatela
gai honen kontzientzia. (bis)

S. Colina:

Baina bi gauza desberdin dira
kontzientzia ta desira
hargatik joaten zaie batzuei
eskua oso urrutira.
Jarrera hoiek behar ditugu
jendartetik erretira.
Gazteak dira horren seinale
zerbait aldatzen ari da
baina ahal dela plazak ez ezik
buruak bete behar dira. (bis)

J. Uria:

Lasai buruak beteko dira
izan zaitez amestia
utzi atzean zure zalantzak
beldurra ta angustia.
Ni pozez nago gogotsu txaloz
begi pareta bustia
gazte hauekin ikusi baitut
ekaitzetan eguzkia
sekula inork pasa ez dezan
guk pasatako guztia. (bis)

A. Mendiluze – U. Agirre

Gaia: Adineko bikotea zarete. Zahar-etxera bizitzera joatea erabaki zenuten. Lehen gaua han pasatu, eta gosaltzen ari zarete.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Konfesaruta hau esateko*

A. Mendiluze:

Gu adineko bikote gisan
ia larogeiren mugan
hainbat objektu txiki edukiz
eguneroko ohituran
hainbat gauzatxo hainbat momentu
ta hainbeste kinu guban
orain esnatu bila hasita
non nagoenaren dudan
ia ez dakizu gauza hoiek faltan
nola botatzen ditudan!

U. Agirre:

Hiruroita hamar urtekoa ni
ta larogeikoa bera
bizi erreza izan degunik
ez nijua esatera.
Urte askotan bizitutako
gure etxetik atera
pauso geldian etorri gera
gu zaharren etxe batera
nahiz gauza asko ditugun faltan
pixkana ohituko gera.

A. Mendiluze:

Beraz urtetan aurrera goaz
ta indarretan atzera
zerbait beharko genuen noski
ta erabakia haxe da:
geurea utzi eta etorri
gera biok zahar etxera
baina zalantzak eta beldurrak
biltzen zaizkidan antzera
ez dakit inoiz helduko naizen
honi etxea deitzera.

U. Agirre:


Urte ugarin bizittu gera
badet zenbait eskarmentu
gu bezelako ugari degu
gosari orduan gertu.
Bildurrez zaude Aitor maitea
ta oraintxe zera lehertu
gainontzekoak ikusten ditut
gustora eta kontentu
gure berdina pasako zuten
ta edozeini galdetu.

A. Mendiluze:

Arrazoi dezu hemen ez gaude
lekurik okerreanean
nahiz eta kezka eta zalantzak
bildu nire barrenean
zertan kezkatu bakardadeaz
jendea biltzen denean?
Etxea eta lehengoa falta
bota ditut aurrenean
gertuxeago izango ditut
semea datorrenean.

U. Agirre:

Nahiz adinean aurrera eginda
egin degun umiltzera
honek joera badu joateko
goitik behera amiltzera.
Seme-alabak etorri baietz
sarri gurekin biltzera.
Hainbeste negar ez deigun egin
eta guazen isiltzera
gu bizitzera etorri gera
ez gera etorri hiltzera.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZORTZIKO TXIKIA

J. Uria – A. Laburu

Gaia: Elkarrekin bizi zarete. Gaur zuk, Jone, Agin harrapatu duzu zure hortzetako eskuila erabiltzen.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Durangotik gorako*

J. Uria:

Gorria ta berdea
daude elegante
gorria zure ahoan
ikusi nezake
baina zer zabiltz Agin
hemen hain nazkante?
Daltonikoa al zara
ene Agin maite? (bis)

A. Laburu:

Ez bihotza ikusten
det ondo, primeran
bi eskubila nola
dauden hor ileran.
Moldatu beharra det
nik ahal dedan eran
gabon muxurikan ez
baitidazu eman. (bis)

J. Uria:

Hala daramatzagu
jada nahiko urte
honezkero ohituta
beharko zenuke
baina gaur egin didan
kontu honen truke
nik haginak ez Agin
garbituko nuke. (bis)

A. Laburu:

Agin garbitu behar
omen dezu noski
ezin det erabili
nik ez bat ta ez bi.
Haserretzean ze guapa
ta gero ze ezti
eskubilak maitia
ez daude garesti. (bis)

J. Uria:

Hor nenbilen haserre
ni nire *speechan*
eta “Ze guapa zauden”
ederra bailitzan
jada zalantza daukat
lehen neukan gisan
gehiegi konpartitzen
ez ote gabiltzan. (bis)

A. Laburu:

Bizi gera zutik ta
bizi etzanean
gehiegi konpartituz
zure esanean.
Ba has zaitez prestatzen
has zaitez lanean
hortza postizoekin
hasten geranean. (bis)

U. Agirre – J. M. Irazu

Gaia: Artzaina zara, Unai. Eri zarela eta, Jexux Mari koinatuari galdegin zenion merkatura zure gasnen saltzera joateko. Joan zara, eta hor itzuli zara erranez dastatzeko bost gasna banatu dituzula, baina saldu bat ere ez.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

U. Agirre:

Atzo ta gaur nengoen
modu berdintsuan
koinatuari deitu
nik itsu-itsuan
baina ez da portatu
postura txintxuan.
Gazta erdia ematen
al zendun pintxuan? (bis)

J. M. Irazu:

Pintxua eman eta
a ze betekada!
Jendeak “Mila esker”
eta besarkada.
Nahi nuen helburua
lortua dut hara:
lehenago eri zinen
oain sendatu zara. (bis)

U. Agirre:

Koinatu hau nik ezin
ez opa inori
langabezian zegon
eta lana tori
gezurretan ari zait
orain naiz erori
nundik erosi dezu
jertse berri hori? (bis)

J. M. Irazu:

Tankera eman didala
naiz pentsatzen hasi
artzain bizkorra inoiz
ezin baita nahasi.
Hara jertse berria
gasnak irabazi
eta gantzontziloak
ez dituzu ikusi. (bis)

U. Agirre:

Berari tokatua
ferira joatea
itxura txarra dauka
neretzat kaltea.
Bat ere ez dezu saldu
Irazu maitea
askoz hobe zenduen
zerorrek jatea. (bis)

J. M. Irazu:

Horretan ere badut
nahiko ausardia
ez dut atera uste
zenuen erdia.
Nik maite dut natura
maite dut ardia
sakela dut ttipia
bihotza handia. (bis)

HAMARREKO TXIKIA

J. Uria – U. Agirre

Gaia: Haurdun zaudete biak. Zuk, Jone, haurra etxean ukan nahi duzu. Unaik, berriz, ospitalean.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

J. Uria:

Biok tripa beteta
biok pozez lodi
emozioz goraino
buru bete txori.
Nik etxean nahi nuke
hala diot tori
umeak konta dezan
haunditzean ongi
nik inoiz esan ezin
izan dudan hori. (bis)

U. Agirre:

Jone zure joera
ez da hain normala
haurdun ikusten zaitut
neroni bezala
haurrak kontatu dezan
goxo jaio zala
ikastolara joanda
esango duala...
Igual usteko dezu
oroituko dala. (bis)

J. Uria:

Berak ez du oroituko
ez behin ez birritan
baina bere ama dago
hortako irrikan.
Zertan gabiltza hemen
baina ika-mikan?
Gero ikusiko du
bideo ta argazkitan
nik kontatuko diot
eta ez gutxitan. (bis)

U. Agirre:

Bideoan ikusiz
gozatuko zara
baina nik ikusten det
majina bat traba:
bakardadea eta
besteko ikara
etxean izatea
polita da hara!
Zer egingo dezute
gauza zailtzen bada? (bis)

J. Uria:

Zuk nahiago ospitala
ta epidurala
ta orain ezkor jarri
al zara aibala!
Lasai dena joango da
behar den bezala
ez da arriskutsua
baita naturala
lehenago ere beti
izan dute hala. (bis)

U. Agirre:

Hippy xamarra zera
seinale du setan
hala antzematen det
nik zure hitzetan.
Nahi dezuna egin zazu
ez egon penetan
ni ospitalera noa
diotsut benetan
etxean egongo naiz
hiru egunetan. (bis)

PUNTUKA

S. Colina – U. Agirre

Gaia: Elgarrekin bizitzen hasi berri zarete. Biak ordenarekin muturreraino itsutuak zaudete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Ezagutu zuenak*

<i>U. Agirre:</i>	Etxea jar dezagun beti txukun-txukun	<i>S. Colina:</i>	Ta orain sukaldera pasako al gara?
<i>S. Colina:</i>	berriz'e garbiketan probatu dezagun.	<i>U. Agirre:</i>	Zu nerekin batera hara joango zara
<i>U. Agirre:</i>	Ni ordenatua naiz zu zer zera lagun?	<i>S. Colina:</i>	ikusten ditut zenbait plater ta kutxara
<i>S. Colina:</i>	Nik txukunduko ditut sukalde ta kumun.	<i>U. Agirre:</i>	armiarma sareei diet nik ikara.
<i>S. Colina:</i>	Behin pixa egin eta di-da txukuntzera	<i>U. Agirre:</i>	Egunean bi aldiz kendu behar dira
<i>U. Agirre:</i>	bat bakarrik ez biok hara joango gera.	<i>S. Colina:</i>	hobe da ez egotea sofatik begira.
<i>S. Colina:</i>	<i>Rocai</i> behar diogu brilloa atera	<i>U. Agirre:</i>	Zartaiaz ezin bada eskobari tira
<i>U. Agirre:</i>	gauz berdina nijoan orain esatera.	<i>S. Colina:</i>	armiarmak bakarrik garbitzen balira.
<i>U. Agirre:</i>	Ta zartaria ere fuertegi ez jarri	<i>S. Colina:</i>	Orain gure gelara joan behar genuke
<i>S. Colina:</i>	bestela egongo gara estu eta larri.	<i>U. Agirre:</i>	ez zaigu aterako biajia merke.
<i>U. Agirre:</i>	Azulejoak zahartzen joaten dira sarri	<i>S. Colina:</i>	Lurrean zer dabilta bi galtzerdi kutre?
<i>S. Colina:</i>	baina utziko ditut nik eredugarri.	<i>U. Agirre:</i>	Paranoia daukazu hor ez dago bat'e.

U. Agirre: Orain bertan pasa det
hementxen erratza
S. Colina: bada ez zait gustatzen
hartu duzun martxa.
U. Agirre: Honek doble ikusten du
arraroa antza
S. Colina: ta laukoitz ikusteko
badut esperantza.

S. Colina: Inportantea baita
hautsa ikustea
U. Agirre: hori da orain Sustraik
dadukan ustea.
S. Colina: Zuk brilloari ere
atera lustrea
U. Agirre: onena ez al degu
holaxe uztea?

J. M. Irazu - J. Uria

Gaia: Arnoa dastatzeko ikastaro batean izena eman duzue. Edalontzia eskuetan, lehendabiziko arnoa bota dizuete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Mendiko umea naiz*

<i>J. M. Irazu:</i>	Honek dauka lurraren gusto tipikoa	<i>J. Uria:</i>	Lehena bukatu dut edan zuk zurea
<i>J. Uria:</i>	ba niretzako dago kategorikoa.	<i>J. M. Irazu:</i>	lehenago ere ez naiz probatu gabea
<i>J. M. Irazu:</i>	Esango nuke dela Irulegikoa	<i>J. Uria:</i>	astiro-astiro zoaz edaten ordea
<i>J. Uria:</i>	nahiko tikismikisa dugu mutikoa.	<i>J. M. Irazu:</i>	eta hirugarrenak nolako aldea!
<i>J. Uria:</i>	Ikastarora zatoz baina ikasita	<i>J. M. Irazu:</i>	Ni ia hasia naiz izarrak dastatzen
<i>J. M. Irazu:</i>	lehen ere nik zintzurra askotan bustita.	<i>J. Uria:</i>	bai zaila da zapore horiek asmatzen.
<i>J. Uria:</i>	Honek ez ote dauka kalimotxo pinta?	<i>J. M. Irazu:</i>	Honek ez al du gasna pixka bat eskatzen?
<i>J. M. Irazu:</i>	Ez Burdeoson antza nolako irrika!	<i>J. Uria:</i>	Bai hor daude pintxoak eta guazen guazen.
<i>J. M. Irazu:</i>	Nundik hartu diozu <i>Coca-Cola</i> traza?	<i>J. Uria:</i>	Pintxo bakarrean da ta gazta erdia
<i>J. Uria:</i>	Ez dakit baina ez dut ikusten mahatsa	<i>J. M. Irazu:</i>	hori guretzako da nahiko pikardia.
<i>J. M. Irazu:</i>	baina hain ederki da eztarrian pasa	<i>J. Uria:</i>	Gorritu behintzat egin zaigu aurpegia
<i>J. Uria:</i>	nik beste baterako daukat esperantza.	<i>J. M. Irazu:</i>	eri zegon artzainak a ze ausardia!

J. M. Irazu: Zuri ari zaizkizu
begiak gorritzen
J. Uria: ez ni lehenago ere
halakoa nintzen
J. M. Irazu: eroriko ote zaren
hasi naiz larritzen
J. Uria: ta zu ardoa bezala
ari zara mintzen.

J. Uria: Hemen ez ote dugu
nahikoa desgrazi?
J. M. Irazu: Dastapen hoberikan
ez gendun merezi.
J. Uria: Edan asko edan dugu
nahiz deus ez ikasi
J. M. Irazu: hola edanez gero
uros leike bizi.

KARTZELAKO LANA

S. Colina

Gaia: Nehork ez zuen espero, baina lortu egin duzu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Hamazazpi urte ditut
ia-ia egin naiz handi
hortzetako aparatua
eta aknea ugari
sudurpean hiru bizar
agertzen zaizkit nabari
horrelaxe jaio nintzen
ta bota kulpak amari.
Lagunak trufaka dauzkat
beti adar jotzen ari
“Lakuko zisne itsusia”
deitzen zidaten aspaldi
ta gaur muxu eman diot
klaseko ederrenari. (bis)

Berai esker bihotz forman
ikusten nuen arbela
beregana zihoazen
konpasa ta erregela.
Muxu bat eman ta utzi nau
emozioz mela-mela
bukatu da rekreoa
ta hau da sentipen itzela.
Pasilloan hortxe noa
nere zain dut ikasgela
han sartu naiz toreroa
zezen-plazara bezela.
Nere inbiritan daudenak
izorratu daitezela! (bis)

Hileak baneramatzan
bere atzetik zer suma
nahiz zaila diren elkartzen
larrosa eta asuna.
Amaia oso jatorra
ederra bezain txukuna
bilakatu dut maitea
nere printzesa kuttuna.
Berak berezkoa dauka
halako edertasuna
eta nik hori ezean
bada naturaltasuna.
Gure amak arrazoi zuen
itsua da maitasuna. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

S. Colina

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Maulen nik izan behar dudanez
anfitrioi eskuzabala
Hegoaldeko anai-arrebok
bukatu da pastoralak.
Orain Barakaldora
oholtza behera zein gora
herriak esan dezala
baina han ere egongo gara
gure etxean bezala. (bis)

Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Zirriborroak komunikatzeaz

GORKA AZKARATE TORNER
BERTSOLARITZA IRAKASLEA
2013-12-11

Txapelketa zer den galdetzen duen norbaiti zer erantzun... Txapelketa da kiroldegi eta frontoi hotzetan sortzen den giro beroa. Txapelketa da sarrerak lortzeko sukarra. Eta sintonia, eta dozena erdi bertsolari ilaran txalo artean, eta haserako agurrak, eta lan puntuagarriak, eta komunera joan-etorriak. Txapelketa da puntuen dantza, eta hurrengo faserako sailkatu direnen poza eta sailkatu ez direnen tristuratxoak, bata zein bestea kiroltasunez, neurrian eta elegantziaz azaleratu beharrekoak, noski. Txapelketa da urrunean hautematen den BEC-eko saio jendetsu horren itzala. Saio bat baino gehiago baita, izan, lau urtez behin ospatzen den festa erraldoi hori. Baina horra iristeko geltoki ezberdinak daude lehenago; tartean, finalaurreak. Hori guztia eta gehiago da, labur esanda, txapelketa.

Finalaurreetan gauza asko ikusi eta entzun ditugu, hasi Gernika-Lumon eta Maulen buka: gauza onak eta baita oso onak ere. Haatik, bertsoen munduan oso murgildurik gauden entzuleok (maila batean edo bestean oholatza gainera igotzea zer den badakigunok, besteak beste), apetatsuak gara oso, anker xamarak ere bai tarteka, eta asko eskatzen diegu oholatza gainean euren onena emateko asmoz burua estutzen ari diren bertsolariei. Eta zorrotz epaitzen, nola bestela, euren jarduna. Lehen entzunaldian belarrian *tilin* egingo digun errima berezi, ustekabeko arrazoi edo joskera perfektu hori jaso ezean bertsoaldia gutxieteko joera hedatuegia dago gudan, tamalez. Are gehiago, zer esanik ez, txapelketako saio batean bagaude. Plazan (ia) edozer barkatzen diegu bertsolariei. Txapelketan (ia) edozergatik gurutziltzatzen ditugu. Aldea nabarmena da...

Esan dudan bezala, baina, izan da finalaurreetan nabarmentzeko zertzelada bat baino gehiago, gaur egungo bertsolarien eta entzuleriaren artean eraikitzen diren zubiak zein harri klasez eginak dauden erakusten digutenak. Entzuleari zer bertsoaldi egiten zaion sinesgarri eta ez aspergarri, zerk inarrostean dion barrena, zerk algara eragin edo zerk indiferente edo ezaxola utzi. Potolokerietatik ihes egin eta bertsolari bakoitzak beretik kantatzen duenean zubi hauek errazago eraikitzen ez ote diren...

Gernika-Lumoko saioan, esaterako, Jone Uria eta Nerea Elustondo kale-garbitzaileen paperean jarri zituen Bernar Mandalunizek, greba-deialdian gutxieneko zerbitzuetan lan egitea egokitu zaien kale-garbitzaileen paperean, hain zuzen. Agintarien aurkako diskurtsoaren erdian “ipini zara poltronetako / zabor pilari begira // guk errefustzat tratatu arren / berziklagarriak dira” kantatu zuen Elustondok bere bigarren bertsoan. Zaborren afera Gipuzkoan batik bat puri-purian dagoen honetan, eta Elustondo bera Legazpikoa izaki (eztabaida liskar mailara igo den herrietako batekoa), bizi izandako hori bertsotara abileziaz nola ekarri eta publikoarekin nola konektatu erakutsi zuen. Uriaren erantzuna, hurrengo bertsoko lehenengo puntuetan “Bueno Nerea Bizkaia aldean / berdina da dena hemen // guk ez ditugu hoiek bereizten / ta barka zaidazu, ejem!”, berak bizi duen egoeraren adierazgarri, Nerearenarekiko arras ezberdina... Ofizioan gai bat dago, pertsonaia batzuk sortzen dira, baina gero pertsonaia horri bizia eman behar dion hezur-haragizko bertsolariak beretik kantatzen du, bere iragazkitik igaroarazten du pertsonaia hori, eta horrelako egoera kuriosoak sortzen dira. Eta entzuleria bera ere talka horren lekuko bezain konplize bilakatzen da.


Izan ere, bertsoa entzulearengana iristeko prozesu konplexu horretan, ekintza komunikatiboa arrakastaz gauzatuko bada bertsolariek aukeratutako bideak sinesgarritasuna izatea ezinbesteko baldintza da. Baita bertsolariarentzat zein entzulearentzat komuna den ezagutza esparru bat existitzea ere. Bertsolaria, joko-zelai komun horri txispak ateratzen saiatzera beharturik dago. Adibide bat: Beñat Gaztelumendik bakarkako lan itzela borobildu zuen Altsasun azken-laurdenetako saioan. Bakarkako lan hori oso txalotua izan zen saioan bertan, eta laudatua bezain goraipatua ondorengo egunetan. Horrela, Murgiako finalaurrean Gaztelumendi bera eta Fredi Paia lankideen paperean jarri zituen patuak, Fredi Beñatengana hurbiltzen den aldiro honek ordenagailuko pantaila bat ixten duelarik. Gai ona, erreala bezain gertukoa, egun osoan ordenagailuaren aurrean lan egiten dutenentzat bederen. Pentsatzekoa zen bezala bertsoaldiak kolore *berde* xamarra hartu zuen hasiera-hasieratik, eta Gaztelumendik kolpea eman zuen bere bigarren bertsoan, “sarri nabigatzen det / horrelakoetan // horregatik naiz ona / bakarkakoetan” bota zuenean. Berriz ere ofizioko pertsonaia, pertsonaia horri bizia ematen dion bertsolaria, txapelketan lehenago gertaturikoaren erreferentzia freskoak, esanahi bat baino gehiagoko hitz-jokoa... guztia nahasirik lau lerro ziztrinetan. Koktel lehergarria, ordea!

Bertsoa sentipen asko eta oso ezberdinak sorrarazteko tresna dela ez dut nik deskubrituko. Barre algar a ozenena askatzetik eztarrian korapilo bat sentitzera igaro gaitzke bertso batetik bestera. Igor Elortzak Tolosako saioan egin zuen bakarkako lana ekarri nahi nuke sentipenak aipatzen hasita. “Pasilloko edo korridoreko argia itzalita lokartzeak beldurra ematen dizu” gaia entzunda gauez ilunpean lokartzeak beldurtzen duen haur txikiaren azaletik kantatu zuen Elortzak, maisuki. Errima estuko bertso borobilak, eduki aldetik beteak, eta batez ere oso bisualak. Denbora geratu, eta argazki bat atera balu bezala. Bertsoaldia entzun genuen guztiok irudikatuko genuen egoera, nork bere ñabardurak gehituz, noski: haur txikia, ohean loak hartu ezinda, gela iluna, korridoreko zaratak, mamuak edo mamu usteko itzalak... Nork ez du horrelako pasadizoren bat bizi izan umezaroan, eta ez behin edo birritan gainera? Literaturatik oso gertu dauden bertsoak, entzulearengana inolako itzulgingururik gabe iristen diren bertsoak, ekintza komunikatiboa arrakastaz gauzatzuz.

Adibide gehiago aipatuko nituzke, finalaurreetako saioek askorako eman baitute: Agin Laburuk Oiartzungo saioan kartzelakoan botatako hirugarren bertsoa, errima estuko pieza aparta, txikiteoan jarraitzeko asmoa azaltzen duen aitona osasunez ahul xamarrarena (“txikiteoko mosketeruok / altxa ditzagun ezpatak”...), Unai Agirreren Murgiako bakarkako lan borobila, “dena prest daukazu eta gonbidatuak (pluralean) falta dira” gaiari kantatuz (deigarria begitandu zitzaidan nola deskribatu zuen unea, egoera, eta baita bertsoak nola bete zituen ere, “sendia ere pixkana doa / handitu eta handitu” bezalako puntuak tartekatuz bertsoen joanean...), Amets Arzallusek Elizondon bakarkako lanean egin zuen erakustaldia (errimak alperrik bota eta bota, potoari begietara aurrez aurre begiratuz uneoro)... eta beste asko ere bai.

Finalaurreak pasa dira, baina txapelketa ez da oraindik amaitu; azkeneko saioa falta da, saio nagusia. Bestelako parametro ugari sartzen diren arren jokoan azkeneko asalto horretan, izan dadila bertsoa benetako protagonista, eta gauzatu dadila etengabe, beste ezeren gainetik, bertsolaria eta entzulea elkartzen dituen ekintza komunikatiboa. Hori baita, azken finean, bertsolaritzaren esentzia eta benetako magia.

Gorka Azkarate



FINALA



Maialen Lujanbio Zugasti



Aitor Mendiluze Gonzalez



Sustrai Colina Acordarrementeria



Amets Arzallus Antia



Igor Elortza Aranoa



Aitor Sarriegi Galparsoro



Beñat Gaztelumendi Arandia



Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

BARAKALDO

2013-12-15, IGANDEA, 11:00, 17:00

BEC

FINALA

BERTSOLARIAK:

Maialen Lujanbio Zugasti
Aitor Mendiluze Gonzalez
Sustrai Colina Acordarrementeria
Amets Arzallus Antia
Igor Elortza Aranoa
Aitor Sarriegi Galparsoro
Beñat Gaztelumendi Arandia
Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

GAI-EMAILEAK: Saroi Jauregi Aiestaran (goizean), Zuriñe Iarritu Azpitarte (arratsaldean)

AURKEZLEAK: Joana Itzaina Mailharin (goizean), Alaitz Rekondo Ferrero (arratsaldean)

EPAILEAK: Martin Aramendi Arana, Karlos Ibarguren Olalde, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Mirari Azula Aurrekoetxea, Josu Telleria Uriarte, Nerea Bruño Artazkoz

Final handiaren eguna da. Egun askotan buru askotan egon dena. Aspalditik daude sarrerak agortuta. Irailean jarri ziren salgai www.bertsosarrerak.eu orrialdean. Gerora hainbat salmenta puntuetan jarri dira, eta oraindik hilabetetik gora falta zenean ez zegoen alerik ere. Horrek astindu ditu inguruak, baina ez dago soluzio magikorik: 13.800 lagun sartuko dira BECen, ez gehiago.

Euskararen Egunaren biharamunean eman zuten antolatzaile eta bertsolariek finaleko prentsaurrekoa. Dena prest dago. Hedabideek atondu dituzte bere ale bereziak, gehigarriak.... Eta antolaketak ere kaleratu du bere aldizkaritxoak. Aulki bakoitzean jarri du bana.

Lan hori eta beste zenbait egiteko aritu dira bezperatik lanean hainbat profesional eta bertsozale borondatetsu. Batez ere inguruko bertso eskoletakoek aritu

dira larunbatean prestaketa lanetan. Hego Uribe, Uribe-Butroe, Uribe-Kosta, Enkarterriak... eta hauekin batera Euskal Herriko beste bertso eskoletako bakan batzuk eta elkarteko langileak. Guztira 50. Horregatik dago dena hain txukun, hain antolatuta egun handirako.

Egunean ere hori petodun andana. Hirurehun eta berrogeita hamar boluntario arituko dira gaur dena ondo joan dadin. Lehen aipatutako bertso eskolakoak eta Bizkaiko Elkartera deitu eta bere burua eskaini dutenak gehienak. Horiez gain gaur lanera etorri direnak.

Bere zerbitzua ematera etorritako profesionalak, hedabideetakoak eta abar. Euskal Telebistako seinalea, Hitzetik Hortzera programaren bitartez eta *www.bertsoa.comen* bidez zuzenean zabalduko da. Aitzol Barandiaran eta Josu Goikotxea izango dira komentarioak egiteko arduradun. Ilaski Serrano berriz, han-hemenka ibiliko da elkarriketak egiten. Irratiek ere zuzenekoak ari dira bertatik egiten eta edonon ikus daiteke bakarren bat mikroa eskuetan.

Jendea goiz hasi da iristen. Metroko zuloetatik zein autobusetan. Antolakuntzak 57 osatu ditu eta beste 10 bat edo libre prestatutakoak iritsi dira. Arazoren bat gertatu da hauek uzteko parkingetan. Autoren bat traba egiten eta ezin nahi bezala sartu. Horrek atzeratu du jendearen sarrera ere. Goizeko 9etan ireki dira ateak eta kalkulatuta baino jende gutxiago sartu da lehen ordu betean. Sei mila lagun baino ez daude barruan hamarretarako. Bigarren orduan 8.000 sartzera behartu du horrek. Guztiei pultsera bana jarri zaie sarreran barra kodea ez bikoizteko. Albo bateko karriletik sartzen doaz gonbidatuak ere. Sebastian Lizasok eta Iñaki Muruak egiten diete han harrera, eta gero Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kideek laguntzen diete euren eserlekuetara. Politikoak, euskalgintzako jendea, kultur eragileak... eta baita “terraza zientifikoa” osatuko dutenak ere. Hauetaz Mintzola Fundazioko kideak arduratzen dira. Izan ere, Mintzola Fundazioaren ekimena da hainbeste aditu, ikerlari, atzerritar zein inguruko biltzea. Harremanak abiatzeko edo sendotzeko asmoekin gonbidatu dituzte eta denak elkarrekin eseri “terraza zientifikoa” deitu zaion horretan. Mintzola logotipoaren ondoan jarri dituzte bandera katalana, senyera, eta Galeskoa. Horrela ondo nabarmentzen da non dauden “zientifikoak”.

Kokatzen hasi da jendea. Egun zirrargarri bezain luzea dugu denok aurretik. 245 bertso entzun behar ditugu (137 goizean eta 108 arratsaldean) beraz ondo esertzea komeni.

Bakoitza bere lekuan gaudenean agurtu gaitu Joana Itzainak. Eskerrak banatzen jardun da aurkezlea lehen minutuetan. Lau aurkezle, gai-jartzaile, izango ditugu gaurkoan, lau euskalkietan mintzatuko zaizkigunak. Joanaz gain, Saroi Jauregik jarriko ditu goizeko gaiak, arratsaldekoak Zuriñe Iarrituk, eta azken protokoloa Alaitz Rekondok beteko du. Bertsolarienaz gain, doinu gozoak belarrietarako.

Iritsi da pasilloko garaia, lehenengo aldiz zutitzeko ordua. Saroi Jauregi gidari dutela zortzi bertsolariak errenkan sartu dira jende tartetik oihu eta txaloen gainetik. Giroa bero-bero jarri da hasieratik. Igo dira oholtzara, Maialen, Aitor, Sustrai, Amets, Igor, Aitor, Beñat eta Unai. Txalo jo dute hauek ere oholtzatik. Emozio handiko unea da, baina arnasa hartu, burua hotz jartzen saiatu eta agurrekin hasi beharra dago.



HASIERAKO AGURRA

M. Lujanbio

Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Orain lau urte BECen izan zen
eta iaz gaur den fetxan
Joxe Agirreren azken arnasa
gure bihotzetan zetzan.
Zuk aurrekoei eta guk zuri
jasoa hau oinordetzan
Andoni eredu ta katebegi
lehena gaurkotu genezan.
Elizondo, Oion, Markina, Maule
euskaraz entzun ta esan.
Ai udazken hau herri oso baten
zirriborroa ote zan?
Azken eder bat jartzera gatoz
aurrera jarraitu dezan. (bis)

A. Mendiluze

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Eskerrik asko bertsozalea
horrenbeste aurrikuspen
hautsi dituzu hausten dituzu
ta segiko dezu hausten.
Borondatezko lana ere hor da
norantza bat erakusten
atzo gauean dena prestatzen
aulkiak jarrita uzten
zein txukun jarri dituzten! (bis)
Beraz eroso eseri eta
saiatu aulkiei eusten
ea tarteka bertsoren batek
zutiarazten zaituzten. (bis)

S. Colina

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator iparraldetik*

Lau urteotan dena aldatu da
salbu Madril eta Paris.
Edinburgotik Bartzelonara
haize sorginduak dabiltz.
Bidegurutze batean gaude
ardura ta kezka handiz
piztu, poztu ta puztu nahian
niak guz eta guak niz.
Bidegurutze hortara heldu naiz
erortzean berriz jaikiz
bizarra egin berritan nola
josita nago ebakiz
baina aurrera egin nahi nuke
neure bidea eraikiz
erabakiak pauso bihurtuz
ta pausoak erabakiz.

A. Arzallus

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Nik egiarik ez dut amesten
ametsak ditut egitzat
txoko bat eman zidan munduak
eta izen bat bizitzak.
Ene bihotzak zazpi probintzi
lur hori du gure hitzak
eta gure hitz kantatu honek
hauxe diola deritzat:
eskubidea badaukagula
amets egiteko behintzat.(bis)

I. Elortza

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*


Egun on denoi ona dator ta
bihotzak hala diosta.
Hemen sartzea ez zaigu eta
ez zaizue gutxi kosta.
Nola ahaztu preso bertsozaleak
gaixo daudenak ta langabeak
dabiltzanak ozta-ozta.
Hemen gatoz gu ta tximeletak
gu eta zaldien trosta.
Txapel haundia dago jokoan
nork gaindituko du koxka?
Berdingabea da atrezzoa
bizi dezagun orain bertsoa
ta abendu honen hamabosta
horrexetara gatoz ta.

A. Sarriegi

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Egun on berriz ere BEC
lau urtean behingo motor
zaudeten ta ez zaudeten
bertsozaleen babes-gotor.
Txanpona airean izan da
Aitor, Unai, Unai, Aitor
besarkada bat hemendik
nola ez erantzun jator?
Baina orain hemen gaude
eta datorrena betor!
Nahiz ta berdinketa batek
ipini nauen nonbait hor
berdintzea kostako den
saioa egitera nator. (bis)




B. Gaztelumendi

Neurria: Hamaseikoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Nere gorputza dardarka daukat*

Lehendabiziko nahiko nuke gaur
ez daudenekin gogora
ta bereziki nire animo
danak Navalcarnerora.
Sagardotegi zokoetatik
mendi hegaletan gora
iritsi gera Barakaldoko
hormigoipeko fokora.
Gu bietara gatoz ordea
jolasera ta jokora.
Hau bakarrik balitz moda
ez lijoake inora
Villabonatik Oiona eta
Mauletik Barakaldora
mapa gabeko herri zahar hau
hitzetan marraztuko da.

Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



U. Iturriaga

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Egun on bertsozalea
iritsi garela jada
txapelketan azkenera
ni azken txapelketara.
Mauletik Karrantzaraino
Bermiotik Tuterara
Cheyenne, Aapahoe
lako ta herriak gara
sentitzen naiz Zaldi Eroa
Little Big Hornen gisara.
Sortaldetik ikusi dut
nola urratu den gaba
hau da azken guda dantza
maskarada, kabalkada
datorrena datorrela
hiltzeko egun ederra da!

ZORTZIKO HANDIA

M. Lujanbio – A. Mendiluze

Gaia: Elikagai-bankurako jendeak borondatez emandako janariak biltzen daramazue goiz osoa. Kamioia bete duzue, eta oraindik beste hainbeste geratzen da sartzeko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa I*

M. Lujanbio:

Une latzetan mina heltzen da
biztanlegoan zainera
arroz poltsa ta irin pakete
elkarren aldamenera.
Irratiz egin gendun eskea
egunkaritan gainera
eskatutako borondatea
borondatea ote da?

A. Mendiluze:

Eman duenak hala eman du
halaxe hartua bedi!
Hortik harago beste kezka bat
barruan sortu zait neri:
nahiz ta kamioi bat bete eta
zorroak pilatzen segi
zorro bakoitza ez al den asko
eta denak gutxiegi.

M. Lujanbio:

Gabon garaia heltzen denean
bihotzek ze zirrikitu...
Ez da gehiegi ta bada zerbait
indarrrik ez da akitu.
Pakete hauek ezingo dute
gose haundirik txikitu
eman dutenen kontzientzi kargak
gehiago asetzen ditu.

A. Mendiluze:

Bai baina horren premian asko
ez ote daude kanpoan?
Sendi askoren platera dago
une honetan jokoan
eta nahiz eta kontzientzi karga
izan hau emandakoan
karga berdina izango al du
Gabonak pasatakoan?

M. Lujanbio:

Hemen Gabonak pasata ere
lehengo krisia krisi da
txanponen brillo gehienak juanak
eta goseak dizdira.
Bakoitzak pixka't sartu ezkerro
pila egiten da guztira
hobe litzake bai banku denak
horrelakoak balira!

A. Mendiluze:

Bankuak esan eta barruan
ene ze amorru dedan!
Haiei emana guri ematea
ez al legoke primeran?
Baina kopeta neurritik gora
ilundu gabe aukeran
pentsa dezagun hau irrifarrez
jaso behar dutenengan.

S. Colina – A. Arzallus

Gaia: Azken urteotan alkoholiko anonimoetan ibili zarete elkarrekin. Gaur, taberna batera sartu zarete kafe bana hartzera.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jaiki ninduzun I*

S. Colina:

Nahiz ta lehenago ipintzen nion
itukinari partxea
gogorra bezain ederra izan da
urte hauen balantzea.
Ez da xamurra tabernan sartu
ta kafe bat goxatzea
oraindik ere kosta egiten zait
ardo bat ez eskatzea.

A. Arzallus:

Neronek ere pentsatu dut bai
“Eginen ote dut galde?”
ardo, patxaran eta whiskiak
begi bistan alde alde
barra hori da amildegi bat
ta gu bere bi maitale
hemen orekan baldin bagabiltz
sendatu garen seinale.

S. Colina:

Tabernan sartu ta ausartu naiz
ni ebaki baten eske
laguntasuna izanik gure
lotura ta zilbor-heste
baina erabat sendatu garen
ez nuke esango hainbeste
nahiz ta bidean aurrera joan
noiznahi erori gaitezke.

A. Arzallus:

Arrazoi duzu arriskutsua
da gureztat hemengoa
amildegitik gerturatzean
tentsio *in crescendo*
baina hala ere ni sentitzen naiz
sendatua ta sendoa
guk bi ebaki izanagatik
zauria osatzen doa.

S. Colina:

Hori litzake sinestu nahia
eta ezin sinestua
gogoan daukat Anonimotan
lehen gau hartan aurkeztua.
Nik oraindik ez dadukadanez
panorama amestua
inoiz bidean erortzen banaiz
luza zaidazu eskua.

A. Arzallus:

Emango dizut eskua eta
osasun berri bat opa
utzi ditzagun geure kontu zahar
geure min ta geure kopia.
Nahiz hortarako egokiago
den askozaz ardo kopa
hartu ditzagun kafe kikarak
ta egin dezagun topa.

I. Elortza – A. Sarriegi

Gaia: Zuen lagunak ia bi hilabete daramatza desagertuta. Zuen lokaleko sofán zaudete, telefonoei begira.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait A*

I. Elortza:

Bizi berri bat nahi zuela ta
gero zenbat desengaino!
Bi hilabete jadanik Odei
egin zitzaigula laino
ta barrenetik amorratzen nau
neuk ere ez dakit noraino
deus ein ezinak telefonoai
begira egotea baino.

A. Sarriegi:

Bizitza honek zer ote digun
edonoiz erakutsiko?
Zail da jakiten gure laguna
baitzen bizitza guziko.
Nahiz eta uste nik ez nukeela
ahantzuran galtzen utziko
aspaldi hontan etsita nago
ez degula ikusiko.

I. Elortza:

Neronek ere barrua daukat
zalantzatia, goibela
dagoeneko ikusia dut
nik ametsetan eskela.
Ezin ikusi ha ikusi arte
sinistuko dut honela
lehenago legez irribarretsu
atetik sar daitekeela.

A. Sarriegi:

Nik ere hala daukat gordea
nere oroitzapenean
ta ametsetan ere sarritan
ikusi dut gehienez
baina etsita negar malkoak
sortzen zaizkit azkenean
esnatu eta falta zaigula
konturatzen naizenean.

I. Elortza:

Goiz bat eta bi, hiru eta lau
hemen zai gaude luzaro
tarteka argi izpi batekin
gero etsita zeharo.
Gogoko zuen *Play Stationa*
hor ikusi dut akabo!
Nik jokatzeko gogorik ez dut
bera hemen ez badago.

A. Sarriegi:

Bi hilabete pasatu dira
ta noski ez gaude lasai
susmatzen dugu zer gertatu den
baina ez dugu sinetsi nahi.
Gerora ere segiko degu
sofa hontan jarrita ai
Inoiz heltzerik nahi ez genukeen
berria noiz helduko zai.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

B. Gaztelumendi - U. Iturriaga

Gaia: Bi prostituta zarete. Jakin berri duzue isun handiak jarriko dizkietela zuen bezeroei.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

B. Gaztelumendi:

Herriko apaiz zaharrak etortzen
pasa du hamaika urte
politikoak, enpresariak
bankutako zenbat putre.
Isuna haiei ipintzea nik
ederki hartuko nuke
ordaintzeko guk baino problema
gutxio izango dute.

U. Iturriaga:

Jakina hoiek guk baino arazo
gutxiago daukatela
baina jokoan dagona ez da
dirua edo papela.
Historian zenbat urte joan dira
gatazka honekin horrela
noizbait onartu beharko dute
hau ogibide bat dela.

B. Gaztelumendi:

Txanpon berean agertzen gera
tamalez bi aurpegitan
esaten dute pena sortua
degula hainbat senditan
baina aukera hau nahiago det
aspertu bainaiz egitan
errudun izan beharrarekin
gizartearen begitan.

U. Iturriaga:

Egia da bai estigma horren
azpian gu beti gabiltz
mundu hontan bada indarkeririk
eta hamaika kontu hits
baina bezero bat zigortzea
geratzen da eskas, murriz
ta ez legoke arazo hori
legezko izango balitz.

B. Gaztelumendi:

Bai egia da hori litzake
guretzat bide bakarra
baina tamalez legea ere
beti izaten da arra.
Mundu injustu honi begira
maiz irteten zait negarra
bizio hutsa da beraiena
eta gurea beharra.

U. Iturriaga:

Ez dauka zertan beharra izan
izan liteke apeta
nik azalpenik eman beharrik
ez daukat baina zer gerta.
Agur laztana joan egin behar dut
agenda daukat beteta
Strauss-Khan eta bere lagunak
zerbitu behar ditut eta.

ZORTZIKO TXIKIA

A. Arzallus – M. Lujanbio

Gaia: Bikotea zarete. Amets, Maialenek jatetxe garesti batera gonbidatu zintuen afaltzera. Jakiren batek kalte egin, eta ospitalean bukatu duzue.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

A. Arzallus:

Zugan ilusio bat
joan zer gorpuzten
Subijana ta Arzak
hatzez erakusten
zenion “Zenbat izar
Michelin dituzten!”
ba orain ni ari naiz
izarrak ikusten. (bis)

M. Lujanbio:

Azkenaldian motel
geundela nabari
eta nik Subijana
jarri nuen adi
saiatzen ari bainaiz
ari eta ari
emozioa jartzen
gure harremanari. (bis)

A. Arzallus:

Ez da errexa menua
ongi deskribitzen:
onddo papilloteko
han zen eskribitzen
kabiar urardotu bat
horrekin segitzen...
Irakurtze hutsarekin
ni gaixotu nintzen! (bis)

M. Lujanbio:

Porruak binagretan
ta kokotxa batzu
delikatesena zen
egidazu kasu.
Pure ta arrai egosi
zalea zera zu
ba hori nahi bazendun
hementxe daukazu. (bis)

A. Arzallus:

Glamour pixkat emanaz
piztu bi kandela
jakizu okerrena
baina zera dela:
etxerako hain nuen
aurpegi zimela
bat’e postrerik gabe
gelditu ginela. (bis)

M. Lujanbio:

Subijanako janak
ze maila ze gradu!
Postrerik ez zegola
egin nintzen kargu
baina ez dago koman
itxura ona du.
Beraz azken puntua
urruti daukagu. (bis)

A. Mendiluze – S. Colina

Gaia: Autoak konpontzeko tailer bateko nagusia zara, Aitor, eta zure langilea da Sustrai. Aitor, gaur Sustrai ikusi duzu bere autoa beste tailer batera eramaten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

A. Mendiluze:

Beti ikusten zaitut
serio-serio
ni begira banago
ze erremedio!
Ta orain bestera zoaz
horrek argi dio
zeure buruarekin
ez zerala fio. (bis)

S. Colina:

Nik *Passat* haundi bat dut
ta ertzainek “Alto!”
ez didate esaten
ederra delako.
Gaurkoan prestatu dut
beste baterako
neure burua asko
maite dudalako. (bis)

A. Mendiluze:

Horrelakorik ez zait
sekula pasa-ta
pentsatzen aritu naiz
ni neure kasaka
zeure burua maite
ta eraman *Passata*
gehio maite al dezu ba
bestera pasata. (bis)

S. Colina:

Dena esan behar zaizu
ze erremedio!
Ez dira igual-igualak
Passat eta *Clio*
beste batera eraman
dut Aitor propio
hola faktura merke
ta lana gutxio. (bis)

A. Mendiluze:

Beraz bieri hartu
nahiean tamaina
faktura merkea nahi
dezu alajaina!
Lana ere gutxio
izango da baina
galdetu ia baduen
zeuretzako aina. (bis)

S. Colina:

Berriz atera zaizu
negoziante sena
bistan da agintari
haundi bat zarena.
Ba ez diot egingo
ez proposamena
neretzako zu zara
nagusi onena. (bis)

U. Iturriaga – I. Elortza

Gaia: Santomasetan, talo-postuan zaudete biok. Unai, zu taloak egin eta egin ari zaren bitartean, Igor bezero batekin eta bestearekin berriketan dabil.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

U. Iturriaga:

Euskal talo onena
ta horrenbeste mezu
zure laguntzarekin
Igor nauzu kexu:
ni taloak egiten
hementxe jo ta su
eta zuk hor txistorra
dantzatzen diezu. (bis)

I. Elortza:

Zu talogile zaharra
zara ta jakina
nire bide hau duzu
ulertu ezina.
Modernizatu nahi dut
nik langintza fina
talotegiak ere
behar du marketina. (bis)

U. Iturriaga:

Zu zara jakituna
ba beraz egia
noski ez naiz izango
modernoegia.
Marketina alper-lana
dugu alegia
eta talogileak
talo aurpegia. (bis)

I. Elortza:

Zuk talo aurpegia
duzula diozu
baina ez zazu egin
arren estropozu.
Ile zuri ta guzti
ederki zatoz zu
autentizidadea
ematen diozu. (bis)

U. Iturriaga:

Pozik egongo zara
umorea jarritz
baldin banu talo bat
ondo betea harriz!
Beraz ile txuriak
ematen du neurritz
zuk donostiarrarena
eiten duzu berriz. (bis)

I. Elortza:

Bikote ona gara
basati ta panpin
zu taloak egiten
ekin eta ekin
nik ere izerdia
hainbeste marketin
orain egidazu bat
txorixo onarekin. (bis)



A. Sarriegi – B. Gaztelumendi

Gaia: Aita-semeak zarete. Zu, Aitor aita jubilatua eta Beñat seme komertziala zarete. Beñat semeari gidabaimena 10 hilabeterako kendu diotela eta, egunero berarekin gidari-lanak egiteko eskatu dizu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Sarriegi:

Lehen ere emanak zeuzkan
hiruzpalau kolpe
ta orain ez du izan
horrenbeste zorte
baina a ze *txolloa*
hau posible ote?
Kotxean ibiltzearren
ordaintzen diote. (bis)

B. Gaztelumendi:

Lehen ni zure umea
ta zure ninia
kolpera zeinen *borde*
zeran ipinia!
Nik nahiko tratu ona
dizut eskeinia
nahiko komisio da
nere konpainia. (bis)

B. Gaztelumendi:

Nere barruan badet
nahiko desengaino
alkoholimetra heldu
ia zeruraino
paseoa zuretzat
hobea baita ño
sudokuak egiten
egotea baino. (bis)

A. Sarriegi:

Hori ulertzen dezu
nahi dezun erara
bosgarren aldiz gatoz
tailer honetara
irten pixka batean
ta ez bada traba
ama eraman behar
det enkargutara. (bis)

A. Sarriegi:

Sudokua egiteak
txarrik zer ote du?
Nahiko paseatzen det
uda ala negu
txofer ta komertzial
ederki gaude gu
komisioaz gero
hitz egingo degu. (bis)

B. Gaztelumendi:

Ama eraman zazu
ama ama dalako
baina gero tarte bat
hartu neretzako
hala izango dezu
anekdota franko
berriz soziedadera
zoazenerako. (bis)

PUNTUA EMANDA

M. Lujanbio

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Txapelketa hedatu da mundu osora.

Hotsak ta audientzia
dijoazkigu gora
Katalunia, Amerika
eta edonora
lana ondo egina
delako izango da.

Diasporan badago bertsozale franko

batzuek hemen egon
ezin dutelako
eta besteak bertan
bizi direlako
haiei'e bertso onak
eskeini beharko.

Internetez goxatzen al da herrimina?

Arantzen ukendua
liteke jakina
haria etete ez bada
saio atsegina
hor daudenei hemendik
muxurik haundina.

A. Mendiluze

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Kazetari ugari bada kartzeletan.

Egia kontatuta
sartu dira bertan
askatasuna aipatu
ohi da berrietan
badutela sinisten
al degu benetan?

Idaztea bihurtzen denean delitu

egiarekin ezin
gintezke aritu
baina gezurrarekin
nahiz eta kunplitu
bide horrek aurrera
pauso gutxi ditu.

Zuk ematen al duzu zure iritzia?

Inoiz ez ukatzera
nago iritsia.
Nahiz eta ez nagoen
denetan jantzia
benetan esateak
dauka garrantzia.

S. Colina

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

**Errugbi euskalduna
gero ta gorago.**

Ni Miarritz begira
beste ustetan nago
aspaldian baitoaz
geroz ta beherago
hola segi ezker
kontuak akabo.

**Baiona ta Biarritz
ezin ezkondu**

elkarrentzat arerio
izan ditugu-ta
baina joko badute
aurrera apurka
bidea egin behar
dute elkartuta.

**Real ta Athletic
batuko balira**

egongo nitzateke
albotik begira
baina batu ezker
bi horiek di-da
Osasun gustora
egon behar dira.

A. Arzallus

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Lehengo astean zendu
zen Nelson Mandela**

eta mundu osoan
piztu da kandela.
Gustorago nengoke
hemen dena dela
betiko itxi balute
egon zen kartzela.

**Borroka egin zuen
bakearen alde**

ta nola den posible
ez zaidazu galde.
Hemen ere badabiltz
makina bat talde
baina haren ohorerik
bat'e jaso gabe.

**Bakezaleak gara
bakea nahi dugu**

ta horren izenean
makina bat gudu
munduko lau ertzetan
piztu ohi ditugu.
Bide zuzena denik
ez nago seguru.

I. Elortza

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Abiadura handian tarta eta tren.

Bietatik gustuko
nik daukat lehena
ze ipini zuenak
halako problema
horrelaxe jaso du
merezi zuena.

Tartalarientzako kartzela zigorra

gu guztion ustetan
dagoena sobra
botereak bildurra
baitu derrigorra
denontzat ejenplua
jarri nahia horra.

Frantzian errugabe Espainan errudun

ta ez gara harritzen
nola ezagun dugun.
Nahiz ta han ere sarri
zigortzaile jardun
ia buelta emateko
indarra daukagun.

A. Sarriegi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Hezkuntzaren munduan

bagoaz aurrera.

Hala diozu baina

egia ote da?

Nere ustez baikoaz

bastante atzera

igual historiaurrera

iritsiko gera.

Badaukagu oraindik

non ta zer ikasi.

Ba orduan Madrila

begira ez hasi

Wertek bere legea

du ekarrarazi

eta ez digu egin

horrenbeste grazi.

Jarraitu behar dugu

despistatu gabe

egitekotan geure

buruaren alde.

Hori lehen ere ondo

ikasiak gaude

izan behar dugu gure

hezkuntzaren jabe.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

B. Gaztelumendi

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

Etorkin kopurua

beheraka doa.

Egia esan ez da
gauza arraroa
herri hau gaur ez baita
horren oparoa
goraldia daukagu
urrun igaroa.

Jende asko poztu da

berri hau tarteko

eta iruditzen zait
guretzat kalteko
etorkina ez baita
inoiz aparteko.
Gure artean konpondu
gaitezen hobeto.

Etixerako bidea

hartzen dutenean

poza hartuko dute
igual gehienez
baina geronek ere
ahal degun denean
onartu behar ditugu
gure barrenean.

U. Iturriaga

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Aberatsak aberats orain eta lehen.

Badakigu sistema
honen funtsa zein den
oparotasunaren
garantea omen
baina pinu hortatik
gu erori ginen.

Diru beltza batzuen poltsikoetara.

Horretarako izan da
zenbait hamarkada
beltza sartzen zuten ta
zuria atara
zenbat joan ote da
trenan obretara!

Inoiz jaso al duzu beltzean dirua?

Hori horrela ez dela
gauza segurua
baina herriarena bai
hori da helburua
makina bat zerbeza
hortako saldua.

SEI PUNTUKO MOTZA

M. Lujanbio – S. Colina

Gaia: Zortzi urteko haurrekin lan egiten duzuen bi irakasle zarete. Zuk, Maialen, heriotzaren gaia lantzea proposatu diozu Sustrairi, eta konturatu zara Sustraik gaia saihestu nahi duela.

Neurria: Zortzikoa, berdinarekin moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

M. Lujanbio:

Umeeekin neka-neka
egoten zera tarteka
putzu ilunetan nahiago ez sartu
baezpa zer gerta.
Zergatik euki gordeta
ta egia ez errespetatzen
heriotza ere bizitza honen
zati bat da eta? (bis)

S. Colina:

Hortan datza gure lana
enpeinoa ta afana
nahiz ta hortara ez den iristen
Wert jaunaren plana.
Heriotza dugu drama
nekez arintzen den zama
ta erakutsi ote dezaket
neuk ez dakidana? (bis)

S. Colina:

Hasi ote zara zahartzen
petraltzen ta odol txartzen?
Ba bai herio gure parte da
lehen ere hala zen.
Herio kontutan sartzen
hala ere ez naiz ausartzen
haurrekin nola landu behar dut
ez badut onartzen? (bis)

M. Lujanbio:

Ikasteko afanean
hara hamaika ume han
denek batera baietz ikasi
gaur den egunean.
Gogorra aldamenean
haurrak hain triste planean
gogorrago ez ezagutzea
iristen danean. (bis)

M. Lujanbio:

Beldurrez zaude ta izu
heriotzera pasadizu
hori denontzat zaila da eta
zuk ondo dakizu.
Haur txiki-txiki mukizu
ze goxoa den begizu
onartzen igual berorrek zuri
lagunduko dizu. (bis)

S. Colina:

Sentimentuen garraio
nabil penatu arraio
nahiz orain arte tabua zena
ez esanda nahio.
Joni amonak soraio
betiko esan dio aio.
Orain ez dago ihesbiderik
heldu beharko zaio. (bis)

A. Mendiluze – A. Arzallus

Gaia: Zuen seme-alaba nerabeak topatu dituzue, biluzik, elkarri argazkiak ateratzen.

Zu, Aitor, kezkatuta zaude; Ametsek ez dio aparteko garrantzirik ematen.

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

A. Mendiluze:

Heziketa da lehena
ta emateko kemena
ahalegina ta konpromisoa
da gurasoena.
Baina jakinda hauena
gaur egun gertatzen dena
biluztea ez argazkia da
kezkatzen nauena. (bis)

A. Arzallus:

Argazki baten flash hutsa
zorrotza da ez amutsa
ai baina Aitor bi gorputz hoiei
emaiezu funtsa:
bi bular koxkor goruntza
hanka tarteetan huntza...
Zer dauka txarra deskubritzeak
besteen gorputza? (bis)

A. Mendiluze:

Bi bular koxkorrak hara!
Bien artean konpara
eta diozu “Deskubritzea
hain txarra al da ba?”.
Ez baina iristen bada
sare sozialetara
denek ez dute izango agian
zure begirada. (bis)

A. Arzallus:

Zabiltz neurritik irtena
egin ezazu etena
ez baita Aitor hainbestekoa
seme-alabena.
Egin gabeko hobena
ez ezazula kondena
ez zazu zuk zeuk imajinatu
egin ez dutena. (bis)

A. Mendiluze:

Zer pasa litekeen egun
nahiz ta kontatu diegun
agian errez delako edo
kontzientziz bigun
zergatik epaitzen jardun?
Nola aukera daukagun
eser gaitezen eurekin eta
hitz egin dezagun. (bis)

A. Arzallus:

Ta gorputza goitik behera
bi begien arabera
azter dezagun ta gero egin
hurrengo galdera:
zer sartu Internetera
edo eta zer atera?
Geronek ere ikas dezagun
eurekin batera. (bis)

I. Elortza – B. Gaztelumendi

Gaia: Zuen umea batere gustukoa ez duzuen bikote baten umearen oso lagun egin da.

Zuk, Igor, uste duzu bikote horrenagana hurbiltzeko ahalegina egin beharko zenuketela. Beñatek ez du ezer jakin nahi.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

I. Elortza:

Neu ere ez nago seguru
ta zuk diozu “Tururu!”
baina zeozer aklatratzea
da nire helburu.
Txikitan pardel ta inguru
garbitu izan ditugu
geure umea da ta hau ere
egin beharko dugu. (bis)

B. Gaztelumendi:

Lehen horrenbeste iseka
hitza elkarri gordeta
haurrak ta gure artean bila
dezagun oreka
goza dezaten tarteka
egunak hala beteta
jolaserako gure beharrik
ez daukate eta. (bis)

I. Elortza:

Ez dituzula nahi hurre
nahiz ta haurra izan urre
parka ez zaitez hasieratik
zu horrela erre.
Jarriko naiz aurrez aurre
neuk egin hitzari arre
zu jarri zaitez aldamenean
ta egin irriparre. (bis)

B. Gaztelumendi:

Jolasa ez da itzela
aipatzen dezun bezela
haserre batzuk ahazterik guk
ez baitegu bela.
Beste umea horrela
irrifartsu dagoela
iruditzen zait bere aitaren
antzekoa dela. (bis)

I. Elortza:

Antza dauka duda barik
neronek ere zin dagit
baina txistua irentsi beharko
dugu zuk eta nik.
Zer zabiltz hoiek esanik
heldua zara jadanik
bizitza jolas bat dela uste
al zendun oraindik? (bis)

B. Gaztelumendi:

Badakit hala ez dela
gaizki gabiltza bestela
parkean hortxe bi baloi haurrak
ta erdian orbela.
Ez naiz joango horrela
eskatu dezun bezela
ta nahi badute haiek gugana
etor daitezela! (bis)

A. Sarriegi – U. Iturriaga

Gaia: Hamaseina urteko bikote gaztea zarete. Aitor, Unaik esan dizu haurdun dagoela.

Neurria: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

A. Sarriegi:

Urte mordoa jarraika
aspalditik hala nahita
zu bezelako neska polita
nik nola ez maita?
Baina didazuna aipa
kontu oso latza baita
ziur al zaude ni nauzula gaur
ume horren aita? (bis)

U. Iturriaga:

Kiriotan azal ta mintz
momentu triste, une hits
prediktorean hori ikusita
sentitu naiz murriz.
Gainera zuk horrela hitz
zurea ote den zabiltz
seguru nago baina nahiago
nuke hala ez balitz! (bis)

A. Sarriegi:

Nunbait hala komeni zen
gauzak hasirik argitzen
hamasei urte dauzkagu soilik
ta ez gera haunditzen.
Orduan bai pozik nintzen
ta hasirik erabakitzen
datorrenari aurre egiteko
ez naiz gai sentitzen. (bis)

U. Iturriaga:

Hara orduko xexena
kriston trena zirudiena!
Onart ezazu tximur eginda
daukazula dena.
Kendu nahiean problema
ezjakin lerdo alena!
Konponbideak biharamuneko
pilula du izena. (bis)

A. Sarriegi:

Ia nengoen horren zai
“Uf!” egin dut ta orain lasai
baina ez nekien horretaraino
zenuen heldu nahi
ta erabakitzeko gai
izanak jarri nau alai
zu lasaiago biziko zara
eta ni ere bai. (bis)

U. Iturriaga:

Baina ote zabiltz serio
ala aingeruak dio?
Gu ze datatan biziko garen
ahaztu oraindio.
Kondoirik gabe propio
nahiago zendun dedio!
Pilula orduan hartu behar nuen
gaur ez du balio. (bis)

KARTZELAKO LANA

M. Lujanbio

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Norbere mundu intimo
norbere sexualitate
zabaldtu eta besteekin
bihurtzen ditugu parte.
Desioek, pasioek
beren arantza dakarte
neri ere harremanan
lora bihurtu zait kate.
Ezin da inor behartu
inor derrigorrez maite
harremanak zabal behar du
bere aukera ta ate.
Halako diskurtsoak maiz
egiten nitun gaur arte
nik utzi izan det baina
gaur aldiz ni utzi naute. (bis)

Hain zena zoragarria
orain egin hain tamala
galdu det zure abaro
zure besoen magala.
Ez al nintzen ni nahi zuna
harreman bat liberala
beheko sua etxean ta
noiznahi noranahira bala?
Orain balak ni jo nau ta
hau da destinu zitala!
Iruditzen zait minetan
odolustutzen noala
orain beste alderditik
begiratzen baitet hala
nik falta dudana zati bat
beste batek daramala. (bis)

Mespretxutzat hartzen degu
eta nahiago ez entzun
“Nerekin nahi?” galdera horrek
ezetza badu erantzun.
Bikoteak hausten dira
igual horrela behar zun
zuk eta biok badugu
nahiko adimen ta zentzun
eta esan gabe doa
ze eskubide daukazun
opa dizut zoriona
aski desio, maitasun.
Nere lore gozo zena
nahiz bihurtu zaidan asun
ezin zaitut derrigortu
zuk ni maitatu nazazun. (bis)

A. Mendiluze

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Zuek horrela ikusi eta*

Irakaskuntzan lan egiten det	Zenbat zalantza ta zirrikitu
benetan oso gustora	heziketaren lanetan
nahiz ta tarteka amorrarazi	eman ditudan pausotan eta
nahiz ta tarteka aztora	utzitako baimenetan!
baina bi alde dituen hontan	Agian gehitxo onartzearren
diferentzia asko da.	sartuko zen problemetan.
Pasatzen doa denbora	Nahiz asteburu honetan
neureak badatoz gora	zigortuaren penetan
eta kezka bat gogora:	geratuko den benetan
zein beldurgarri baina ederra	nik ere badet zer pentsatua
den heziketaren froga	zenbait kezka neure bueltan.
zeinen seguru nagoen gelan	Ia argirik topatzen dudan
zein larri handik kanpora! (bis)	neure kontraesanetan! (bis)

Gaur deitu naute “Ume bat jo du
ez zuen pakean uzten”.
Puskatu dizkit hainbeste uste
ta hainbeste aurrikuspen.
Nahiz gurasoek gure ametsek
sarri itsutzen gaituzten
saiatu naiz erakusten
bere indarrari eusten
eta araurik ez hausten
baina nahiz eta gelan haur hoiek
zigorrrak hartzen dituzten
hau berdin hartu behar nuke baina
nik ez det berdin ikusten. (bis)



S. Colina

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Frankismoan ibilia
bide ezkututan barna
Espainiko espetxetan
utzi dut nere aztarna.
Neretzat ere jo zuten
ateratzeko alarma
ta geroztik gozatu dut
bizi askearen xarma.
Baina patuak berriro
mamu zaharrera narama
sofan eserita gaude
ni ta umearen ama
gaur gure umea baita
auzitegira doana. (bis)

Amak korapilatuta
ta goibel dauka barrena
nik berriz zulo berean
egin behar dut herrena.
Horrelakotan sentitzen
da bat hutsaren hurrena
zeresanik ez badaki
audientziak dakarrena
kartzelan igaro nuen
urte pila nabarmena
ta orain bete behar dut
senarra ta aitarena
ta egia esan ez dakit
bitan zein den okerre. (bis)

Nekeza da asumitzen
bizitzak ipini rola
nik ere negar eiten dut
eta galtzen dut kontrola.
Eguna ailegatu da
espero gabe inola
semea audientziara
doa borborka odola
nahiz ta begiratzen didan
fuerte ia ezaxola
nik eskutik heldu diot
umea zenean nola:
“Semea jakin ezazu
zurekin harro nagola.” (bis)

A. Arzallus

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Oso polita zara izatez*

Andaluzian sortu nintzen ta
Rodriguez hiru abizen
ikasketetan nola ez neukan
aski argi ta aski sen
hogei urte ta han hasi nintzen
Benemerita zerbitzen
trafikoari paso eman ta
goizetik gau izerditzen
ta azkenean Donostiako
kuartelera heldu nintzen
eta ordutik lana egin dut
intxaurrondoak astintzen. (bis)

Baina heldu da aro berria
nunbait bukatu da gerla
ene zain daude magistraduak
eta auzitegi gela.
Bi ordu dira hontaz ta hartaz
galdezka ari direla
eta orain neu nago isilik
lehen mutil haiek bezela.
Tokatuko zait itzal luzea
zulo bateko kartzela
baina espero dut presidenteak
indultatuko nauela. (bis)

Nere izena gorroto dute
ez dakit zenbat familik
ez da izango Euskal Herrian
ikusi ez dudana mutilik!
Galdetzen nien “Hik ez ote duk
inoiz hil Guardia Zibilik?
Eta hil baduk zer sentitu duk
neure lankide bat hilik?
Galdera hauei erantzun arte
hor egongo haiz txintxilik”.
Baina begiak zarratu eta
segitzen zuten isilik. (bis)

I. Elortza

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 11 puntuz

Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Hementxe gaude ia-ia ez
herritar ez buruzagi
erabakiak hartu beharrean
ez direnak bat eta bi
ta bitartean hainbeste jente
pentsatuaz “Zer etor liteke?”
hortxe dugu adi-adi.
Hogei urtean zehar egin dut
makinatxo bat eskari
orain badakit ezertxo ere
ez dela etortzen opari.
Gogoan dauzkat lehengo kritikak
hementxe jarri nau politikak
lehen kexuka salatari
eta orain agintari.

Deitu zidaten aurkeztu nintzen
ez da esan beharrik zertan.
Lehen kalean egon ginenak
gaur gaude bulegoetan
eta orduko hainbat kritika
orain goi-goian gaude jarrita
ta etortzen dira bueltan.
Utopiaren aldarrikapen
izanak hainbat urtetan
orain dakigu hoiek gauzatzen
ez dela erraz benetan
baina neurtuta alta helburu
geure ahaleginak eingo ditugu
burua beti ametsetan
baina hankak lokatzetan.



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

Orain burura datozkit hautes
gaueko hainbat algara
eguneroko lanean egin
direnak astun ta traba
ez zela noski erreza izango
ez zigun inork ere esango
ta baneukan bihozkada.
Hala ere orain ere ni tente
ateratzen naiz plazara
gure herri hau eroateko
benetan ezkerretara
ta bidea da gauzak ondo egin
gure babesa haunditu dedin.
Benetan baldin bagara
orain geure ordua da.

A. Sarriegi

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Gogoratuz garai baten
munduratu zen umean
ideia jakinak ziren
han gure ingurunean
Goierriko herri hartan
herri txiki ta xumean.
Ondorenean sasian
kanpoan ta urrunean.
Barrua ere probatu dut
nere txikitasunean
eta gaur egun jadanik
neure askatasunean
barruan zerbait lehertu zait
daukat hor gaur egunean
alargunari eskua
eman diodan unean. (bis)

Neuk tiroz hil nuenaren
alarguna zen jakina.
Egoera aldatu da
lan asko baita egina
baina gaur bizi izan det
nere ekintzaren gordina
gertuan ikusi arte
ezer ez baita berdina.
Ez da izan eroso
ez da izan atseгина
nik ere badakit zer den
sufrirentu ta ezina
baina egin beharrean
besterik gabe muzina
orain nere sentitu det
eragin diodan mina. (bis)

Begietara begira
egon pare bat segundu
bi bizitza dira noski
bi bizitza ta bi mundu.
Biktimak gure ahotan
sarritan hartu ditugu
baina zer esaten dugun
ez nago oso seguru.
Onartu gabe egon naiz
hogeitaz bat urte inguru
baina gaur aurpegiz aurpegi
gaude eta buruz buru
eta biharko herri bat
baldin badugu helburu
batak bestearen mina
onartu beharko dugu. (bis)

B. Gaztelumendi

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Hilero etortzen zera
maitasunaren aldarriz
eman ezin dizkizudan
laztan goxoen egarriz
malkoak ta irrifarrak
biak gordean ekarriz
bizi dezun infernua
ia ezkutuan jarriz. (bis)
Etortzen zeran aldiro
gu bion artean dabiltz
eman gabeko muxuak
esan gabeko mila hitz...
Besarkatuko zintudan
gogor ilusio handiz
tartean izoztutako
kristal hau egon ez balitz. (bis)

Polizia etorri zen
ta egin nigatik galde
mendeku ta justizia
nahasten baitira debalde.
Ondo dakit zeren kontra
nagoen ta zeren alde
baina tamalez legeak
egin zituen bi alde. (bis)
Parean jarrita zaude
amodioaren jabe
disimulatuagatik
badakit ez zaude bare
zure aldean jartzen bainaiz
egon arren parez pare
ni preso sartu ninduten
ta zu ere hala zaude. (bis)

Ta kristalean arnasak
eragindako lurruna
sarri hain da gertukoa
ta sarri hain da urruna
bonbilla dardarti horrek
ez du argitzen iluna.
Ni babestea bihurtu
zizuten eginkizuna (bis)
hilean behingo bisita
astean behingo gutuna
ondo dakit ez dezula
laztana horren kuttuna
baina nik ere badakit
berriz helduko zaiguna
biok alde bakarrean
egongo geran eguna. (bis)

U. Iturriaga

Gaia: Egoerak beste aldean jarri zaitu.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Denok daukagu gogoan beti
joandakoa, iragana
ze zoriontsu bizi izan ginen
hainbeste urtetan barna
argazki zaharrek bideo zaharrek
badaukate bere xarma
justu gaur egun bihurtu dira
hoiek nire aurkako arma
ta ez genuen guk alperrik jo
abokatu batzungana
erdigunea zegon tokian
orain dago erdi bana.
Beste aldean ikusten nauzu
barkatu seme laztana
alde hau edo bestea izan
nundik ikusi da dana.

Orain diote utzi nuela
ardura eta etxea
ez zan erreza lanetik bueltan
gurera ailegatzea.
Denean urak hasi badira
alper-alperrik partxea
eta amana ta nirea zen
gaitza lartxo luzatzea.
Ez nuen uste ta ez nuen gura
ez zu ez ama mintzea
ta ez zan noski nire asmoa
jolasean ibiltzea.
Nik ulertzen dut amak ni orain
deabru lez ipintzea
baina ez da inoiz delitu izan
berriro maitemintzea.

Uler dezaket ze amorruak
beti odola diraki
ta amorruak erresumina
izaten du bere jaki.
Amak horrela erabaki du
zer egiten dun badaki
baina zu erdian jarri izana
hori iruditzen zait gaizki.
Baina kontua luzeegi doa
ta ebatziko da aurki
epaile batek ai arrotz batek
beharko du erabaki.
Aldea non den hemen edo han
erdian marra ebaki
baina jakizu nire aldea
zure aldean dago beti.

BUKAERAKO AGURRA

B. Gaztelumendi

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Gazteenaren harrokeriek
ondorio hau dakarte
baina ohore bat da izatea
oholtza haundi honen parte.
Ta orain danok jatera
joango gera batera
fokootatik aparte
egoerak berriz alde banatan
ipintzen gaituen arte. (bis)



Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ARRATSALDEKO SAIOA

HASIERAKO AGURRA

A. Mendiluze

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Lo hadi ainguria*

Gaurko saioa doa
globoen pareko
haseran zirudien
ez zela beteko
baina eguerdirako
puztu degu lepo
ta orain da momentua
hegan egiteko.

I. Elortza

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Hau txalo zaparrada
ezker ta eskuma
barreneraino heltzen
da berotasuna.
Egun hoietako bat
da gaurko eguna
sekula amaitzerik
gura ez duzuna
aprobetxa dezagun
geratzen zaiguna.

U. Iturriaga

Neurria: Zazpikoa, handiaren moldekoa, 5 puntuz

Doinua: *Uso xuria errazu A*

Argalak eta gizenak
datozenak doazenak
nahiz ta ez jakin izenak
baita kantuan ari nintzela
komunean zeundetenak
segi giroa hola berotzen
maite zaituztegu denak. (bis)

S. Colina

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Igandeetan zer egiten da
hau bezalako ordutan?
Bergia jarri liteke futbol
zein pilota partidutan
gehienek siesta egiten dute
suertedun batzuk larrutan
baten bat mozkor ibiliko da
kuba-libre bat eskutan
baina guk segi dezagun gure
buruarekin burrukan.

A. Sarriegi

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

Hauxe da txapelketa
enbido, hordago
beti nahi hobeto ta
beti nahi gehiago.
Bazkalordua ez da
alperrik igaro
tripa berdindu eta
kafeari trago
oraindik politena
iristeko dago. (bis)

A. Arzallus

Neurria: Hamabiko txikia

Doinua: *Inork badakizute*

Bazkaritako plana
zeinen ezberdina:
batzuk jatetxeren bat
batzuk *cateringa*
gehienek ontzitzotan
etxeko kozina
inork otarteko bat
amonak egina.
Zatoz berriz gugana
bertsozale fina
guk denentzat daukagu
otordu berdina.

M. Lujanbio

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

Horko langostinoak
horko onddo beltzak
horko bokadiloak
ta babarrun pertzak!
Kanpoan eguzkitsu
zeruan lau ertzak
inork pasiora joan
nahi ez badu behintzat
bertso on gehio ere
badegu zuentzat.

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Euskal Herriko lur maite hartan*

Bazkari bana jaso ondoren
goizekoen ordainean
zentra gaitezen tabladukoan
ta zentratu orainean.
Patrikan daude berriz eskuak
ta polbora mingainean
sentitzen degu nola zaudeten
danok giro bikainean.
Nola ez gera iritsiko ba
olatu honen gainean!

HAMARREKO TXIKIA

I. Elortza – M. Lujanbio

Gaia: Zu, Igor, autobusean zoazela, Maialen zure ondokoa telefonoz hizketan hasi da. Bikotekideak jo egiten duela eta gehiago ezin duela esanaz jardun da, negarrez hasi eta moztu duen arte. Musuzapia eskaini diozu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena*

I. Elortza:

Beraz behin izan zena
egizko maitasun
bihurtu da ez bero
ta ez etorkizun.
Negarrari zapiatz
diot gaur erantzun
eta denerako prest
nengoke ni entzun!
malko hoiek benetan
lehortu ditzazun.

M. Lujanbio:

Laguna bihurtu zait
maitale ez, putre
nere begi ertzetan
malkoak itute
musuzapia ematen
hara ze jardute!
Zapia hartzen dizut
keinu horren truke
eta musua ere
eskertuko nuke.

I. Elortza:

Beraz eskatu eta
emanda aski du
mundu hontan berdintsu
gabiltza beti gu
bakarrik sentitzea
ohi dugu deskuidu.
Ez zara beti izango
zu bere gatibu
hortik irten liteke
neu nauzu testigu.

M. Lujanbio:

Zuk ere pasatuak
egunik beltzenak
ez dakit ba berdinak
ote garen denak.
Orain min ematen dit
senarran izenak
ez ninduen maitatu
maitale ez zenak
ta odolik gabeak
zauririk latzenak.

I. Elortza:

Zauri hoientzat eman
dizut lehen zapia
konpartitua baitut
zure lubakia.
Azaldu nahi nizuke
ondo zergatia:
neure arreba izan zen
behin ikaratia
nahi badazu har zazu
bere zenbakia.

M. Lujanbio:

Ba eskertuko dizut
ta zuri hori zor
ia leuntzen didan
nere hainbat minsor.
Telefonoz nenbilen
eztarria idor
zuk entzutea behar
bainuen derrigor
telefonoz bestalde
ez zegoen inor.

A. Sarriegi- A. Mendiluze

Gaia: Seme bana galdu zenuten 80ko hamarkadan hiesaren ondorioz. Zuk, Sarriegi, beti isilean eraman nahi izan duzu kontua. Mendiluzek, berriz, hitz egiteko beharra sentitu du beti.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Sarriegi:

Sarritan izan arren
gogoratzeko gai
haiek ze sufrimendu
ta haiek ze garai!
Alperrik zaude Aitor
nik ezer esan zai
gertatu zitzaiguna
latza izan zen bai
eta min hori ez dut
berriz sentitu nahi.

A. Mendiluze:

Beraz zeuk daramazu
zeure desgastea
horrela ez zera inoiz
izango askea.
Nahiz ta ez berreskuratu
gure Jon gaztea
nik aukeran nahiago
kontatzen hastea
eta gizarteari
pentsa araztea.

A. Sarriegi:

Baina ez det pasa nahi
hain trago garratzik
bere hortan uztea
nahiago det kasik.
Ez zait tokatu beste
hain sentipen latzik
nik gogoratu ohi det
maitatu ez ezik
baina ez det bota nahi
zaurietan gatzik.

A. Mendiluze:

Nik ere oroitzapen hau
ez det kuttunetan
baina maiz berritu det
azken egunetan.
Pentsa zazu gazteetan
pentsa lagunetan
geratu gabe zeure
argi-ilunetan
pentsa zazu lagundu
ditzakezunetan.

A. Sarriegi:

Besteri laguntzea
det oso begiko
baina entzun orduko
lau ahots kritiko
urduri jarriko naiz
ta laister etsiko
lagun dezakedala
esan dezu tinko
baina horrek semerik
ez dit ekarriko.

A. Mendiluze:

Betirako joan baitzen
semea joatean
oroitzapen saminak
utzirik atean
baina zeugan pentsatuz
ta ez gizartean
min hori ateratzea
ez dezu kaltean
soilik gaindi daiteke
lagunen artean.





S. Colina – B. Gaztelumendi

Gaia: Kalean zaudete, bata bestearen parean, eskean. Zuk, Sustrai, burua goian duzula, ozen eskatzen duzu. Beñatek karteltxo baten atzean ezkutatzen du burua.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

S. Colina:

Nahiz negua hotza den
hotza ta krudela
ta eskeak jartzen didan
arima goibela
ni oilar ipintzen naiz
aurrean txapela
paretik doazenak
itzalak bezela
aurpegira beiratu
diezadatela! (bis)

B. Gaztelumendi:

Oraindik gaude galai
ta oraindik gazte
kartel batez esanaz
“Etorri zaitetze”.
Zu burua igota
nola egon zaitetzke
alperrik bagabiltza
bai bat ta bai beste
emango ez diguten
txanpon baten eske? (bis)

S. Colina:

Itzal bat dirudizu
uzkur ta soraio
eskatu ta eskatu
ene zenbat saio!
Bankero bat pasa da
maletin karraio.
Nik oihu egin diot:
“Putakume arraio!”
Ematen ez dunari
eskatu behar zaio. (bis)

B. Gaztelumendi:

Beraz esandakoa
entzungo omen du
baina burua tente
hala da aldendu.
Bankeroarengana
nahiz zeran zuzendu
eta arrazoi guztiz
ahotsa ozendu
porrot sentsazio hau
ez nezake kendu. (bis)

S. Colina:

Itxuraz nahiko luze
doa funtzioa
zapeta zoletan dut
desilusioa.
Amona bat pasa da
ta ze sesioa!
Limosnaik ez du emango
Beñat, sozioa
baino emango digu
konbertsazioa. (bis)

B. Gaztelumendi:

Anekdotak baditu
baina dena dela
konbertsazioz ez da
betetzen sabela.
Asteotan hustuta
daukagu sakela
busti ta zikin gaude
ni eta kartela
gu ere kartoizkoak
bagina bezela. (bis)

A. Arzallus – U. Iturriaga

Gaia: Zu, Amets, psikiatra zara. Unai zure pazienteak sei hilabete daramatza erietxe psikiatrikoan. Gaur senda-agiria eman nahi izan diozu, baina Unai pazienteak esan dizu oraindik goizegi dela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Arzallus:

Nik gomendio eta
hara zuk epaitu
Unai zure gaitz horrek
erro bat bai baitu.
Badakit ez duzula
sendatzen amaitu
baina hemen ezin dut
artatzen jarraitu
orain kaleak berak
osatuko zaitu.

U. Iturriaga:

Hain azkar joango zenik
ez neukan usterik
ia ez didazu eman
sendatzeko astirik.
Ni ez naute konpontzen
laguna *pasti* bik
eta ez dut egon nahi
munduak bustirik
hor kanpoan ez dago
eroa besterik.

A. Arzallus:

Ai ene Unai maite
ta hemen zer dago ba?
Luzatzen baldin bada
hemengo denbora
zu gehiegi lotuko
zara hemengora
hemengo eskutara
hemengo berora
ta orduan sendatzen
zailago izango da.

U. Iturriaga:

Sendatzen zaila dela
neuk ere badakit
baina sartu ezkerro
hemengo atetik
eduki dut berotik
eta babesetik
“Unai” esaten duzu
batetik bestetik
ta kanpoan “Eroa,
ken zaite paretik!”.

A. Arzallus:

Esplikatuko dizut
astiro-astiro:
ja mamuek ez dute
egin behar tiro.
Gainera orain kanpoan
dago goxo giro.
Zoaz ahaztu beldur
ta zure bertigo
ta erortzen bazara
etorri berriro.

U. Iturriaga:

Uste nun zenidala
hainbeste maitasun
hemen pasa ta gero
mila estuasun.
Zeu arriskatu zara
zer egin didazun
lepotik heldu dizut
hatzak ditut asun.
Hau egin behar al nuen
maitatu nazazun?

PUNTUKA

A. Mendiluze-I. Elortza

Gaia: Aitor Olentzero eta Igor Aita Noel zarete. Tximiniatik sartu ezinik zabiltzate.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: Ezagutu zuenak

<i>A. Mendiluze:</i>	Gabon adiskidea nolatan zu hemen?	<i>I. Elortza:</i>	Kontuz nirekin daude CIA eta NASA
<i>I. Elortza:</i>	Ikusi beharko da adiskide garen	<i>A. Mendiluze:</i>	ta halere sartzeko ez zera kapaza!
<i>A. Mendiluze:</i>	nik baietz pentsatu det ukatu baino lehen	<i>I. Elortza:</i>	Ez didazu ipintzen ez bide erraza
<i>I. Elortza:</i>	berba egingo dugu amaitu ondoren.	<i>A. Mendiluze:</i>	lagun haundiak baina laguntza eskasa.
<i>I. Elortza:</i>	Zergatik zatoz horren itxura beltzeko?	<i>A. Mendiluze:</i>	Ze tximini estuak gaurko etxeetan!
<i>A. Mendiluze:</i>	Ezin da txuriz joan ikatza lortzeko.	<i>I. Elortza:</i>	Neu ere sartu ezinik nabil bai benetan.
<i>I. Elortza:</i>	Gogoa al daukazu haurrak izutzeko?	<i>A. Mendiluze:</i>	Gainera su bajurik ez da kaleetan
<i>A. Mendiluze:</i>	Ta zuk berriz guztiak parrezka jartzeko.	<i>I. Elortza:</i>	amaitu behar dugu gaur biok penetan.
<i>A. Mendiluze:</i>	Zeinen ridikuloa uniforme hori!	<i>I. Elortza:</i>	Sartzeko beste bide bat ba ote dago?
<i>I. Elortza:</i>	Ba Coca-Colak dio nagoela ongi	<i>A. Mendiluze:</i>	Nik Mepansaren ordeztatea nahiago
<i>A. Mendiluze:</i>	falta dira zintzilik bola bat edo bi	<i>I. Elortza:</i>	zoaz zeu aurretik ta gero ni errezago
<i>I. Elortza:</i>	zure kapoitxo hoiek ekartzea tori.	<i>A. Mendiluze:</i>	lan zikinak egiten ni ohituta nago.

- A. Mendiluze:* Baina ta zer umeak
esnatzen badira?
- I. Elortza:* Baten bat ikusi dut
leihotik begira.
- A. Mendiluze:* Ez gaitzala ikusi
azkar erretira!
- I. Elortza:* Nik ipuina kontatu
ta zeuk jarri tira!
-
- I. Elortza:* Noski bion artean
hobe izango da ta
- A. Mendiluze:* ia ba sartzen geran
elkarri tiraka!
- I. Elortza:* Azkenik egin dugu
langintza aparta
- A. Mendiluze:* eskerrak ia Errege
Eguna bada ta!

U. Iturriaga – S. Colina

Gaia: Bata besteari lepotik heldu, eta sakelako telefonoarekin elkarrekin argazki bat ateratzen hasi zarete. 10 minutuan ez duzue itxurazko argazkirik lortu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

<i>S. Colina:</i>	Ez apuratu Unai presarik ez dago	<i>U. Iturriaga:</i>	Ta zuk berriz daukazu dena txuri-txuri
<i>U. Iturriaga:</i>	geratuta nengoen ordu bat lehenago	<i>S. Colina:</i>	izan ere zurekin jartzen naiz urduri.
<i>S. Colina:</i>	ba beharko ditugu bi ordu gehiago	<i>U. Iturriaga:</i>	Lasai! Jendearentzat flashana dirudi
<i>U. Iturriaga:</i>	zu guapo irtetzeko lau ere, akabo!	<i>S. Colina:</i>	hemen gaude ondoan nunbait bi atxuri.
<i>U. Iturriaga:</i>	Egizu irriparre halako batean	<i>S. Colina:</i>	Izan ere zuk duzu otsoaren pinta
<i>S. Colina:</i>	nik hori egiten dut zu ondotik joatean.	<i>U. Iturriaga:</i>	ta zu Txanogorritxo hain guapa jarrita
<i>U. Iturriaga:</i>	Dirudizu zaudela hilerri batean	<i>S. Colina:</i>	ta arrautzak dituzu saskin ekarrita
<i>S. Colina:</i>	eta zuk maniki bat eskaparatean.	<i>U. Iturriaga:</i>	juxtu atzo gauean bero ipinita.
<i>S. Colina:</i>	Ze-nolako pareja osatzen duguna!	<i>U. Iturriaga:</i>	Baina argazki hori atera behingoan
<i>U. Iturriaga:</i>	Ni apur bat hobea onartu laguna	<i>S. Colina:</i>	nik uste tira ona doala oraingoan
<i>S. Colina:</i>	<i>klaro</i> zu durangarra eta labelduna	<i>U. Iturriaga:</i>	<i>i-phone</i> 5a erosi behar da hurrengoan
<i>U. Iturriaga:</i>	badut alde argia ta alde iluna.	<i>S. Colina:</i>	hori pentsatu behar zenuen lehengoan.

S. Colina: Unai nere makinak
argazkirik ez du
U. Iturriaga: beraz bota lurrera
zapaldu, tolestu!
S. Colina: Gutxienez fakturan
behar dut aurreztu
U. Iturriaga: honek ez eukitzearren
hori ere ez du.

U. Iturriaga: Baina bestela zara
zu lagun jatorra
S. Colina: zurekin ibiltzeko
gauza derrigorra.
U. Iturriaga: Tori nere *smartphonea*
dotorea horra
S. Colina: guk daukaguna baita
kristoren mozkorra.

M. Lujanbio – A. Sarriegi

Gaia: Herriko festetan, goizeko zortzietan, diana jotzen ari zarete kalez kale.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

<i>M. Lujanbio:</i>	Haizerik ere ez det txistua jotzeko	<i>A. Sarriegi:</i>	Buila ateratzerik inork ez baitu nahi
<i>A. Sarriegi:</i>	lotsa ere gutxi xamar hola etortzeko.	<i>M. Lujanbio:</i>	txistuak belarritan neri're mina ai!
<i>M. Lujanbio:</i>	Lurreko baso kondar eta gainontzeko	<i>A. Sarriegi:</i>	Bi hoiek ez al dira Sustrai eta Unai?
<i>A. Sarriegi:</i>	gu ere ez al geunden etxean hobeto?	<i>M. Lujanbio:</i>	Oraindik argazkia ateratzeko zai.
<i>A. Sarriegi:</i>	Igual kruzatuko naiz kuadrilakoekin	<i>M. Lujanbio:</i>	Ta guk ateratzea beraiei onena
<i>M. Lujanbio:</i>	ta beraiekin igual dantzatzeai ekin.	<i>A. Sarriegi:</i>	ondo ateratzeko egin beharko dena!
<i>A. Sarriegi:</i>	Nola disimulatu ia ezin jakin	<i>M. Lujanbio:</i>	Bat rubia xamar dago bestea morena
<i>M. Lujanbio:</i>	zu ere ibili zera begi gorri hoiekin.	<i>A. Sarriegi:</i>	ez dira geldi egoten hori da problema.
<i>M. Lujanbio:</i>	Ttunttunakin ritmoa ezin eramana	<i>A. Sarriegi:</i>	Mugituta irtengo litzake seguru
<i>A. Sarriegi:</i>	hori da holakotan gertatu ohi dana.	<i>M. Lujanbio:</i>	hala're kalejira gendun guk helburu
<i>M. Lujanbio:</i>	Zenbat kuba-libre zuk bart gauzez edana?	<i>A. Sarriegi:</i>	gaur ez bada ba bihar egin beharko dugu
<i>A. Sarriegi:</i>	Hobe degu hartzea salda bero bana.	<i>M. Lujanbio:</i>	piezak noizbait ikasi beharko ditugu.

M. Lujanbio: Beti ari baikera
 gu desafinatzen
A. Sarriegi: ez da oso errex
 itxuran asmatzen
M. Lujanbio: amonek ere ez dute
 hauxe aguantatzen
A. Sarriegi: beti ibiltzen gera
 herria esnatzen.

A. Sarriegi: Festak datozenean
 betiko antzera
M. Lujanbio: lehenbiziko txoznetan
 ibili ohi gera
A. Sarriegi: gero kalera irten
 buila egitera
M. Lujanbio: diana, gosalduta
 lotara etxera.

A. Arzallus – B. Gaztelumendi

Gaia: Klean besarkadak dohainik emateko izena eman zenuten. Petoa jantzi, eta besarkadak ematen hastera zoazte.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Xarmangarria zera I*

- | | | | |
|-------------------------|--|-------------------------|--|
| <i>A. Arzallus:</i> | Ze bihotz zabal dudan ez dakizu jakin! | <i>B. Gaztelumendi:</i> | Zure ondoan nago disimulatua |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | Besarkada askorik ez dezu nerekin | <i>A. Arzallus:</i> | baina besarkada da gauza sakratua |
| <i>A. Arzallus:</i> | nik gehiago ematen dut beso luzeekin | <i>B. Gaztelumendi:</i> | zu hain tipo serioa hain tipo altua |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | zu ikusita ohi zait odola irakin. | <i>A. Arzallus:</i> | zuk egizu irripar madarikatua! |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | Nigana behintzat inor ez da inguratu | <i>A. Arzallus:</i> | Ta bat emango dugu guk bion artean |
| <i>A. Arzallus:</i> | ta zergatik ote den beharko da pentsatu. | <i>B. Gaztelumendi:</i> | norbait etorri dadin halako batean. |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | Akaso bikotea behar det aldatu | <i>A. Arzallus:</i> | Besteei emateko entrena gaitean |
| <i>A. Arzallus:</i> | hara hor alkatea zaigu arrimatu. | <i>B. Gaztelumendi:</i> | guretzat inork ezer ez dun bitartean. |
| <i>A. Arzallus:</i> | Nik ez diot emango zuk eman zaiozu | <i>B. Gaztelumendi:</i> | Egin beharko degu elkarrekin froga |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | exigentzi askokin nigana zatoz zu. | <i>A. Arzallus:</i> | baina altura pixka't adostu beharko da |
| <i>A. Arzallus:</i> | Beste politiko bat ere hortxe zaizu | <i>B. Gaztelumendi:</i> | nik jaso gabe pasa det nahiko denbora |
| <i>B. Gaztelumendi:</i> | hari bi igual eman behar dizkiozu. | <i>A. Arzallus:</i> | nik eskuak burura eta zuk lepora. |

A. Arzallus: Tira ez da gaizki irten
lehen ahalegina

B. Gaztelumendi: bigarrenez egingo
al degu berdina?

A. Arzallus: Bai pixka't kilimatu
zait bihotz ixkina

B. Gaztelumendi: ai antzekoagoak
etorri bagina!

B. Gaztelumendi: Beraz saia gaitzen
petoak kenduta

A. Arzallus: ez elkarren ondotik
hala aldenduta.

B. Gaztelumendi: Gurea ez da oso
langintza arrunta

A. Arzallus: tori musu bat ere
nik maite zaitut ta.

BAKARKA, GAIA EMANDA

A. Mendiluze

Gaia: Bertakoei lana kentzen diezula entzun behar izan duzu berriz ere.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz

Doinua: *Itsaso hori dago zatarra*

Arrantzontzian kresaletan blai	Ez naiz sentitzen horko erregea
ez asteburu ez luzeko jai	ez esklabua, ez titerea
han Senegalen ikasi eta	denek bezela soldata baizik
ustez badet nahiko dohai. (bis)	ez baita nere xedea. (bis)
Baina inor ez dago lasai	Honetan banaiz trebea
antza asko lan honen zai	saiatzea det legea
nik betetzen det eta ai!	neuretzako mesedea
Orain gorrotoz zuzentzen zaizkit	ta portukoek konprenituko
ta ez naiz ulertzeko gai	dutela badet fedea
itsasoratu nintzen garaian	neuk ere pena dudala baina
inork ez zuen joan nahi. (bis)	errua ez dela nerea. (bis)

Portutik irten da baporea
zai daukat sare, talde, ohea
baina portuan utzi dudana
ez da oso dotorea. (bis)
Lanerako adorea
neuregan daukat gordea
askok ez du nahi ordea
ta gauza ez da azal zuria
edo beltza den hobia
gaur egun denen arazoa da
diruaren kolorea. (bis)

I. Elortza

Gaia: Lehen aldiz lokartu da zure besoetan.

Neurria: Hamabikoa, berdinaren moldekoa, 7 puntuz.

Doinua: *Jada bi ordu ta piko*

Zure amaren jarduna
gaur ez da izan biguna
zure amaren jarduna
erditzean bizi berri
denoi bihurtu zaiguna
ta orain besotan zauzkat
nire alaba kuttuna
leihotik begiratzen dut
badator argitasuna
baina zer den maitasuna:
goizeko ordu bietan
argitu da gaur eguna. (bis)

Ezin da bizi inozo
bada hamaika tranposo
ezin da bizi inozo
bidea egingo duzu
noizbait zuk pausorik pauso.
Lehenik ezagutu behar
zure etxe eta auzo
nolanahi lehen une hau
denontzat ederra oso
zu, ama eta ni gozo
aulki deseroso hontan
neuk eingo dut lo eroso. (bis)

Erizainak inguruan
guk ondo nahia buruan
erizainak inguruan
zu ez beste ezer ere
ez baitzegoen munduan.
Neu ere berriz jaio naiz
zure lehen segunduan.
Orain lotan zauzkadala
zer daukadan akorduan
muxukatzeko orduan:
beti ezingo zaitudala
babestu gaurko moduan. (bis)

U. Iturriaga

Gaia: Zure aita atentatu batean hil zuten. Aurten, lehen aldiz, sentsibiltate politiko guztietako ordezkariak izan dira aitaren omenaldian.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Zulo handiko galbahe
izan zen noizbaiten muga
han-hemen tiroa beti
eguneroko ohitura.
Behintzat hala oroitzen dut
ume nintzen garai hura
ordutik joan da odolik
ta errekan behera ura.
Aurten estraineko aldiz
zer berezi bat lortu da
jende ezberdinan artean
ahula da baina lotura.
Badakit horrekin aita
ez da itzuliko mundura
baina neuk itzuli nahi dut
tokatzen zaidan lekura.

Ta zeinek ez du presente
gure iragan bortitza?
Batzuk oraindik hor dela
zabaldu nahian dabilta.
Soilik hau eska dezaket:
denak daitezela mintza
sar bitez gela batean
ta neuk gordeko dut giltza.
Emaiza bat lortu behar da
hori da lehen baldintza
utzi poesiarako
zeruertz ta zubigintza.
Orain diote gakoa
dugula elkarbizitza
ni neu konforme nengoke
errespetua balitza.

Ez dakit zenbat arrazoi
hartu ditzakeen saskiak
badakit gaur artekoak
izan dira garestiak.
Gaur hemen elkartu dira
ederrak eta piztiak
alde batera utzita
elkarrekiko hozkiak.
Utz ditzagun iraganak
diskurtsoak ta ostiak
biktimak, gora-gorakak
ta gerrako abestiak!
Aita gabe umezurtz naiz
dauzkat begiak bustiak
baina herri honek behar ditu
aita ta ama guztiak.

S. Colina

Gaia: Zu, Sustrai, ama bisitatzeraz joan zara zahar-etxera. Panpina bat du eskuan, eta hurbiltzean, hala esan dizu: xsxsxs, Sustrai lo dago.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Atmosferatik atera eta*

Lehen neretzako berdina ziren
zahar-etxe ta ospitala
gure amarentzat ordea hau da
bost izarreko ostala
gelan baitaizka nire argazkia
oporretako postala.
Sartuz egin dit diosala
eta hatzarekin hala¹.
“Zazpi ipotxena kontatu diot
hola dinbili-danbala
ume zinela zu lokartzeko
egiten nuen bezala”. (bis)

Ordu erdi bat igaro da ta
bere temarekin darrai
ni bitartean gaiak ateraz
konbertsazio on baten zai
baina hatzarekin hola² egiten dit
nijoalarik gairik gai.
Dirudienek daukat jai
esan baitit “Aio, Sustrai!”.
Bere aurrean zurtu naiz baina
ez nuen negar egin nahi.
Panpina jada lotan dago ta
ama egizu lo lasai. (bis)

Ez dut ukatzen ez egoerak
sortu ez didanik intriga
ez dakit zer den jolas polit bat
edo urteen satira
baina txistua bapatean joan
zait kontrako eztarrira
bera lanparan argira
panpina lokartzen ari da
ta ni flipatzen ezin deus egin
esanez “bueno, bai, tira”
berari beitu ezinik triste
ta panpinari begira. (bis)

1 Hatz erakuslea ezpainetara hurbildu eta isiltzeko keinua egin du.

2 Hatz erakuslea ezpainetara hurbildu eta isiltzeko keinua egin du.

A. Sarriegi

Gaia: Alabarekin batera, bikotekidea bisitatzera zoaz autoan. Alabak berriz galdetu
dizu: asko falta da iristeko?

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Gerrikoa jarri eta
autoko sillan eseri
zazpirehun kilometroan
so egin gabe ezeri.
Ama urruti daukazu
tamalez urrutiegi
bidaia hau beste behingo
poz txikia izan bedi.
Alaba asko falta den
galdetzen didazu neri
erantzunik eman gabe
ezin det gidatzen segi:
kilometroan ez asko
eta denboran gehiegi. (bis)

Galdetu didazunetik
ia ohar zaitez hara:
beste hogei kilometro
ere pasa dira jada
laster iritsiko gara
kartzela zahar horretara.
Botaiozu neri bota
ohi didazun begirada
baina ez daude urruti
gure poza ta algara
noizbait irtengo delako
gure herriko plazara
ta bera, zu ta hirurok
zoriontsu izango gara. (bis)

Badakizu nahi orduko
ez zaigula aterako
barruan daukatelako
beste hamar urterako.
Telebistan entzun arren
holako eta halako
berak asko maite zaitu
orain eta betirako.
Nahiz ta gertatu den hainbat
kasu honen tankerako
bere musuan pentsatu
zuk esate baterako
ta indarra hartuko degu
beste hilabeterako. (bis)

A. Arzallus

Gaia: Honela esan dizu: ezin naiz zu gabe bizi.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Bihotza ez da enbor bat
bezala bitan puskatzen
eta maite diren haiek
berez direnez uztartzen
sei urte daramatzagu
biok elkar muxukatzen
eta orain distantzia
pixka bat hartzera goazen.
Ez diot lehengo begiok
ez zaizkidanik gustatzen
“Maite nauzu?” galdetuta
nik ez dizut ezeztatzen.
Ez zaitez hasi negarrez
eta larregi kezkatzen
denbora pixka bat nahi dut
ez dut besterik eskatzen. (bis)

Ez zazu negarrik egin
eskatzen dizut faborez
ta gure fase berri hau
hartu dezagun adorez.
Bakoitza bere pausoan
ta bakoitza bere moldez
maitasuna bizitzen du
edonorek bere kodez.
Ez malkorikan ixuri
egin irripar bat ordeztu
“Ezin naiz zu gabe bizi”
diozu begiak gordez.
Ni bizi naitekeen edo
jakin nahi dut bai umorez
laster erantzungo dizut
bizi nitekeen edo ez. (bis)

Beharbada kolpatuak
gaitu rutina zorrotzak
edo otso bat ari da
zorrotzuaz nire hortzak.
Nik oraindik maite ditut
zeure pausotxoan hotsak
ta zure beharra daukat
batzutan banago hotzak
baina gure lehengo penak
eta gure lehengo pozak
lasai egon ez baititu
kolpez hartu heriotzak.
Nola artaldetik bereix
joaten diren bildotsak
har dezagun tarte bat ta
hitz egin beza bihotzak! (bis)

M. Lujanbio

Gaia: Adineko pertsona bat zara. Zure hiru seme-alabak txandaka arduratzen dira zutaz, eta lau hilabete ematen dituzu bakoitzaren etxean. Maleta egiteko unea da berriro.


Neurria: Hamalauko handia

Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Larogeita bi urte beteta
ihartu zori den zuhaitz
azal zimurrak pilatzen ditu
nere aje ta nere gaitz.
Bizitzeko da berandu eta
hiltzeko oraindik garaiz
etxerik etxe alderrai nabil
nere andre triste bisaiz.
Berriro ere maleta bete
nere arropa eta gaiz
sekula ez naiz traba izango
nahiz zina egin nuen maiz
zina egina nuen bai baina
horretaraxe heldu naiz. (bis)

Trimestrekako ziklotan hara
banoa ezin amaitu
orain alabak hartu behar nau
orain bere txanda baitu
nere zai hantxe egongo da hura
ta akaso begi blaitu.
Amona xaharra etxean zaintzen
ai ze gazte ez gogaitu...
Baina nik zer egin nezake ba?
Jarraitu eta jarraitu
indarrik ez da baina bihotza
oraindik ez bada ahitu
heriotzaren zai bizitzeai
ezin zaio bizi deitu. (bis)

Zahardadeak beroa ere
bilakatzen du epela
seme-alabek hartzen naute ta
poztu behar dena dela.
Zaintzen didate nere dosia
ta errezeta papela
hiru hilabete denbora neurtzen
ari balira bezela
ta gero triste agurtzen naute
ezin zitekeen bestela.
Atetik behera ateratzen det
beti pausaje goibela
iruitzen baitzait atea ixtean
irri egiten dutela. (bis)



B. Gaztelumendi

Gaia: Adimen-urritasuna duten gazteekin balleteko dantza-taldea sortu zenuen urte hasieran. Gaur duzue estreinaldia.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Antzoki bat alokatu
dugu nahita guretzako
hirurehun bat gonbidapen
famili denak aintzako.
Erdi betea zegoen
gu hona iristerako
hor daude zuriz jantzita
media banakin galako.
Argiak piztu dira ta
nik isuri hainbat malko
teloi gorria hartuta
beraien ametsen marko
denak hor hanka punttetan
horren fin ta horren guapo
emandako urrats bakoitza
salto haundi bat dalako.

Sarri ispilu hautsi bat
urritasuna hori da
ikus litekeena segun
nondik jartzen den begira.
Hortxe dantzari pare
doa fokoen argira
eta gero solista bat
irten da oholtza erdira.
Irribarretsu dabilta
beren jauzi eta bira
gurasoek ta lagunek
zenbat txalo, zenbat biba!
Joan dira oholtza gainera
alturara, antzokira
eta lehenbiziko aldiz
parez pare jarri dira.

Askorako ematen du
sarri ordu ta laurdenak
pozik daude dantzariak
eta begira daudenak.
Flashak eta irrintziak
aitenak eta amenak
denengana heltzen dira
artearen ahalmenak.
Astean ordubetea
ahazten dituzte penak
ta hor pistaren erdira
hortxe irten dira denak
publikoaren txaloak
publikoaren gorespenak
urritasuna dauka hau
ulertu ezin duenak.

BURUZ BURUKOA

SEI PUNTUKO MOTZA

A. Arzallus:- M. Lujanbio

Gaia: Bi pailazo zarete. Arratsaldea gaixo dauden hurrekin pasatu ondoren,
ospitaletik ateratzera zoazte.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Arzallus:

Gaitz latzenen atzaparra
bizitza zaildu samarra
baina kanpora ateratzean
hau barne indarra!
Nahiz eta egin nigarra
errekan behera ibarra
bihotzeraino ailegaitu zait
euren irribarra. (bis)

M. Lujanbio:

Bizitzaren mendekua
jolasteko debekua
zu indartuta, ni berriz nago
gogogabetua.
Zenbat kasu aletua
barrua daukat lehertua
eskerrak sudur gorria nuen
ezkutalekua! (bis)

A. Arzallus:

Zure sudurtxo atzea
ezkutuko ohantzea
nik sufritu dut baina ai zer den
hala gozatzea!
Ederra da jostatzea
eta poza ospatzea
baina askozaz ederrago da
minak goxatzea. (bis)

M. Lujanbio:

Azal mamiz eskastuta
buru gainak babestuta
soilduta eta hainbeste aje
ta hainbeste gastu-ta.
Ni ia nengon ahaztuta
beraiekin jolastuta
parrea ere parrego dela
minekin nahastuta. (bis)

A. Arzallus:

Hala izaten da sarri
gozamina edergarri
baina gaitz horrek zita edonori
lezaioke jarri.
Ni inoiz banago larri
ta esperantzaz elbarri
sudur gorria jantzi zazu ta
bisitan etorri. (bis)

M. Lujanbio:

Etorkizuneko aipu
horiekin ez jarraitu
gaxo ez zaitut ikusi nahi ta
horrekin amaitu.
Guk barrun indarrak ahitu
atera eta lasaitu
baina orain zu ta biok zeinek
alaituko gaitu? (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

A. Arzallus:- M. Lujanbio

Gaia: Amets Arzallus Antiaren eta Maialen Lujanbio Zugastiren bikotekideak zarete.

Apustu-makinaren aurrean zaudete, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela nork irabaziko duen apustu egiten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

M. Lujanbio:

Haseran duda egin det
zeini jarri marka
baina zenbat medio
entrebista, lata...
Beraz Ametsen alde
doa nire tanta
irabaz dezala ta
pakea galanta! (bis)

A. Arzallus:

Baina Ametsek ez du
balio gehiago
ehun bat euro sakelan
beraz txanpon frango
nik dena Maialenen
alde dut emango
Ametsek fallatzea
neure esku dago. (bis)

M. Lujanbio:

Baina Ametsek ez du
hainbeste eskasi
gaizki egin nahi eta
baietz ondo hasi!
Promesa da oraindik
beti kasi kasi
gutxi gastatu eta
asko irabazi. (bis)

A. Arzallus:

Nik apustu hauekin
ezin dut ba segi
Ametsek isuri du
hainbeste izerdi
sei hilabete koban
lan eta energi
gero zertarako ta
bi euro ta erdi! (bis)

M. Lujanbio:

Txoakeiak utzita
apustura goazen!
Zenbat atrebituko
zera zu botatzen?
Denak ondo dabilta
zaila da asmatzen
Egaña zegonean
errexagoa zen! (bis)

A. Arzallus:

Ez duzu hori egin
hori aipatzea
egia bat nik nahiko
nuke kantatzea:
Egaña errexa zela
bai kaka, letxea!
Nik azken txapelketan
galdu nun etxea. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

KARTZELAKO LANA, HITZA GAITZAT EMANDA

A. Arzallus

Gaia: Altzoa

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Gaztalondo handian*

Haur nintzela banuen
aurpegi itzala
kopetan ximurtua
banun azala.
Jakin nere sendagai
beti ama zala
haren usai goxoa
ta haren kresala...
Amaren ahala
da unibertsala
goxoa, apala
ta zabal-zabala.
Ez dut inoiz ahaztuko
zure magala. (bis)

A. Arzallus

Gaia: Itzultzeko garaia da.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Gaztea nintzen garaian
kalean beti mobida
ta poliziak eraman
ninduen presondegira
ta gero handik ihesi
berriro ere argira
nire bizitza guzian
izkriba eta izkriba.
Liburuak untziak lez
joan litezke urrutira
lehen liburuen baitan
itzultzen nintzen herrira
orain nere liburuak
nerekin joanen dira. (bis)

Ta orain komeniko da
atzeruntz begiratzea
nun barna ibili naizen
ez dut nahi esplikatzea
baina bai hango jende ta
bizitza deskribatzea.
Arriskutsua zenean
nire itzalaren atzea
jende askok erabaki
zuen ni aterpetzea
nere gogoan zaudete
bai bata ta bai bertzea
beti izanen zarete
nere bigarren etxea. (bis)

Hegazkin baten barruan
itzuli naiz herriraino
lehen poemetako hitzak
ziren hilkutxa ta laino.
Orain hoiek utzi ditut
ta sentitzen naiz hain ñaño.
Plazan hor daude hiru zahar
ta beste bi andereño.
Dezente zahartu da baina
ama bizirik daukat ño!
Zuzen-zuzenean joan naiz
bere besoetaraino
poema ederragorik
ez dut idatzi hau baino. (bis)

M. Lujanbio

Gaia: Altzoa

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Betroiarena*

Helduok bihotzean
zenbat harramazka
bizitzaren bizitzez
indarrak gasta
nekeak eta minak
askotan arrasta
uzten gaituzte eta
hori nola aska?
Bihotzeko zasta
bizkarreko lazta
banoa arnaska
hartzen nau xarmaz ta
altzoa da helduok
dugun sehaska. (bis)

M. Lujanbio

Gaia: Itzultzeko garaia da.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian*

Beti berdin amaitzen ote da
etorkinen pelikula?
Bukaeran bat idatzi al da
geronek ez dakigula?
Ekuadorren saldu ziguten
arrakastaren formula
eta orduan Espainiarantz
jarri genuen brujula.
Zenbat ate jo ote ditudan
zenbat ofizina zula!
Zenbat etxe garbitu ta zenbat
zahar zaindu dudan kalkula!
Han miseritik ihesi eta
hemen krisia mardula
balirudike guk pobrezia
gurekin dakarkigula.

Ettxerik etxe garbitzaile lez
nun bizi berria hasi
hemengo jardun modua egin
eta ohiturak ikasi.
Dena beltzean paperik gabe
dena murriz ta eskasi
asko dutenen etxeetan ere
ezin asko irabazi.
Nere buruai esaten nion
“Horrela noiz arte haiz hi?”
Euskal Herrira ere heldua
nahiko mixeri ta krisi
eta hemen juxtu egoteko
nahiago han juxtu bizi.
Billeterako adina diru
bildu behar det lehenbizi.

Papel ofizialak falta ditut
berdin billete papela
nere lardaska eta lan txiki
moldatzen naiz dena dela.
Han dauzkat haurrak han familia
han etxe baten epela
ta itzultzeko garaia da ia
garbi ikusi dut horrela.
Euskal Herrian hainbestek jarri
didate keinu ospela
beste batzuek abegiz hartu
ezin zitekeen bestela.
Eurak inoiz migrante badira
argi izan dezatela
guk hartuko ditugu eurek gu
hartu gaituzten bezela.



.....
Finala: Barakaldo
.....

Argazkilaria: Alberto Elozegi / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



BUKAERAKO AGURRA

S. Colina

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Atmosferatik atera eta*

Muxu haundi bat zuri entzule
etxeko ta lagun berdin
ni Seaskako ikasle izan naiz
bertsolari izan aintzin
ta azkenaldian gertatzen ari
denak emana dit gaur min.
Sentitu, sortu, eragin
zaharretik berria egin.
Ikastola bat nahi dut Hendaian
Beskoitzen, Maulen, Garazin...
Bihar herri bat izan dezagun
ta euskaraz bizi dadin. (bis)

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Larogeita hamar urte*

Oraindik laino artean
bezela nago, ai ama!
Xamoa nola eskertu
aurten egin dezun lana?
Baina nik badet anai bat
Unai izena daukana
publikoan azkazalak
irensten ariko dana (bis)
bizitzan eta bertsotan
beti nerekin joana.
Hamahiru hilabete neuzkan
ta etorri zinen nigana
ta geroztik zenbat une
zenbat bertso erdibana!
Lujo haundi bat da bide hau
zurekin egin izana. (bis)

U. Iturriaga

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Beñat, Manu ta Esturo
Abarkasekin laukoa
baina horren gainetik dago
gure etxeko hirukoa.
Pena da neurri batean
azkena dela gaurkoa.
Mikel alaitu ote dizut
gaur zure ziega txokoa?
Nerekin daroat txalo
ta Tolosako potoa
baina historikoa da
gaurkoa ta atzokoa:
zientoka bolondres hortxe
ta interesik bakoa
zuen indarrak pizten du
gure gaineko fokoa.

A. Sarriegi

Neurria: Hamalauko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Biba Amets ta Maialen!
Berriz ere goiko kotan
baino ni nago nerera
aldegiteko asmotan.
Etxe bertsozalea zen
gurea izatekotan
ta bi amandre Mariak
aspalditik daude lotan
attejaune Zezilio
kantuz hasten zen askotan
attejaune Patxi berriz
musu soinua ahotan.
Haien aipamena utzi
nahi nuen gaur plaza hontan
ez zutelako sekula
entzun biloba bertsotan. (bis)

A. Mendiluze

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Aupa zu Amets txapela joan da
eutsiko dion kaskora
ta zuek denoi joan geralako
liteketik baiezkoa
zazpi lagunei eramatearren
bertsoaren arrastora
erakusteko zein den aldea
ale finetik lastora
zuei esker joan naiz gora (bis)
Murgia eta Mauleko zorrak
kitatu eta gustora
zuentzat ez da aski izango
baina niretzat asko da. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

I. Elortza

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Mosu handi bat zuri Maialen
ta zorionak Ametsi.
Erika, Abarkas, Manu, Esturo,
Beñat nahi ditut goretsi.
Nahiz noizbait utzi beharko diren
puntu eta konpetentzi
gaur oso harro nago ta oso
pozik egongo naiz etzi
bertsotan hasi nintzelako behin
ta ez dudalako inoiz etsi. (bis)

M. Lujanbio

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Norbere mundu intimo*

Zorionak Amets! Bazendun
hainbeste merezimendu
bertsolari lagun bikain
nola ez txapela kendu!
Petoa traje nazional
izendatuko bagendu
borondatea da hemen
herrigintzaren zimendu
baina borondate hutsez
ez gera konformatzen gu
behar dira egitura
laguntza eta sostengu.
Bertso eskolak nahi ditut
eskertu eta omendu
bertsoen gailur guztien
oinarrizko kanpamendu. (bis)

TXAPELDUNAREN AGURRA

A. Arzallus

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz


Doinua: *ETAren su-etenetik*

Zerutik begira daude
Joxe eta Manuel Mari
ziega zulotik entzuten
beste euskaldun ugari
musu bat Iparraldeko
bertso eskolako haurrari
lagundu nauten guziak
Olatz eta arreba bi.
Baina ni ez bainaiz hemen
neu sortu hutsean ari
aitarena den txapela hau
eskeintzen diot amari
haurra nintzela euskaraz
erakutsi zidanari. (bis)



Argazkilaria: Gari Garaialde / Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)





IRITZIAK

Litekeenetik baiezkoa (finalaren aitzakian)

JOXERRA GARZIA GARMENDIA
KOMUNIKAZIOAN ADITUA
2014-01-03

Finala amaitu berri, artean BEC erraldoitik irten ere gabe, jende gehienak garbi dauka “oso final ona” izan dela. Egia da bakarren batzuk, *lehengo egunak gogoan*, garai bateko bertsokeraren aipamenak eginez hurbiltzen zaizkidala, baina gutxiengo nabarmena dira, zorionez, horrelakoak.

Handik bi egunera, asteartean, Beñat Zamalloak elkarrizketa bana egin zigun, aurrena Amets Arzallusi eta gero niri. Une hartan ez nuen hala interpretatu, baina gero, etxera joandakoan, kritika usaina hartu nion nire elkarrizketaren amaiera aldera egin zidan galderari. Ez dut galdera hitzez hitz gogoratzen, baina, gutxi-asko, ea finalean ezer onik ez ote nuen ikusi galdetu zidan Zamalloak.

Ez da lehen aldia horrelako zerbait gertatzen zaidana, baina, zer nahi duzue ba?, bertsolaritza barru-barrutik bizi eta maite duen audientzia baten aurrean txorakeria (edo narzisismo) hutsa irudituko litzaidake *gora gu ta gutarrak* esaka jardutea, eta iruditzen zait arrakastaren gailur bikainean ikusten (edo sumatzen) ditudan arriskuak aipatzea dela bertsolaritzari (eta akaso bertsogintzari) egin diezaiokekan ekarpenik onena (eta agian bakarra). Batetik, kritika baita hobetzeko modu bakarra; bestetik, arrakastaren aparrean surfean ibiltzeko hamaika lagun baitago beti prest bazterretan.

Besterik litzateke, noski, Vocentoko, Cope, Prisa edo euskara (kasurik onenean) museoko piezatzat darabilten hedabideren batentzat egin beharko banu finalaren kritika. Orduan garbi daukat apar eta bits jardungo nuela, gaur egungo bertsolaritzan ikusten ditudan (eta kezkatzen nauten) sintomen aipamenik txikiena ere egin gabe. Eta ez litzaidake burutik pasatu ere egingo gezurretan edo zurikerian ariko nintzenik. Nik dakidala, mezua audientziari egokitzea da komunikazioaren lehen araua.

Barkatuko didazu, balizko irakurle, horrelako sarrera petral errea, baina barruak eskatzen zidan hasieratik argi eta garbi uztea zertara natorren. Bertsolaritzak azken

urteotan egin duen bidea miresgarria iruditzen zait, eta halaber iruditzen zait gaur egungo bertsolari puntakoenen bertsogintza (finaleko zortzi bertsolariena barne) duela gutxi amestu ezinezko gailurretara iritsi dela. Esana dago, eta eskertuko nuke hemendik aurrerako nire esanak kritikatzeko garaian kontuan hartzea hori.

Baina, hori esanik, utzidazue kezkatzen nauten kontuak hartzea hizpide eta hari mutur. Teoria oso eta erabatekorik osatzeko ez asmo ez gogo ez gaitasunik daukat nik. Txapelketako finala ardatz, bertsolaritzari hainbat ikuspuntutik begiratzen eta bakoitzean neurea esaten saiatuko naiz. Batzuetan, niretzat egia nabarmenak diren kontuak aipatuko ditut (baina nire egiak inori irenstarazteko batere asmorik gabe), beste batzuetan, berriaz, niretzat ere eztabaidagarri diren kontuak jarriko ditut paper gainean (edo pantaila aurrean), eztabaidagarri direnak halako batean eztabaidatzeko aukera izango dugun esperantza ziur asko antzuan.

Eta hasi, “kalitate” kontzeptutik hasiko naiz.

1. Kalitatearen adarrak

Zer da bertso, bertsoaldi edo bertso saio “on” bat? Teknikoki (neurritz eta errimaz) perfektua den bertsoari esaten badiogu bertso ona, arazorik ez. Maila tekniko altuko bertsoak izan ziren finaleko gehienak, nahiz oker eta akats txikiren bat edo beste ere izan zen (miraria litzateke horrelakorik ez izatea ia sei orduko jardun inprobisatuan). Baina, ustez behintzat, adostua genuen bat-bateko bertsoen helburu nagusia ez dela testu bikainak sortzea, audientziarengan eragitea baizik.

Alde horretatik, esango nuke, lagun bati lapurreta eginez, aurtengo finalean jokotik asko eta jolasetik gutxi, akaso gutxiegi, egon zela. Bertsoaldiari ekin aurreko denbora batzuetan nabarmen luzeegia izan liteke horren erakusgarri bat; beste bat, finalaren hasierako parafernalia. Parafernalia horretan sartuko nuke, esaterako, lanean aritutakoen zerrenda amaigabea. Bertsolarien goizeko agurrei dagokienez, ezin ukatu sekulako bertsoak izan zirela, bikainak benetan. Bikainegiak ere bai, aukeran (ulertzekoa da bertso on batekin ekin nahi izatea halako saio bati, baina...). Zenbaiten kasuan, nabarmenegia iruditzen zitzaidan etxeko lanaren kutsua, eta, nolanahi ere, agurren txandak luzeegi jo zuela esango nuke. Hamaika eta erdiak ondo pasatxo ziren saio puntuagarria hasterako.

2. Zein da txapelketan audientzia?

Txapelketako bertsogintza genero berezizat hartu behar genuke. Horretan (ere) bat nator Xabi Payarekin¹. Bertsoa komunikazio generoa dela onartzen badugu (eta, teorian bertan, onartua dugu hori), orduan dena audientzaren arabera juzkatu behar genuke. Baina kontua da txapelketan audientzia bat baino gehiago dituela bertsolariak aukeran. Nagusiki, honako biok: a) entzuleria, eta b) epaileak. Esango nuke bertsolari batzuk saiatu zirela batez ere entzuleriarentzat kantatzen, eta beste batzuek epailea gogoan kantatu zutela sarri.

Nagusiki entzuleriarentzat kantatuta ere, kontuan hartu behar da bertsolarien audientzia izugarri aldatu dela azken hamarraldietan. Lehen, bertsoa beste kultur produkturik kontsumitzen ez zuen entzuleak ziren gehienak; orain, entzule gehienak daude bestelako produktuak (zinema, internet, prentsa, irratia, telebista...) kontsumitzen ohituak. Horren ondorioz, gaur egun bertso teknikoki perfektuak ez dira aski audientzia osatzeko, bertsotan txukun egitea baino gehiago eskatzen zaio bertsolariari. Kantukideen bertsoekin ez ezik, bideo-klipekin ere lehiatzeko moduko bertsoak eskatzen ditu jendeak.

Horrek, batzuetan, literaturaren muga-mugaraino (eta are mugaz bestalderaino) eramaten du bertsolaria.

3. Gai, gaiondo eta beste

Gaiak itxiegiak zirela, horixe zen bertsolaritzaren *booma* esaten zaion garai hartan (1990aren bueltan) maiz kritikatzeko zena. Egoera bat ematen zitzaion bertsolariei, xehetasun guztiak barne, eta haren barruan eta hari erantzunez egin behar zuten bertsotan. Aurten, berriz, nabarmena izan da beste muturrerako joera. Goizeko kartzelako gaian, esaterako, “egoerak beste aldean jarri zaitu” zen gaia. Hor, bistan da, ez zaio bertsolariari egoera zehatzik ematen, berak osatu (edo asmatu) behar du egoera, mundua.

Gai zehatzegietatik ihes egitearren, ez dakit ez ote garen apurka-apurka 60ko hamarraldiko gaietara hurbiltzen ari. Orduan, topiko eta arketipoen inguruan osatzen ziren gaiak: “testigu faltsu bati”, esaterako, bakar bat baino ez aipatzearren. Oraingo joera ez da hori, baina horretarako arriskua ekar lezake.

1. Ikus Xabi Paya Ruizen “Txapelketako bertsogintza: ahozkoa edo idatzizkoa?” artikulua 367. orrialdean.

Gaien erreferentzia alorrei dagokienez, nabarmena izan da aurreko txapelketatik aurtengorako aldea. Egoera politikoa arras aldatu da, eta gatazkaren presentzia bestetan baino txikiagoa izan da (sariak banatzeko garaian ere, sari emale on eta gaiztoen arteko bereizketa ez zen hain nabarmena izan). Gatazkaren erreferentzia apaldurik, ugaldu egin dira erreferentzia tragiko-sakonak. Bereziki nabarmena izan zen hori zortziko handian (elikagai bankua, alkoholiko anonimoak, desagertutako laguna, prostitutak...) eta hamarreko txikiko saioetan (tratu txarrak, seme-alaba hilak, eskaleak, psikiatrikoa...). Gaiak asmatzeko garaian ere, alde handia dago bi audientzietan zein hartzen den gogoan.

4. Tematu ezinda

Zortziko handiko ofizioetan, egoera azaltzen zitzairen gaiaren bidez, baina bakoitzak horren aurrean hartu beharreko jarrera, ikuspuntu edo papera markatu gabe. Horrenbestez, Xabi Payak azaldu duen bezala, tema izaera kentzen zaie ofizioko bertsoaldiei. Batzuetan, temako saioa baino areago zirudien txirikordatutako bi bakarkako saio.

Horrek, nire ustez, arrisku nabarmena ekar lezake: libre utzita, inor gutxik hartuko du gaizto papera, eta jarduna, lehenaz gainera, politikoki politaren aldera lerra liteke, onkeriaren bidetik. Elikagai bankuaren inguruko bertsoaldian, esaterako, areago zirudien bi filosofo ari zirela solasean, bi bolondres baino. Bertso onak izan zirela? Jakina, baina esan dut askotara definitu daitekeela bertsoen kalitatea.

5. Bertsoak bota behar / dira erdi bana...

Puntua jarrita hiruna bertso kantatzeko ariketan, bi doinu erabili zituen gai jartzaileak, txandan-txandan, eta biak iruditzen zitzaizkidan paretsukoak. Alegia, biak nahieran aise mantsotu eta azkartzeko modukoak zirela. Aurreko saio batzuetan, aldiz, doinu gehiago erabili zituzten, eta ez denak berdin moldagarri. Zaindu beharreko kontua iruditzen zait hori.

Bertsolari bakoitzari jartzen zaizkion hiru puntuak erreferentzia bat beraren ingurukoak izatea ez dut uste oso egokia denik. Badakit horrek lagundu egiten diola bertsolariari zentratzen, baina iruditzen zait gai batetik bestera alde handia dagoela. Ametsen puntuak, esaterako, Mandela zuten erreferentzia; Sustrairenak, aldiz, errugbia. Batean zein bestean bertso teknikoki bikainak eginda ere, zaila da jendearengan emozioa eragitea errugbiaren inguruko kontuekin.

Oro har esango nuke saioaren diseinuan joko izaera gailentzen zaiola jolasarenari (kartzelako lana, esaterako, nekez esan daiteke entzuleriari begira asmatua dela). Bada, ordea, ariketa bat hain justu kontrako bidetik doana: puntukako saioa. Epaille lana zaila eta gogorra da berez, baina bertsoa biren artean osatu behar denean ia ezinezoa da ganorazko ebaluazioa egitea. Bestalde, bertsolari batek egun ona eta bestea txarra dutenean, bertsoaldiak, jeneralean, txarrera egiten du. Hori esanik, aitortu behar dut oso bertsoaldi ederrak osatu zituztela ariketa horretan, jendearen gozamenerako.

6. Kantuz kontuz

Bestetan baino berritasun gutxiago izan da aurten doinuetan, edo hala iruditu zait niri behintzat. Komunikazioaren aldetik, esango nuke oro har doinu egokiak aukeratu zituztela bertsolariek (esan nahi zena esateko eta sortu nahi zen giroa sortzeko proposak, alegia, salbuespen gutxi batzuk salbu).

Izan ere, doinu baten egokitasuna irizpide horren arabera juzkatu behar litzateke beti, eta ez polit / itsusi ardatzean. Aldian aldiko bertsoaldian zer lortu nahi den, dela delako hori lortzen lagundu dezakeen doinua da egokia. Alde horretatik, badira doinu nabarmen narratiboak, beste batzuk egokiagoak dira dialektikarako, eta irudi eta sentipenen collage modukoak osatzeko ezin hobeak dira beste batzuk (habanera, esaterako).

Entzulearen aldetik, estimatzen dira moldearen egitura aise antzematen uzten duten doinuak. Alde horretatik, ez dakit Igorrek Antton Valverderen *Hegaztientzat pausarri* oinarritzat hartuta moldatu duena oso eroso egiten zaion entzuleari (niretzat ezin ederragoa da kantua, baina hori beste kontu bat da).

Aitor Mendiluzek saio osoan zehar egin zuen akats bakarretakoa, nire ustez, goizeko kartzelako lanean aukeratu zuen doinua aukeratzea izan zen. Andoni Egañak moldarazitako doinua da (Joan Baez-en *Donna Donna* kantua oinarri), eta bertso bakoitzean hiru atal ditu, musikalki ere bereiziak. Aurrena, metafora bidez sentipen bat aurreratzeko da; bigarrena, zertzelada labur ia zinematografikoak azaltzeko, eta azkena, berriz, ideia modu diskurtsiboan botatzeko, arrazoibiderako. Badu egitura horrek kopla zaharren antzik, eta Egañak sarri erabili zuen, maisuki erabili ere.

Aitor Mendiluzek, aldiz, arrazoibide jarraian osatu zituen bere hiru bertsoak

(“egoerak beste aldean jarri zaitu” gaiarekin). Ez dira batere bertso txarrak, baina ematen du hitzen garapena eta doinuarena zein bere bidetik doazela (horrez gain, aukeratu zuen egoera esparru pertsonalekoa zen, audientziarentzat ilun samarra).

Bide batez esanda: esango nuke kutsu diskurtsibo nabarmena izan zutela bertsoaldi gehienek, eta horrelako beste saio batzuetan baino zertzelada poetiko gutxiago entzun genuela. Hori, ordea, azterketa pausatua baten beharra duen irudipen hutsa baino ez da oraingoz.

7. Errima errimehe

2001eko txapelketari dagokion liburuan aipatu nuen lehen aldiz kontraesana: kantatua izateak alderdi askotatik idatziaren antzeko bihurtzen du bertsoa. Horrek, besteak beste, jerga eta lagun arteko erregistroak zailtzen (eta trakesten) ditu. Izan ere, hizketan intonazioari esker kopontzen ditugu arazo asko, baina doinuak berdindu, ezabatu egiten du intonazioa. Horregatik erabili behar lirateke kontuz eta tentuz *–ño*, *tira*, eta gisako pieza solte zernahirakoak, hizketan intonazioak ematen dien indarra doinuak zapuzten baitu kantuan.

Uste dut beste batzuetan baino gutxiago erabili direla aurtan horrelakoak, eta beharbada horregatik egin zait deigarria arrai parearena: Maialenek “penatu arrai” kantatu zuen, eta Sustraik “putakume arrai”. Gainera, gainerako errimen artean *soraio* agertzen bada, orduan arazo bat daukagu (nik behintzat bai) erregistroarekin. Noiz edo noiz, errima joko estuegia aukeratu eta esan nahi zuena moldean sartu ezinda ibili zen bertsolariren bat edo beste, baina hori sakonago aztertu beharreko kontua da, eta bego oraingoz horretan.

Duela hamabi urteko hartan bertan aipatzen nuen azentua azken aurreko silaban duten errimetan ezinbestekoa dela azken aurreko silaba horren bokala errima guztietan bera izatea. Habanera aipatu nuen orduan, eta beste hainbeste gertatzen Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* kantutik moldatutako doinuarekin. *Hasi* eta *bizi* hoslakideak dira doinuak azentua azken silaban baldin badarama. Baina aipatutako doinu horietan (eta beste batzuetan) *hási* eta *bízi* kantatzen baita, ez dago gutxieneko hoslakidetasunik, ez behintzat belarriz juzkatzen baditugu bertsoak (begiz juzkatuta akaso bai).

Zuzen zein oker, kontu potolo samarra iruditzen zait, eta tristea, oso, inork aintzat ez hartzea, kontra egiteko bada ere. Ea oraingo honetan pizten den eztabaida.

8. Bertsogintza, bertsolaritza, herrigintza

Finaleko bertsogintzaren inguruko hainbat ikuspegi azalzea nuen helburu. Ez nuke amaitu nahi, ordea, esan gabe txapelketa nagusia (eta bereziki finala) aise gainditzeko duela bertsogintzaren esparrua.

Helburu eta funtzio bat baino gehiago ditu txapelketa nagusiak. Helburu ekonomikoa aise bete ohi du, eta espero dut aurtengoak ere halaxe egingo duela. Bertsolari gazte askoren erausleia ere bada, jakina. Bertsogintzari dagokionez, ildo, estrategia eta proposamen berriak plazaratzeko une eta gune egokia izan liteke txapelketa, baina ez dakit azken urteotan berritze lan hori ez ote den gehiago bestela saioetan egiten, urtean zehar han-hemenka egiten diren era guztietako mila eta gehiago saioetan. Hala balitz, ez litzateke berri txarra izango.

Baina txapelketaren funtzio nagusia, nire ustez, bertsogintzaren inguruan sortu den mogimendua, bertsolaritza, sendotzea dela, eta alde horretatik bizipen ezinago ederra da finala. Sekulako aukera eskaintzen digu lau urtez behin bertsogintzak, herri bat garelako eta, batez ere, herri bat izan nahi dugula aldarrikatzeko, euskaratik eta euskaraz.

Hori da noski garrantzitsua, eta nik bizipen hori partekatzen eta herrigintzan diharduen audientziari esan nahi izan dizkiot, belarri ertzero, zein diren, edertasun bikain horren barruan, nire ustez hobetzeko modukoak iruditzen zaizkidanak. Eztabaida lagun, litekeenetik baiezko bidean, berez eder dena ederrago izan dadin.

Joxerra Garzia Garmendia

Hitz egin dezagun aniztasunaren trataeraz: hari muturrak

ARKAITZ GOIKOETXEA ARRIOLA

ITZULTZAILEA

2013-09-26

Hemen da Txapelketa, letra larriz. Ardura handiz prestatu ohi den ekitaldia da, Bertsozale Elkartean inon baino gehiago. Ardura horren adierazgarri jotzen dut nik, orain lau urte bezala aurten ere, kazetariarentzat prestakuntza saio bat antolatu izana. Karlos Aizpurua Etxarte, Maite Asensio Lozano eta hirurok aritu gara gidari, bakoitza bere aiekatik: generoaren gaia landu du Maitek, bertsoaldien testu-azterketa egiteko gakoak eman ditu Karlosek, eta, ur handi samarretan sartuta, aniztasunaren trataeraz jardun dut nik. Parte-hartzaileen artean, hainbat komunikabidetako ordezkariak: *Berria*, *Deia* eta *Gara* egunkariak, Bizkaia Irratia, Euskadi Irratia, Info7 eta Radio Vitoria irratia, eta Bertsoa.com Interneteko ataria.

Zer islatzen dute komunikabideek? Zer ez? Zer isla dezakete eta zer neurritan? Galdera horiek izan dira abiapuntua. Jakina, badira ñabardurak komunikabide batetik bestera eta genero batetik bestera, eta teknologia berriei esker, gainera, inoiz baino hibridoagoak eta dinamikoagoak izan daitezke komunikabideak. Ez dago guztientzat balio duen formularik, baina gogoetak balio lezake.

43 bertsolari. Horiek parte hartuko dute aurtengo Txapelketa Nagusian. Herrialde bakoitzetik gutxi batzuek baino ez, baina 43 asko da. 43 norbanako, estilo, ikuspegi, proposamen... “Bi bertsolari berdin ikusteko natxiok oraindik”, esaten du Imanol Lazkanok. Alegia, bertsolariak alderdi batean edo batzuetan elkarrengandik hurbil egon daitezkeen arren, bertsoen bidez iristen zaigun horretan **aniztasuna** da ezaugarri behinenetakoa.

Zer da aniztasuna? Ugaritasuna bada aniztasunaren adierazle, baina ugaritasunak ez du agortzen aniztasuna. Alderdi kuantitatiboa baino interesgarriagoa da kualitatiboa. Hor sakondu behar da. Askotariko egiten dituen horri erreparatu behar zaio.

Multzo bat. Bertsolariak, hala ere, kolektibo edo multzo gisa sailkatzen dira askotan. Bertsolaritza ere jardun kolektiboa da, taldekoa, eta alderdi hori asko azpimarratu

izan dute bertsolariek eurek ere. Gaur egungo bertsogintzak duen ezaugarriarik baliotsuenetakoa da, nire ustez, kolektibitate edo taldetasun horren gaineko gogoeta eta aldarri etengabea. Ikusi ere, multzo gisa ikusten ditugu oholtzan, jardunean. Multzotasun horrek, ordea, estali edo **difuminatu egin dezake aniztasuna** edo aniztasun horren alderdi kualitatiboari erreparatzeko joera.

Txapelketaren logikak ere ez du laguntzen. Txapelketak forma bukatu eta erabakia ematen dio bertso-saioari: sailkapena. Ez dago logika hori zertan ukatu. Sailkapen bat behar du, baina hortik aurrera, bestelako logika edo ikuspegi batzuekin **hornitu** behar da informazioa. Sailkapena interpretazio bat da, ez bakarra. Erabatekoa bai, bertsolariak hurrenkera batean sailkatuta uzten dituelako, baina alderdi kuantitatiboak aniztasunaren ikuspegia agortzen ez duen bezala, sailkapenak ere ez ditu agortzen bertso-saioaren interpretazioak.

Eta txapelketaren egiturak? Ez da, agian, alderdirik garrantzitsuena, baina horrek ere bertsolariak berdintzera daramala esango nuke. Txapelketa uniformizatzaileria da, eredueta bai (ikus Oier Araolazak nola landu zuen gai hori 2011ko *Bertsolamintza* jardunaldietan. *Bertsolari* aldizkariak dakartza txosten guztiak, eta Araolazarena ere bai), eta ariketetan ere bai. Guztiek ariketa berberak egin behar dituzte, elkarren segidan. Neurri berean kantatu behar izaten dute, kartzelako lanean izan ezik. Baliteke **proposamena** ez izatea bideragarria, baina merezi al luke, kartzelako lanean egiten den bezala, beste atalen batean ere bertsolarien esku uztea zenbait erabaki? Adibidez, neurriari dagozkionak, bertso kopuruari, bertso-kideari... (batzuk besteak baino egingarriagoak dira). Kontua ez da gauzak aldatzeagatik aldatzea. Txapelketaren gupil berdintzailea pasatzen den lekuan norberak utzitako arrastoak ikusarazteko bitartekoak jartzea baizik.

Hor kokatzen dut aniztasunaren trataera. Aniztasuna baliotzat hartu, eta talaia horretatik egindako ekarpenekin hornitu behar litzateke txapelketako bertso-saio bati komunikabideek ematen dioten begiratu. Komunikabide bakoitzak bere eredia bilatu eta aurkitu behar du. Hemen ere, helburua baino garrantzitsuagoa izango da prozesua.

Zeri esaten diot aniztasunaren trataera? Hezkuntzan erabiltzen den definizioa moldatuz, honelako zerbait litzateke bertsogintzan dagoen aniztasunari erantzun

egokia emateko planteamendua: bertsolari bakoitza ezberdina da besteetatik, eta, beste guztiek bezala, funtzio bat betetzen du bertso-saioan. Taldeko bat izateagatik bakarrik, funtzio bat du aniztasuna gauzatzeko garaian, banakoz banako osatzen baita aniztasuna. Bertsolari guztiak, beraz, **ezberdinak** dira, bakoitzak bere ezaugarri jakinak dituen neurrian, baina badute **berdintzen dituen ezaugarri bat** ere: guztiek betetzen dute funtzio bat bertso-saioan eta haietako bakoitzaren tasun bereziek ematen diote itxura aniztasunari.

Estatikoa eta asimetrikoa da sailkapena, baina aniztasuna ezaugarri dinamikoa eta simetrikoa da. Elkarren arteko harremanean gorpuzten da, berdintasunezko harremanean, eta hortik aurrera, norbera den bezalakoa izango da, den bezalakoa agertuko da, den bezala sortuko du. Aniztasunaren trataerak, beraz, berdintasuna izan behar du abiapuntu, eta ezberdintasunerako eskubidea aitortuz gauzatu behar da.

Ordenak eta mailak. Sailkapenak ordenatu eta mailakatu egiten ditu bertsolariak. Ordenatu egiten du aniztasuna –eta interpretaziorik okerrenetan, mailakatua ere agertzen da: zenbat eta gorago agertu, orduan eta hobetzat, egokiagotzat jotzen da–, eta desagerrarazi egin dezake berdintasuna: sailkapena hartzen bada abiapuntu (bakartzat) bertso-saio batean gertatu direnak islatzeko, ez zaio tratatu bera emango bertsolari bakoitzak izan duen funtzioari, egin duen ekarriari, eskaini dituen tasun berezi eta bakanei. Hankamotz geratzen da aniztasunaren trataera. Hankamotz eta itsu. Bertsolari batzuk eta haien jarduna ez dira inondik agertzen.

Begiratzeko eta ikusteko ikasi. Ez dago funtziorik betetzen ez duen bertsolaririk, ez dago aniztasunaren parte ez den bertsolaririk. Begiratzeko eta ikusteko ikastea da kontua. Pausoak emanez egitea bidea, eta bidea eginez ikastea. Bertsolari bakoitzak bere ekarria egiten du, bere kolorea ematen dio ekitaldiari, eta beti besteekiko harremanean.

Azkena, gaitik kanpo. Txapelketaren ondorio baztergarri bat: eskatzeko jarrera. Ez naiz ari komunikabideez, jendeaz baizik, txapelketa hurbil samarretik jarraitzen dugunok. Bestelako testuinguru batzuetan bertsoarekin gozatzen dugunok, lehiaren testuinguruak kutsatuta edo, jarrera bitxia hartzen dugu: eskatzeko jarrera. Eta batzuetan, ez oso modu egokian eskatzekoa. Gozatzeraz goazen entzuleak izatetik, eskatzera goazen entzuleak izatera pasatzen gara, eskatzetik juzgatzera eta...

juzgatzetik gutxiestera dagoen jauzia ere egin egiten dugu zenbaitetan. Gogoeta egin behar genuke txapelketak zer-nolako jarrerak pizten dituen gudan.

Arkaitz Goikoetxea Arriola

Txapelketaz eta mamuez

JONE M. HERNÁNDEZ GARCIA
EHUKO GIZARTE ANTROPOLOGIA IRAKASLEA
2013-11-05

Pertsonalki gustukoa dut Txapelketa honetarako erabilitako leloa: bertsoa. Bertsoa eta sormena erdigunean. Soiltasuna beste ezeren gainetik. Hazkundeari uko egitea. Barne hausnarketaren ondorioz hartutako erabakia. Beste behin ere, argi geratu da bertsolaritza eta gizartearen arteko lotura. Elkarreak egoera soziala irakurtzen jakin izan du eta neurri batean aurrea hartu dio gizarteari berari.

Hau aipatzen dut tinko defendatzen dudalako bertso mundua eta gainontzeko gizarte esparruen arteko harreman estua. Onerako edo txarrerako garena gara bertsotan ere.

Egia da, halere, gauza bat dela bertsolaritza eta beste bat, ezberdina, txapelketa. Honek formatu bat du, egitura bat, arau batzuk... Txapelketa txapelketa da. Denbora eta espazio berezi bat sortzen du horietan gauzak “beste modu batean” gertatzen dira. Erritu moduan ulertu dezakegu, bertsoak txapelketan zehar egunerokotasunean duen papera ez den beste bat hartzen duelako: paper kulturala eta sinbolikoa. Euskara, euskal kultura, sormena eta hitza ospatzeko festa da, herriko jaiekin gertatzen den moduan. Bertan biltzen direnak bilkura bera ere ospatzen dute. Guri begira jartzeko ere balio du beraz txapelketak.

Eta barne begirada hori aztertzen jarrita hausnarketa feminista batetik nabarmentzeko hainbat alderdi ageri dira, beti ere 2013ko edizioak orain arte egin duen ibilbidea kontuan hartuta. Luze jo gabe, puntua jarri besterik ez.

Esango nuke emakume bertsolarien kasuan txapelketa ez zela Villabonan hasi. Ezta irailaren 29an. Beraiek Askizun eman zioten hasiera irailaren 14-15eko asteburuan. Txapelketan parte hartu duten eta hartuko duten gehienak han izan ziren. Denera 40 emakume baino gehiago. 24 orduko bilkura izan zen eta tarte horretan hitz egindakoak eta eztabaidatutakoak lotura zuzena zuen emakume hauek bertsolaritzan izandako bizipenekin, kezkekin; bizitako egoerekin. Txapelketa guzti horren parte da eta saioetan ikusitako eta entzundako hainbat gauzek Askizuko “mamuei” egin diete erreferentzia. Zeintzuk dira “mamu” edo kezka hauek?

Bat, agian nabarmenena, gaiak tratatzeko moduarekin du lotura. Bertsolariek pertsonai baten ahotan kantatzen dute, bat-batean. Planteatutako gaiak sozialak dira, gizartean daudenak, egunerokotasunari lotuta gehienetan. Teorikoki neutroak dira, gauzapenean “kutsatuta”. Sozialki kutsatuta alegia, sozialki ez delako berdina aita baten paperetik kantatzea edo ama baten paperetik kantatzea; sozialki egoera bakoitzak bere rolak ezartzen dituelako eta bere protagonistak zirriborratzen dituelako. Bertsolariak ahotsa jartzen dio guzti horri, hitzekin eraikitzen du eszena, baina publikoak ere, kontziente edo inkontzienteki, irudikatze lan hori egiten du. Bien arteko lotura kulturalak komunikazioa ziurtatzen du, hau da, nahikoa aukera daude bertsolariak kantatzen duena eta publikoak espero duena bat egiteko, azken finean testuinguru berdinenaren parte dira. Bertsolariak beste bide bat hartzen badu eta ezohiko egoera edo pertsonaia bat marrazten badu, aukera asko ditu publikoaren (edo epaileen) isiltasuna jasotzeko, axolagabetasuna edo hainbatetan kritika.

Eta zer gertatzen da publikoak espero duenean bertsolaria ohiko roletatik ateratzea eta egoera edo protagonista ezberdinak azaltzea? “Betiko” egoeretan originaltasuna, kritikotasuna edota aniztasuna espero denean? Ba, hori ez bada gertatzen, desilusia edo frustrazio puntu bat sor daiteke. Zaila da aldaketa soziala irudikatzea, are gehiago inprobisatzea, zalantzarik gabe.

Adibide bat jarriko dut bakarrik. Hendaiako saioan jarritako kartzelako gaia: “*Lor zenezakeen guztia lortu duzu baina jendeak ez dizu begirune handirik*”. Prestigioa, fama, boterea, aberastasuna... horrelako hitzak etor daitezke burura gaia entzunda. Eta horrela saioan parte hartutako bertsolariak politikari, mediku, edota eliteko futbolarien ahotan kantuan hasi ziren. Lehenengo bost bertsoaldi entzunda gero, ondoan nuen lagunak zera bota zidan: *zergatik inork ez du irudikatu emakume bat, demagun ama bat?*

Ziur aski hori ez zen gaiari hobekien zetorkion pertsonaia, izan ere ordura arte eszenatokitik pasatako pertsonai guztiek begirune handia edo oso handia lortu ez bazuten ere, aitortza, boterea, ospea bazuten. Halere, gehiago espero zuten.

Nire lagunaren hitzak entzun eta Amaia Agirrek amaren roletik kantatu zuen. Bere amatasunaz ari zen, beretik kantatu baitzuen eta agian horregatik arriskatu zuen, bere planteamendua gaiarekin ez zetorrela pentsatzeko aukera ematen zuen eta.

Baina zein hurbildu da gehiago errealitatera?

Askizuko bigarren mamua umorea da. Umorea nola, norekin, noiz, zertaz... Tradizionalki emakumeak urrun egon dira umoretik. Barre egin dute eta egiten dute, bai (gehienetan baxu, kasik disimuluan), baina orokorrean ez dira barre-eragileak. Kontrakoa, umorerako objektu izan dira, rol zehatzetan bereziki: amaginarreba, neska zaharra, amona zaharra, emazte zorrotza, arreba *plasta*... Berriro topikoak eta estereotipoak. Eta emakume bertsolariek, umorea egiteko egoeran daudenean, zein eredutara jo behar dute? Kasu gehienetan, emakumeak ez dira trebatuak izan umoreak eskatzen duen aldarlean, jarreran, posturan. Barre egiten edota barre eragiten baino, heziak izan dira ardurak hartzeko, gauza seriotan aritzeko. Normalean gizonezkoei seriotasuna berezkitzat suposatzen zaienez ahal dituzte bromak egin; emakumezkoek seriotasuna irabazi egin behar dutenez, ez daukate tarterik umorerako.

Aparteko kasua da umore “*berdea*” edo “*pikantea*” deiturikoa, egoera sexual baterako bidea ematen duena, eta bertso saioetan hain ohikoa dena. Konbentzio soziala dirudi horrelako egoerek barrea sortaraztea eta, beste aukera batzuk baztertuta, horretara jotzen dute bertsolari gizonezko gehienek. Egoera horietan nagusitzen diren pertsonaiak handikerietan ezkututzen dira eta emakumezkoei, normalean, bi irtenbide geratzen zaizkie: handiagoak bota edota ihes egin. Bertsolariaren arabera bi aukera hauek okerrak izan daitezke, batez ere txapelketaren testuinguruan non tarte gutxi uzten den esperimentuatarako. Horregatik horrelako egoerak sortzen direnean ohikoa da emakumeak “*noraezean*” bezala ikustea, euren ahotsa/diskurtsoa bilatu nahian. Gizonezkoek aldiz, tradizionalki egokitu zaien papera mantentzearekin nahiko dute, hala nahi badute, noski: mutil edo gizon harroa, segurua, horrelako egoeretan nahi duena dakiena, ...

Noski, fikziozko pertsonaiez ari gara, baina gizartearen ahotik kantatzen dutenak. Bestela ez lukete publikoaren onarpena izango. Nahiz eta agian, publikoaren parte bat, berriro zapuztuta sentitu, barrea sortzeko era ezberdin baten alde egin ez delako. Eta orain arteko saioetan horretarako aukera batzuk izan dira.

Hirugarren mamua (nahiz eta honekin mamuen zerrenda ez amaitu) berdintasunaren muga bera da. Mamu izugarria. Hau azaltzeko txapelketa baino lehen beste nonbait

egindako hausnarketa gogoratu nahi dut. *Berrian* idatzi nuen moduan, egun, hainbat bertsolari gaztek feminismoa dute ipar. Bat-batean aritzen dira, sortzen eta gozatzen. Baina sentitzen, pentsatzen eta nahi dutena bertsotan jartzean gizarteak bertsolaritzan duen presentziaz jabetzen dira. Estereotipotik ateratzea eta onartua izatea ez da erraza. Egile batzuen ustez, bat-batekotasuna munduan egoteko beste modu bat litzateke, egoteko modu ezberdin bat. Bertan produktuak baino, prozesuak luke protagonismoa. Paradoxikoki bat-batekotasunaren erreinuan beti ez da posible “beste mundu batzuk eraikitzea”. Zergatik? Agian bertsoa kantu kolektiboa delako (sortzailearen eta publikoaren artean egiten dena) eta bilkura horretan oso zaila delako adostasunak bilatzea. Agian gure gizarteak, gure kulturak, ustez berdin zaleak, parekotasunaren aldekoak, ez du guztiz errotu diskurtsoa.

2013koa hazkunderik gabeko txapelketa izango da; 2017koa deseraikuntzarena izan daiteke.

Jone M. Hernandez Garcia

Txapelketako bertsogintza: ahozkoa ala idatzizkoa?

XABIER PAIA RUIZ
IKERTZAILEA
2013-11-07

“Idatzirik ezean, ez da ezer pentsalaritik at (ez inolako testurik) lehengo pentsabide bera errepikatzen lagun diezaiokeenik, ezta pentsabide hori egin duela egiaztatzeko modurik ere. (...) Orduan, nola antola liteke gogoeta-aldi luzerik? Mintzaide bat izatea funtsezkoa da: zaila da norberarekin hizketan aritzea luzaroan. Pentsamendu jarraikia, beraz, komunikazioaren bidez garatzen da ahozko kulturetan.”

Walter J. Ong, Orality and literacy: the technologizing of the world (1982)
[Ahozkotasuna eta idatzizkotasuna: munduaren teknologizazioa]

Walter Jackson Ongék, bizirik egon izan balitz eta euskaraz jakin izan balu, segur asko izenburuko galdera egingo ziokeen bere buruari Txapelketa Nagusiko kanporaketa saioak amaitu berrikan. Izan ere (bertsolariak ahoz komunikatzen badira ere), Ongék ongi zekien Homeroren idazkiak ahozkoak izan zitezkeen bezalaxe, ahoz zabaldutako testuek badutela idatzizkoak izatea.

Hain ongi zekien hori non berak proposatu zituen ahozkotasunaren psikodinamikaren 10 arauak *Orality and literacy: the technologizing of the world* (estekan, lan osoa ingelesez) liburuan. Hainbat ahozko tradizio eta kultura aztertu ondoren, hamar urrezko lege taularatu zituen, eta betekizunok egun oraindik eztabaidagarriak izanagatik, haren lanak mugarri izaten jarraitzen du. Hamar arau horietatik hiru hautatu ditut nik (letraguneen gehienezko mugagatik), Txapelketa Nagusiko kanporaketetako bertsoek betetzen ote dituzten aztertzeko. Ondoren, nire upeleko kontu pare bat gehituko ditut, txalo bitarteetan deigarri egin zaizkidanak.

Mendekoa ez, emendiozkoa

Ongen arabera, ahozkotasunak mendeko perpausak saihesteko joera du; ahozko tradizioetan dagoen lotura ohikoena emendiozko juntagailua da (‘eta’). Argi dago txapelketako bertsogintza oro har pixka bat urrundu dela arau horretatik, formula ezagun bihurtu baitira azken aurreko puntuaren lehenbiziko silabetan ‘nola’ edo ‘nahiz eta’ hitzak kokatzen dituztenak, besteak beste. Ez diot nik orain esentziara

itzuli behar dugunik, baina mendeko perpaus korapilatsuetan sartzeak bertsoen ulermena eta, batik bat, oroimena zailtzen ditu (egun txapelketako produkzio dena txukun-txukun jasoagatik Xenpelar Dokumentazio Zentroan). Zailtasun horren adibide iruditzen zaizkit Markinako bi bertsolari puntuatuenen adibide hauek (bertsoaldiak osorik aztertzeke, sakatu estekak):

Agin Laburu, Markina; bakarka, 2. bertsoa

Harreman bat guk berreskuratu
eta denboran atzera
ez ote degun egin zalantzan
nago lehenago antzera.

Jone Uria, Markina; 8ko nagusia, 1. bertsoa

Etxea berriz genezakeen
serio egiten dut hitz,
daukagun diru eta denbora
faltarengatik ez balitz.

Talka zalea

Ahokotasunak, jatorriz, aurrez aurre jartzen ditu performancean elkartzen diren elementu guztiak. Sorburuan talka bilatzen du, konfrontazioa, igorleen arteko norgehiagoka. Hala ezagutu genuen bertsolaritza, eta halakoa izaten da plazako saio gehientsuenetan; txapelketak, ordea, talkarik gabeko jardun paraleloetan oinarritutako dialektikak ahalbidetu ditu.

Ageriko kontrakotasunik ez duten paperetatik kantatu behar duten bertsolariek, ahokotasunaren jatorrizko izaerari jarraiki, aurrez aurreko dialektikarako joera izan beharko lukete; idatzizko komunikazioaren eragina da parez pareko iritzi trukea saihesten duena. Edozein kasutan, dagoeneko nahiko zabalduta dago jarrera horri buruzko *dezima* bukaera ezagun bat: “puntuak puntuen truke / bi bakarkakok ez dute / ofizio on bat egiten”. Hori bai, argi dago taula gainean konfrontazioa ez dela sortzen bik nahi ez badute:

Oihana Bartra eta Igor Elortza, Legazpi, 8ko nagusia

“Lantegi berean egiten zenuten lan. Hilabeteak greban pasatu ondoren, kanpoko kamioiak lantegian sartu eta nola husten ari diren begira zaudete.”

O. B.
Kamioi handia ikusi dugu
eta ikusi ahala
senti dezaket nire gainetik
pasatu balitz bezala.

I. E.
Oihana gure azken aukerai
behar diogu ebatu
kamioietan sartuko gara
eta barruan geratu.

O. B.
Langile danak batuko gara,
geu ere asko gara ño!
Ta indar gehiago euki ahal dugu
kamioi hoiek denek baño.

I. E.
Nagusieri ezin diegu
guk utzi bide librea,
hartu fabrika geure esku ta
egingo dugu bidea.

O. B.
Danak batuta egongo gara
eta gure planak findu,
behintzat inortxok ez dezan esan
ez garenik ahalegindu.

I. E.
Goazen makinak geure esku
hartuta
eskariei erantzuten.
Aizu, ni ez nintzen marxista jaio,
baina eurek egin ninduten.

Formula bidezko sorkuntza

Ahokotasunaren psikodinamikaren ‘unitatea’ formula da, igorlearen sorkuntza-tresna eta hartzailearen oroimenaren pista den esamoldea. Grabagailurik existitzen ez zen garaian, aski zen bertso on baten oinak eta formula deigarriren bat (azken puntutik hurbil kokatua bereziki) buruan gordetzea bertsoa gerora ere gogoratzeko. Egungo bertsogintzak formula bidezko sorkuntzari eusten dio, baina grabazioek eta plaza kopuruak nahi baino lehenago *ajatu* dituzte horietariko asko. Formula ohikoenak puntu barrukoak dira, onargarri samarrak, finalerdietan hain gomendagarriak izango ez direnak (ikus *oin ajatuak* fitxa Bertso Gidan): ‘arreta’, ‘kasu’, ‘eguna’, ‘bertute’...

Puntu biko formulak, ordea, ahokotasun aldetik txalogarriak izanagatik (gogoangarriagoak izaki), behin *ajatu* ondoren guztiz baztergarriak iruditzen zaizkit txapelketan. Berbarako, bertsolari bik erabilitako egitura hauxe:

Jon Martin, Villabona; bakarka, 3. Bertsoa

Hiru lau aldiz pentsatu arren
deitu egin dut ta puntu
putakume horrek ez du berriro
beste inor ikutuko.

Oihana Bartra, Legazpi; 8ko txikia, 1. bertsoa

fallatu ezkerro hil
ahal zara ta puntu
baina kasu horretan
ez zara ohartuko.

Beraz, badirudi txapelketakoa dela ahozkotik gehien urruntzen den bat-bateko bertsogintza. Literatura idatziaren balioetako zenbait erantsi zaizkio mota horri, eta horietara errenditu dira batik bat bakarkakoetako silaba ugariko neurriak. Bertsolariari bat-bateko idazle izatea exijitzen zaio zenbait ariketatan; exigentzia horrek bertsogintzaren oinarritzko elementu bi moldatzera eraman gaitu, eta elementuok dira segidan nabarmendu nahiko nituzkeenak.

Aldez aurretik pentsatu ala aurreratu?

Zenbat pentsatu behar du bertsolariak kantuan hasi baino lehen? Badakigu epai-irizpideek diotela minutu batetik gorakorik ez dela komeni, baina ez naiz iraupenaz ari, testuaz baizik. Bertso-eskoletan irakasten dugu azken puntua pentsatu, oinen stocka ziurtatu, eta salto egitea dela kontua, baina praktikak erakusten du epifonema edo bukaerako kolpea ez dela taula gainekoek mikrofonoratu aurretik mahukapean duten gauza bakarra. Har dezagun aztergai Beñat Gaztelumendiren bakarkako lehenbiziko bertsoa:

Beñat Gaztelumendi, Altsasu; bakarka, 1. Bertsoa

Mahaiko entsalada degu
ordu erdiz ahoratu,
egunean zehar pasa
zaigun dena gogoratu.
Lagunen mila istori
ta laneko mila datu,
bi urteko harremanak
hori izaten baitu tratu.
Bere begi itzalitan
begiak ditut iltzatu
eta hala galdetu diot:
“Zer pasatzen da? Kontatu!”
Ezer pasa ez balitz gisa,
halaxe du gaiz aldatu,
baina zergatik ezin dit
begitara begiratu?

Bertso horretako mezua behar bezala adierazteko ezinbesteko informazio garrantzitsuena laugarren puntuan azaltzen da, eta puntu hori behar bezala ulertzeko ere beharrezkoa da aurreko hiruren testuingurua. Beraz, azken bi puntuak hitzez hitz pentsatuta izanik ere, bertsolariak ziurrenik egitura osoaren aldamioa

diseinatuta eduki du kantuan hasterako, azken lau lerroen *elocutio* eta bertso osoaren *dispositio* pentsatu izan balitu bezala. Bertso hori narrazio bikaina da, baina zail samarra entzun eta zuzenean buruan sartzeko. Agian gure belaunaldiak ez ditu mota horretako piezak sortu behar, agian horretarako dago sarea...

Justizian ez bezala, bertsoan *premeditazioa* ez da delitu, bai ordea antzeman daitekeen *antizipazioa* (bezperakoa zein oholtza gainekoa izan). Eta antzeman ezin daitekeenak, txundigarria izan arren, benetako bat-batekotasunak baino dezente gutxiago aberastuko du sortzaileak performance jakin horren bidez izandako esperientzia; bertso-aldi dotoreak egitea denoi gustatuagatik.

Zer da hoskidetasuna?

Inolako teknologiarik ez zuten ahozko kulturetan, oinak ziren lehenago entzundako bertso bat gogoratzera heltzeko ogi-papurrak. Errepikapena da baliabide poetiko-erretoriko zaharrenetariko bat, eta hoskidetasuna puntuen bukaeran gertatzen den soinu errepikapena. Azken puntua indartsua bada, memorian iltzatuta geratuko da, oinen soinu eta guzti, eta hari tiraka ongi osatutako bertsoaz oroitzera helduko gara. Soinu errepikapen hori, ordea, beti ez da nahi bezain berdina izaten. Izan *Hiztegi errimatuak* zabaldutako arauengatik, izan idatzizkora lerratutako errimengatik, izan doinuen azentuei ez erreparatzeagatik, soinu bera errepikatzen ez duten gero eta hitz gehiago jotzen ditugu hoskidetzat. Eta horrela ezin da bertsorik gogoratu; bestela, saia daitezela kanporaketetan egondako bertsozaleak adibide hauek osatzen:

Eneko Fernandez, Markina; 10eko txikia, 1. bertsoa Eneko Abasolo, Markina; 10eko txikia, 3. bertsoa

Desira, begira, deskriba, tira...

“Es que”, merke, eske, bete...

Ez badigu kontatu
zerbaitengatik da.

zure aitan fabrikan
bada horrenbeste.

Odei Barroso, Villabona; 10eko txikia, 2. bertsoa

Beñat Lizaso, Legazpi; 10eko txikia, 3. bertsoa

Uste, urte, lurpe...

Trabak, bart, zirrarak, badaukat...

Bitxiak ez saltzea
nahiago zenuke,
baina lasai amonak
ulertuko luke.

nik neu izan nahi baitet
ta ez kopia bat.

Egia esan, Walter Ongek ez zukeen zalantzan jarriko bertsolaritzaren ahozketasuna. Bizi izan balitz, seguru nago aho zabalik geldituko litzatekeela Europako mendebaldean ahozko tradizio hain indartsua aurkituta; gutxienik lau urtez behin ahozko poetak egunkarien azaletan jartzen dituen kultura bat dago kontinente zaharreko lehen munduan. Halako arte batek, darwinismo basatienari jarraiki, uko egin beharko zizkion ahozko gaitasun ugariri, grafokraziaren zenbait ezaugarri barneratuz, bizirik irauteko XXI. mendean.

Xabier Paia Ruiz

Bertsolari Txapelketa Nagusien analisi estatistikoa


MANEX AGIRREZABAL ZABALETA, EHUKO IXA TALDEKO IKERTZAILEA
BERTOL ARRIETA KORTAJARENA, EHUKO IXA TALDEKO IKERTZAILEA
AITZOL ASTIGARRAGA PAGOAGA, EHUKO RSAIT TALDEKO IKERTZAILEA
MANS HULDEN, EHUKO IXA TALDEKO IKERTZAILEA.

Iazko irailean, Txapelketa Nagusia hastearekin batera, artikulua argitaratu genuen Elhuyar aldizkarian (ikus <http://aldizkaria.elhuyar.org/gai-librean/bota-bertsoa-eta-guk-aztertuko-dugu/>), 1986 eta 2009 artean egindako Bertsolari Txapelketa Nagusien azterketa estatistikoaren berri ematen zuena. Bertsoaren zenbait ezaugarriren txapelketaz txapelketako bilakaera erakusten genuen; besteak beste, errima ohikoenak, kartzelako ariketan aukeratutako neurriak eta euskara batuaren erabileraren zenbatekoa.

Orain, 2013ko txapelketako datuak eskuetan ditugula, konparaketak eguneratzera gatoz, azken txapelketak aurrekoen joera berresten edo ezeztatzen duen ikusteko. Bi ataletan banatu dugu idatzi hau. Batetik, 2013ko txapelketa nagusiko finaleko zenbait datu erakutsiko ditugu, labur-labur; bestetik, 1986tik gaurdaino egindako txapelketa guztien konparaketa eguneratuko dugu azken txapelketako datuekin.

1) 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko zenbait datu

Txapelketaren ondoren entzun eta irakurri diren hainbat iritzitan, **gai umoretsu edo komikoen urritasuna** nabarmendu da. Guk finaleko gaiak banan-banan aztertu, eta proportzioa kalkulatu dugu; esanguratsuak dira estatistikak: finalean jarritako gaien % 77a izan zen dramatikoak; % 23a soilik komikoa (zortziko txikian eta puntukako ariketan kantatutakoak, nagusiki). Onarturik ere gai batzuk berez ez direla ez komikoak ez dramatikoak, alegia bertsolariaren erabakiak egiten duela gaia dramatiko ala komiko, zalantzazko kasuak oso gutxi zirela esan beharra dago, eta halakoetan bertsolariaren erabakia hartu genuen aintzat. Esaterako, har liteke ikuspuntu komiko batetik kartzelako ariketan jarritako “Egoerak beste aldean jarri zaitu” gaia, baina zortzi bertsolariek seriotik jo bazuten, zerbaitengatik izango da. Iruditzen zaigu gaiaren komikotasuna esplizitua ez bada, nekez hartuko duela bertsolariak umoretik jotzeko erabakia, adibide honekin argi ikusten den moduan. Finalari dagokionez, aztertu genuen beste kontu bat **hikako erregistroaren erabilera** izan zen. Egun osoan zehar bota ziren bertso guztietatik, bitan soilik erabili zen (% 0,01): Arzallusek guardia zibilaren larruan, eta Lujanbiok bere buruari kontuak



1. irudia: Hikako erregistroaren erabileraren bilakaera

Errimei dagokienez, “ena”, “era” eta “ira” izan dira ohikoenak azken txapelketan, eta ez da beraz aldaketa nabarmenik antzematen aurreko txapelketekin erkatuta (ikus 2. irudia). Deigarria da 2013an gehien baliatu diren sei errimak 2009an usuen erabili ziren berak izatea (nahiz eta ordena desberdinean izan). “era” errimaren kasua ere azpimarratzekoa da: azken zortzi txapelketetan errima erabiliena edo bigarren erabiliena izan baita.

1986	1989	1993	1997	2001	2005	2009	2013
eBDGRa	eBDGRa	ela	eBDGRa	eBDGRa	eBDGRa	ela	eNMa
ela	iNMa	ala	eNMa	eNMa	ela	eBDGRa	eBDGRa
uNMa	oSZXa	eBDGRa	uNMa	aBDGRo	eNMa	aBDGRo	iBDGRa
arra	iBDGRa	eNMa	ela	aBDGRa	ePTKa	eNMa	ela
iPTKu	eNMa	ePTKo	arra	iBDGRa	aBDGRo	aBDGRa	aBDGRo
ala	arra	arra	ePTKa	uNMa	uNMa	iBDGRa	aBDGRa

2. irudia. Txapelketa bakoitzean gehien erabilitako errimak.

Oharra: eBDGRa errimak eba/eda/ega/era hartzen ditu barnean, bodegero legearen arabera ontzat jotakoak; horren arabera, “arriba”, “hobe da”, “ernega” eta “tankera” hitzek, adibidez, errimatu egiten dute. Berdintsu gertatzen da ePTKa, eNMa eta antzeko errimekin.


Bestalde, azken txapelketan gehien entzun ditugun bost oinak hauek izan dira, ordena honetan: “dira”, “dago”, “gehiago”, “eta” eta “begira”.

Neurrien aukeraketaren joera baieztatu besterik ez du egin aurtengo txapelketak: kartzelako ariketan zortziko handian ez da jadanik kantatzen, eta hamarreko handia ere desagertzeaz da (ikus 3. irudia). Neurri luze edota berezietarako joera gailendu da nabarmen.



3. irudia: Kartzelako ariketan bertsolariek aukeratutako neurriak (zortziko handia, urdinez; hamarreko handia, laranjaz; neurri luze edo bereziak, horiz).

Azkenik, **erabiltzen den euskara** aztertu dugu. IXA taldearen analizatzaile automatikoak ezagutzen dituen hitzen proportzioak azken urteetan gorantz egin duela nabarmendu genuen aurreko artikuluan; azken txapelketako datuek berretsi egin digute joera hori (ikus 4. irudia). Datuok euskara batuaren erabilera geroz eta handiagoa dela ondorioztatzera garamatzate.




4. irudia: IXA taldeko analizatzaile automatikoak ezagutzen dituen hitzen proportzioa


Dena dela, azterketa xeheagoa eskatzen zuen kontu honek. Izan ere, hainbat arrazoi egon daitezke IXA taldearen analizatzaile automatikoak hitzak ez ezagutzeko. Lau taldetan multzokatu genituen: ahozko hizkuntza idatzizko bihurtzerakoan egindako transkripzio-akatsak (esate baterako, “aszko” idaztea, “asko” jarri ordez), IXAren datu-basean gorde gabe dauden izen bereziak (adibidez, “Marilyn”), erdarakadak (esaterako, “enpalagoso”) eta euskarazkoak izanagatik batuan ez daudenak (“hankakin”, kasu).

Interesgarria iruditu zitzaigun azken bi multzoen joerak aztertzea, eta horretarako txapelketa bakoitzeko 50 hitz ezezagun (analizatzaileak ezagutu gabeak) aukeratu genituen zoriz, eta multzo bakoitzari zegozkionak zenbat ziren kontatu. Hala, txapelketa bakoitzean egin ziren erdarakaden eta euskaraz izanagatik euskara batuan ez dauden hitzen portzentajearen estimazio bat erdietsi genuen (kontuan hartu behar da hitza izan dela gure aztergaia; hau da, “aurpegia eduki” gisako erdarakadak ez ditu ezezaguntzat jotzen gure analizatzaileak, eta ontzat hartu dira ezinbestean; erdarakaden kopurua, beraz, erakutsiko duguna baino handiagoa dela pentsatzea zentzuzkoa da).

5. irudian ikus daiteke euskaraz egon arren euskara batuan ez dauden hitzen proportzioa, eta 6. irudian, berriz, erdarakadena. Txapelketaz txapelketa, handitu egin da batuan jarduteko joera, 5. irudiaren arabera: 1986. urteko txapelketan, euskarazko hitzen % 14a zen euskara batuan ez zegoena, baina pixkanaka beherantz egin du joera honek, azken txapelketan % 6a soilik izatera iristeraino.



5. irudia: Euskara batuan ez dauden euskarazko hitzen proportzioa



6. irudia: Erdarakaden proportzioa

Erdarakadei dagokienez, berriz, azken txapelketetako goranzko joera hautsi da 2013. urteko txapelketan. Bestalde, 2009ko erdarakaden proportzioa 1997koa baino 4 aldiz handiagoa izateak adierazgarria dirudien arren, zenbakiei begiratuz gero, erdarakaden proportzioa % 1,5aren azpitik ibili dela beti ikus daiteke, eta alde hau, hortaz, ez dela hain esanguratsua.

Azterketa hauek guztiak egiteko 1986-2013 urte arteko Txapelketa Nagusietako bertsoaldien transkripzioak baliatu ditugu, Xenpelar Dokumentazio Zentroak eskura jarritakoak. Eginkizun honetan luze eta zabal jardun badira ere, ez dituzte bertsoaldi guztiak transkribatu, horien aukeraketa bat -lagin bat- baizik. Neurri estatistiko zuzen-zuzenak kalkulatzeko bertso guztiak beharko genituzke; estimazio egokiak egiteko, aldiz, zoriz -baina tentuz- egindako hautaketa bat litzateke ezinbesteko. Hala eta guztiz, erakutsi ditugun datuek joera batzuen nondik norakoak ikusteko balio dutelakoan gaude, eta, batez ere, etorkizunean egin daitezkeen erakusgarri direla uste dugu. Horretarako, bistan da, beharrezkoa izango da bertsoak egoki jasotzen jarraitzea.

**Manex Agirrezabal Zabaleta, Bertol Arrieta Kortajarena,
Aitzol Astigarraga Pagoaga eta Mans Hulden.**

Hizkuntzaren eta hitzaren gaitasuna lekuak sortzeko

TERESA DEL VALLE MURGA
ANTROPOLOGOA
2013-12-10

Europako hegoaldeko kulturetan plazaren zentzu polifazetikoak gogoetarako gonbita luzatzen du egungo bertsolaritzarekin eta hark ekartzen duen sormenezko ezaugarriarekin duen harremanari buruz. Plazak sortzen duen erakarpenak etxetik haragoko topaketarako bide eman eta iragartzen du, familia harremanetatik harago, batzuetan emanak zaizkigun eta, bestetan, hautatzen ditugun loturetan oinarritutako egunerokotasunetik harago. Denboran eta espazioan zehar jarraitutasunak ezartzen dituzten loturak, baina kodeak eta adierazpenak dituztenak, eta espazio publikora eramaten direnean, aberastu egiten dutenak. Plazan, halaber, harremanak sortu eta zabaltzen dira, eta haiekin adiskidetasun eta ausazko topatzeen, ospakizunen eremu zabalean balioak eta adierazpenak errotzen dira; etxeak eskaintzen duen zabaltasuna baino eremu handiagoa. Familiako harremanak abiarazi arren, leku publikoetan duten adierazpenak beste azalpen eta esanahi batzuk eskaintzen ditu. Horregatik du garrantzia hizkuntzak lekuen aldakortasunean duen inpaktua neurtzeko, edo bertsolaritzak duen ahalmen eraldatzaileari buruzko eta, Marc Augé-k egozten dion zentzuan, identitate lekuak sortzeko duen gaitasunari buruzko gogoeta sortzeko, hizkuntzaren ahalmen eraldatzailearen bitartez, pribatutik publikora egiten den urratsa ikusgai bihurtzeko.

Bertsolaritzaren ezaugarri berezietako bat da hitza lurraldean txertatzea. Era askotako tonalitate, erritmo, zentzu eta esanahi sortzen dira elkartzen den publikoarentzat, entzute arretatsura deitua sentitzen baita, eta enpatiak, onespén positiboak edo saioari buruzko dezepzioak ere transmititzen duen baloraziozko erantzun bat ematera. Hizkuntza-lurralde harreman horretan ezar daiteke lotura bi urtean behin egiten den *Korrikaren* eta *Txapelketak* lau urtean behin ere sortzen dituen zirkuituen artean.

Bertsolarien eta publikoaren arteko harremana funtsezkoa da, eta adierazpen sorta bat eragiten du, besteak beste, azpimarratzekoa da oholtzatik multzo osoan nagusitzen diren inprobisatzaile bakoitzari eskainitako arreta pertsonalizatuz janzen den isiltasuna. Bertsolaritzak isiltasunaren garrantziari buruzko gogoetara eramaten gaitu, bereziki gai-

jartzaileak gaia jartzen duenean sortzen den isiltasuna. Isiltasuna une batez nagusitzen da, eta publikoa sormenezko egintzaren hasieran zain gelditzen da; bertsolariaren erantzunak hartuko duen bideari buruzko era askotako itxaropenak sortzen dira orduan.

Isiltasunak espektatiba eta entzute arretatsua agertzen duen bitartean, saio bakoitzaren hasieratik bertatik, behin gaia jarri ondoren, barrea izango da umorea ulertu izanaren adierazpena, ezaugarri inprobisatzaile gisa betiere presente egongo den ironia, gertakari triste batean emozioa presente dagoen neurri berean. Edo zorrotzasunari jotako erronka, lantzeko zailak diren gaiak planteatzen direnean. Horregatik, ospatu egiten da gai politiko batetik, sexualitate hausletik, zentzu bikoitzetatik aise irteteko ateraldia. Horrelakoetan, publikoak jolasezko adierazpenak sortzen ditu, baina, gainera, bizkortasun, zorrotzasun eta umorearen kalitatearen inguruko baloraziozko adierazpenak eta txaloen bitartez erakusten du, edo bertsolariaren azken ahapaldiekin bat eginez, txaloekin nahasten diren bitartean. Airoski egindako ateraldiak bertsolariak ironiarako duen gaitasunaren onespen eta aitortza adierazpenak eragiten ditu.

Parte hartzeko bidea ematen duen entzuteko jarrera oso garrantzitsua da, agerian jartzen baitu publikoaren hasierako irekitasuna eta mezuek eta haiek eragiten duten harmenaren artean agerian jartzen doazen sintonia mailak. Bada, gainera, lekurik publikoak adimenaren bitartez aurreratu ahal izateko nondik joan daitekeen hurrengo parte hartzea; eta horrek, adimen arintasun handia eskatzen du, bertsolariaren kalitatearen zati baita erantzun egokia aurkitzea, baina baita hura sormenez erabiltzea ere, tentsio estimatzailea eta umorea mantentzeko moduan.

Bertsolari bakoitzak oholtzan duen presentziak hizkuntzak duen protagonismoa eta mezuen adierazpenean eta sortuz joango diren harmen mailetan beren ekarpena egingo duten osagai guztien garrantzia markatuko du. Horregatik da garrantzitsua itxaroteak dakartzan denborei jaramon egitea. Publikoak, bere presentzia hutsarekin, ekitaldiaren garrantzia iragartzen du, hilabeteetan zehar eta Txapelketa landuz joan den lekuetako oholtzetako saio guztietan zehar sortuz joan den denbora bat.

Publikoaren eta bertsolariaren arteko konplizitate adierazpenak: txantxa-isekazko erantzuna haien esku-hartze bakoitzean; txaloak; saio baten azken errepikan laguntzea. Eta azkenik, txaloak.

Itxarote denboraren luzera araututa ez badago ere, erantzun bizkorren balorazio bat ere badago, nahiz eta gero garrantzi handiagoa izan zentzuak, erritmoak, zorrotzasunak eta amaierak. Baina, itxarote une horri balio bat egozten zaio. Isiltasun une horretan, bertsolariak gaiak sortu dituen erreflexuak nahasten ditu hitz bihurtzeak duen markarekin. Publikoak, isiltasunetik, mezuaren hartzaile izatera irekitzen da berriro.

Hizkuntzaren eta espazioaren arteko eta hitzak espazio publikoan duen erabilera sinbolikoaren arteko harremana ulertzeko, beste gertakizun funtsezko bat izan den eta izaten jarraitzen duen Korrikan identifikatuz joan naizen dinamika jakin batzuei egingo diet aipamena, non ibilbide baten inguruan sortzen den mugimenduaren bitartez hizkuntzaren existentzia eta presentzia etengabea aldarrikatzen den. Kasu horretan, protagonismoa ibilbidean zehar pasatuz doan lekukoaren sinboloan oinarritzen da, belaunaldi diferentzien, klase sozialaren, sexu adskripzioaren, jatorri lekuaren, aukera politikoen gainetik. Korrikan garrantzia hartzen du hasiera eta amaierako lekuen aukerak, baita ibilbiderako hautatzen direnak ere. Hiriburuak, landa eta hiri guneak sartzan dira ibilbidean. Hain zuzen ere, muga kontzeptua adierazten den zentzuan dago Txapelketaren eta Korrikaren artean ikusten dudana harreman estua. Mugak tratu baten, hitzarmen baten, leku baten berrespenaren inguruan zigilatu den kidetasun aitortza batean oinarritutako lerro banatzaile bati erantzuten dio. Ibilbidean barrena kilometroek markatzen duten mugarri jarraituz aurrera egiten duen lekukoaren bitartez aktibatzen da hizkuntza-lurralde erlazioa. Lekukoa pasatzeak hizkuntza ekarriz doa, eta hori sinbolikoki adieraziz doa, baita ibilbidearen hainbat puntutan presente dauden kontsigna, musika eta sinboloen bitartez ere.

Txapelketan nahiz Korrikan, hizkuntza ahozko adierazpenaren tresna gisa, baita komunikazio eta sentimendu eta emozioen adierazpenarena tresna gisa ere, lurraldeak gainditu eta, aldi berean, lekuak sortzen ditu. Haietan sormena, identitatea, komunikazioa, iraupen gutxiko artea sortu eta adierazten da. Horrela, Txapelketak nahiz Korrikak barneratu egiten gaituzte euskarak leku zabalak eta identitate, transmisio eta pertinentziari irekiak dauden lekuak sortzeko dituen aukeretan.

Teresa del Valle Murgia (Idoia Guilleneak itzulia)

Bibliografia

Augé, Marc (1995) *Los “no lugares” Espacios del anonimato, Una antropología de la sobremodernidad*, (Margarita N. Mizrajirekin itzulpena, 1995), Bartzelona, Gedisa.

Del Valle, Teresa (1988) *Korrika rituales de la lengua en el espacio*, Bartzelona, Anthropos.

Del Valle, Teresa (1994) *Basque Ritual for Ethnic Identity* (Linda Whitek itzulia), Reno Univesity of Nevada Press.

Hernández, Jone Miren (2011) “Bertsolarismo, Palabras que emocionan, emociones hechas palabras.” In: Incorporaciones antropológicas: Análisis desde el cuerpo y las emociones izeneko Sinposioan aurkezturiko komunikazioa. XII Congreso de Antropología de la FAAEE (Federación de Asociaciones de Antropología del Estado español), León 2011.

[1] Nire esker ona Jone Miren Hernándezi eta Feli Etxeberriari gai honi buruz eman didaten informazioarengatik.

Hitzak egiten gaitu

ANDONI EGAÑA MAKAZAGA
BERTSOLARIA
2013-12-20

Aitorpen txiki bat eginez hasi nahi nuke artikulu hau: BECen ez nintzen uste eta espero nuen bezala emozionatu. Nostalgia eraginez eta orain nostalgia hori bizi ahal izateko neukan zoriaren ondorioz, espero nuen emozioek gaina hartuko zidatela egun osoan zehar eta begi-ertz bustiak izango nituela orduetan. Prestaturik nengoen eguna hunkiturik emateko. Eta ez. Hasieran, zortzi bertsolarien sarreran bai, gertatu zitzaidan espero nuena. Azal pinportatsua, begi-ertz bustiak eta bizkar-hezuraren behetik gorako kalanbre moduko hori. Eta bukaeran berriz sentitu nuen antzeko zerbait, Beñat Gaztelumendik azken agurrean anaiari eskainitako bertsotik Ametsek aitarena zen txapela amari eskaini zion arte. Baina bien bitartean...

Bitartean... ez nuke esango inola ere hunkitu ez nintzenik, baina hunkidurak ez zidan nik aurreikusitako biderik hartu. Zortzi bertsolariak lanean hasi ziren unetik, miresmen kontrolatua legamiatzen joan zitzaion bere burua zale kualifikatu samartzat daukan honi. Nigan biak bereizterik balego, esango nuke sei orduetan zehar bertsolaria gainditu zitzaiola pertsonari, profesionala zaleari nolabait esateko, eta hunkitu nintzela bihotzetik baino gehiago garunaren bidetik. Eguna usapal pasatzeko asmotan joan eta zortzikotearen maila artistikoak hegazti harrapari bihurtu ninduen. Ikasi eta ikasi eman nituen sei orduak, bazegoen eta nork irakatsia. “Inbidia pixka bat pasako huen e?”, galdetzen zidan hurrengo egunetan jendeak. Ezetz erantzuten nien. Oholtzan ez egoteagatik ez nuen batere inbidiarik pasa, eta horri buruz galdetzen zidaten. Nik inbidia pasa nuen, bai, baina zortzikotearen bertsotan egiteko moduarengatik!

Eta egia zor, zortzi finalistak izendatu zituzten unetik espero nuen maila oso ona. Gainera, kasualitatez, epaileen gustuen batuketa diren matematikek hala agindu zutelako, Bertsozale Elkartek Txapelketa Nagusiaren aurkezpenean txapelketa honi eman zion filosofiarekin ezin batago zetorren zortzikotearen zerrenda. Iñaki Muruak txapelketa bertsoan zentratu nahi zela adierazi zuen. Ingurukoa xume eta bertsoa enfokatu. Kartela ere halakoa zen: eskuz idatzitako letra batzuk, argi hori izpi bakarra

mikrofono soilera. Zortzikotea izendatu zutenean horixe izan zen nire burutazioa: bertsoa nahi al genuen erdigune? Ba hementxe dauzkagu zortzi bertsolari on. Baina batik bat, zortzi testugile bikain. Izan zitezkeen izenak beste batzuk. Unai Agirre matematika sorginek utzi dute kanpoan eta merezi zuen finalean sartzea. *Mantxi* ere bikain aritu da. Alaia Martini ezer gutxi falta izan zaio. Jokin Urangak tinko egin du bidea... Kasualitatez edo ez ordea, zortzi izen geneuzkan eta ziurtasun bat neukan. Zortzi testugile bikain elkartu zirelako, ez neukan dudarik final ona irtengo zela. Halaxe adierazi nien beraiei ere alde zurretik, lasai zitezten. Ez nenkien zer zetorren baina zerbait ona zetorrela bai. Argudiatze gaitasuna, teman elkarri erantzutekoa, norbere unibertso partikularrak sortzekoa, bakarka istorio bat eraiki eta publikoari helaraztekoa... miresgarri zaizkit. Baina hitz bakarrera ekarri behar banu zerk harritu eta txunditu ninduen gehien, hitz hori “mimoa” litzateke. Hitzarekiko mimoa testuaren oinarri ezinbesteko.

Betelana ederlan bihurtzea zer zen aspaldi aipatu zuen Joxerra Garziak, eta uste dut alde horretatik bat-bateko inprobisazioa gailurrak harrapatzen ari dela. Ezerk ez du berdin. Eta hori da ederra. Bihurritu gabe esaldia gaiztotzea zaila da, baina lortzen denean horrexek sortzen dio bertsolariari *poxa* eta entzuleari asebeta. Goizean goizetik eta beste edozer arruntagoa esan zezakeen lekuan Amets “sendatu eta sendoa” esaten entzun nuelarik, banekien bere buruari buelta bat gehiago eskatzen ari zitzaiola. Esaldia ezpaltzen saiatzen dira bertsolariak orain sekula baino gehiago. Bukaerara iristeko bidezidorrak hautatzen dituzte autopista joan errazekoan lekuan. Eta gainera bakoitzak bere erara. Horrek eragin zuen nagusiki nire gozamina eta miresmena. Umorerik ez zela esan dutenei, esango nieke nahiago dudala bertso batean, ari zela eta aurrez pentsatu gabe Maialenek maleziaz bota zuen “*Sube-jana*” hura entzun, ustez umorezkoak diren telebistako programa osoak ikusi baino. Eta bertigoa zer den sentitu nahi duena berriz, jar dadila Igorren lekuan eta “Izarren hautsa” doinuan eta senti dezala zer den esaldia goitik behera korapilatuta ekartze hori, bidean mila oztopo direla.

Ikasi nahiak hartu zidan gaina eta baretu zizkidan emozioak, BECeko finalean. Banekien lagunak maite nituela baina ez nekiena zen hainbeste miresten nituenik. Bestalde, palkoan egon nintzen eta begi-belarriak adi eduki nituen ingurukora ere. Han, iruditu zitzaidan, politikari, goi mailako teknikari eta gainerako gonbidatuen emozioa handia zela. Handia eta ez batere gezurretakoa. Orain, hilabete daramat

emozio egiazko hori bertsolaritzaren etorkizunerako proiektuetan elkarlan nola bihur daitekeen pentsatzen.

Alderdi makurrak eta xeheago eta denboraz aztertzeko alderdiak ere eskaini zizkigun finalak. Saioaren iraupenarena esaterako. Goizekoa egoki zatekeena baino ordu erdi gehiago luzatu zen. Arratsaldekoa azkartxo ez ote zen joan izan nuen irudipena. Akaso, finalaren egitura beraren egokitasun-desegokitasunari ere egosaldi bat eman beharko zaio. Nik behintzat beste ehun bat urte pasatuko nituzkeen gustura arratsaldeko Mendiluze hura entzunez. Atzeko pantaila handiarena ere berriz pentsatzekoa iruditzen zait. Aurpegiera eta imintzioak hain argi ikusteak ez dakit ez duen gehitxo baldintzatzen publikoak bertsolariei eta euren lanari buruz daukaten pertzepzioa. Maialenen altzoari buruzko bederatziko hura ez dago sortzerik erdimin handirik gabe. Pantailak ordea erdimina min bikoitz bihurtzen du eta nire ustez min-erdi balitz hobe litzateke emaitzaren gozamenerako. Alegia, bertso entzulerik onenak entzumen oneko miopeak garela. Pentsatzekoa da baita ere, bakarkako gaiek hain zabalak behar duten, bertsolariek denbora gehiago ematen baitute zeri heldu erabakitzen bertsoak pentsatzen baino. Denboraz eta denborarekin pentsatzeko kontuak dira horiek ordea. Bego oraingoz lekukotza hau bere horretan, uste adina bai, baina ez uste bezala emozionatu zen honen hitzetan.

Andoni Egaña Makazaga

BEC: Performance emozionala

PIO PEREZ ALDASORO

EHUKO FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA

2013-12-18

Joserra Garziak zioen artikuluko batean (2008) bertsoa zela euskaldunek erabili izan dugun komunikabiderik nagusiena lurrean gaudenez geroztik. Horrela esanda, baten batek pentsa dezake ahoberokeria zela, baina idazketa-irakurketa prozesua (gaur egun ulertzen dugun bezala: unibertsala eta demokratikoa) duela gutxikoa da. Hau da, gutxiengo alfabetatuak erdarara jotzen zuen bitartean (Eizagirre 2007) herri xeheak (gehiengoak) erabiltzen zituen ahozkotasanak eskaintzen zizkien baliabideak. Beraz, pentsa daiteke bertsolaritza erkidego eta euskal kulturaren erreferente esanguratsua izan dela, uste baino sakonagoa. Gaur egungo bertsolaritzak ezinbesteko lotura du *performance*ekin eta jendaurreko ikuskizunarekin; beraz, berekin dakar jendaurreko interpretazioa.

Azken finean, Jexux Larrañagari hartutako kontzeptualizazioa (2013) erabiliz txapelketa euskal kulturaren Agora bilakatu da. Agoran erritualizatzen da performancea. Ekintza performatiboa, kasu honetan bertsolaritza, diskurtso-praktika da, zeren hizkuntza-ekintza bilakatzen baita. Bizkaia Arenan bizitako espektakulua esperientzia partekatua da, jendaurrean interpretatu eta aurkezten dena eta horrek ondorio batzuk sortzen ditu. Hau da, performance horrek hainbat errealitate sortzen ditu, hitza haragitu eta lurraldean txertatzen du hizkuntza (Del Valle 2013).

Ezin ukatu, Txapelketa Nagusiak baduela beste edozein bertso-saiok ez duena: erritua da. Izan ere, errepikatzen den interpretazioa da (Butler 1993). Halaber, Txapelketa elkargunea da, euskaldun guztien unea, euskal espazioa eta euskal denbora. Nabarmenezkoak dira, gainera, Txapelketa Nagusiak berarekin batera daraman indar oroiterazlea edo emozio beroak sortzeko duen gaitasuna edo gogorazteko edota esangura sinbolikoa sortzeko. Izan ere, Euskal Agorak hitzaren eraginkortasun traumaturgikoan sinesten du; hau da, hitzek, ozenki esandako hitzek, munduaren gainean, edo geure buruaren gainean, eragiten dute.

Aipatu bezala, 2013ko BECekoak errealitate berriak sortu ditu. Elizondoko lehenengo lore-jokoetan “euskaldunen gauzarik maiteena” gaia jarri zuten eta harrez geroztik

sortutako mugimendu eta olatu apologetikoak bezala, oraingoan beste olatu eta haizeak jaioko dira. Euskal kultur komunitateak 2013ko Txapelketaren bidez ez ditu bakarrik sinesmen, balio eta sostenguak indartu. BEC-eko zortzi bertsolariek ez dute bakarrik kantatu euskaldunen begi aurrean gertatukoa, ez dute bakarrik kantatu entzuleen belarriak gozatuko zituztenak. Barakaldoko aretoan zalantzak, kritikak, beldurra eta enpatia inoiz baino garbiago agertu dira oraingoan. Badirudi Euskal gizartea aldatzen ari dela eta, prozesu horretan, bertsolaritzak urrats bat aurrera egin duela.

Horrenbestez, Txapelketa hizkuntza-ekintza bilakatu da, esperientzia partekatua. Zortzi finalistek jarritako gaiak jendarean interpretatu eta aurkeztu dute eta honek ondorio batzuk sortu ditu. 2013ko Txapelketa Nagusia performance da, baina performance emozionala (Belli 2010) deituko nioke. Bertsolaritza kulturaren molde adierazkorra da, mundu emozionalaren bitartez bizipenak sortzen dituen (Hernandez 2011). Nola azaldu bestela publikoaren begietan ikusi ziren loreak, edo entzuleen bizkar-muinetatik arinka igotzen ziren hotzikarak, edo entzuleen bihotz urratuak edota denon irribarreak amaieran? Nola azal daiteke bestela saioa bukatu ondoren, harmailetako eskailerak jaisten ari nintzela, ezezagun bati entzun niona. Hark errepikatu zuen Iturriaga goizeko agurrean bota zuena, saioko emozio osoa laburbildu nahian: **hauxe bai hiltzeko egun ederra!**

Pio Perez Aldasoro

Bibliografia

- BELLI, S. (2010) “La performance emocional de la ubicuidad” in *Comunicación y Hombre, Revista Interdisciplinar de Ciencias de la Educación y Humanidades*, 7.
- BUTLER, J. (2004). *Lenguaje, poder e identidad*, Madrid: Síntesis.
- DEL VALLE, T (2013) Hitzaren eta hizkuntzaren gaitasuna lekuak sortzeko 1. 2013ko abenduaren 16a hartua <http://www.bertsozale.com/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia-2013/albisteak/> tik
- EIZAGIRRE, Ana (2007) *Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- GARZIA, J. R. (2008) “Baina bihotzak dio...” in *Bertsolari* 70 (24-59)
- HERNANDEZ, J. M. (2011) “Palabras que emocionan” FAEE Estatu Espainoleko Antropologia Elkarteen XII. Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, argitaratu gabea. Egileak emana.
- LARRAÑAGA, J. (2013) *Jolas Sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolarien arrazoi sortailea XXI mendeko agoran*, Bilbo: EHU . <http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/8748LarraagaEU.pdf>

Suarekin jolasa: Txapelketaren balioa kulturean

JEXUX LARRAÑAGA ARRIOLA

ANTROPOLOGIAN DOKTOREA

2013-12-03

Txapelketaren dohaina da gizarteratzen duen lehia, aldi beran, komunitatearen “jolas kulturala” bihurtzen duela. Jolasak bada, eredu kultural bat erakusten digu eremu estetiko baten baitan. Jolasten duen giza taldeak, bizitzaz eta munduaz interpretazio bat erakusten duen heinean, ikuskera bat, garabide soziala, mundu-era bat... azalera ari da.

Funtsean, txapelketaren borroka konpetitibo hori, kulturaren eremu errepresentazionalan gauzatzen ari da. Alajaina, jolasak duen dohainetako bat, lorratza utzi duen egoera bat errepikatze duen joera datza, birsortze duen aukeran. Hara nola, behin jolasa burutu ondoren, izan duen eginkizuna edo funtzioa oroimen kolektibora igaroko da altxor gisara gordetze duen aurrerago tradizioak beste behin birsortu ahal izateko. Geroratzeko prozedura hori izango da jolasaren birsorkuntza bermatuko duena. Kolektiboarentzat bete duen funtzioa birsortze duen aukeran datza. Ildo horretan, jolas kulturala, “zerbaiten” aldeko garabidea edo “zerbaiten” aldeko errepresentazioa bihurtzen zaigu (Huizinga, 1972). Jolas kulturala, jai giroan, poztasunez eta askatasunez, burutzen den jardura ludikoa bihurtzen da. Komunitatea garatzen doan heinean, jolasak, bere sakonerantz bultzatzen du, jolas egoeraren errepikapena beharrezkoa bihurtu artean komunitatearen ongizatean. Jolas kulturalaren (jolas sinbolikoa) eremu ekoizlea da. Sorkuntza kulturalaren norabidean bultzatzen du.

Behinola, zer da txapelketaren gertaerak jokoan jartzen duen komunitate baten beharizanetan? Txapelketaren paradoxa da, benetako joko izanik ere, bestea beti gaitzitzen du edo beti lehena izatea ez dela benetan garrantzitsuena jolas honetan. Nola uler liteke bestela, azken txapelketan, Andoni Egaña txapelaren ohiak nahiz eta irabazteko ahalegin bete egin zuen nahiago izatea txapela galtzea? Eta hori benetan hala sentitzen da? Alajaina, txapelketa jokoen azaletik harago, kulturaren eremu malguagoan uler litekeen jarrera izan zela berea erakusten du horrek. Kulturaren eremu errepresentazionalan kokatzen gaitu. Hortaz, jarrera hori ulertzeko, talde kulturalaren motibazio antropologikoan datza gakoa. Ikus dezagun.

Txapeldunaren motibazio kulturalak, txapelaren balioa oholtzan irabaztera behartu zuen lehiakidea. Jarrera kultural horren ondorioan, Lujanbiok bereganatu zuen txapelak, Egañaren buruan metatutako baliotik bereganatu zuen, alegia, prenda sinboliko horrek kulturaren betetako funtzioaren kontzientzia osoa zuen. Txapelaren gainkarga sinboliko horrek, txapelaren eta txapeldunaren jabego kulturala, egiletza kolektiboaren ardatzean kokatzen ari direla erakusten digu. Txapelketaren sistema sinboliko osoa, interpretazio kulturalaren lurra bihurtzen zaigu. Txapelketaren funtzioa bada, ekosistema kultural zabalagoaren ardatzean enbor eginda aurkitzen dugu.

Bidenabar, egungo txapelaren kontzientzia kolektiboa, “nor izan” kulturalaren eremu errepresentazionala dela erakusten digu. Hortaz, txapelketak kulturaren betetzen duen funtzioa, erritual komunitarioaren gainkarga sinbolikoan irakurri beharko dugu, hots: txapelketa, kultur ekoizpenaren tresna instrumentala bihurtzen da.

Bestalde, jakinekoea da txapelketaren arkeologia erritualak izaera agonala duela. Azken buruz burukora iritsi bitartean, “in crescendo” joango den tentsio ibilbidea da. *Agon* eratzailean jokatzeko ari den lehiakideak beraz, bere onena eman lezake joko horretan nahiz eta funtsean jolasean baino ez dela ari jakin badakien. Hori izan da txapeldunaren kontzientzia, hots: txapelak bereganatu duen talde kontzientzia. Hortaz, nor izango da 2013ko txapeldun berria? Zein da egungo prenda sinbolikoaren balioaren neurria? Non dago irabazi/ galtzearen neurri kulturala? Erritualaren amaierak erakusten diguna da, jokoan lortutako emaitza gizabanakoarengandik taldera igarotzen dela. Jokoaren egitura tentsionala amaitu eta gero, jolasaren onura kolektiboa bihurtzen da, joko/jolasaren eremu trantsizionala da. Txapeldunak bereganatuko duen prenda sinbolikoak, ohorea eta komunitate aitortza adieraziko dute.

Batetik, txapelaren alderdi ludikoa dago eta bestetik barnebiltzen duen alderdi sakrifiziala. Txapelaren ezaugarri bikoitien, mamizkoena eta jolasgarriena, biak elkarbiltzen dira erritualaren amaieran. Txapelak barnebiltzen duen gainkarga sinbolikoan, metatu duen talde kontzientzia dago. Argi dago honezkero, jokoan irabazitakoa ez dela izango jokoaren emaitza literala bakar bakarrik. Txapelari, balio sinbolikoa gainezartzen zaio eta berau jolas kulturalaren eremu malguagoan ulergarriago zaigu kulturaren. Hori da erritual komunitarioaren funtzioa, hizkuntza muinetik birsortzen diharduen zentzu jariora berreskuratzea, hitzetan bakarrik esan

ezinekoa den mundua irudikatu eta geroratzea. Errituala, ekosistema kulturala berrelikatzen baliagarria zaigu, txapelketaren dohain sinbolikoa da.

Alajaina, txapelketaren dohain sinbolikoa lur bati lotuta sortzen da. Bertsoa, hizkuntza bati darion sorkuntza den neurrian, giza harremana ehundu eta ekoizten betetzen du funtzioa kulturean. Hitzaren norabide hori galdu ezker, (taupada komunitarioaren norabide baldintza) txapelketak egun duen zentzu sortzailea eta kolektiboa galdu egingo luke. Txapelketa, lehia hutsera murriztuz gero, masa kulturearen balioetara lerraturiko ikuskizun hutsala bihurturik geldituko litzateke. Txapelketa, epe luzeko egitasmo komunitarioan sustraitua izan denez, komunitatearen ekoizpena du amets. Egungo txapelketa ekosistema kulturearen *sinbolo giltzarria* da. Izaera kulturearen ardatzean enbor eginda dago. Kultur ekoizlearen beregaintasuna aitortu behar zaio. Bere birsorkuntzaren arrazoia, kulturean betetzen duen funtzioarekin lotuta dago. Txapelketaren *funtzioa*, mundu errepresentazionalaren narratiba kulturala berrelikatzean datza, afektu-fluxu bat birsortu eta jariatzean, sentiera bat geroratzean, eta azken buruan, “zentzu-lur” baten taupada komunitarioa ikusgarriago bihurtzean. Jolasaren onura bada, lortutako emaitza kolektiboan datza. Eta hori jolasaren kontzientzia baino ez da. Onuraren alderdi pragmatikoak erakusten diguna da praxia kulturearen garrantzia aritzean datzala. Bertsoak, komunitate ehuna sortzen eta ekoizten betetzen du bere funtzioa kulturean, hizkuntzaren balioa, balio egituratzailea dela komunitate ekoizpenean frogatzen du. Kontzientzia eraikitzaileak, erabakimen gaitasuna norbere esku jartzen du: izan nahi duena eraikitzeko aukera. Eta kontzientzia transzendenteak, jolas kulturearen baldintza lehena ebazten laguntzen digu.

Alajaina, egungo txapelketa, giza harremanaren bereizgarritasun baten balio oihartzunean birsortzen da kultura bideetara. Sua bada oinarria, su horren bueltan dantzari dabilen herriaren baldintza lehena da. Bertsoak hala, su gorria denean bakarrik egiten dio on zapaltzen duen herri baten bizinahiari. Txapelketaren irakurketa antropologikoak erakusten diguna da, egungo txapelketaren balioa, kulturean kokatu beharrekoa dela. Euskal Agoraren bilguneak aldiro birsortzen duen balio kulturearen froga da.

Jexux Larrañaga Arriola

EGOERAK BESTE ALDERA ERAMAN GAITU: 2013KO TXAPELKETAREN IKUSPEGI KATALUNIARRA

ANAÍS FALCÓ IBAÑEZ. MUSIKOLOGOA ETA KORRANDISTA

CHRISTIAN SIMELIO SOLA. KORRANDISTA

2014-01-10

Errezitatzaile gozo bakar baten balantzak hipnotizaturik; hain antzeko eta gisa berean hain desberdina den kultura baten esanean eta izanean kontzentraturik; ahots hark eta aurikularrean jasotako bere itzulpenak transmititutako mezu eta istorio dramatikoek hunkiturik; sinple den guztiaren gehiegizko dimentsioarengatik txundituta. Horrela, eta modu gehiagotara ere, pasatu genuen Txapelketaren finaleko eguna, Barakaldoko BECen.

Estadio batera gertakizun batean parte hartzera goazenean, edozer gauza espero dugu: hasi publiko arteko olatu besarkadadunetik, taldeek kantatu esloganekin segi, eta ateraldi jendetsu ikusgarriak arteraino. Hala ere, gure soa fokalizatzea giza begiaren gaitasuna handitzen duten pantailak dituen eszenatoki batean gaur egun ez da hain harrigarria, jende kopuru ikaragarria izanagatik.

Masa espektakulu deialdietan, artista – hasiera hartan rock kantaria – espazio erraldoiaren parte txiki batean kokatzen da. Ohitu gara egoera horretara eta jadanik ez zaigu arrotz aurkezpen hori. Hala ere, Txapelketaren finalean norbanakoa eta publikoaren arteko kontraste horrek gehiago harritu gintuen, espazio erraldoian bertsotan aritzeak berak baino. Barakaldoko BECa bere aldarean sinbolizazioak eskaintzen dituen katedral biluzi bat da. Bertsolaria berriz, isiltasunaren, norbanakoaren bereizketa fisikoaren eta estetika soilaren artean sakralizatutako ahotsa da. Eta publiko erdian gu: bi kataluniar, soinu elektrikoa duen haririk gabeko itzulpen baten bitartez bertsoaren esanahia ulertzen saiatzen, hunkitzen eta zur eta lur geratzen direnak, neurritz kanpoko erritualaren aurrean.

Katalanez ari garen 40 lagun izan ginen Txapelketaren finalean. Bertsozale Elkarteak eta Mintzolak eskaini ziguten abegia eta itzulpen zerbitzuari esker jarraitu ahal izan genuen finala. Itzulitako bertsoak entzun eta baloratzetik sor zekigukeen pertzepzioa eta euskaldunek eduki zezaketena bi gauza dira. Hitz joko asko, errima gaitzak, metrikaren zorroztasuna eta abarrak ez genituen baloratu. Batzuetan gainera,

erreferentzia kulturalak falta zitzaizkigun. Dena den, gaiaren eta ariketen arteko harremana, publikoaren erreakzioa – batzuetan guk sentitu genuenarekin alderatuz desproporzionatua – eta bertsolaria zuzenean entzutea erakargarria, interesgarria eta zirraragarria zitzaigun. Pasadizo harrigarriak bada, emaitzarena esaterako: beste parametroen arabera pertzepzioa genuenez, gure balorazioa epaileen balorazio moduaren ia alderantzizkoa baitzen.

Katalanez inprobisatutako kantuan, ez dugu Txapelketa Nagusiaren antzeko formaturik. Inprobisatzea mendetako tradizioa den eskualdeko inprobisatzaileen artean bazen hein batean norgehiagoka naturalik. Horiek imitatzeari esker, azken urteotan Kataluniako printzerrian kantu inprobisatua berpizten eta sendotzen ari da. Sendotzeko bide horretan sortu da norgehiagoka antolatua; gero eta gehiago dira ekimen ezberdinei esker antolatzen diren lehiaketak. Guziarekin ere, kantu inprobisatuaren topaketa batzuk besterik ez dira; emaitzek ez dute transzendentzia handirik, eta gizarte mailan berariazko interesa duen komunitatetik harago oihartzuna eskasa da. Hori dela medio, Txapelketa Nagusia ekimen bakana zaigu iruditzen, miresmena eragiten diguna.

Kantu inprobisatuaren eredu profesionalaren indarraren parekorik ez da ezagutzen munduan zehar. Horregatik ikusten dugu prozesu honi hertsiki lotuta funtzionalitate eta estetika aldaketa nabarmen bat, gizarte garaikideari eta hainbat belaunaldiri erakargarri zaiona. Bertsolaritzaren eraldaketa prozesua ezagutu ez dugunoi, harrigarri zaigu bertsolaritzak duen estetika biluzi eta indibidualista. Arteen historian izan diren beste prozesuen antzik ez zaio falta horretan: traba egiten duen guziaren bazterketa, bertsoaren pertzepzio soilaren mesedetan. Horrela uler genitzake hainbat ezaugarri: apaindura gutxiko eszenografia, bertsotan ari denaren mikrofonoaren eta zain daudenen arteko urruntasuna, kantatzen ari deneko publiko guztiaren isiltasuna eta kantari ari den protagonistaren ezpainak besterik nabarmentzen dituen pantaila. Protagonista hori imintzio eta espresio libreko pertsonaia da, berak kantatutako hitzetatik harago. Arte absolutu baten nahiaren demostrazio bat da; ekintza bera traba dezakeen edozein elementutik libre.

Beste ezaugarri estetikoa da gai dramatikoaren portzentaje altua, umorezkoen aldean. Herri Kataluniarretan gehien-gehienetan baliatzen dugu umorea, satira eta ironia tradiziozko egoeretan zein modernoetan. Hala ere, badugu goratzarrerako eta

aldarrikapen politikorako joera. Eta inoiz gerta daiteke gai tristeren bat. Sexua eta edate kontua dira gehien erabiltzen ditugun gaiak gaur egungo saioetan. Baina gero eta gutxiago baloratzen dira, umore landuago baten mesedetan, nahiz gaiak bertsuak izan. Txapelketa Nagusiaren finalean ordea, dela ariketarengatik, dela bertsolariaren ateraldiarengatik, dramatikotasunari heltzen zitzaion, ez gutxitan, batzuetan itxurakeria sentsazionalistara iristeraino. Beharbada kezkatzen eta eragiten duten gai sozialekin publikoa erakartzeko nahi – seguru aski inplizitua - horrengatik izango da hori horrela. Baina izan daiteke, telesailek egiten duten antzera, morbo puntu batengatik ere.

Txapelketaren finalean egotearen emaitza dira gogoeta hauek. Ez hori bakarrik, ordea. Beharbada tamainarengatik, ekimen mota honekin nora arte irits gaitezkeen ispiatzearengatik, edo seguru aski kantatutako bertsoengatik, emozio azkarrez betetako eguna bizi izan genuen. Norbanako eta talde sentimenduez bete ginen, eta ahizpa zaigun kultura hau ulertzeko gako. Hori guzia besta tentsioz kargatutako esperientzia batean.

Esker onez beterik itzuli ginen etxera, euskaraz kantari ari zen ahots dardarati bat genuela buruan, harreman hau egun horretan bertan bukatuko ez zela zioskuna. Kantu inprobisatuaren esperientzia hain profesionalak ez diren esperientzien defendatzaile gara gu; jendearekin, tabernetan, familia bestetan eta norgehiagokarik gabe bertsoak inprobisatzen aritu zaleak. Baina horiek ere ez dira antzinako ereduak, komunitate bakoitzaren barnean bai baitzen trebatutako jendea. Jendeak mekanismoak ezagutu zitzakeen, baina ez zuen ahots publiko eta ordezkaria erabiltzen, *glosadoreek*, *korrandistek* edo *bertsadoreek* egin duten bezala. Agian, hitz eta errimekin jostatzen hasita, Euskal Herrian erakusten ari diren profesionalizazio ereduak, bide posible bat gehiago da kantu inprobisatuaren goranzko praktika baterako. Ohartu gara Txapelketa ez dela norgehiagoka hutsa; mugimendu kultural bat da, gizarteari asko dakarkiona eta normalizazio linguistikoaren aldeko tresna eraginkorra oso.

Anaís Falcó Ibañez
Christian Simelio Sola

Txapelketa Nagusia: imago, doinua eta hizkuntza

PERE BESCÓS PRAT

POMPEU FABRA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

2014-01-17

Bertsolaritzaren munduko kanpoko ikertzaile naizenez gero, ez ditut Txapelketaren antolaketa kontuak aztertuko. Ezingo nuke inondik ere oinarritzko iritzirik eman, ez nintzateke ausartuko ere. Gisa bera, ezingo nuke lehiaren eboluzio historikoari buruzko iritzirik eman, oraingoa izan baita bertan egon naizen lehen aldia. Sorkuntza poetikoa da nire ikerketa alorra. Beraz, bertsolaritza bezalako tradizio bat aztertzeko interesgarriak begitantzen zaizkidan zenbait alderdi nabarmenduko ditut.

Nabarmena da finaleko jendearen emana; 15.000 pertsona inguru. Liluratu nauen kontu bat da hainbeste jenderen aurrean bertsolaritza ezaugarritzen duten alderdiei eusteko bertsolariak duen gaitasuna ikustea. Jendetza hori Pisístratoren garaian Panateneasetako Atenasko festibaletakoarekin da soilik alderagarri: Platoni (oker) egotzitako dialogo baten, *Hiparco*-aren, lekukotasunaren arabera, Atenasen 17.000 pertsona elkartzeraino iritsi ziren poesia homerotarraren inprobisazio emanaldietan. Txapelketak, eta oro har bertsolaritzak duen alderdirik garrantzizkoena hauxe da: ahozko poesia inprobisatuak gizakiaren alderdi kultural eta soziala ikertzeko aukera ematen duela, saioen audientzia dena delakoa izanik ere. Giza sormena, gizakiak hizkuntzarekin zein musikarekin duen harremana aztertzeko bide ematen du bertsolaritzak. Sormena, hizkuntza eta doinua dira bertsolaritzaren oinarria, eta bide batez Txapelketarena.

Jakina denez, bertsolaritzaren sormena egitura erretorikoek eragina (eta mugatua) da. Ahozko komunikazioan ez bezala, bertso kantatuan doinua, errima edo erritmoa bezalako alderdi erretorikoek funtzio zinez inportantea dute komunikazioan.

Hautatutako hitzek, hein batean beraien formagatik bereiziak izan direnak, duten formarengatik eta hautatutako melodiarengatik sortarazten dira esanahi eta irudi jakinak, ohiko hizkeran ez bezala, preseski. Hori dela medio, esan daiteke bertsoaren behin betiko zentzuari gehitzen zaiola irudi berri bat, musikala eta formala. Horrek azaltzen du euskaldunak ez garenontzako ere bertsoak duen gaitasun komunikatiboa.

Ez da kasualitatea beraz, irudi hori bere osotasunean komunikatzeko modurik hoberena bertsoa bera izatea.

Tradizioa, hizkuntza eta doinua kanpo osagaiak dira denak. Zergatik ez hartu kontutan bertsolaritzan sorkuntzarako lagungarri diren beste osagai batzuk ere gizakiarekiko, bertsolariarekiko kasu honetan, exogeno gisa?

Ez da sinplifikatzea nire xedea. Aitzitik, nire buruari galdetzen ari nintzaion, euskararen ezagutzarik gabe, baina musika eta sentsibiltate artistikoen jabe izanik, ea posible izango litzatekeen bertso baten kalitateaz jabetzea. Probazko ariketa bat izango litzateke. Esate baterako, euskararen eta Txapelketa Nagusiaren abenduaren 15eko emaitzaren ezagutzarik ez duen epaile talde bat biltzea, eta finalean kantatu bertsoak puntuatzea. Ondoren, emaitza erkatu egin beharko litzateke benetako epaile taldearenekin, bi puntuazioen arteko aldeaz ohartzeko. Egia da errima, esaterako, entzungarria eta ohargarria dela edozein hizkuntzatan. Baina zer gertatzen da tinbrearekin, ahotsaren tonua, bolumena, imintzio (edo haren falta), audientzia edo bertsolariarengandik sumatutako erosotasunarekin?

Nora iritsi nahi dudana? Nabarmendu nahi dudana da, ahozko tradizio baten ikerketan funtsezkoa iruditzen zaidala kontutan hartzea ekintza komunikatzailearen alderdi fisikoak ere, testualak ez ezik. Doinuak bertsolaria baldintzatzen du, topiko ezaguna baita doinurik gabe ezingo litzatekeela inprobisatu. Eta arestian aipatutako bigarren mailako alderdiak ere hain inportanteak balira? Ez dut esanahi Txapelketan puntuagarriak izan beharko luketenik, ahozko tradizioei buruzko ikerketetan kontutan hartu beharko liratekeela baizik.

Artistiko denetik harago, hizkuntza eta sorkuntzaren ekoizpenean zer rol jokatzen du, esate baterako, doinuak? Ze harreman dago bertsolari baten ahotsaren tinbrearen eta bere bertsoaren garrantziaren artean? Esan bezala, ez dut murriztu eta sinplifikatu nahi bertso baten kalitatea alderdi fisikoetara bakarrik. Ez litzateke logikoa izango. Txapelketara bertaratu eta gero, bigarren mailako alderdi horien garrantziari eta ikerkuntzan kontutan hartzeari buruz galdezka ari natzaio nire buruari.

Sorkuntza poetikoan, imitazioaren garrantziari erreparatu zion F.W. Nietzschek, tragedia greziarraren sorrerari buruzko bere liburuan. Imitatzeko trebetasun horri

esker, funtsean islatzailea, soinua sortzeko dugun gaitasunak gure artikulazio gaitasuna[1] akuilatu zuen hain segur. Soinu eta irudien arteko dialogo bat eragin zen (ahozko poesian gertatzen den bezala hain zuzen) eta horrek irudi berriak eragin zituen, kontzeptuak. Dialogo horrek, zeinu zentzudunak sortarazi zituen; giza hizkuntza, hots, doinuaren bilakaera kontzeptuala. Azalpen hori gogoan, beharbada hizkuntzaren eta sorkuntzaren arteko armazoia gure psikearen kanpo ezaugarri gisa baizik ez lirateke aztertu behar, taldeko emaitza gisa, objektu edo erdi exogenoa.

Nietzschek bere buruari galdegiten zion, ia musikak gure gogoan ze nolako irudiak sortarazten dituen. Musika imitazio prozesu horren motor gisa, borondatea gisa irudikatzen dela ondorioztatu zuen. Alemaniarraren arabera, musika eta borondatea gizakiaren kontenplaziozko egoeraren antitesia dira[2]. Musika eta borondatea dira ekintzarekin erlazionatu genezakeena, gure egoera aktiboarekin, hitzarekin eta bere sormen gaitasunarekin. Borondatea – ekintza eta doinua – musika bikoteek gure gogoan irudiak parteka baditzakete, bertsolaritzan sortutako irudiak zein neurritan hizkuntza desberdin bat bezala definitu daitezkeen galde geniezaioke gure buruari.

[1]Ikus *The Birth of Tragedy*, p. 33 y ss.

[2] *Boulé-a* (borondatea) eta poesía homerikoaren sorkuntzaren arteko erlazioari buruzko azterketa bat abian dut.

Pere Bescós Prat

Hitzaren jolasa, zeren eraikuntza?

OLATZ MITXELENA GARMENDIA
KOMUNIKAZIOAN LIZENTZIATUA
2013-12-09

Gorputzetik ahotsera, burutik ahotsera. Gorputzekoa hots bihurtuz, burukoa hots bihurtuz. Egituratu, neurtu, errimak hautatu, eztarria leundu, aurrera begiratu eta plazaratu. Edukia, iritzia, jolasa, umorea; eta eraikuntza? Ba al du bertsolaritzak eraikitzaile ezaugarririk? Hala balitz, zer eraikitzen du?

Batzuetan izan ohi ditugu buruan aurrera eta atzera dabilzkigun susmoak. Nire susmoa, idazgai hau piztu duen txinparta, bertsoen eta identitate sorkuntzaren inguruan dabil jira bueltaka. Bertsoek eta bertsolariek euskal identitate abertzalearen sorkuntzan zer egin edo esatekorik duten ala ez jakin-minean, hain zuzen.

Kanporaketetako eta finalaurrekoetako agurrak, gaiak, gaiaren arabera sortutako bertsoaldiak – aipamen berezia behar dute kartzelako lanek – eta agurrak izan ditut jakin-mina asetzeko jomuga. Hauek dira 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko 6 kanporaketak eta 7 finalaurrekoak ikertuz lortutako emaitzak, hurrenez hurren:

		EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOARI DAGOZKIONAK Aberriari, herriari, Euskal Herriko gatazkari, atxiloketa politikoei, Euskal Herriari ezarritako inposizioei, alderdien arteko borroka ideologikoei, poliziei, agintariei egiten zaizkien kritikei...
GAI PROPOSAMENAK	488	11
BERTSOALDIAK (kartzelako lanik gabe)	475	28
KARTZELAKO LANAK	78	9
AGURRAK	156	43

Gaien nondik norakoa

6 kanporaketa eta 7 finalaurrekoetan denera 488 gai plazaratu ditu gai-jartzaile taldeak. Gai horietatik 11 izan dira Euskal Herriaren egoera politikoarekin zer ikusia dutenak. Hemen horietako batzuk: “Lurralde Elkargoaren aldeko manifestazioa dela eta, bukaera ekitaldiko oholtza muntatzen ari zarete” (Azaroak 30, Maule-Lextarre), “Wertek aldatu nahi du hezkuntza sistema”, “Gure haurren geroa daukagu jokoan”, “Politikariengan sinetsi ezker” (Urriak 13, Altsasu) eta “Herri-harresian zaudete elkarri besotik helduta. Gaua iritsi da, eta poliziaren sirena-hotsak gero eta ozenago entzuten dituzue” (Urriak 19, Legazpi).

Bertsoaldietan ere gutxi

Gaiak bideratutako bertsoaldietan gaietan baino aipamen gehiago egin bada ere, 475 bertsoaldietatik[1] 28 dira (kartzelako lanik gabe) Euskal Herriko egoera politikoa aipagai izan dutenak. Bereziki aipatzekoa iruditzen zait kartzelako gaietan – hain irekiak izanik – bertsolariek egindako hautua. Denera 78 kartzelako lan entzun ditugu, eta horietatik 9 bertso sortatan izan dute bertsolariek Euskal Herriko egoera politikoa mintzagai.

Gairik gabe, puntuaziorik gabe

Agurretan, ahapaldi batean bada ere, bertsolari askok aipatu du Euskal Herriko egoera politikoa. Denera 156 agur kantatu dituzte eta horietatik 43 bertsotan agertzen dira *Herriraren* aurkako polizia operazioa eta Bilboko manifestazioa, *Parot doktrinaren* indargabetzea, Wert legearen gorabeherak, Yolanda Barcinari tarta jaurtitzea, Sevillako gose greba... besteak beste.

Aipamen urriaren susmoa

Aurtengo kanporaketa eta finalaurrekoetan Euskal Herriko egoera politikoari, eta euskal identitate abertzalearen eraikuntzari erreferentzia gutxi egin diote bertsolariek euren bertsoetan. Nire ustez, gai-jartzaile taldea eta taldearen mundu ikuskera, bertsolariaren beraren hautua eta testuingurua edo bizi dugun errealitatea dira aldaketaren hauspoa.

Gaietan berauetan ez da ia-ia aipamenik egin Euskal Herriko egoera politikoaren inguruan, eta gai sozialak, egunerokotasunean bizi ditugun kezketatik sortutakoak, gailendu dira beste edozeren gainetik. Gaietan ere ikusi dugu kontzeptuen adieren

aldaketa; esaterako, *preso* kontzeptua erabili izan den bertsoaldietan preso politiko adiera ulertarazi da 2001, 2005 eta 2009ko finaletan kantatutako bertsoetan. Aurten, ordea, gai konkretu batean preso sozialei buruz jardun dute: “Ziega berean dauden bi preso sozial dira Jokin eta Amets. Jokinek ez du bisitarik jaso kartzelan denetik. Ametsek berriz astero jasotzen du bisitaren bat. Gaur ere badator bisitatik bueltan” (Azaroak 23, Elizondo).

Bestalde, kartzelako gaiak oso irekiak izan ditugu finala arteko saioetan, eta bertsolari gutxik jo du herri honetako egoera politikoaren haritik. Nik uste dut garrantzitsua dela bertsolariek gai berriak aukeratu nahi izatea, ikuspuntu berriak jorratzea, talaia altuenera igo eta munduaren bazter guztiak ikusteko eta kantatzeko aukera onartzea, eta areago kantu gaiiei freskotasuna ematea.


Bertsolariek darabiltzaten kontzeptuen artean *Agintariei kritika* deitu diodanari egin nahi diot aipamena. Kritika hori ez da herri euskaldun sufrituaren abiapuntuan kokatzen. Aitzitik, gaiek bideratutako bertsoaldietan agintariak egun norbanakoak bizi duen egoera sozialaren erantzule direla kritikatu da. Agintari horiek dira krisiaren erantzule, lan eskasiaren sortzaile, eta dagoeneko ez dira gehiegi agertzen Euskal Herriak herri abertzale gisara bizi duen minaren eta sufrimenduaren arduradun bezala.

Giza aldagai horien guztien oinarrian dugu testuingurua, bizi dugun errealitate eta egoera. ETaren armen uzteak, presoak askatzeak, lanari eutsi edo langabezian geratzeak, hipoteka ezin ordaintzeak, genero indarkeriaren trataerak, populuaren zahartzeak... aldatu egin dituzte herritarren bizimodua eta kezak. Azken finean, aberria esnaeran dugun hamabosgarren kezka da, nahiz eta orain artean Bertsolari Txapelketa Nagusietako finaletan buruan dugun lehena hori dela iruditu.

Lortutako emaitzekin, eta batez ere agurretan ikusitakoarekin, iruditzen zait bertsolariek laguntzen dutela euskal identitate abertzalea eratzen. Dena den, eraketa hori ez da euren lehenengo hautua, ez eta erabiliena ere. Badaude gai gehiago, jomuga gehiago. Eta jomuga horiek dira kanporaketa eta finalaurreko hauetan ikusi ditugunak.

BECen ikusiko dugu kanporaketa eta finalaurrekoetan agertutakoak nolakoa duen bukaera, zein duen joera. Hitz jolastuak mila aterabide baititu, mila modu, esanahi, errima, zentzu...

Olatz Mitxelena Garmendia



ERANSKINAK

BERTSO DOINU BERRIAK TXAPELKETAN

HARROTASUNIK BADA

[Composer]

Ha - - - ro - ta - su - nik ha - da

3
ja - - - - - re - ra xu - mo - an

5
ba - - - - - te - re ko - a e - - - zar

7
de - - - - - za - gun gu - ne - an

9
e - - - - - ta min - tza - ni - ko da

11
ber - - - - - din - ta - su - ne - an

13
hi - - - - - tza li - bre - ki har - tzen

du - - - en e - gu - ne - an.

U - - - ne an- u ne- an

e - - - tor - ki - zu - ne - an

zai - - - la bai - ta sen - ti - tzen

as - - - kü - in - su - ne - an

zu - - - re e - txe - a zein - - - den

ez da - ki - zu - ne - an

1.- Harrotasunik bada.

Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 8 puntuz. Odei Barrosok berak moldatutako doinua da, Mikel Laboaren *Lanikan ezin egin* kantuan oinarrituta. 2013ko Txapelketa Nagusiaren lehen saioan (Villabona) kantatu du jendaurrean lehen aldiz, baina aurretik *Argia* aldizkarian argitaratu zuen bertso sorta bat *Ihesaldiaren arnasa* izenarekin, eta sorta hartako lehen bertsoak ematen dio doinuari izena. Kontakizunezko doinua, tonu minorrean, erritmoz 7/6 eta egituraz A-B-C-D.

BIZKORRA EZ NAIZ BAINA BADAUKAT

[Composer]



22 e - ta e - zin det kon - tro - la
 25 ez det o - nar tzen i - no la
 28 nahiz me - di - ku - ak nei ez hi - tze - gin
 31 e - ta zuk buel - tae - man ho - la
 34 e - san a - men e - der - ki da - ki
 37 oi so gai - xo - rik na - go - la

2.- Bizkorra ez naiz baina badaukat.

Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz. Imanol Kamio musikari pasaitarrak berriaz sortua Unai Agirrerentzat, eta honek 2013ko Txapelketa Nagusian plazaratu du, Altsasun. Kontakizunezko doinua da, tonu minorrean, erritmoz 5/5/5/3 eta egituraz A-B-C-D. Imanol Kamiok berak bidali digu partitura.

3.- Oso polita zara izatez.

Hamabiko handia. Joxan Goikoetxea musikari hernaniarrak *Azken bidaia (The last passage)* pelikularako sorturiko melodia batean du sorburua doinu honek. Hain zuzen ere, doinu honi *Florentino* izenburua eman zion Joxanek, Florentino Goikoetxea mugalariaren oroimenez sortu baitzuen. Florentino osaba txikia zuen, aitonaren anaia, Hernaniko Altzueta baserrian jaioa. A. Arzallusek 2013ko Txapelketa Nagusian erabili du jendaurrean lehen aldiz, Gernika-Lumoko finalerdian. Kontakizunezko doinua, tonu maiorrean, erritmoz 10/8/10/8 eta egituraz A-B-C-D. Joxan Goikoetxeak berak helarazi digu partitura.

Oso polita zara izatez

Musika: Joxan Goikoetxea
Hitzak: Amets Arzallus

O - so po - li - ta - za - ra i - zu - tez ni neu ez maiz i - tsu - si - a

9 ha - mar ur - te - an es - ku - txo ho - nek zer di - gun e - ra - ku - si - a!

17 Zu - re bu - la - rrak zu - re be - so - ak ta ne - re in - dar gu - txi - a

25 zeu za - ra ne - re e - ra - kar - me - na ta zeu ne - re na - gu - si - a.

33 O - rain laz - tan bat o - rain — kei - nū bat e - ta ge - ro i - gur - tzi - a

41 Bost be - ha - tzo - tan ez da ka - bi - tzen ne - re mai - ta - sun gu - zi - a

49 ne - re mai - ta - sun gu - zi - a.

4.- Lanean hasi eta etxe bat.

Hamaseiko handia. Aitor Sarriegik Aitor Furundarena musikagile ordiziarraren laguntzarekin moldatutako doinua, Xabier Leteren *Lore bat zauri bat* kantua oinarri hartuta. 2013ko Txapelketa Nagusiaren finalerdietako saio batean plazaratu du, Oiartzunen. Kontakizunezko doinua da, tonu minorrean, erritmoz 10/8/10/8 eta egituraz A-B-C-D. Aitor Sarriegik berak bidali digu partitura.

LANEAN HASI ETA ETXE BAT

2.- Lore bat zauri bat

[Composer]

The musical score is written on a single staff in treble clef with a common time signature (C). The tempo is 10/8. The lyrics are in Basque. The score consists of 13 measures, with some measures containing triplets. The lyrics are: La - ne - an ha - si e - ta e - txe bat. e - to - si nu - en lehen bi - zi ber - ta ra jo - atz e - ta ur - te - ak pa - sa - tu kri - si ez kri - si gaz - te ga - rai - an jiri - gu - ru - ko - ek jo. Ai - tor hi bi - zi hauz hi. Bai - na ur - te - ak ai - rre - ra joan - da.

ba - da zen bai a - na li - si.

e - gi - a e - san mu - til zahar - to naiz

bu - da nahi : : koan : re : : i - ti - izi

ne - re e - txe - an na - go ba - ka - rrik

e - ta pen - tsat - tzen naiz ha - si

bi - ko - te - ren bat i - zan nahi nu - en

e - ta ez ba - ka - rrik bi - zi

bi - zi - tzaio - so - an zain e - gon naiz ta

ez da se - ku la i - ri - si.

5.- Jada bi ordu ta piko.

Hamabikoa, berdinareen moldekoa, 7 puntuz.

Antton Valverderen *Hegaztientzat pausarri* kantua baliaturik Igorrek berak moldatu du doinu hau. 2013ko Txapelketa Nagusiaren finalerdietako saio batean plazaratu du, Donostiako Gasca kiroldegian, hain zuzen ere. Kontakizunezko doinua da, tonu maiorrean, erritmoz 8/8/8/8 eta egituraz A-B-C-D.

JADA BI ORDU TA PIKO

[Composer]

Ja - da bi or - du ta pi - ko

bai - na he - men no - a tin - ko

Ja da bi or du ta pi ko

bar - ku - rik sal - to e - gin - da

i - ge - ri mo - a pa - li - to

lu - tre - au bi - ts ez - pio - tzen

i - noiz e - gon be - lau - ni - ko

15 he - so - ci go - gor e - ra - gin

17 pen - tsatut dut neure - ki - ko

19 biam - ke - ra dan - de, txi ki - to

21 e - doi - sas er - tze - ra hel - du

23 la bes - te - lu - ber - tan i - to

25 e - doi - sas er - tze - ra hel - du

27 la bes - te - la ber - tan i - to

6- Norbere mundu intimo.

Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz. Maialen Lujanbiok berak moldatu du doinua, *Elgeta* trikiti doinu herrikoia oinarri hartuta, Iker Goenaga trikitilariaren bertsioa, hain zuzen ere. 2013ko Txapelketa Nagusiaren finalean plazaratu du, goizeko saioan, kartzelako lanean. Kontakizunezko doinua da, tonu minorrean, erritmoz 8/8/8/8 eta egituraz A-B-C-D.

NORBERE MUNDU INTIMO

[Composer]

Nor - be - re mun - du in - ti - mo

nor - be - re - - xua - li - - ta - te

za - bal - du e - - ta bes - - te - - kin

bi fun - tzen di - - tu - gu par - te

de - si - o - ek, pa - si - - o - ek

be - ren a - ran rza da kar - te

ne - ri e - re ha - re - - ma - nan

15 lo - ra bi - hur - tu zait ku - te

17 e - zin da i - nor be - har - tu

19 i - nor de - rri - go - rez mui - te

21 lu - tre - na - mak za - bal behar du

23 be - re - au - ke - ra ta a - te

25 Ha - la ko dis - kur - so - ak mait

27 e - gi - ten ni - lün gaur ar - te

29 nik a - tzi i - zan der bai - na

31 gaur ol - diz ni u - tzi nai - te

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAREN HISTORIA

1935-01-20 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarateek antolatu zuten. Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen eta Basarrik eskuratu zuen txapela.

1936-01-19 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarateak antolatuta, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. Txirrita izan zen Txapeldun.

1960-12-18 Lehen aldiz Euskaltz aindiak antolatu zuen. Finaleko ekitaldia Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen eta Basarrik jantzi zuen txapela.

1962-12-30 Euskaltzaindiak antolatu zuen. Uztapide izan zen txapeldun Donostiako Astorian jokatu zen finalean.

1965-01-01 Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia eta bigarren aldiz Uztapide izan zen txapeldun.

1967-06-11 Euskaltzaindiak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta pilotalekuan eman zitzaion amaiera txapelketari, hirugarren aldiz Uztapidek irabazi zuen.

1980-01-06 Euskaltzaindiak antolatu zuen laugarrena, Donostiako Balda pilotalekuan egin zen finala eta Xabier Amurizak eskuratu zuen txapela.

1982-12-20 Euskaltzaindiak antolatuta, Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen azken ekitaldia eta Xabier Amuriza izan zen txapeldun.

1986-03-23 Lehen aldiz Bertsolari Elkarateak antolaturik, Donostiako belodromoan egin zen finala eta Xebastian Lizaso izan zen txapeldun.

1989-12-17 Bertsolari Elkarateak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Jon Lopategik eskuratu zuen txapela.

1993-12-19 Bertsozale Elkarateak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan eman zitzaion amaiera txapelketari. Andoni Egañak irabazi zuen.

1997-12-14 Bertsozale Elkartek antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Andoni Egaña izan zen txapeldun, bigarrenenez.

2001-12-16 Bertsozale Elkartek antolatutako bosgarren finala, Andoni Egaña izan zen irabazle Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finalean.

2005-12-18 Bertsozale Elkartek antolatu zuen eta lehen aldiz Barakaldon izan zen finala, Bilbao Exhibition Centerren. Laugarren aldiz Andoni Egaña izan zen txapeldun.

2009-12-13 Bertsozale Elkartek antolatuta Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren izan zen finala. Maialen Lujanbio izan zen irabazle.



Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

TXAPELKETAREN EGITURA

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko sustapen sailak proposatu eta Zuzendaritza Batzordeak onartzen du Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013 egitasmoaren talde antolatzailea eta talde teknikoak. Hona hemen, atalez atal:

TALDE ANTOLATZAILEA ETA TALDE TEKNIKOAK

Arduradunak: Jokin Castaños eta Xabino San Sebastian

Antolakuntza batzordeko kideak:

Jon Agirresarobe Lopetegi	Koordinazioa
Aritz Zerain Miner	koordinazioa eta finantzak
Estibalitz Esteibar Iriondo	Komunikazioa
Gontzal Agote Los Santos	Komunikazioa
Unai Elizasu Lertxundi	Komunikazioa
Oihana Aranburu Balerdi	Komunikazioa
Olatz Mitxelena Garmendia	Komunikazioa
Eneritz Urkola Agirrezabala	Hedabideak
Asier Lafuente Ruiz de Sabando	Araba
Jone Narbaiza Gallastegi	Bizkaia
Edurne Soraluze Urretabizkaia	Gipuzkoa
Mari Karmen Albizu Mitxelena	Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoa
Lorea Arburua Amorena	Nafarroa
Jon Zaldua Brit	Gai-jartzaile taldea
Karlos Ibarguren Olalde	Epaile taldea
Mikel Mariskal Balerdi	Lanku
Nerea Goñi Begiristain	Administrazioa

Aurkezle eta gai-jartzaile taldea

Alaitz Rekondo Ferrero	Lesaka
Amaiur Lujanbio Agirre	Baiona
Bernar Mandaluniz Plaza	Atxuri
Fernando Anbustegi Goñi	Elizondo
Idoia Beitia Izurrategi	Markina-Xemein
Iker Iriarte Iribar	Alegia
Inazio Usarralde Aranzadi	Lazkao
Joana Itzaina Malharin	Itsasu

Ion Zaldua Brit	Amasa-Villabona
Leire Aurrekoetxea Arkotxa	Bilbo
Maite Berriozabal Berrizbeitia	Berriz
Olatz Bayer Zabala	Bilbo
Saroi Jauregi Aiestaran	Zaldibia
Unai Elizasu Lertxundi	Altza
Zuriñe Iarritu Azpitarte	Bilbo

Epaile taldea

Aitor Jimenez Tolosana	Bilbo
Ekaitz Elorriaga Anduaga	Gasteiz
Eneko Bidegain Aire	Baiona
Eneritz Azkue Basurko	Mutriku
Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa	Bilbo
Jon Abril Olaetxea	Bera
Josu Telleria Uriarte	Bilbo
Jurgi Fuentes Goikoetxea	Mungia
Karlos Ibarguren Olalde	Oiartzun
Martin Aramendi Arana	Ataun
Mikel Beaumont Arizaleta	Iruñea
Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras	Aretxabaleta
Mikel Lersundi Ayestaran	Errenteria
Mirari Azula Aurrekoetxea	Lekeitio
Nerea Bruño Artazkoz	Atarrabia

Idazkariak

Joxe Mari Altuna Berridi	Donostia
Nerea Goñi Begiristain	Donostia
Miren Itziar Basterretxea Olarreaga	Ondarroa
Edurne Soraluze Urretabizkaia	Zaldibia
Lorea Arburua Amorena	Elizondo

BERTSOLARIEN LANAK

Final-laurdenetan

(15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalurrekoetan

Lehen itzulian

(15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean¹.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Bigarren itzulian

(15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finala

Goizean

(14 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean².

Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

1 Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera, "berdinaren moldeko sei puntukoa" esaten zaio sei puntuko motzari.

2 Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera, "berdinaren moldeko sei puntukoa" esaten zaio sei puntuko motzari.

Arratsaldean

(9 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoa

(10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Kartzelako lana:

Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian³.

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

EGUTEGIA

Kanporaketak

Irailak 29, igandea, Amasa-Villabona

Urriak 5, larunbata, Markina-Xemein

Urriak 12, larunbata, Hendaia

Urriak 13, igandea, Altsasu

Urriak 19, larunbata, Legazpi

Urriak 26, larunbata, Oion

Behar-Zana pilotalekua.

Udal pilotalekua

Beltzenia pilotalekua.

Burunda pilotalekua.

Urbeltz pilotalekua.

Arroyo I pilotalekua.

Finalaurrekoak

Azaroak 9, larunbata, Gernika

Azaroak 10, igandea, Tolosa

Azaroak 16, larunbata, Oiartzun

Azaroak 17, igandea, Murgia

Jai Alai pilotalekua.

Usabal kiroldegia.

Elorsoro kiroldegia.

Palatu kiroldegia.

Azaroak 23, larunbata, Elizondo

Azaroak 24, igandea, Donostia

Azaroak 30, larunbata, Maule

Baztan pilotalekua.

Gaska kiroldegia.

Ororena pilotalekua.

Finala

Abenduak 15, igandea, Barakaldo.

BEC.

³ Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera, "Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz" deitzen zaio bederatziko txikiari Hegoaldean, eta "bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa" Iparraldean.

TXAPELKETA OSOAN ZEHAR PARTE HARTU DUTENAK

Zerrenda honetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2013 egitasmoan parte hartu edo hartzeko ahalegina egin duten bertsolari guztiak daude. Beltzez azpimarratuta daude finalista legez eskubidea baliatu dutenak eta herrialdeko txapelketa bidez txartela lortu dutenak.

ARABA

Ainhoa Comas Muguruza	Amurrio
Ander Solozabal Kortabarria	Gasteiz
Andere Arriolabengoa Bengoa	Aramaio
Asier Otamendi Alkorta	Gasteiz
Beitto Martinez Kortabitarte	Izarra
Beñat Oribe Garmendia	Agurain
Felipe Zelaieta Txurruka	Gasteiz
Iker Olabarrieta Herran	Oion
Iker Pastor Rodriguez	Zalduondo
Iñaki Tena Aldekoa	Gasteiz
Iñaki Viñaspre Simon	Gasteiz
Irati Anda Villanueva	Gasteiz
Izar Mendiguren Cosgaya	Laudio
Jagoba Apaolaza Castro	Gasteiz
Jon Ruiz de Pinedo Lekuona	Zalduondo
Juan Mari Juaristi Balenziaga	Gasteiz
Maialen Saez de Okariz Ruiz de Sabando	Gasteiz
Maria Izaga Agirre	Aramaio
Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Oihane Perea Perez de Mendiola	Zalduondo
Orlando Arreitunandia Arinas	Bastida
Paula Amilburu Izagarai	Aramaio
Rikardo Gz. De Durana Alzola	Gasteiz
Ruben Sanchez Bakaikoa	Gasteiz
Serapio Lopez Ortueta	Baranbio
Unai Bengoetxea Mujika	Oion
Unai Mendibil Etxebarria	Amurrio
Xabi Igoa Eriz	Aramaio

Xabi Lopez de Santiago Murua
Xabi Rico Iturrioz
Zigor Enbeita Zugadi

Gasteiz
Gasteiz
Abornikano

BIZKAIA

Aitor Arrizubieta Egaña
Aitor Arrutia Azkueta
Ander Elortegi Garatea
Ander Salaberria Alberdi
Arkaitz Estiballes Ormaetxea
Arrate Illaro Etxabarria
Asier Legarreta Legarreta
Beñat Ugartetxea Ostolaza
Ekaitz Larrazabal Gutierrez
Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"
Eñaut Uruburu Martinez
Etxahun Lekue Etxebarria
Fredi Paia Ruiz
Garikoitz Sarriugarte Onaindia
Gorka Ostolaza Ikarán
Gorka Lazkano Arrizubieta
Ibon Ajuriagogeaskoa Garmendia
Igor Elortza Aranoa
Iker Belaustegi Oar
Imanol Uria Albizuri
Inazio Vidal Gurrutxaga
Iñaki Iturrioz Zuluaga
Iratxe Ibarra Foruria
Itxaso Paia Ruiz
Jon Barrocal Besga
Jone Larrinaga Dañobeitia
Jone Uria Albizuri
Joseba Artza Zubillaga
Josu Gotzon Landeta Egurrola
Julen Erezuma Arzanegi
Malen Amenabar Larrañaga

Lekeitio
Artzentales
Gernika-Lumo
Durango
Galdakao
Getxo
Meñaka
Zornotza
Getxo
Iurreta
Abadiño
Larrabetzu
Getxo
Zaldibar
Markina-Xemein
Iurreta
Gernika-Lumo
Durango
Munitibar
Getxo
Leioa
Igorre
Markina-Xemein
Getxo
Trapaga
Mungia
Getxo
Etxebarri
Getxo
Gernika-Lumo
Larrabetzu

Miren Amuriza Plaza

Nerea Ibarzabal Salegi
Txaber Ormazabal Villanueva

Oihana Bartra Arenas

Onintza Enbeita Maguregi

Peio Ormazabal Villanueva
Peru Vidal Gurrutxaga
Xabat Galletabeitia Abaroa
Xabier Enbeita Ibarra
Unai Iturriaga Zugaza- Artaza
Unai Ormaetxea Zenikazelaia

GIPUZKOA

Adur Gorostidi Urkia

Agin Laburu Rezola

Ainhua Agirreazaldegi Rekondo

Ainhua Mujika Mendia

Aitor Mendiluze Gonzalez

Aitor Sarriegi Galparsoro

Aitor Urbietia Aizpurua

Alaia Martin Etxebeste

Amaia Agirre Arrastoa

Amaia Iturriotz Etxaniz
Ander Lizarralde Jimeno
Andoni Goitia Etxezarreta
Andoni Otamendi Arsuaga
Ane Labaka Mayoz

Antton Fernandez Lasa

Arkaitz Oiartzabal Agirre

Arnaitz Lasarte Santa Kruz

Asier Azpiroz Iztueta

Asier Sasieta Barrenetxea

Beñat Alberdi Igartua

Beñat Gaztelumendi Arandia

Beñat Iguaran Amondarain

Beñat Lizaso Alberdi

Berriz

Markina-Xemein

Arrigorriaga

Bilbo

Muxika

Arrigorriaga

Leioa

Lekeitio

Gernika-Lumo

Durango

Zornotza

Abaltzisketa

Astigarraga

Zarautz

Beasain

Irura

Beasain

Zarautz

Oiartzun

Amasa- Villabona

Urretxu

Oiartzun

Oñati

Lasarte

Lasarte

Urretxu

Oiartzun

Hernani

Zubieta

Ezkio-Itsaso

Oñati

Añorga

Amasa- Villabona

Azpeitia

Egoitz Eizagirre Aduriz
Eñaut Uriarte Palacio
Endika Igazabal Murua
Eneritz Arzallus Alustiza

Felix Zubia Olaskoaga

Gorka Azkarate Torner
Gorka Etxeberria Casqueiro
Gorka Maiz Alustiza
Haritz Casabal Pikabea
Ibai Esoain Arruti

Iban Urdangarin Lardizabal

Iker Osa Zelaia

Iker Zubeldia Katarain

Imanol Lizarazu Illarramendi

Iñaki Apalategi Astigarraga

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi

Iñaki Zelaia Irazusta

Iñigo Gorostarzu Etxebeste

Iñigo Izagirre Urteaga

Iñigo Mantzizidor Larrañaga “Mantxi”

Iosu Igartua Igartua

Jexux Mari Irazu Muñoa

Jokin Labayen Iraeta

Jokin Uranga Isuskiza

Jon Maia Soria

Jon Martin Etxebeste

Joseba Andoni Agirre Orbegoza

Joseba Barandiaran Andueza

Josu Oiartzabal Iturzaeta

Josu Oiartzabal Zapiain

Joxe Munduate Apalategi

Julen Agirre Agirrezabal

Julen Agirreburualde Malara

Maialen Lujanbio Zugasti

Maialen Velarde Mujika

Manex Mantxola Urrate

Manex Mujika Amunarriz

Orio

Bergara

Gabiria

Errezil

Zarautz

Zumarraga

Donostia

Gabiria

Pasaia

Orio

Ataun

Hernani

Zegama

Igeldo

Beasain

Orio

Hernani

Berastegi

Itziar

Zarautz

Oñati

Larraul

Arrasate

Azpeitia

Zumaia

Oiartzun

Azkoitia

Legazpi

Azpeitia

Errenteria

Ataun

Beasain

Legazpi

Hernani

Zumaia

Urretxu

Donostia

Manu Goiogana Bengoetxea
Mikel Arrillaga Bereziartua
Mikel Artola Izagirre
Mikel Olaizola Oñederra
Nahikari Gabilondo Mendizabal
Nekane Zinkunegi Barandiaran

Nerea Elustondo Plazaola

Odei Lopez Larrauri
Oier Aizpurua Olaizola
Oier Aranzabal Etxebarria
Oihana Iguaran Barandiaran

Unai Agirre Goia

Unai Gaztelumendi Arandia
Unai Muñoz Amundarain
Urko Egaña Calderon
Uxue Alberdi Estibaritz
Xabier Astigarraga Pagoaga
Xabier Sukia Etxeberria
Zigor Iriondo Iartza

Irun
Eibar
Alegia
Elgoibar
Zarautz
Errezil
Legazpi
Legorreta
Zarautz
Zarautz
Amasa- Villabona

Hernani

Añorga
Lasarte
Oñati
Elgoibar
Mutriku
Orio
Lasarte

LAPURDI, BAXE NAFARROA ETA ZUBEROA

Amets Arzallus Antia

Battitt Crouspeyre
Bixente Hirigarai
Egoitz Zelaia Perez

Eneritz Zabaleta Apaolaza

Gillen Hiribarren Erdozaintzi-Etxart
Maddi Ane Txoperena Iribarren

Maddi Sarasua Laskarai

Maindi Murua Berra

Odei Barroso Gomila

Ortzi Idoate
Ortzi Murua Berra
Ramuntxo Christy Bizcay

Sustrai Colina Acordarrementeria

Xan Alkhat Bidegain
Xumai Murua Berra

Hendaia

Baigorri
Baigorri
Hendaia

Baiona

Itsasu
Hendaia

Itsasu

Azkaine

Urruña

Baiona
Azkaine
Aiherra

Urruña

Armendaritze
Azkaine

NAFARROA

Aimar Karrika Iribarren

Ainhoa Aranburu Puente
Alazne Untxalo Erregerena
Amaia Elizagoien
Ander Fuentes Mujika “Itturri”
Aritz Saragueta Iturbe
Egoitz Gorosterrazu Elizagoien
Ekaitz Astiz Martinez
Eneko Fernandez Maritxalar
Eneko Lazkoz Martinez

Erika Lagoma Pombar

Haizea Beruete Lopetegi
Iban Garro Alzuri
Iker Gorosterrazu Elizagoien
Iñaki Aleman Etxenike
Iñigo Olaetxea Altzugarai
Ioar Tainta Noble
Jon Barberena Ibarra
Josu Sanjurjo Alzuri
Joxema Leitza Razkin
Julen Zelaieta Iriarte

Julio Soto Ezkurdia

Miel Mari Elozegi Irurtia “Luze”
Oier Lakuntza Irigoien
Oskar Estanga Ezkurdia
Oskar Sanz de Acedo Pollan
Patxi Castillo Graciarena
Saioa Alkaiza Guallar
Unai Uberetagoena Oiartzabal
Xabier Maia Etxeberria
Xabier Silveira Etxeberria

Auritz

Iruñea
Ituren
Oronoz
Zubieta
Betelu
Ituren
Iraizotz
Lesaka
Etxarri

Lesaka

Iruñea
Lesaka
Ituren
Irurita
Lesaka
Lesaka
Elizondo
Lesaka
Arbizu
Bera

Gorriti

Leitza
Iruñea
Gaintza
Iruñea
Bera
Antsoain
Iruñea
Elizondo
Lesaka

		Finala	Finalaurrekoak	Kanporaketak
1	Amets Arzallus Antia	1737.50	1436.50	Zuzenean sailkatua
2	Maialen Lujanbio Zugasti	1686.50	Zuzenean sailkatua	Zuzenean sailkatua
3	Igor Elortza Aranoa	1164.00	1425.00	Zuzenean sailkatua
4	Aitor Mendiluze Gonzalez	1155.00	1383.00	Zuzenean sailkatua
5	Aitor Sarriegi Galparsoro	1106.00	1362.00	Zuzenean sailkatua
6	Unai Iturriaga Zugaza-Artaza	1099.00	1374.00	Zuzenean sailkatua
7	Beñat Gaztelumendi Arandia	1099.00	1392.50	Zuzenean sailkatua
8	Sustrai Colina Acordarrementeria	1082.50	1401.50	Zuzenean sailkatua
9	Unai Agirre Goia		1362.00	650.50
10	Alaia Martin Etxebeste		1341.50	653.00
11	Iñigo Mantzizidor Larrañaga 'Mantxi'		1331.00	632.50
12	Jexux Mari Irazu Muñoa		1328.00	666.50
13	Jokin Uranga Isuskitza		1325.50	637.00
14	Jone Uria Albizuri		1319.50	677.00
15	Agin Laburu Rezola		1298.00	679.00
16	Etxahun Lekue Etxebarria		1288.50	638.00
17	Jon Martin Etxebeste		1282.00	654.00
18	Fredi Paia Ruiz		1279.00	631.50
19	Julio Soto Ezkurdia		1259.50	653.00
20	Amaia Agirre Arrastoa		638.00	642.50
21	Nerea Elustondo Plazaola		633.50	639.50
22	Jon Maia Soria		623.00	Zuzenean sailkatua
23	Xabier Silveira Etxeberria		622.50	652.50
24	Odei Barroso Gomila		620.50	632.00
25	Beñat Lizaso Alberdi		592.50	643.00
26	Miren Amuriza Plaza			628.50
27	Iratxe Ibarra Foruria			627.50
28	Onintza Enbeita Maguregi			623.00
29	Erika Lagoma Pombar			622.50
30	Iñaki Zelaia Irazusta			611.00
31	Felix Zubia Olaskoaga			610.00
32	Iker Zubeldia Katarain			607.50
33	Oihane Perea Perez de Mendiola			602.00
34	Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo			600.50
35	Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"			599.50
36	Eneko Fernandez Maritxalar			598.00
37	Iñaki Apalategi Astigarraga			596.00
38	Eneritz Zabaleta Apaolaza			595.00
39	Iban Urdangarin Lardizabal			591.00
40	Oihana Bartra Arenas			587.00
41	Maddi Sarasua Laskarai			579.00
42	Manex Agirre Arriolabengoa			578.00
43	Beñat Ugartetxea Ostolaza			577.50

